No tiene credibilidad ni autoridad moral ante la sociedad quien denuncia el alejamiento de las personas encarceladas y la tortura, pero omite cualquier condena cuando se atenta contra la vida o la libertad de nuestros semejantes. Y tampoco puede dar lecciones de comportamiento ético quien puede llegar a justificar la utilización ilegítima de la violencia y del asesinato para luchar contra el terrorismo o quien no condena la dictadura franquista.

Jarraian, etorkizuna eraikitzeko lau konpromiso azalduko ditut, hain zuzen ere, euskal gizartearekin hartu dudan konpromiso pertsonal eta politikoa osatuko dutenak.

Lehen konpromisoa, pertsona guztien bizitza, giza eskubide eta askatasunarekiko konpromiso etikoa da. Eta atal hau hasi nahi dut indarkeria terroristaren biktima izan direnen familia guztiak –eta batik bat, su-etena bukatu zenetik ETAk hil dituen 31 pertsonen familiak– gogoraraziz. Hemendik beraien mina eta sufrimenduarekin bat egin nahi dut eta nire elkartasun pertsonala eta euskal erakundeena adierazi nahi diet. Zentzu honetan, aipamen berezi bat egin nahi diot Fernando Buesari, aurreko legegintzaldiko Legebiltzarrean lankide eta Alderdi Sozialistaren bozemaile izan baikenuen.

Gure herriaren etorkizuna ezin da heriotza, hilketa eta pertsonen zapalketan oinarritu. Bizitza ondasun goren eta oinarrizkoena da. Inork ez du inongo arrazoirik bizitza mozteko, eta are gutxiago Euskal Herriaren izenean.

Konpromiso etiko hau elkarbizitzarako oinarrizko printzipio bat da, eta bakoitzak defenda ditzakegun legezko desadostasun eta sentsibilitate politikoen gainetik dago. Horretan ez dago zalantzarik. Horretan ez da ez Gobernurik ez oposiziorik egon behar. Nik ez dut inoiz izan, eta ez dut izango ere, inongo desadostasunik edozein alderdi edo ordezkari politikorekin pertsonen giza eskubideak hausten dituztenak gaitzesteko, gaitzespen hori datorrenetik datorrela ere.

Hori izan da eta aurrerantzean ere hori izango da nire lehenengo helburua, nire oinarrizko lehentasuna euskaldun eta demokrata gisa. Atzera pauso bat bera ere ez indarkeria eta terrorismoaren biktimekin elkartasuna adieraztean. Atzera pauso bat bera ere ez pertsona guztien giza eskubide eta askatasunaren defentsan.

Eta azkeneko hori azpimarratu nahi dut: pertsona guztiena. Zeren pertsona guztiek, baita delituak egin dituztenek ere, eskubideak dituzte eta botere publikoek errespetatu, defendatu eta bermatu egin behar ditugu eskubide horiek.

Hemen ez dago gezurrezko distantziakidetasunik. Giza eskubideen defentsak ez ditu neurtzeko bi makila. Ezin dugu fariseismo politikoan erori eta giza eskubideen indarkeria kasu batzuetan salatu eta beste batzuetan, interesatzen zaigunean, beste aldera begiratu.

Gizartearen aurrean ez du sinesgarritasunik, ezta aginte moralik ere, kartzelan dauden pertsonen urrutiratzea nahiz tortura salatzen dituenak, baina gu bezalakoak direnen bizitza edo askatasunaren aurka eraso egiten denean inolako salaketarik egiten ez duenak. Halaber, ezin du portaera etikoaz eskolarik eman terrorismoaren aurka borroka egiteko indarkeria eta hilketaren ezlegezko erabilera justifikatzen duenak edo frankismoaren garaiko diktadura salatzen ez duenak.

Los derechos humanos les corresponden a todas las personas sin distinción, por el mero hecho de serlo, y los representantes políticos debemos mostrar públicamente nuestro compromiso de respetar y defender los derechos y libertades de todos los seres humanos.

Siendo éste un principio ético universal, no podemos olvidar que ETA es hoy en día el principal responsable de la conculcación de los derechos humanos y de la libertad en nuestra sociedad. ETA nos tendrá enfrente, no sólo porque la violencia es ética y moralmente condenable, sino porque además no respeta la voluntad de la inmensa mayoría de este pueblo que le exige el abandono definitivo de la lucha armada.

Mi prioridad será siempre, y por encima de todo (por encima de todo), el compromiso ético con la vida y con la defensa de la libertad y la seguridad de todas las personas. Para el desarrollo y materialización de este compromiso, de este "sí a la vida", es mi intención impulsar una serie de iniciativas que se irán materializando a lo largo de la legislatura tanto en el ámbito político y social como en el ámbito policial.

Ámbito político y social. Entre las iniciativas a poner en marcha en este ámbito quiero adelantarles las siguientes.

Primera, impulsar un manifiesto ético de carácter institucional que constituya un referente político y social de actuación y comportamiento frente a la violencia y que contemple el respeto escrupuloso a los derechos humanos y libertades de todas y cada una de las personas sin distinción; el compromiso de defensa activa y de solidaridad con todas las personas que han sufrido y sufren la violencia y el terrorismo y cualquier amenaza a su integridad física, a su libertad y a su seguridad; el rechazo más rotundo a todo tipo de violencia y extorsión y la exigencia a ETA de que abandone definitivamente las armas y deje en manos de la sociedad vasca la solución de nuestros problemas, y nuestra disposición a desarrollar cuantas iniciativas contribuyan a erradicar todo tipo de violencia y crear las condiciones necesarias para lograr una convivencia en paz y en libertad.

Segunda iniciativa: profundizar en la solidaridad activa con las víctimas del terrorismo. Se potenciará la Oficina de Atención a las Víctimas del Terrorismo. En este sentido, se consignará una dotación presupuestaria extraordinaria en los Presupuestos Generales de la Comunidad para establecer una infraestructura permanente dotada del personal adecuado, que permita una atención más cercana y directa a las familias de las víctimas del terrorismo y a las personas que sufren cualquier tipo de violencia, chantaje, extorsión o persecución.

Y se impulsará además por parte del Gobierno una comisión permanente de atención, apoyo y asistencia a las víctimas del terrorismo, abierta a la participación de sectores sociales y religiosos, movimientos cívicos y representantes políticos, para que canalicen y propongan acciones conjuntas que permitan proyectar la solidaridad de la sociedad vasca y el reconocimiento ético, moral y material a las víctimas del terrorismo.

Giza eskubideak inongo bereizketarik gabe pertsona guztiei dagozkie, pertsonak izateagatik besterik gabe, eta ordezkari politikook gizaki guztien eskubide eta askatasunak errespetatu eta defendatzeko gure konpromisoa jende aurrean erakutsi behar dugu.

Hori konpromiso etiko unibertsala denez, ezin dugu ahaztu ETA dela gaur egun gure gizartean giza eskubideak eta askatasuna urratzearen erantzule nagusia. ETAk aurrean izango gaitu, ez bakarrik indarkeria etikoki eta moralki salatzekoa delako, gainera, borroka armatua behin betiko uzteko eskatzen dion herri honetako gehiengoaren borondatea errespetatzen ez duelako.

Nire lehentasuna beti izango da, –eta gauza guztien gainetik–, pertsona guztien bizitza eta askatasunaren defentsa eta seguritatearekin konpromiso etikoa. Konpromiso hau garatzeko eta gauzatzeko, legegintzaldian zehar ekimen batzuk bultzatzeko asmoa dut, bai arlo politikoan eta sozialean baita arlo polizialean ere.

Arlo politiko eta soziala. Arlo honetan martxan jarri behar ditudan ekimenen artean, jarraian datozen hauek aurreratu nahi dizkizuet.

Lehenengoa, erakundearteko adierazpen etiko bat bultzatzea, indarkeriaren aurkako jokaera eta portaeraren erreferente politiko eta soziala izan dadin, honako hauek kontenplatuz: Inongo desberdintasunik gabe, pertsona bakoitzaren eta guztien giza eskubideak eta askatasuna arduratsu errespetatzea. Indarkeria eta terrorismoa eta bere osotasun fisikoa, askatasuna eta seguritatearen kontrako mehatxuak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guztiak eraginkor defendatzea eta horiei elkartasuna adieraztea. Edozein motatako indarkeria eta estortsio gaitzestea, eta ETAri armak behin betiko utz ditzala eta gure arazoen konponbidea euskal gizartearen esku utz dezala eskatzea. Indarkeria-mota guztiak kentzeko behar besteko ekimenak garatzea eta elkarbizitza bakean eta askatasunean lortzeko behar diren baldintzak sortzea.

Bigarren ekimena: Terrorismoaren biktimekin elkartasun aktiboan sakontzea. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa sustatuko da. Horretarako, EAEko aurrekontu orokorretan aurrekontu-dotazio berezi bat esleituko da pertsona egokiez osatutako azpiegitura bat ezartzeko. Bulego honen bitartez, indarkeria, txantajea, kaltea edo pertsekuzioa jasaten duten terrorismoaren biktimen familiei emango zaien atentzioa hurbilagoa eta zuzenagoa izango da.

Eta Jaurlaritzak atentzio, laguntza eta asistentzia batzorde iraunkorra bultzatuko du terrorismoaren biktimentzako, sektore sozialei, erlijiozkoei, mugimendu sozialei eta ordezkari politikoei irekia, euskal gizartearen elkartasuna eta terrorismoaren biktimei errekonozimendu etikoa, morala eta materiala proiektatzea bideratzeko.

Tercera iniciativa: promover la defensa activa de los derechos humanos y libertades de todas las personas. En este sentido, se impulsará un observatorio que vele por la defensa de los derechos humanos y de las libertades de todas las personas. Este observatorio, en mi opinión, debería tener un carácter mixto, y contar entre sus miembros con responsables de todos los departamentos e instituciones implicadas, así como con representantes de la Judicatura, la Universidad, la Iglesia y movimientos cívicos y pacifistas. Desde este organismo se atenderá la defensa de aquellos colectivos que sufren especialmente la violencia física y psicológica que degrada los valores éticos de una sociedad.

Como lehendakari, es mi intención solicitar el diseño de este proyecto a una persona u organismo de reconocido prestigio en la defensa de los derechos humanos y las libertades, con el objetivo de lograr el máximo consenso sobre el mismo antes de su aprobación y puesta en marcha efectiva.

Cuarta iniciativa: involucrar a la sociedad vasca en el compromiso ético con los derechos humanos. A este respecto, es mi intención impulsar una campaña permanente de información y sensibilización social que propicie, especialmente entre los jóvenes, la cultura de la no violencia, el respeto a los derechos humanos y la defensa de la justicia como valores fundamentales para la convivencia entre los pueblos.

Segundo ámbito de este compromiso ético, el ámbito policial. El desarrollo de la política de seguridad contra el terrorismo en cualquiera de sus manifestaciones es uno de los pilares fundamentales del compromiso ético con la defensa de la vida y de los derechos humanos. Creo que ha llegado el momento de superar las heridas y fracturas que, sin duda, han dejado las constantes y terribles acusaciones de connivencia con la violencia, hechas a un gobierno legítimo y democrático o a fuerzas políticas que acreditan en su historia un firme y permanente compromiso por la libertad.

Especiales consecuencias han tenido estas manifestaciones respecto a la Ertzaintza, con el agravante de que la crítica permanente sobre su eficacia se arrastra desde hace muchos años. El compromiso de las instituciones vascas, y especialmente de la Ertzaintza, en la lucha contra el terrorismo debe quedar definitivamente fuera de toda duda, y debe ser correspondido con la misma lealtad con que las instituciones vascas actúan respecto a las instituciones del Estado en esta materia.

Quiero reiterar una vez más la inequívoca voluntad del Gobierno de perseguir con toda firmeza todo tipo de violencia y detener a quienes atentan contra la libertad y seguridad de las personas. En este sentido, vamos a continuar intensificando permanentemente las medidas policiales y de seguridad para adaptar la actuación de la Ertzaintza a los nuevos escenarios de lucha contra ETA y a las nuevas formas de violencia callejera. A estos efectos, el Gobierno desarrollará tres bloques de medidas.

Primer bloque, incrementar la coordinación con el Estado. Se desarrollarán los trabajos de la Comisión de Seguridad creada el pasado año a iniciativa del Gobierno

Hirugarren ekimena: pertsona guztien giza eskubideen eta askatasunen defentsa aktiboa sustatzea. Pertsona guztien giza eskubide eta askatasunak zainduko dituen behatoki bat bultzatuko da. Behatoki honek, nire iritzian, izaera mistoa izan beharko luke eta bere kideen artean Sail guztietako eta parte hartzen duten erakunde guztietako arduradunak izan beharko lituzke, baita Epailetza, Unibertsitate, Eliza eta hiri eta bakearen aldeko mugimenduetan parte hartzen duten kideak ere. Erakunde honetan indarkeria fisikoa eta psikologikoa bereziki jasaten duten taldeei laguntza emango zaie, gizarte baten balore etikoak degradatzen baititu indarkeriak.

Lehendakari legez, nire asmoa da proiektu horren diseinua eskatzea giza eskubide eta askatasunen aldeko defentsan ezaguna den pertsona edo erakunde bati, adostasunik handiena lortzeko asmoz bai proiektua onartu aurretik bai martxan jarri aurretik.

Laugarren ekimena: euskal gizartea giza eskubideen aldeko konpromiso etikora ekartzea. Gai honen inguruan, asmoa dut gizarte informatu eta sentsibilizatzeko kanpaina iraunkor bat bultzatzeko, batez ere, gazteen artean, indarkeria-ezaren kultura, giza eskubideen errespetua eta justiziaren aldarrikapena izan daitezen herrien arteko elkarbizitzarako oinarrizko balioak.

Konpromiso etiko honen bigarren eremua: eremu poliziala. Biziaren eta giza eskubideen aldeko konpromiso etikoaren oinarrizko zutabeetako bat indarkeri mota guztien aurkako segurtasun-politika garatzea da. Uste dut iritsi dela garaia, Gobernu bidezko eta demokratiko bati, edo euren historian zehar askatasunaren aldeko konpromiso irmo eta etengabea erakutsi duten indar politikoei, indarkeriarekin bat etortzea etengabe leporatzeak sortutako zauriak sendatu eta hausturak gainditzeko.

Ondorio bereziak izan dituzte salaketok Ertzaintzari dagokionez, bere eraginkortasuna zalantzan jartze hori urte askotako kontua izan da, gainera. Indarkeriaren aurkako borrokan Euskadiko erakundeek duten konpromisoa, eta bereziki Ertzaintzak duena, edozein zalantzaizpirik gabekoa behar du izan, eta euskal erakundeek gai honen inguruan Estatuko erakundeekin jokatzen duten leialtasun-maila berbera behar litzateke Ertzaintzarekin.

Berriz adierazi nahi dut, Gobernuak borondate garbia duela indarkeria ororen aurka gogor jarduteko eta gizakien segurtasun eta askatasunaren aurka ari direnak atxilotzeko. Hori dela eta, neurri polizialak eta segurtasun-neurriak areagotzen jarraituko dugu etengabe, Ertzaintzaren jarduera ETAren aurkako borrokak dituen modu berrietara eta kale-borrokako ekintza-mota berrietara egokitzeko. Horretarako, Gobernuak hiru neurrimultzo hartuko ditu.

Lehen multzoa, Estatuarekiko koordinazioa indartu. Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, iazko urtean sortu zen Segurtasun Komisioaren lanei bultzada emango zaie, eta

Vasco, y se impulsará la colaboración mutua en las labores de vigilancia y escolta de cargos públicos y personas amenazadas, de conformidad también con el plan acordado a iniciativa de este Gobierno en la propia Junta de Seguridad.

Asimismo, demandamos la incorporación a todos los efectos al convenio Schengen, acordada por este Parlamento en fecha 19 de noviembre de 1999.

Y queremos impulsar la participación de la Ertzaintza en foros de cooperación policial entre España y Francia. Esta implicación operativa plena debe empezar con la incorporación de un enlace de nuestra Policía ante la Secretaría de Estado del Ministerio de Interior, pendiente de realizar desde que fue planteada por este Gobierno en marzo de 1998.

Segundo bloque, reforzar las unidades de información y su coordinación con la seguridad ciudadana. Lograr la máxima coordinación entre las unidades de información y las de seguridad ciudadana va a seguir siendo un objetivo prioritario de nuestra política de seguridad. A estos efectos, se promoverá el refuerzo de los puestos dedicados a información, garantizando su cobertura real, y se impulsará el desarrollo coordinado de planes ya diseñados de actuación policial en zonas territoriales concretas y en momentos y situaciones especiales.

En tercer lugar, y como tercer bloque, dimensionar adecuadamente los recursos policiales. Como principales actuaciones de futuro en esta materia, dirigidos a obtener una mejor disposición de los efectivos policiales, se procederá a analizar y elaborar un plan director de reorganización y dimensionamiento de unidades, a fin de obtener mejores *ratios* de prevención; a incrementar la plantilla de la Ertzaintza, claramente insuficiente, con los 150 efectivos acordados en la Junta de Seguridad del 20 de noviembre del año 2000 (abordamos además esta cuestión con total flexibilidad, planteando amortizaciones futuras de puestos en función de jubilaciones y otros mecanismos que permitan una adecuación de la plantilla según la evolución del propio fenómeno terrorista), y potenciar además también la coordinación preventiva con Policías locales en municipios de envergadura suficiente, conforme a experiencias-piloto ya desarrolladas en los últimos meses y que han ofrecido resultados positivos.

Este conjunto de medidas serán expuestas por el Consejero de Interior a los grupos parlamentarios de la manera más conveniente para garantizar la necesaria discreción y confidencialidad en una materia tan sensible como ésta.

Hasta aquí las primeras medidas de carácter político, social y policial que pretendemos llevar a cabo para garantizar el compromiso ético en defensa de la vida y de los derechos humanos y libertades de todas las personas.

El compromiso ético es el suelo que todos debemos compartir, es el primer paso de un camino que nos permita avanzar juntos en la búsqueda de nuevos espacios de encuentro para la normalización política y la convivencia.

kargu publikodunen eta mehatxatuta dauden guztien zainketa eta eskolta lan arloan lankidetza bultzatuko da, Gobernu honen ekimenez Estatuko Segurtasun Batzordearen baitan bertan erabakitakoarekin bat etorriz.

Horrez gain, Schengen-eko Itunean ondorio guztietarako sartzea eskatzen dugu, Legebiltzar honek 1999ko azaroaren 19an erabakitako eran.

Eta Espainia eta Frantziaren arteko lankidetza polizialeko foroetan Ertzaintzaren partehartzea bultzatu nahi dugu. Erabateko bategite operatibo hori lortzeko lehen urratsa Barne Ministerioko Estatu Idazkaritzarekin koordinazio lana egingo duen gure norbait izendatzea izango litzateke, Gobernu honek 1998ko martxoan planteatu zuenetik egiteke dagoen gauza.

Bigarren multzoa, informazio-atalak eta herritarren segurtasunerako atalekin duten lotura indartu. Gure segurtasun-politikaren helburu nagusietako bat informazio eta herritarren segurtasunerako atalen arteko koordinazio ahalik eta handiena lortzea izango da aurrerantzean ere. Izan ere, informazio-lanetan jarduteko lanpostuak indartzen saiatuko gara, lanpostuak era eraginkorrean betez, eta zonalde jakin batzuetarako eta une eta egoera berezietarako diseinaturik dauden polizi jardunerako planen garapen koordinatua bultzatuz.

Hirugarren multzoa, baliabide polizialei neurri egokia eman. Polizien banaketa egokiagoa lortzeko etorkizunean gauzatu beharreko ekimenen artean, hauek aurreikusten ditugu: Unitateen neurriratze eta berrantolaketarako plan nagusi bat landu eta prestatzea, prebentzioko ratio hobeak lortzeko; Ertzaintzaren plantila handitzea, argi baitago Segurtasun Batzordeak 2000ko azaroaren 20ko bileran onartu zituen 150 poliziak ez direla nahikoa. Arazo honi ikuspegi guztiz malgu batetik egingo diogu aurre, hau da, etorkizunean indarkeriak hartzen duen nondik norakoaren arabera, plantila egokitzen joateko prest baikaude, erretiroak eta beste mekanismo batzuk erabiliz horretarako, eta udalerri nahiko handietan udaltzaingoekiko prebentziozko koordinazioa bultzatzea, azken hilabeteetan emaitza oso onekin burutu diren esperientziez baliatuz.

Neurri-multzo hori Herrizaingo sailburuak aurkeztuko die Legebiltzarreko taldeei, hau bezalako gai batek behar duen diskrezio eta konfidentzialtasun osoa bermatzeko moduan.

Orain arte esan dudan guztia pertsona guztien biziaren, giza eskubideen eta askatasunaren aldeko konpromiso etikoa bermatzeko burutu nahi ditugun lehenengo neurri, politiko, sozial eta polizialak dira.

Konpromiso etiko horrek behar du izan guztiontzako abiapuntu. Normalkuntza politikorako eta elkarbizitzarako bide berriak bilatu behar horretan aurrera egiteko lehen urratsa baino ez da.

La verdadera grandeza de la democracia es la de hacer completamente injusto e inútil el recurso a la violencia, al chantaje y a la coacción para defender los proyectos políticos legítimos de cada cual en igualdad de condiciones, para que sea la propia sociedad la que decida por sí misma su propio futuro.

Segundo compromiso: compromiso político con el diálogo para alcanzar la paz y lograr la convivencia. Mi segundo gran compromiso es un compromiso inequívoco con el diálogo. El diálogo como instrumento, por un lado, para alcanzar la paz, y, por otro, como camino para afrontar la solución tanto del conflicto de normalización política como del de convivencia que sufre nuestra sociedad.

He dicho en numerosas ocasiones que la violencia no es una consecuencia necesaria de la existencia de un problema político. No lo es. Existen muchos lugares en los que, existiendo conflicto político como existe aquí, no hay violencia. Es por tanto necesario que diferenciemos la paz de la consecución de nuestros legítimos proyectos políticos. Pero, constatada esta separación entre paz y proyectos políticos, tenemos que hablar, y tenemos que hacerlo ya. No pueden existir tiempos muertos para el diálogo.

El enfrentamiento político que hemos tenido en el pasado reciente nos ha permitido arrojarnos argumentos, insultos y descalificaciones, pero nos ha impedido hablar. Nos hemos gritado, pero no nos hemos hablado. Ha pasado el momento del insulto verbal. Es el tiempo del diálogo político e institucional. Negar el diálogo es negar la solución. La renuncia al diálogo deja los problemas sin resolver.

Para ello, en mi opinión, es preciso propiciar el diálogo con iniciativas de distensión, de tolerancia democrática y de convivencia. A este respecto, el camino del diálogo debe cubrir una serie de etapas.

Una primera etapa de distensión. Distensión verbal, distensión política y distensión social, para recuperar la confianza hoy perdida entre nosotros. Tenemos que recomponer los puentes de relación personal que hemos ido rompiendo, antes de plantearnos cualquier iniciativa.

Una segunda etapa de tolerancia democrática. Partiendo de un compromiso ético compartido en defensa de la vida, tenemos que aprender a asumir con naturalidad, con tolerancia y con respeto los proyectos políticos de cada cual. Nadie puede poner como condición que los demás renuncien a su ideología o a sus proyectos políticos para establecer el diálogo. Nadie puede poner eso como condición.

No podemos criminalizar las ideas, no debemos seguir utilizando como armas arrojadizas conceptos y proyectos políticos legítimos. La Constitución, el Estatuto, la autodeterminación, la independencia, no son términos absolutos, inmutables, cerrados, inflexibles, sin matices. Sólo son eso: conceptos, ideas, instrumentos al servicio de la convivencia entre las personas y entre los pueblos, que deben ser reconocido como tales y, por lo tanto, susceptibles de ser respetados y de ser adaptados democráticamente.

Demokraziaren benetako handitasuna honetan datza: bakoitzaren proiektu politiko bidezkoak baldintza berdinetan defendatzean, gizartea bera izatean bere etorkizuna erabakitzen duena, indarkeria, txantajea eta bortxa erabiltzea guztiz bidegabea eta alferrikakoa izanik.

Bigarren konpromisoa: Bakea eta elkarbizitza lortzeko elkarrizketaren aldeko konpromiso politikoa. Nire bigarren konpromisoa, elkarrizketaren aldeko dudagabeko konpromisoa da. Elkarrizketa, alde batetik, bakea lortzeko tresna baita eta, bestetik, elkarrizketa bidea ere bai baita, gure gizarteak bizi duen normalizazio politikoaren eta elkarbizitzaren arazoa konpontzeko.

Askotan esan dut indarkeria ez dela gatazka politiko baten derrigorrezko ondorioa. Toki askotan gatazka politikoak izan arren, ez dago indarkeriarik. Bereizi egin behar ditugu, beraz, bakea eta gure bidezko proiektu politikoak erdiestea. Bakearen eta proiektu politikoen arteko bereizketa azaldu ondoren, hitz egin beharra dugu eta orain hitz egin behar dugu. Ezin da egon etenik elkarrizketarako.

Orain gutxi bai batzuek bai besteek komunikabideetan izan dugun liskar politikoan zehar irain eta deskalifikazio ugari jaurti diogu elkarri, baina ez dugu hitz egin. Elkarri oihuka ibili gara, baina ez dugu hitz egin. Irainen unea igaro da. Ekin diezaiogun elkarrizketa politiko eta instituzionalari. Elkarrizketari uko egitea irtenbideari uko egitea da. Elkarrizketari uko egiteak irtenbide gabe uzten ditu arazoak.

Horregatik, nire iritziz, behar beharrezkoa da elkarrizketa bultzatzea, distentsio, tolerantzia demokratiko eta elkarbizitzako ekimenen bidez. Ildo honetatik, elkarrizketen prozesu honetan zenbait etapa izango lirateke.

Distentsiorako lehenengo etapa bat. Hizketaren distentsioa, distentsio politikoa eta distentsio soziala, gure arteko konfiantza berreskuratzeko. Hausten joan diren harreman pertsonalak berreraikitzen joan beharra dago, edozein ekimen bultzatu aurretik.

Tolerantzia demokratikorako bigarren etapa bat. Bizitzaren aldeko guztien konpromiso etikotik abiatuta, bakoitzaren proiektu politikoak naturaltasunez, tolerantziaz eta errespetuz onartzen ikasi beharrean gaude. Inork ezin dio beste bati eskatu elkarrizketari ekin aurretik eta baldintza bezala bere ideologiari edo proiektu politikoei uko egiteko.

Ezin ditugu ideiak kriminalizatu. Ezin ditugu salaketa bezala erabiltzen jarraitu guztiz bidezkoak diren kontzeptu eta proiektu politikoak. Konstituzioa, Estatutua, burujabetza, independentzia, ez dira berba absolutuak, aldaezinak, itxiak, iraunkorrak, ñabardurarik gabeak. Gizakien eta herrien arteko elkarbizitzarako jarri beharreko kontzeptuak, ideiak, tresnak baino ez dira, eta hala ikusi behar ditugu, demokrazian errespetatu eta egokitzeko moduan.

Todos los proyectos políticos pueden ser planteables y realizables, todos los proyectos políticos pueden ser planteables y realizables siempre que se defiendan por vías exclusivamente pacíficas y se respeten escrupulosamente los procedimientos democráticos. Éste es un principio elemental de tolerancia democrática que todos tenemos que aceptar.

Una tercera etapa para propiciar la cultura de la convivencia. Es preciso reducir las barreras del diálogo, es necesario que pasemos de la cultura del enfrentamiento a la cultura de la convivencia o del entendimiento. Para ello tenemos que impulsar un diálogo multilateral, que tenga vocación de escuchar y de comprender las razones del otro; un diálogo incluyente, que no busque el aislamiento, sino la integración.

Tenemos que aprender a caminar juntos y a conjugar los verbos "compartir", "respetar", "colaborar" y "convivir", porque para construir la paz todos somos necesarios: partidos políticos, agentes económicos, organizaciones sindicales, movimientos sociales, Iglesia, Universidad y medios de comunicación. Todos podemos y debemos aportar nuestro granito de arena.

Hasta ahora hemos procurado desarrollar estas etapas utilizando diversos instrumentos políticos y sociales. En el pasado se ha intentado avanzar y conseguir la paz por medio de diferentes iniciativas, unas legítimas y otras no tanto. Mi propuesta solemne en esta sesión de investidura es que en esta nueva etapa pongamos al Parlamento Vasco, como máximo representante legítimo de la sociedad vasca, en el centro de las iniciativas para, por un lado, alcanzar la paz, y, por otro, conseguir la normalización política.

No necesitamos poner en marcha, inventarnos ningún foro nuevo. Utilicemos el que democráticamente conforma la voluntad de nuestra sociedad e iniciemos el camino. Para abrir este camino les anuncio mi intención de iniciar el próximo curso parlamentario planteando en septiembre un debate monográfico en relación con la pacificación y normalización política, y sobre el diálogo como instrumento para lograr la convivencia social.

Un pleno en el que todos pongamos las cartas boca arriba, sin tapujos, sin insultos, sin descalificaciones, en clave de tolerancia y respeto democrático. Hablemos claro entre nosotros, y hablemos claro también a la sociedad vasca. Porque la sociedad vasca tiene derecho a conocer cuál es el diagnóstico de partida del problema de la violencia y del conflicto político que tenemos cada cual; qué terapias, en función del diagnóstico, pretendemos aplicar; qué principios podemos compartir; qué procedimientos, en términos de diálogo, planteamos.

El objetivo de este primer Pleno, obviamente, no puede ser que logremos alcanzar un consenso sobre las cuestiones de fondo, pero al menos sí deberíamos ser capaces de articular instrumentos y establecer procedimientos que nos permitan seguir avanzando. Tan sólo eso: iniciar el camino y poner en marcha ideas que nos permitan seguir avanzando.

Proiektu politiko guztiak dira planteagarriak eta lortzeko modukoak, beti ere bake bideetatik defendatzen badira eta bide demokratikoak goitik behera errespetatzen badira. Guztiok onartu behar dugun tolerantzia demokratikoko oinarrizko printzipio bat da hori.

Hirugarren etapa. Elkarbizitzaren aldeko kultura bultzatzea. Premiazkoa da elkarrizketari jarritako oztopoak gainditzea. Borrokaren kulturatik elkarbizitzaren kulturara joan behar dugu. Horretarako alde guztien arteko elkarrizketa bultzatu beharrean gaude, besteen arrazoiak entzun eta ulertzeko. Denon arteko elkarrizketa, inor kanpoan uztea bilatu gabe, integrazioaren aldekoa.

Batera ibiltzen ikasi behar dugu elkar hartuz, errespetatuz, eta elkarlanean jardunez. Bakea eraikitzeko denok baikara beharrezkoak: alderdi politikoak, agente ekonomikoak, sindikatuak, gizarte-mugimenduak, Eliza, Unibertsitatea eta komunikabideak. Denok dugu zeresana.

Orain arteko etapa hauek tresna politiko eta sozial desberdinak erabiliz garatu ditugu. Lehenago ere, bakea bilatu izan da bide desberdinetatik, bidezko bideetatik kasu batzuetan eta ez hain bidezkoetatik beste batzuetan. Lehendakaria izendatzeko bilkura honetan egiten dudan zinezko proposamena hau da, jar dezagun Eusko Legebiltzarra, euskal gizartearen bidezko ordezkari gorena, batetik bakea eta bestetik normalkuntza politikoa lortzeko ekimen guztien erdian.

Ez dugu foro berri bat asmatzen ibili beharrik. Erabil dezagun gure gizartearen borondate demokratikoa ordezkatzen duen erakundea. Ekin diezaiogun bideari. Bide horri ekiteko, iragartzen dizuet asmoa dudala irailean eztabaida monografiko bat planteatzeko bakearen eta normalkuntza politikoaren inguruan eta baita ere elkarrizketak gizarte mailako elkarbizitza bilatzeko tresna moduan izan dezakeen balioaren inguruan.

Osoko Bilkura horretan denok izango dugu kartak erakusteko aukera, mozorro eta estalkirik gabe, irainik gabe. Tolerantzian eta errespetu demokratikoan oinarrituta. Hitz egin dezagun argi eta garbi gure artean eta hitz egin diezaiogun argi eta garbi euskal gizarteari. Euskal gizarteak jakin behar duelako indarkeria eta gatazka politikoaren inguruan bakoitzak egiten duen diagnostikoa; zeintzuk diren, diagnostiko horren arabera, bakoitzak aplikatu nahi dituen terapiak; zein printzipiotan gatozen bat; elkarrizketei dagokienez, zein prozedura planteatzen dugun.

Osoko bilkura horren helburua, argi dago, ez da barren barreneko arazoen inguruan bat etortzea, baina bai behintzat aurrera egiteko aukera ematen diguten bideak eta tresnak finkatu eta antolatzea. Horixe besterik ez. bideari ekitea eta aurrera egiteko aukera emango diguten ideiak abian jartzea.

En tercer lugar, compromiso democrático. Compromiso democrático con el respeto a las decisiones de los ciudadanos y ciudadanas vascas. El tercer eje, mi tercer compromiso solemne con esta Cámara es el compromiso democrático con el respeto a la sociedad vasca. Respetar siempre sus decisiones. Así de simple, pero así de contundente.

Si todos nos comprometiéramos a respetar la voluntad mayoritaria de la sociedad vasca estaríamos ante el principio de la solución. Estaríamos ante el principio de la solución. Sinceramente, creo que el respeto constituye la verdadera clave de bóveda de nuestra convivencia, y es el espejo en el que todos tendremos que retratarnos. Respeto a las decisiones, a las instituciones y a los marcos jurídicos construidos hasta ahora por la voluntad mayoritaria de vascos y vascas, y respeto también a las opciones de cambio, actualización o modificación de los mismos. Respeto, en suma, a la voluntad pasada, presente y futura de la sociedad vasca libremente expresada. Respeto, en suma, a la voluntad pasada, presente y futura de la sociedad vasca libremente expresada.

¿Cómo podemos materializar este compromiso? Mi propuesta es plantear el próximo mes de octubre, coincidiendo con el vigesimosegundo aniversario del Estatuto de Gernika, un pleno monográfico sobre el autogobierno en el que podamos abordar con luz y taquígrafos las iniciativas de cada cual para dar cumplimiento a la voluntad de la sociedad vasca en relación con el grado de autogobierno deseado.

En este Pleno todos tendremos ocasión de decir claramente si aceptamos o no las decisiones adoptadas por este Parlamento en relación con el cumplimiento íntegro del Estatuto de Gernika, así como de evaluar el impacto negativo que están teniendo determinadas iniciativas políticas del Gobierno español en la merma de nuestro autogobierno en los últimos tiempos. También podremos valorar la incidencia del debate que está teniendo lugar en el proceso de integración de la Unión Europea en relación con la soberanía y la participación directa en los órganos europeos de realidades no estatales. Y, por último, tendremos la oportunidad de proponer instrumentos que nos permitan avanzar en nuevos puntos de encuentro para la actualización y adaptación de nuestro Estatuto, de conformidad con los procedimientos que a tal efecto se contemplan en el mismo.

Yo, sinceramente, creo que éste es un debate no sólo oportuno, sino inaplazable, porque, habiendo transcurrido 22 años desde su aprobación, y a pesar de las reiteradas denuncias políticas y del posicionamiento unánime del Parlamento Vasco, el Estatuto de Gernika sigue teniendo el triste honor de ser una ley orgánica pendiente de cumplimiento y cuyo desarrollo en los últimos tiempos ha estado supeditado a la conveniencia partidista de quien ha ejercido el poder en el Gobierno español. Pero es que, además, estamos asistiendo en los últimos tiempos a un proceso de merma permanente de nuestro autogobierno a través de leyes estatales que recortan unilateralmente competencias ya asumidas.

Recientemente, a lo largo de la campaña electoral, la práctica totalidad de los partidos políticos presentes en

Hirugarrenez, konpromiso demokratikoa. Euskal gizon-emakumeon erabakiak errespetatzeko konpromiso demokratikoa. Hirugarren ardatza, Erakunde honen aurrean hartzen dudan zinezko konpromisoa, euskal gizartearen errespetuari dagokiona da. Bere erabakiak beti errespetatzeko konpromisoa. Besterik ez, baina bai horrek esan nahi duen guztiarekin.

Den denok hitz emango bagenu prest gaudela euskal gizartearen gehiengoaren borondatea errespetatzeko, irtenbidearen atean egongo ginateke. Bene-benetan, uste dut errespetua dela gure elkarbizitzarako "gakoa", eta denok jarri beharko gara ispilu horren aurrean. Errespetua euskal gizon-emakume guztien gehiengoaren borondatez orain arte eraikitako esparru juridikoari, erakundeei eta erabakiei, eta errespetua, baita ere, horiek aldatzeko edo eguneratzeko har daitezkeenei. Beraz, errespetua, euskal gizarteak atzo, gaur eta bihar askatasunez adierazitako borondateari.

Eta nola gauzatzen da konpromiso hori? Nire proposamena da datorren urrirako, –Gernikako Estatutuaren hogeita bigarren urteurrenarekin bat eginez–, autogobernuaren inguruko osoko bilkura monografiko bat planteatzea, burujabetza mailaren inguruan euskal gizarteak adierazitako borondatea betetzeko asmoz bakoitzak aurkezten dituen ekimenak aztertzeko denon aurrean.

Osoko bilkura horretan denok izango dugu aukera Gernikako Estatutuaren garapen osoa eskatzeko, Legebiltzar honek hartutako erabakiak onartzen ditugun ala ez argi eta garbi esateko; eta baita ere, Espainiako Gobernuak gure burujabetza murrizteko bultzatutako zenbait ekimen politikoren ondorio kezkagarriak baloratzeko. Europako Elkartearen integrazio-prozesuan, Estatu mailakoak ez garen errealitateak Europako erakundeetan izan dezakegun partehartzearen eta subiranotasunaren inguruan gertatzen ari den eztabaidaren eragina ere baloratzeko aukera izango dugu. Eta, azkenik, gure Estatutuan bertan ezartzen diren bideei jarraituz, Estatutua eguneratzeko eta egokitzen joateko adostasunetan aurrera egiteko tresnak proposatzeko aukera izango dugu.

Uste dut eztabaida hau egokia ez ezik luze gabe egin beharrekoa ere badela, Estatutua onartu zenetik hogeita bi urte igaro ondoren, eta Eusko Legebiltzarraren aho bateko jarrera eta behin eta berriz egindako salaketa politikoa ikusi arren, oraindik bete gabe dagoen lege organiko bat da Gernikako Estatutua. Ohore tristea, bai horixe! Gernikako Estatutua garatzea Espainiako Gobernuan agintzen ari den alderdiaren komenientziaren mende izan da azkenaldian. Baina hori ez da dena; horrez gain, azken garai hauetan gure autogobernua etengabe murrizten ari zaigu, gureak genituen eskuduntzak bere gain hartzen dituzten zenbait lege estatalen bidez.

Duela gutxi, azken hauteskunde-kanpainan zehar, Legebiltzar honetan gauden alderdi politiko ia guztiak

esta Cámara nos hemos manifestado en defensa del pacto estatutario. Algunos incluso han utilizado la defensa a ultranza del Estatuto como arma arrojadiza contra el nacionalismo, y lo han presentado como el pilar fundamental de su proyecto político. Pues, bien, por fin nos ha llegado a todos la hora de cumplir nuestras promesas electorales y de materializar este compromiso con el Estatuto de Gernika en su integridad.

Es hora de hacer respetar la voluntad mayoritaria de la sociedad vasca expresada en referéndum hace la friolera de 22 años. Tenemos que poner este debate encima de la mesa de una vez por todas, pero con firmeza y con seriedad, porque ha llegado el momento de que ciudadanos y ciudadanas vascas conozcan cuáles son las propuestas y los compromisos que asumimos cada uno para hacer cumplir el Estatuto en su totalidad. Para hacer cumplir el Estatuto en su totalidad.

Y esto lo tenemos que hacer no sólo por respeto a la sociedad vasca, sino por responsabilidad y coherencia con las decisiones adoptadas por unanimidad en este propio Parlamento en relación con esta materia, la última el pasado 20 de octubre de 1995. Es decir, hace ya casi seis años.

No podemos quedarnos en la denuncia retórica por más tiempo. Es necesario, por tanto, pasar de las palabras a los hechos. Desde aquí les puedo adelantar la firme voluntad de mi Gobierno de movilizar todos los resortes jurídicos, políticos y sociales que sean precisos para hacer realidad en esta legislatura el cumplimiento íntegro del Estatuto de Gernika, no sólo porque después de 22 años es una cuestión de responsabilidad democrática, sino porque no estamos dispuestos a admitir que se impida unilateralmente que los ciudadanos y ciudadanas vascos podamos acceder a mayores cotas de bienestar y calidad de vida a través del autogobierno que nos corresponde.

A este respecto deseo también adelantarles mi intención de proponer en ese debate, en ese pleno, la constitución de una comisión parlamentaria específica de profundización de nuestro autogobierno que con carácter inmediato se plantee dos objetivos: por un lado, abordar el respeto y el cumplimiento del actual pacto estatutario, y, por otro, plantear con toda normalidad las opciones de actualización y modificación del mismo en función de sus propias potencialidades y del respeto a la voluntad de los ciudadanos y ciudadanas vascos.

A este respecto, y para desarrollar el objetivo de abordar el respeto y el cumplimiento del actual pacto estatutario, les anticipo que el Gobierno Vasco propondrá con carácter de urgencia al Gobierno español la constitución de una comisión política negociadora al más alto nivel, que desarrollará su trabajo en estrecha coordinación con la comisión parlamentaria citada.

Transcurridos seis meses, y en cualquier caso antes de dar por cerrado este próximo curso parlamentario, el Gobierno Vasco solicitará la celebración de un nuevo pleno monográfico en el Parlamento para valorar el resultado efectivo alcanzado y, en su caso, adoptar las nuevas medidas e iniciativas que se consideren oportunas.

azaldu gara Estatutu Itunaren alde. Ez bakarrik hori. Batzuek Estatutuaren aldarrikapen sutsua erabili dute abertzaleen aurka eta Estatutua euren proiektu politikoaren zutabe nagusi bezala aurkeztu dute. Ondo da, azkenean iritsi zaigu denoi garaia hauteskunde-kanpainan agindutakoa betetzeko eta Gernikako Estatutu osoarekiko konpromisoa gauzatzeko.

Iritsi da garaia orain hogeita bi urteko referendumean euskal gizartearen gehiengoak adierazitako borondatea betearazteko. Eztabaida hori mahai gainean jarri behar dugu behingoz, sendotasunez eta seriotasunez. Iritsi da garaia Estatutua bere osotasunean betetzeko bakoitzak gure gain hartzen ditugun konpromisoak eta egiten ditugun proposamenak zeintzuk diren euskal gizon-emakumeei jakitera emateko.

Eta hori egin beharrean gaude ez bakarrik euskal gizarteari zor diogun errespetuarengatik, baita ere Eusko Legebiltzarrean gai honen inguruan aho batez onartutako erabakiekin koherenteak izatearren ere -azkena, 1995eko urriaren 20an onartu zen, hau da, duela ia sei urte-.

Ezin dugu berriro gelditu salaketa huts horretan, ordea. Hitzetatik ekintzetara pasatu beharra dago. Aurreratu nahi dizuet Jaurlaritzak borondate irmoa duela beharrezkoak diren baliabide juridiko, politiko eta sozial guztiak erabiltzeko legegintzaldi honetan Gernikako Estatutu osoa bete dezaten lortzeko. 22 urte igaro eta gero ez da erantzukizun politikoko arazoa soilik, ez. Ez gaude prest euskal gizon-emakumeoi geurea den burujabetza horren bitartez eskuratu ditzakegun ongizate eta bizitza maila hobeak eskuratzeko orduan alde batek jartzen dizkigun oztopoak onartzeko.

Baita ere, aurreratu nahi dizuet eztabaida horretan gure autogobernuan sakontzeko Legebiltzarreko Batzorde berezi bat eratzea proposatzeko asmoa dudala. Batzorde horrek honako bi zeregin hauek izango ditu: alde batetik, gaur egungo itun estatutarioa guztiz betetzeko eta errespetatzeko eskatzea, eta bestetik, normaltasun osoz, itun hori eguneratzeko eta egokitzeko aukera planteatzea; beti ere, itun horrek dituen potentzialtasunen arabera eta euskal biztanleen borondatearen arabera.

Gaur egungo itun estatutarioa guztiz betetzeko eta errespetatzeko zeregin hori aurrera eramateko, aurreratu nahi dizuet Eusko Jaurlaritzak, premia osoz, Estatuko Gobernuari proposatuko diola maila goreneko Batzorde Politiko Negoziatzaile bat eratzea, Legebiltzarreko batzorde horrekin lankidetza estuan ari dadin.

Sei hilabete igaro ondoren, eta edozein modutan ere datorren urte politikoa amaitu aurretik, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarraren osoko Bilkura berri bat egitea eskatuko du lortutako emaitzak baloratu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen diren neurri eta ekimen berriak abian jartzeko.

Por otro lado, esta comisión específica de profundización del autogobierno abordará el debate democrático sobre las legítimas opciones de actualización y adaptación del pacto estatutario vigente. Este debate democrático debe sustentarse sobre la base de las potencialidades que contempla el actual Estatuto y sobre el principio de respeto a la voluntad de ciudadanos y ciudadanas vascos. Porque es preciso recordar que el actual pacto estatutario no es un marco cerrado en sí mismo, ni inmutable. Desde su misma concepción, en 1979, fue planteado como un instrumento abierto al consenso político y adaptable a la propia evolución de la voluntad de la sociedad vasca.

El Estatuto de Gernika, considerado en toda su integridad, representa de esta forma un instrumento preciso y precioso, un instrumento que encierra en su seno potencialidades que permiten alcanzar nuevos puntos de encuentro para la convivencia, en aplicación de su disposición adicional y de los procedimientos establecidos para su propia modificación.

Hemos de apelar, por tanto, a esa construcción abierta del consenso político y social, con respeto a lo construido hasta ahora en función de las decisiones adoptadas en su día por la sociedad vasca, y con respeto también a la adecuación y actualización de ese consenso sobre la base de las nuevas realidades y sensibilidades de hoy en día.

Porque hay que decirlo con claridad: no respeta la legitimidad democrática de los vasco quien no reconoce y no se compromete con el cumplimiento del Estatuto de Gernika en su integridad como pacto político entre Euskadi y el Estado, pero tampoco respeta la legitimidad democrática quien exige que el pueblo vasco renuncie a las opciones de cambio y modificación del mismo a través del desarrollo de su disposición adicional, en función de que se alcancen en el futuro las mayorías necesarias para ello.

Considero que es urgente que podamos hablar con serenidad de estos temas desde un talante abierto y democrático, y desde la aceptación de que la sociedad vasca puede ser consultada para aceptar su propio futuro. ¿Qué hay de malo en ello?

La nueva realidad europea, además, nos exige a todos un proceso de redefinición y de adaptación a nuevos conceptos y situaciones. Ideas tales como soberanía compartida, subsidiariedad, libre asociación, participación directa de realidades no estatales en la conformación de las decisiones, cooperación regional y transfronteriza, relaciones en el seno de la Unión, etcétera, son realidades que van a configurar el escenario europeo de los próximos años. Nadie debe escandalizarse por ello.

En todo caso, también en relación con este objetivo de actualización de nuestro autogobierno, debemos ser capaces de evaluar el grado de avance y de consenso alcanzado en un tiempo prudencial, que previamente hayamos fijado conjuntamente. Y nuevo trabajo para el Parlamento: transcurrido ese plazo, es mi intención solicitar la convocatoria de un pleno parlamentario en el

Bestalde, burujabetzan sakontzeko eratutako Batzorde berezi horrek indarrean dagoen Estatutuari buruzko ituna eguneratzeko eta itun hori egokitzeko aukera legitimoen inguruko eztabaida demokratikoa burutuko du. Eztabaida demokratiko horrek euskal biztanleen borondatea errespetatzeko printzipioa eta oraingo Estatutuak jasotzen dituen potentzialtasunak izan behar ditu euskarri. Gogoan hartu behar baitugu Estatutuari buruzko ituna ez dela berez marko itxi bat, eta ez dela aldaezina. 1979. urtean jaio zenetik, adostasun politikora irekitako tresna bezala eratu zen, euskal gizartearen borondatearen bilakaerari berari egokitzeko modukoa.

Gernikako Estatutua, bere osotasunean planteatuta, tresna zehatz eta bikaina da. Bere baitan elkarbizitzarako balio dezaketen adostasun berriak lortzeko aukerak eskaintzen dituen tresna, xedapen gehigarriari eta Estatutua bera aldatzeko ezarritako prozedurei begiratzen badiegu.

Adostasun politiko eta soziala era zabalean eraikitzearen alde jokatu behar dugu, euskal gizarteak bere garaian hartutako erabakietan oinarrituta orain arte eraikitakoa errespetatuz, eta gaur eguneko errealitate eta sentsibilitateetan oinarrituta, adostasun horren eguneratzea eta egokitzea ere errespetatuz.

Zeren, argi eta garbi esan behar da: ez du errespetatzen euskaldunen bidezkotasun demokratikoa Gernikako Estatutua –Euskadi eta Estatuaren arteko itun politikoa den neurrian– bere osotasunean betetzeko konpromisoa hartzen ez duenak eta onartzen ez duenak. Eta ezta ere, ez du errespetatzen euskaldunon bidezkotasun demokratikoa, Euskal Herriari Estatutua xedapen gehigarria garatuz aldatzeko aukerei uko egitea eskatzen dionak; beti ere etorkizunean Estatutua aldatzeko behar diren gehiengoak sortzen badira.

Uste dut premiazkoa zaigula gai horien inguruan lasaitasunez hitz egitea; horretarako, jarrera ireki eta demokratikoa erabili behar dugu eta onartu behar dugu euskal gizarteak eskubidea duela kontsulta dakion bere etorkizuna erabakitzeko. Zer du horrek txarrik?

Europako egoera berriak definizio berri bat eskatzen digu denoi, eta kontzeptu eta egoera berrietara egokitzea. Subiranotasun konpartitu edo erdibanatua, subsidiaritatea, bat-egite askea, errealitate ez estatalen partehartzea erabakiak hartzeko guneetan, lankidetza erregionala eta mugen gainekoa, Europako Elkartearen barruko harremanak, e.a. izango dira hurrengo urteetan Europako esparrua osatuko duten errealitateak. Inor ez da eskandalizatu behar horregatik.

Hala eta guztiz ere, eta gure autogobernua eguneratzeko helburu honi dagokionez, gai izan behar dugu denon artean aurretik finkatzen dugun zentzuzko epe batean lortutako aurrerakuntza eta adostasuna baloratzeko. Epe hori igarotzen denean, asmoa dut Legebiltzarraren osoko bilkura bat eskatzeko gure adostasunen berri emateko gizarteari eta bilgune gehiago bilatzeko proposamen

cual traslademos públicamente a la sociedad nuestros acuerdos y fijemos las iniciativas y propuestas oportunas para la búsqueda de nuevos puntos de encuentro.

El Parlamento, por tanto, como centro de operaciones para hablar del proceso de paz, pero también para hablar del proceso del autogobierno. No nos vamos a aburrir en los próximos meses.

avanzando para crecer en términos cuantitativos y cualitativos, porque estos últimos (la competitividad, la productividad, la solidaridad y el respeto al medio ambiente) son los que permitirán garantizar y mejorar nuestro bienestar social integral. Porque estos componentes son inseparables, y son inseparables, en nuestra opinión, porque garantizan la pervivencia de una sociedad competitiva, equilibrada y justa en el futuro, y teniendo siempre en cuenta que los grandes motores del desarrollo y la competitividad de nuestra economía son la innovación, el conocimiento, la calidad, la formación y la cooperación.

Esta mañana se ha hablado aquí de alcanzar la convergencia con Europa en términos de empleo y tecnología, de políticas de mejora de la competitividad para alcanzar la innovación, para incrementar la innovación, la formación, la internacionalización de nuestras empresas; de la integración de la variable medioambiental en las políticas económicas y sociales; de construir la sociedad, nuestra sociedad de la información y el conocimiento; de que Euskadi sea un referente en el espacio europeo de la investigación y la tecnología; de la calidad total y de la gestión del conocimiento; de apoyarnos en las personas y en su formación para construir el futuro.

Para ello es preciso que contemos con un concierto económico que, como se ha señalado por el señor Ibarretxe, no debe tener fecha de caducidad y precisa de su reconocimiento y consideración en la Unión Europea como cualquier otro sistema fiscal general, como cualquier otro sistema fiscal general, y que no se cometan desafueros y atropellos tratando nuestras medidas como ayudas de Estado. Un concierto económico que permita que los recursos generados por nuestros impuestos se queden en Euskadi y que se gestionen en claves de equidad de los contribuyentes, suficiencia para atender las necesidades económicas y sociales y coordinación entre las distintas Administraciones fiscales del país.

Y también se ha hablado de educación y transmisión de valores, del firme apoyo a la formación profesional, de situar a la Universidad vasca como pieza troncal y de desarrollo de nuestro país. Nuestro proyecto habla de impulsar una escuela del futuro, donde se aprenda a conocer y a hacer. Todo esto, al igual que la formación en todos los niveles, precisa de la incorporación del concepto dinámico del conocimiento.

Atribuyen al recordado profesor, hombre de gran talla intelectual y humana y compañero de partido en Eusko Alkartasuna, Koldo Mitxelena, la afirmación de que "la riqueza de las naciones está en la riqueza de las nociones" (la riqueza de las naciones está en la riqueza de nuestras nociones). Es preciso conocer, más que saber. Y en esa dirección apuntan también las propuestas del candidato a Lehendakari.

En el capítulo de empleo habrá que recordar una vez más que el Gobierno central se sigue oponiendo a nuestra justa reivindicación estatutaria sobre capacidad y decisión en materia de empleo, incluida la capacidad legislativa en materia socio-laboral y de Seguridad Social. No obstante, y a pesar de que sigamos manteniendo esa

tzeko, izan ere azken horiek (lehiakortasuna, produktibitatea, elkartasuna eta ingurugiroaren errespetua) baitira gure gizartearen ongizate integrala bermatu eta hobetuko dutenak. Izan ere osagai horiek banaezinak baitira, eta banaezinak dira, gure iritziz, gizarte lehiakor, orekatu eta etorkizunean bidezkoa izango den gizartearen iraupenerako, eta beti ere kontuan izanik garapenaren motore nagusiak eta gure ekonomiaren lehiakortasunaren motoreak direla berrikuntza, hazkuntza, kalitatea, formakuntza eta lankidetza.

Hemen goizean aipatu da Europarekin konbergentzia egitea iristea, bai enplegu eta bai teknologia arloan, lehiakortasuna hobetzeko politikak, gure enpresetan berrikuntza gehitzeko, formakuntza, internazionalizazioa gehitzeko; politika ekonomiko eta sozialetan ingurugiroaren aldagarria integratzen joateko; gizartea eraikitzeko, informazioaren eta ezagutzaren gizartea eraikitzeko; Euskadi Europako espazioan erreferentea izan dadin ikerketa eta teknologia arloan; erabateko kalitatearen eta ezagupenen gestioaren arloan; pertsonengan eta haien formakuntzan oinarritzea etorkizuna eraikitzeko.

Horretarako beharrezkoa da kontzertu ekonomikoa izatea, eta Ibarretxe jaunak aipatu duen moduan, ez du iraungitze datarik izan behar eta Europako Batasunean aitorpena eta errespetua izan behar ditu beste edozein sistema fiskal orokorrek bezalaxe, beste edozein sistema orokorrek bezalaxe, eta ez daitezen bidegabekeriak eta zapalketak gertatu gure neurri fiskalak Estatuaren laguntzak balira bezala tratatuz. Kontzertu Ekonomikoak bideratu behar du Euskadin bildutako zergek sorturiko eskuartekoak Euskadin geratzea eta zergadunen artean berdintasun irizpidez kudea daitezela, eta autonomia izatea premia ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta herriko administrazio fiskal ezberdinen arteko koordinazio-egiturari erantzuteko.

Eta hezkuntzaz ere hitz egin da eta balore-transmisioaz ere bai, lanbide hezkuntzari laguntza sendoa emateaz, eta euskal unibertsitatea gure herriaren garapenaren funtsezko osagai gisa kokatzeaz. Gure proiektuak hitz egiten du etorkizuneko eskola bat egiteaz, ikasten eta egiten irakasten duen etorkizuneko eskolaz. Eta horretan guztian, maila guztietako formakuntzan bezalaxe, jakitearen kontzeptu dinamikoa izan behar da.

Irakasle gogoangarri, intelektual eta giza maila handiko eta Eusko Alkartasunako alderdikide izan genuen Koldo Mitxelenari egozten zaio zera esan izana "nazioen aberastasuna haien nozioen aberastasuna da" (nazioen aberastasuna haien nozioen aberastasunean datza). Beharrezkoago da ezagutzea, jakitea baino. Eta lehendakari hautagaiaren proposamenak ere norabide horretatik doaz.

Enplegu politikan ere gogoan izan beharko da berriro ere Gobernu zentralak uko egiten diola gure Estatutuan oinarrituriko aldarrikapen bidezko bati, enplegu arloko erabakitzeko gaitasunari buruzkoari, horren barruan doalarik arlo sozio-laborala eta Gizarte Segurantzaren arloko gaitasun legislatiboa. Halere, eta aldarrikapen hori

reivindicación, esperamos poder llevar a cabo acciones que nos permitan mejorar las tasas de empleo y la calidad de éste. Y, señor Madrazo, espero también dar más precisiones en este apartado tan importante y tan sensible para Eusko Alkartasuna.

En el apartado que el programa de nuestro candidato ha dedicado al nuevo modelo social y cultural debo decir no solamente que nuestro partido lo comparte totalmente, sino que además muestra su satisfacción por el hecho de que gran parte de las políticas sociales avanzadas de nuestro gobierno también están en plena sintonía con el trabajo de Eusko Alkartasuna en este terreno.

Las políticas anunciadas por nuestro candidato a Lehendakari apuntan claramente a ahondar en la solidaridad social con colectivos, personas y zonas más desfavorecidas; al compromiso con la adecuación e incremento de las prestaciones sociales; al apoyo a las familias con hijos e hijas a través de un ambicioso y novedoso plan de familia (probablemente tengamos que pedirle *copyright* al señor Rodríguez Zapatero, que ahora empieza a hablar también de ello), y con toda una serie de medidas que hagan efectiva la solidaridad y la justicia social.

Este programa de profundizar en la solidaridad social precisará tanto de igualdad entre hombres y mujeres como de integración de nuestra juventud en el compromiso social. Y precisará, asimismo, como se ha señalado, de políticas de cohesión en materia de vivienda, de justicia, de sanidad y de protección de los consumidores.

Hacer, por otra parte, de la cultura una opción integradora y abierta, plural, cohesionadora, dinámica y moderna está en la base del programa que hoy se nos ha presentado. Y para ello se hace una apuesta por el fomento a la creación y el reforzamiento de las industrias culturales del país. Y se apuesta por el euskara en un contexto plurilingüe, y por alcanzar el bilingüismo real atendiendo a la realidad socio-lingüística y a la voluntad de nuestra ciudadanía.

La meticulosidad con la que el candidato a Lehendakari, señor Ibarretxe, ha hecho referencia a diversas medidas en todos estos ámbitos me releva de tener que hacer una larga descripción, pero es evidente que desde las apuestas por la sociedad del conocimiento hasta el plan vasco de formación profesional, pasando por la consolidación del sistema vasco de ciencia y tecnología, como el plan de apoyo a las familias con hijos e hijas del que he hablado, el programa vasco de cultura digital, la promoción del *cluster* de la cultura y la economía, tantas y tantas medidas, me relevan, como he dicho, de hacer una descripción pormenorizada.

Para afrontar todos los grandes retos de nuestro país, y singularmente los que afectan a la pacificación y normalización política, Eusko Alkartasuna cree necesario reclamar de una vez por todas del Partido Popular y del Partido Socialista que abandonen esa campaña a nuestro juicio falaz con que nos han obsequiado estos últimos años, y propugnemos entre todos el diálogo democrático. Por cierto, diálogo democrático que se recoge en el In-

egiten jarraituko dugun arren, espero dugu gure enplegu tasa eta berorren kalitatea hobetzea ahalbidetuko diguten ekintzak burutu ahal izatea. Eta, Madrazo jauna, Eusko Alkartasunarentzat horren garrantzitsua eta sentigarria den arlo honi buruz zehaztasun gehiago eman ahal izatea.

Gure lehendakari hautagaiak gure gizarte eta kultur ereduaz jardun duen egitarauaren atalari dagokionez, esan behar dut gure taldeak erabat partekatzen duela eta horretaz gain, pozez adierazi behar du gure gobernuaren gizarte politika aurreratuaren zati handi bat ados dagoela erabat Eusko Alkartasunak arlo honetan egindako lanarekin.

Gure Lehendakari hautagaiak iragarritako politikek argi eta garbi jotzen dute kaltetuen diren kolektibo, pertsona eta eskualdeekin elkartasun sozialean sakontzearen bidetik; laguntza sozialen egokitze eta garapena burutzeko konpromisoarekin; seme-alabak dituzten familientzako apoioa ematea familiari begira eraturiko plangintza berritzaile eta anbiziotsu baten bidez (beharbada *copyright*a eskatu beharko genioke Rodríguez Zapatero jaunari, bera ere orain horretaz hitz egiten hasia baita), elkartasuna eta gizarte justizia eraginkor egingo duten zenbait neurriren bidez.

Gizarte elkartasunean sakontze programa honek gizon-emakumeen arteko berdintasuna eskatuko du eta gazteak ere gizarte konpromisoak integratzea ere bai. Eta era berean eskatuko du, aipatu den moduan, etxebizitza, justizia, osasuna eta kontsumitzaileak babestearen arloan kohesio politikak garatzea.

Bestalde, gaur aurkeztu zaigun egitarau honen oinarrian datza kultura aukera integratzailea eta irekia, anitza eta kohesionatzailea, dinamikoa eta modernoa. Eta horretarako sorkuntza sustatzearen aldeko apustua egin da, eta herriko kultur industriaren sendotzearen aldeko apustua. Eta euskararen aldeko apustua egin da testuinguru eleanitzean, eta benetako elebitasuna iristearen aldeko apustua, errealitate soziolinguistikoari erreparatuz eta gure herritarren borondateari erreparatuz.

Lehendakari hautagaiak, Ibarretxe jaunak, zehatz-mehatz aipatu ditu arlo horiei guztiei dagozkien neurriak eta horrenbestez, neuk ez dut horiek luzaro deskribatzen jardun beharrik, baina begi-bistakoak dira ezagupenaren gizartearen aldeko apustua nahiz lanbide hezkuntzaren euskal egitaraua, nahiz zientzia eta teknologiaren alorreko euskal sistemaren sendotzea, nahiz dagoeneko aipatu dizuedan seme-alabak dituzten familientzako laguntza plangintzak, kultura digitalaren programa, kulturaren eta ekonomiaren *cluster*aren eraketa, hainbat eta hainbat neurri aipatu dituenez, neuk ez daukat, horrenbestez, aipamen zehatzik egin beharrik.

Gure herrialdearen erronka handiei aurre egiteko eta bereziki baketze eta normaltze politikoari dagokionari buruz, Eusko Alkartasunak uste du beharrezkoa dela behin eta betiko eskatzea Alderdi Popularrari eta Alderdi Sozialistari utz dezatela alde batera azken urte hauetan egiten ari diren eta gure ustez gezurtia den kanpaina eta denon artean eragin dezagula elkarrizketa demokratikoa. Bide batez esanda, Watson Txostenean eskatzen den el-

forme Watson, votado hoy mismo en el Parlamento Europeo.

Voces aisladas, pero significativas, parecen apuntar en esa dirección, pero son inmediatamente acalladas por dirigentes del Partido Popular y representantes del Partido Socialista, acusándonos una y otra vez de dar alas al terrorismo. Una campaña con la que algunos pretenden continuar, al parecer, a pesar de que la ciudadanía vasca la contestó contundentemente, contundentemente en las urnas el 13 de mayo pasado, no obstante –vuelvo a señalar– los medios que pusieron en el empeño por parte de sus mentores.

Y yo quiero decir aquí desde Eusko Alkartasuna a los señores del Partido Popular, y también a los señores del Partido Socialista, porque ya hemos visto, prácticamente a la hora de comer, despachos de agencia que decían que "una cosa es lo que ha dicho el Lehendakari esta mañana, y otra cosa es lo del programa de gobierno"… Pues, ¡no señor! Es exactamente lo mismo, es exactamente lo mismo.

Y, o nos atenemos a lo que ha dicho el Lehendakari, es decir, compromisos, diferenciar los planos de unas cosas y otras, planes concretos para los temas de pacificación, planes y plenos concretos para los temas de autogobierno, comisiones concretas, comité político concreto… ¡Hablemos de eso! O hablamos de eso, y además centramos el debate en este Parlamento, como se ha hecho esta mañana (ya no hay ni mesa 1 ni mesa 2, he oído también que algún sindicato planteaba la petición de una mesa social; el Gobierno, creo yo, no debe ser una fábrica de muebles, esto es otra cosa), o se va por esa vía, es decir, por lo que ha planteado nuestro candidato, o se sigue manipulando, mezclando planos que nosotros desde luego no mezclamos, ni se han mezclado aquí esta mañana, diciendo que amparamos y damos alas al terrorismo, ni más ni menos. Pues no, señor. De mezclar, nada. Y, si quieren, léanse la copia íntegra del mensaje del Lehendakari.

Recordaba un columnista recientemente aquellas palabras de Séneca: "El valor conduce a las estrellas, y el temor a la muerte". Hay que conquistar la libertad, empezando por las libertades, claro, y los derechos básicos, los derechos humanos: el derecho a la vida, el derecho de elección, el derecho de expresión, ¡tantos derechos!, la posibilidad de que nuestro país, sus gentes, puedan decidir lo que quieren ser.

Valor, sí, para alcanzar las estrellas, pero partiendo de esta tierra, señor Otegi, partiendo de esta tierra que pisamos, de la voluntad de los vascos y vascas, respetando las diferentes sensibilidades, realidades, ritmos, como ahora empiezan a reclamar las gentes que se desgajan del proyecto uniformador de la sedicente izquierda abertzale, porque esto es así.

Nosotros, señor Otegi, y se lo tengo que decir muy claramente, giza eskubidez aritzen garenean, giza eskubidez aritzen gara, baina, giza eskubideen alorrean ez dugu "mediopentsionismorik" ametitzen, ez "part-time", ez konpromiso partzialik. Deretxoak aipatu nahi

karrizketa demokratiko hori, gaur bertan Europako Legebiltzarrean botatu dena.

Ahots bakanak baina adierazgarriak norabide horretan jotzeko aholkatzen dute, antza, baina ahots horiek isilarazi egiten dituzte berehala Alderdi Popularraren buruzagiek eta Alderdi Sozialistaren ordezkariek, behin eta berriro terrorismoari su ematen diotela salatuz. Antza denez, gainera kanpaina hori egiten jarraitzeko asmoa dute, nahiz eta euskal herritarrek adierazia dieten argi eta garbi euren ezezkoa, argi eta garbi joan den maiatzaren 13ko hauteskundeetan, nahiz eta ugariak izan ziren –berriro azpimarratu nahi dut– haren alde agintariek jarritako bitartekoak.

Nik esan nahi diet hemen Eusko Alkartasunaren izenean Alderdi Popularreko jaun-andreoi, eta Alderdi Sozialistako jaun-andreoi, zeren ikusia dugu, bazkal ordurako jadanik, helduak ziren agentzia berriak esanez "gauza bat dela Lehendakariak gaur goizean esandakoa, eta beste gauza bat dela gobernu egitarauan dagoena"… Bada, ez jauna! Gauza bera da, gauza ber-bera da.

Eta, hobe dugu hemen Lehendakariak esan duenari atxikitzea, hots, konpromisoak, gauza batzuen eta besten mailak bereiztea, baketze gaietarako plangintza konkretuak, autogobernu gaietarako plangintza eta bilkura zehatzak, batzorde zehatzak, batzorde politiko zehatzak… Hitz egin dezagun horretaz! Hobe dugu horretaz aritzea, eta gainera horretan zentratzea Legebiltzar honetako eztabaida, gaur goizean egin den moduan (orain ez dago 1. Mahaia eta 2. Mahaia, entzun dudanez sindikatu batek mahai sozial bat sortzea eskatu du; nire ustez Gobernua ez da haltzari fabrika bat, hau besterik da), beraz, gure lehendakari hautagaiak aipatu duen bide horretatik joan ezean, guk inolaz ere nahasten ez ditugun, eta hemen gaur goizean nahastu ez diren planoak nahasten jarraituko duzue, esan eta esan guk terrorismoari babesa eta erregaia ematen diogula, hain zuzen ere. Bada ez jauna. Guk nahastu ezertxo ere ez. Eta, nahi baduzue, irakur ezazue osorik Lehendakariaren mezuaren kopia.

Duela gutxi zutabe-idazle batek gogoratu zituen Senekaren hitz haiek: "Baloreak izarretara garamatza, eta beldurrak berriz heriotzara". Askatasuna irabazi egin behar da, hasi behar da oinarrizko askatasun eta eskubideetatik, jakina, giza eskubideetatik: bizitzeko eskubidea, aukeratzeko eskubidea, adierazteko eskubidea, hainbat eskubide!, gure herriak eta gure jendeak izan nahi duena aukeratzeko ahalbidea izatea.

Balorea, bai, izarretaraino iristeko, baina lur honetatik abiatuz, Otegi jauna, zapaltzen dugun lur honetatik abiatuz, euskal herritarren borondatetik abiatuz, sentitzeko modu, errealitate eta erritmo ezberdinak errespetatuz, oraindik orain ezker abertzalearen proiektu batzailetik banatu direnek eskatzen ari diren moduan, izan ere horrela behar baitu.

Guk, Otegi jauna, eta argi eta garbi esan beharra dizut, cuando nosotros hablamos de derechos humanos, hablamos de los derechos de las personas, pero en el tema de los derechos humanos no admitimos medio-pensionistas, nada de "part-time", o de compromisos parcia-

badituzu, hemen dituzu, denak, eta bosgarren… Ez, ez, ez. Horiei eta zuei, denei, denei, denei, bosgarren artikulua: derecho a la vida. Bosgarren artikulua. Horrek besteak besteko inportantzia eta garrantzia du.

El derecho a la vida tiene el mismo o más derecho, es el mismo o más que todo lo demás. En los derechos humanos no admitimos mediopensionismo ni trabajo parcial: trabajo a tiempo pleno, y ahí nos veremos todos.

Y, desde luego, no vamos a cejar en propugnar el valor, la potencialidad de la herramienta del diálogo, como ha dicho el candidato a Lehendakari. Pero el nacionalismo incluyente español, que tan genuinamente representan el PP y sus dirigentes, no quiere oír hablar de diálogo. A nuestro binomio de diálogo-no violencia opone el escenario binomial de violencia y exclusión, no porque pretenda acabar con ETA, sino porque pretende acabar con el nacionalismo vasco.

Por eso se niegan al diálogo con quienes hablamos del valor de la paz. Ellos están obsesionados con el precio de la paz; nosotros con el valor de la paz. Porque temen un escenario de no violencia, no nos engañemos, un escenario sin ETA, es duro decirlo, pero en el que no quede otra alternativa que lo que decida la mayoría de nuestro país.

Por eso siguen estos días también intoxicando con la cantinela de la cobertura nacionalista al terrorismo y atacando nuestros principios democráticos, incluido el derecho de autodeterminación que siempre ha reclamado Eusko Alkartasuna.

Se pasaron años hablando de que el nacionalismo democrático escondía sus objetivos (desde luego, no nuestro partido), es decir, se engañaba al electorado. Y cuando lo ponemos claro en un programa, primero de coalición y después de gobierno, entonces se pone el grito en el cielo, se habla de que se persigue lo mismo que los terroristas, de dar alas a los violentos. ¿En qué quedamos?

¡Ah!, pero viene lo mejor: resulta que esta propuesta tan denostada resulta ser la más votada, de largo, en las elecciones, y resulta además que, en términos electorales, aquellos que propugnamos un derecho tan democrático en la Comunidad Autónoma vasca, como es el derecho de autodeterminación, somos bastante más que la mayoría absoluta, a pesar del descomunal lavado de cerebro que se ha querido practicar durante estos últimos años con la población de Euskadi.

Y ¿cuál es la reacción de la división acorazada, por boca del capitán de fragata Aznar? “La sociedad vasca está inmadura”. Pues no. La sociedad vasca es una sociedad madura, consciente de sus problemas, y, cómo no, del gravísimo problema de la violencia. Y es una sociedad plural, pero plural de verdad. No con esa pluralidad

les. Si se quieren mencionar derechos, aquí los tiene, todos, y el quinto… No, no, no. A todos y a ustedes, a todos, a todos, a todos, el quinto artículo: bizitzeko eskubidea. El quinto artículo. Es un derecho que tiene una importancia especial.

Bizitzeko eskubidea besteak adinakoa edo garrantzi gehiago dauka, besteek adinakoa edo agian besteek baino gehiago. Giza eskubideetan ez dugu onartzen medio-pentsionismorik edo “part-time” lanaldirik: ordutegi osokoa izan behar du, eta horretan denok bat etorriko gara.

Eta, jakina, ez dugu etsiko balorea izateko eskatzen, eta elkarrizketaren baliabidearen ahalbideak sustatzen, Lehendakari hautagaiak esan duen moduan. Baina nazionalismoak, Espainiakoak barne, PPk eta haren buruzagiek hain ederki ordezkatzen duten Espainiako nazionalismoak ez du elkarrizketaz hitz egin nahi. Guk aurkezturiko “elkarrizketa-indarkeriarik ez” bikoari, eurak indarkeria-exklusioa bikoaz erantzuten diote, eta ez ETAri bukaera emateko, euskal abertzaletasunari bukaera eman nahi diotelako baizik.

Horregatik, bakearen baloreaz hitz egiten dugunokin elkarrizketatzeari uko egiten diote. Bakearen salneurriak obsesionatzen ditu eurak; eta gu berriz bakearen baloreak. Izan ere, eurentzat beldurgarri da indarkeriarik gabeko egoera iristea, ez dugu hori alde batera utzi behar, izan ere ETArik gabeko egoera batean, eta gogorra da esan beharra, ez da geratuko beste aukerarik herri honek gehiengoz onartzen duena baino.

Horregatik jarraitzen dute egun hauetan toxikatzen abertzaletasunak terrorismoari babesa ematen diolako kontu hori esanez, eta gure printzipio demokratikoak erasoz, tartean delarik Eusko Alkartasunak betidanik aldarrikatu duen autodeterminazio eskubidea.

Urteak igaro dituzte esan eta esan abertzaletasun demokratikoak bere benetako helburuak ezkutatzen dituela (jakina, ez gure alderdiak), alegia, hautesleak engainatu egiten dituztela. Eta egitarau batean argi eta garbi adierazten dugunean, lehenik koalizioan eta gero gobernu egitarauan jartzen dugunean, aldiz, zeuen jantziak urratzen dituzue, eta esaten duzue terroristek iritsi nahi duten gauza bera iritsi nahi dugula, eta indarkeria zaleei erregaia ematen diegula. Beraz, zertan ari gara?

A!, eta hor dator hoberena jarraian: hain gaitzetsitako proposamen horixe izan da hauteskundeetan gehien botatu dena, oparo gainera, eta gainera hauteskunde arloan, Euskal Autonomia Erkidegoan hain demokratikoa den eskubidea, autodeterminazio eskubidea sustatzen dugunok gehiengo absolutua baino gehiago gara, azken urte hauetan Euskadiko biztanleei egin nahi izan zaion garun-garbiketa ikaragarria gora-behera.

Eta zein izan da dibisio akorazatuaren erantzuna, ontzi-maisu den Aznar jaunaren ahoz heldu zaiguna? “Euskal gizartea heldugabea da”. Bada ez. Euskal gizartea ongi heldua da, ongi ohartzen da bere arazoez, eta indarkeriaren arazo larriaz ere bai, jakina. Eta gizarte anitza da, benetan ere anitza. Eta ez aniztasunaz ahoa be-

de boquilla de los que se llenan la boca hablando de pluralidad y no soportan que en Euskadi se pueda enmendar ni una coma de lo que ellos, los "plurales" (ellos, los "plurales"), deciden en La Moncloa o en los pasillos de Interior.

Una pluralidad de boquilla que sigue boicoteando el desarrollo estatutario, como demostraremos en su momento. Una pluralidad que rebaja y drena nuestras competencias vía leyes básicas. Una pluralidad que secuestra la defensa de nuestras competencias en Europa. Una pluralidad, señorías, que exhibe impúdicamente, día sí y día también, el argumento tan democrático de "si te portas bien, habrá competencias y autogobierno, y si no me gusta lo que dice el señor Ibarretxe, nada de nada" (eso es pluralidad, por lo visto). Una pluralidad, la de populares y también socialistas, que legisla y ampara el ataque a la lengua vasca en Navarra, legisla y ampara el ataque a la lengua vasca en Navarra (por lo menos hemos tenido la solidaridad de sus compañeros catalanes, hay que decirlo todo). Una pluralidad de ley de Universidades única, de matrículas únicas, de sanidad única, de identidad y carnet de identidad único. Una pluralidad de boquilla que dice respetar el Concierto, pero quiere cercenarlo mediante la infumable ley de Estabilidad Presupuestaria.

Una pluralidad que no soporta que nosotros, desde la más firme e inquebrantable defensa de los derechos humanos (desde la más firme e inquebrantable defensa de los derechos humanos), propugnemos el diálogo para la resolución del conflicto en nuestro país y el respeto a la voluntad de la ciudadanía vasca. Porque ésa es la cuestión: saben que es absoluta y profundamente deshonesto ligar al nacionalismo democrático vasco con el terrorismo, pero, aun sabiéndolo, lo mezclan, abrazando las tesis de Mayor Oreja para conjurar salidas como la de la vía propugnada en Lizarra.

Señorías, aunque condenemos la violencia, aunque pongamos todos los medios para combatirla, aunque emplacemos una y mil veces a ETA, y sobre todo hoy, después de otro asesinato, para que desaparezca, esto a algunos no les es suficiente.

Cueste lo que cueste, y si hace falta se hace todo, como se hizo, para que ETA cayera en la trampa y retomara las armas, lo que hay que conseguir es la una y otra vez mentada derrota de ETA, no vaya a ser que se le ocurra finalmente abandonar las armas, como alguien ha dicho, para que entonces tengamos de verdad el problema político delante de nosotros, que es, y no otra cosa, señor Otegi y señores del Partido Popular sobre todo, y señores del Partido Socialista, que es lo que puso en evidencia la declaración de Lizarra y el posterior alto el fuego de ETA.

Para decirlo en palabras del pensador socialista catalán Rubert de Ventós, y cito, "Lizarra representó un gran susto para el Gobierno español, y desgraciadamente ETA, con un gran y doloroso coste en vidas y tragedias humanas, vino a aliviarle el susto al Gobierno de Aznar".

tetzen duten baina gero inolaz ere eurek, pluralak omen diren horiek, Euskadin han La Moncloan edo Barne Saileko ibilbideetan erabakitzen dutena ezertan ere aldatu nahi izaterik jasaten ez duten horiek duten aniztasuna.

Estatutuaren garapena boikotatzen jarraitzen duen ustezko pluraltasun hori dute, dagokion unean frogatuko dugun moduan. Gure estatuaren aginpideak oinarrizko legeen bidez gutxitu eta indargabetu egiten dituen pluraltasuna dute. Europan ditugun aginpideak defenditu ahal izateko eskubidea bahitzen digun pluraltasuna da eurena. Horien pluraltasunak, jaun-andreok, egunero-egunero, agertzen du inolako lotsarik gabe hain demokratikoa den argudio hori "zintzo portatzen bazara, aginpideak eta autogobernua izango dituzu, eta Ibarretxe jaunak dioena atsegin ez bazait, aldiz, ezta ezertxo ere" (hori pluraltasuna da, antza denez). Popularren eta sozialisten pluraltasuna da Nafarroan euskarari eginiko erasoa babesten duena lege bidez, Nafarroan euskarari eginiko erasoa babestu eta lege bidez bermatzen duena (eta gutxienez zuen kide katalanen elkartasuna izan dugu, eta hori ere aditzera eman behar da). Unibertsitate lege bakar baten pluraltasuna, matrikula bakarra, osasunbide bakarra, nortasun agiri bakarra. Ahoz kanporako pluraltasuna da, Kontzertua errespetatzen duela dioena baina nola edo hala murriztu egin nahi duena Ley de Estabilidad Presupuestaria delako mamutzar horren bidez.

Zuen pluraltasun horrek ez du jasaten guk, giza eskubideen defentsarik irmoena eta zindoena eginez (giza eskubideen defentsarik irmoena eta zindoena eginez), era berean elkarrizketa eta euskal herritarren borondateareakiko errespetua proposatzea gure herriko konfliktoari irteera emateko. Horixe baita kontua, azken batean: zuek badakizue erabat bidegabea dela abertzaletasun demokratikoa eta terrorismoa elkarlotzea, baina, hori jakinik ere, nahastu egiten dituzue, Mayor Orejaren tesiari atxikitzen zatzaizkiote Lizarran proposaturiko bidearen gisako irteerak oztopatzeko.

Jaun-andreok, guk indarkeria gaitzetsi arren, haren aurka ditugun eskuarteko guztiak jarri arren, ETAri behin eta berriro desager dadila eskatu arren, eta bereziki gaur, hilketa baten ostean, halere, batzuei hori ez zaie aski iruditzen.

Kosta ala kosta, eta beharrezkoa bada edozein gauza egingo da, egin zen moduan ETA tranpan jausi eta berriro armak har zitzan, iritsi behar dena behin eta berriro aipatzen duten ETAren porrota da, zeren ez dadila gerta hari bururatzea halako batean armak utzi egingo dituela, nork edo nork esan duen moduan, eta orduan benetako arazo politikoa geure aurrean izango dugu, horixe baita eta ez besterik, Otegi jauna eta bereziki Alderdi Popularreko eta Alderdi Sozialistako jaun-andreok, horixe jarri baitzuen agerian Lizarrako adierazpenak eta ondoko ETAren su-etenak.

Rubert de Ventós pentsalari sozialista katalanaren hitzetan esateko, eta haren hitzak aipatzera noa, "Lizarrak egundoko izua eragin zion Espainiako Gobernuari, eta tamalez ETAk, bizitza eta giza tragedien koste ikaragarri eta oinazetsuaz, arindu egin zion izu hura Aznarren Gobernuari".

Nosotros seguimos pensando que no hay otra salida que la del diálogo, y además el mensaje de las urnas del pasado 13 de mayo y los movimientos de contestación a la sumisión de la estrategia de la llamada "izquierda abertzale" nos indican una vez más que trabajando en esa dirección podremos aunar más voluntades que nunca para decidir nuestro futuro en paz, anulando la intransigencia de unos y el empecinamiento en el no alejamiento de la violencia de otros. Porque podemos y debemos decidir nuestro futuro en un escenario de ausencia de toda violencia, porque tenemos el derecho democrático a decidirlo.

Y no nos vale que nos paren el reloj de la historia en 1978, o que simple y llanamente nos digan que nuestra voluntad está fuera de lugar, y mucho menos que demos argumentos a los violentos. Los argumentos democráticos, con el soporte inequívoco de la voluntad popular, son precisamente argumentos contra los violentos.

Seguimos dispuestos al diálogo como herramienta de solución de nuestros problemas, como siempre lo hemos estado, como siempre lo ha defendido mi partido, sin complejos, defendiendo firmemente nuestras convicciones, sin complejos pero con la gradualidad y el realismo necesario para propiciar acuerdos con todos.

Nosotros no somos de la tesis de Baltasar Gracián ("Entrar con la suya para salir con la mía"). Nosotros, al menos en Eusko Alkartasuna, y espero que sea la voluntad de esta Cámara, somos más bien de la de entrar con la de los demás para salir con la de todos. Todo menos resignarnos a la situación que padecemos y a la imposición a toque de corneta de un pacto antiterrorista que ni siquiera consiguieron que firmaran aquellos que apoyaban a Aznar en Madrid, que ya es no conseguir; de un pacto antiterrorista cuya virtualidad única y exclusiva era la de ser instrumento electoral contra el nacionalismo, y cito al señor Mayor Oreja (27 de diciembre del año 2000), cito textual, al menos si el diario que le recogió las declaraciones no está equivocado: "Uno de los objetivos de este pacto es neutralizar al nacionalismo". Cierro cita.

Un pacto que ni siquiera ha servido para que en el llamado debate del estado de la nación (nación española, obviamente), celebrado hace unos días en Madrid, hayan podido aprobar una resolución sobre el terrorismo basada en el citado pacto, porque no existía, según el Partido Socialista, el suficiente consenso de las fuerzas políticas, lo cual no obstó para que al día siguiente se fueran a Bruselas a presentarlo, que también tiene lo suyo (no poderlo consensuar en Madrid, e irse a Bruselas), pero, bueno, la propaganda de la propaganda.

Pero, por supuesto, después de que no se haya adoptado una resolución sobre el que dicen que es el número uno en la escala de problemas en España, eso es lo que tenemos. Y, por supuesto, todavía no se ha escuchado de columnista alguno o de tertuliano alguno comentario sobre el hecho de que en el Congreso de los Diputa-

Guk lehenago bezala pentsatzen dugu ez dagoela elkarrizketaz beste biderik, eta gainera joan den maiatzaren 13ko hauteskundeen mezua nahiz ezker abertzalearen estrategiaren batasun aginduaren aurkako mugimenduek aditzera ematen digute berriro ere bide horretatik joz gero, inoiz baino borondate gehiago bil genezakeela geure etorkizuna baketan erabakitzeko, batzuen estukeria eta besteek indarkeria alde batera ez utzi nahi izatean duten setakeria gainditzeko. Geure etorkizuna erabaki genezake eta erabaki behar dugu indarkeriarik gabeko egoera batean, erabakitzeko eskubide demokratikoa geurea delako.

Eta guri ez digu balio historiaren erlojua 1978an gerarazi nahi izatea, edo beste gabe argi eta garbi esatea gure borondatea lekuz kanpo dagoela, eta are gutxiago guri egoztea indarkeria zaleei arrazoiak ematen dizkiegula. Argudio demokratikoak, herriaren borondatearen zalantzarik gabeko oinarriaz, indarkeriazaleen aurkako argudioak dira hain zuzen ere.

Gu beti prest gaude geure arazoen irtenbidea elkarrizketaren bidez bilatzeko, beti hala izan gara, nire alderdiak beti hala defenditu izan du, inolako konplexurik gabe, geure irizpideak zindotasunez defendituz, konplexurik gabe baina behar den gradualtasunaz eta errealismoaz denekin hitzarmenetara iristeko.

Gu ez gara Baltasar Gracián-en tesiaren aldekoak ("Berearekin sartu eta nerearekin atera"). Guk, Eusko Alkartasunakoak behintzat, eta espero dut hori izatea Ganbera honetako borondate nagusia, besteenarekin batera sartu eta denonarekin ateratzen aldekoak izaten gara. Guk ez dugu etsitzen jasaten dugun egoera honetan eta terrorismoaren aurkako paktu horren turuta-hotsaren araberako inposaketa honetan ere ez, ez baitzuten lortu Aznar jauna Madrilen apoiatzen zutenek berek ere sinatzerik, eta ez da huts makala; terrorismoaren aurkako hitzarmen horren helburu bakarra abertzaletasunaren kontrako baliabide elektorala izatea baitzen eta Mayor Oreja jaunak esandakoa aipatzen ari naiz (2000ko abenduaren 27an esandakoa), hitzez hitz aipatzen dut, adierazpen haiek jaso zituen egunkariak okerrik ez badio behintzat: "Hitzarmen honen helburuetako bat abertzaletasuna neutralizatzea da". Aipamena horixe da.

Hitzarmen horrek ez du balio izan ezta zera egiteko ere, nazioaren egoeraren eztabaida deritzoten horretan ere (Espainiako nazioaren egoera, jakina); duela egun batzuk Madrilen eginikoan, ez dute onetsi ahal izan hitzarmen hartan oinarrituriko terrorismoari buruzko ebazpen bat, Alderdi Sozialistak zioenez, ez zegoelako behar adinako kontsentsurik indar politikoen artean, eta horrek ez zuen eragotzi halere hurrengo egunean hartu eta Bruselara joatea huraxe bera aurkeztera, ez baita makala hori ere (Madrilen ezin onetsi ahal izatea eta Bruselara eramatea), baina, bueno, propaganda propaganda baita.

Baina, jakina, ez dute ebazpen bat onetsi ahal izan Espainiak dituen arazoetan lehengo maila hartzen duenari buruz, eta horrelaxe daude gauzak. Eta jakina, oraindik ere ez da ezein zutabe-egile edo tertulianorik ezer esatera atera gai honi buruz, alegia, Diputatuen Kongresuan ezin izan dela egin, ezin izan dela botatu ere egin, berriro

dos no se puede hacer, ni siquiera votar una resolución sobre el que dicen, vuelvo a repetir, que es el primer y principal problema de España.

Por lo tanto, cuanto antes nos pongamos a la tarea y emprendamos el diálogo, el diálogo político para alcanzar un horizonte de convivencia pacífica, mejor. Y el candidato Ibarretxe no sólo ha propuesto, sino que, con el estilo de la casa, se ha puesto deberes bastante exigentes para los próximos meses.

Y nosotros, Lehendakari, estaremos dispuestos a trabajar. Sabemos que es un calendario exigente, que exige un gran trabajo, y, desde luego, Eusko Alkartasuna, y creo que otras fuerzas también lo han expresado así, no cejará en el empeño de trabajar en todos esos campos que usted ha propuesto.

Y también un diálogo sin complejos para hablar de completar nuestro autogobierno, para ir más allá en clave de respeto a las decisiones de la sociedad y el reconocimiento del derecho que le asiste a decidir su propio futuro, la posibilidad de relación entre los distintos territorios de Euskal Herria, incluida (y no le veo al señor Rabanera, lo siento) la materialización de la voluntad de los habitantes del enclave de Trebiño, cuestiones todas ellas, al entender de Eusko Alkartasuna, indisociables de un planteamiento serio de pleno autogobierno. Autogobierno que también debe dirigir, y se ha hecho esta mañana, su mirada introspectiva, como lo ha hecho nuestro candidato, a su vertebración interna, a la reformulación de ésta y a la planificación y mejora de las Administraciones públicas vascas y al engarce con Europa.

Decía Jorge Luis Borges en el libro “Diálogos”, de Oswaldo Ferrari: “Unos quinientos años antes de la era cristiana se dio en la Magna Grecia la mejor cosa que registra la historia universal: el descubrimiento del diálogo. La fe, la certidumbre, los dogmas, los anatemas, las plegarias, las prohibiciones, las órdenes, los tabúes, las tiranías, las guerras y las glorias abrumaban al orbe; algunos griegos contrajeron, nunca sabremos cómo, la singular costumbre de conversar. Dudaron, persuadieron, disintieron, cambiaron de opinión, aplazaron. Acaso los ayudó su mitología, que era, como el Shinto, un conjunto de fábulas imprecisas y de cosmogonías variables. Esas dispersas conjeturas fueron la primera raíz de lo que llamamos hoy, no sin pompa, metafísica. Sin esos pocos griegos conversadores la cultura occidental es inconcebible”.

Diálogo, pues (y voy terminando, señor Presidente), diálogo, pues, sin desmayo, para emprender un nuevo camino, una nueva etapa, como ha dicho el Lehendakari, que nos lleve a la resolución del problema de la violencia, que nos lleve a la resolución de todos nuestros problemas en las claves expuestas por nuestro candidato a Lehendakari y que comparte plenamente Eusko Alkartasuna.

diot, Espainiako lehen eta arazorik garrantzitsuena den horri buruz.

Beraz, elkarrizketaren lanari lehenbailehen heltzen badiogu, hobe izango da, hobea izango da elkarrizketa politikoa elkarbizitza baketsua eta hobea iristeko helbururako. Eta Ibarretxe hautagaiak ez du proposatu bakarrik egin, etxeko estilo horri jarraituz, hurrengo hilabeteetarako etxeko-lan zorrotz samarrak hartu ere hartu ditu bere gain.

Eta gu, Lehendakari jauna, lan egiteko prest egongo gara. Badakigu lan-egutegi zorrotz samarra dela, lan handia eskatzen duela, eta jakina, Eusko Alkartasunak beste alderdi batzuekin batera adierazi du ez duela etsiko zuk proposatu dituzun arlo guzti horietan lan egiteko ahaleginean.

Eta konplexurik gabeko elkarrizketa bat burutu du geure autogobernua osatzeko, aurrera egiteko gizartearen erabakien errespetuari dagokionez eta bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearen aitorpenaren aldetik, Euskal Herriko lurraldeen arteko harremanak izateko ahalbidea izatea, baita zera ere (eta ez dut tamalez Rabanera jauna ikusten) Trebiñoko biztanleen borondatea bete ahal izatea, gai guzti horiek, Eusko Alkartasunaren iritziz, autogobernu osoaren planteamendu serio batetik banatu ezinezkoak dira. Autogobernu horrek gidatu behar ditu era berean, eta gaur goizean halaxe esan da, barne alderako begiradak ere, gure hautagaiak egin duen moduan, barne aldera egituratzeari begira ere bai, hau berriro formulatu eta euskal administrazio publikoak planifikatu eta hobetzeari begira eta Europarekin elkartzeari begira.

Oswaldo Ferrariren “Dialogos” liburuan Jorge Luis Borges-ek honela zioen: “Aro kristaua baino bostehun bat urte lehenago inguru, Magna Grecia zeritzan hartan unibertsoko historian gertatu den gauzarik hoberena gertatu zen: dialogoaren aurkikuntza egin zuten. Fedeek, ziurtasunek, dogmek, anatemek, otoitzek, debekuek, aginduek tabuek, tiraniek, guduek eta loriek ludi osoa sarraskitzen zuten; zenbait grekok ordea, inork ez dakielarik nola, elkarrizketatzeko ohitura berezi hura hartu zuten. Eta zalantza egin zuten, konbentzitu, aurkako iritziari eutsi, iritzia aldatu eta erabakiak atzeratu egin zituzten. Horretan euren mitologiak lagundu zien agian, izan ere, Shinto modua baitzen, zehaztasunik gabeko fabula eta kosmogonia aldakor multzo bat baitzen. Sineste multzo zehaztugabe hura izan zen gaur egun ponperiaz metafisika deritzogun horren lehen sustraia. Greko berritsu gutxi haiengatik izan ez balitz, mendebaldeko kultura imajinaezinezkoa izango zatekeen”.

Dialogoa da, beraz (eta amaitzera noa, lehendakari jauna), elkarrizketa, eta etenik gabe, bide berri bati ekiteko, etapa berri bati ekiteko, Lehendakariak esan duen moduan, indarkeriaren arazoari irtenbidea ematera eramango gaituena, geure arazo guztiak konpontzera eramango gaituena gure lehendakari hautagaiak adierazitako eta Eusko Alkartasunak erabat bere egiten dituen klabeen bidez.

Ibarretxe hautagaiaren aldeko boto garbia emango dugu Eusko Alkartasunatik. Konfiantza osoa daukagulako gaur hemen aurkeztu zaigun programarekiko. Eta lehengo Maiatzaren 13an gure herriak zuzendutako mezuari zuzenki, bete-betean, erantzuten diolako. Bakegintza eta normalizazioa, eta honek eskatzen dituen neurri eta lanak aintzin-aintzinean ezartzen ditugularik, herri honek eskatzen digun aurrerapen eta ongizatearen mailari eusten saiatuko gara irmoki. Eta irmotasun berarekin, irmotasun berarekin, lotuko gatzaizkio herri honi zor zaion autogobernu-maila osorik errespetatua izan dadin, gure herrikide guztien pentsamoldeak errespetatuko dituen beste marko juridiko-politiko batera abiatzeko duen eskubidea barne. Hori ere bai. Elkarrizketaren bidetik, errespetuaren bidetik, pentsamolde guztiak beregan hartzen dituen espirituaren bidetik, hau da, demokraziaren bidetik, alegia.

Esker mila, Lehendakari jauna.

El Sr. **PRESIDENTE**: Mila esker zeuri, Knörr jauna.

Jarraian, Euskal Sozialistak Taldeko ordezkari dan Redondo jaunak dau hitza.

El Sr. **REDONDO TERREROS**: Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, señor Ibarretxe.

Quiero empezar, estoy obligado a empezar mi intervención mostrando en nombre del Grupo Socialista nuestra más enérgica condena por el último atentado de ETA en Madrid, mostrando igualmente nuestra solidaridad a los familiares de don Luis Ortiz, una persona que ha defendido las libertades de todos, y también nuestra solidaridad y apoyo al Cuerpo Nacional de Policía y a la ciudadanía, a la sociedad madrileña.

Hoy más que nunca, los vascos tenemos que ser especialmente claros en la defensa de las libertades contra el fanatismo, contra el terrorismo. Usted, señor Ibarretxe, ha ganado las elecciones, pero, como ve, los graves problemas de ayer siguen siendo los graves problemas de hoy.

Y quiero empezar recordando por qué estamos aquí. Estamos hoy aquí porque una política a nuestro juicio errónea, hija de unas alianzas perversas, le obligó a usted a adelantar las elecciones. Y, a diferencia de lo que usted y otros dijeron, que las elecciones no cambiarían nada, es evidente, y hoy lo ha reconocido aquí, que han cambiado algunas cosas fundamentales a mi juicio.

En primer lugar, y por encima de todo, ha cambiado que un grupo que apoya y justifica a ETA haya pasado de 14 a siete escaños. Ésa es la realidad más importante de las elecciones del 13 de mayo. El discurso del portavoz de HB (EH, Batasuna, ese cambio continuo de nombres) no ha querido aclarar este punto que a mí me parece fundamental: después de las elecciones del 13 de mayo el grupo que ampara, justifica y argumenta a favor de ETA ha pasado de 14 a siete diputados. Es un elemento de cambio fundamental, a mi juicio.

Eusko Alkartasuna va a dar un voto claro a favor del candidato Ibarretxe. Porque tenemos una confianza plena en el programa que hoy se ha presentado aquí. Y porque responde directamente y plenamente al mensaje emitido por nuestro pueblo el pasado 13 de mayo. Dar prioridad a la pacificación y normalización y todas las medidas y labores que exigen estos, tratando de mantener con firmeza los avances y nivel de bienestar que exige este pueblo. Y con la misma firmeza, con la misma firmeza nos empeñaremos en la consecución del respeto al nivel de autogobierno al que tiene derecho este pueblo, incluido el derecho que le asiste a avanzar hacia un marco jurídico y político diferente en el que se respete el pensamiento de todos los ciudadanos. Esto también. Por la vía del diálogo, por la vía del respeto, por la vía del espíritu que integre todos los modos de pensar, es decir, por la vía de la democracia.

Muchas gracias, señor Presidente.

**LEHENDAKARI** jaunak: Muchas gracias a usted, señor Knörr.

A continuación tiene la palabra el representante del Grupo Socialistas Vascos, señor Redondo.

**REDONDO TERREROS** jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, Ibarretxe jauna.

Hasteko, ezinbestez, Talde Sozialistaren izenean geure gaitzespenik borobilena adierazi behar dugu Madrilen ETAk eginiko azken atentatuari, era berean adierazten diogularik geure elkartasuna Luis Ortizen sendiari, denon askatasuna defenditu duen pertsona baita, eta era berean geure elkartasuna helarazi nahi diogu Polizia Nazionalari eta herritarrei, Madrileko gizarteari.

Gaur sekulan baino gehiago, euskal herritarrok sekulan baino argiago mintzatu behar gara askatasunaren alde eta fanatismoaren aurka, terrorismoaren aurka. Zuek, Ibarretxe jauna, zuk hauteskundeak irabazi dituzu, baina, ikusten duzunez, atzoko arazo larri berak gaur ere arazo larriak izaten jarraitzen dute.

Eta hasteko gogorarazi nahi dizuet zergatik gauden hemen. Gaur hemen gaude gure ustez okerra zen politika baten ondorioz, hitzarmen okerren ondorioz hauteskundeak aurreratzera behartu zaituztelako. Eta, zuk eta beste batzuek esan zutenaz bestera, alegia hauteskundeek ez zutela ezertxo ere aldatuko, begi-bistakoa da, eta gaur hementxe aitortu duzu nire iritziz behintzat zenbait gauza aldatu egin direla.

Lehen-lehenik, eta batez ere, aldatu da ETAri apoioa eta justifikazioa ematen dion taldea 14 eserleku izatetik zazpi izatera pasa dela. Horixe da maiatzaren 13ko hauteskundeen errealitaterik garrantzitsuena. HBko bozeramailearen hitzaldiak (EH, Batasuna, izen aldaketa etengabe hori) ez du argitu nahi izan niri garrantzitsua iruditzen zaidan puntu hori: maiatzaren 13ko hauteskundeez geroztik ETAren aldeko babesa, justifikazioa eta argudioak ematen dituen taldea 14 diputatu izatetik zazpi izatera pasa da. Nire iritziz, aldaketa nagusia da hori.

Ha cambiado, también lo creo así, su propio discurso político. Si nos atenemos a lo que ha dicho hoy usted en esta Cámara, creo que éste también es un dato importante a tener en cuenta. Y me atrevería a decir incluso que ha cambiado su talante. Nos alegramos por ello, pero nos preocupa que usted no haya sido más concreto y nos presente una especie de investidura a plazos, anunciándonos plenos monográficos para buscar soluciones a nuestros más graves problemas.

Le recuerdo, señor Ibarretxe, que los posteriores debates parlamentarios que usted nos anuncia no le eximen, y más en un debate de investidura, de presentar las iniciativas que a usted, como candidato a Lehendakari, le corresponde ofrecer, porque esa responsabilidad es suya y no la puede diferir.

Nos alegramos, sin embargo, de que usted, señor Ibarretxe, rectifique y apueste por la centralidad política del Parlamento, cuando anteriormente algunos de su grupo negaron el pan y la sal, y hasta se opusieron incluso a las mayorías parlamentarias de este Parlamento.

Nos alegramos de que apueste por el Estatuto, al que ha calificado de instrumento preciso y precioso, cuando antes algunos lo daban por muerto o lo calificaban de carta otorgada.

Nos alegramos de que por fin hayamos oído decir en esta Cámara que a ETA hay que perseguirla, y no integrarla, como se ha dicho en otras ocasiones.

Nos alegramos de que haya puesto como prioridad de su gobierno la defensa de la pluralidad, los derechos y las libertades de la ciudadanía. Pero nos habría gustado, sin embargo, haberle oído decir que quiere liderar la unidad de los demócratas, que apuesta por esa unidad, para acordar políticas compartidas y eficaces que derroten al terrorismo y consoliden la libertad y la paz definitivamente en el País Vasco. Unidad que, por cierto, se ha dado esta mañana en la concentración que hemos celebrado a las puertas de este Parlamento, y unidad que se ha reclamado por todos los grupos políticos en la declaración aprobada.

Usted, señor Ibarretxe, ha dicho esta mañana que quiere abrir una nueva etapa en la que prime el diálogo con todos los partidos políticos del arco parlamentario que han recibido la legitimidad democrática de la sociedad vasca. ¿Quiere eso decir, señor Ibarretxe, que cuenta con EH, Batasuna o HB para el diálogo que propone?

Hoy, cuando nos hemos levantado en ese minuto de silencio que expresaba nuestra solidaridad con la familia del asesinado y nuestra repulsa a ETA, faltaba un grupo. Y cuando hemos salido seguía faltando ese grupo, EH. Vuelvo a repetir: ¿quiere eso decir, señor Ibarretxe, que cuenta con EH para el diálogo que propone?

Señor Ibarretxe, usted ha ganado las elecciones y, aunque en minoría, será Lehendakari y formará Gobierno. Por eso queremos de verdad, sinceramente, que no se vuelva a equivocar.

Aldatu da, gisa berean, halaxe uste dut nik behintzat, zure diskurtso politikoa ere. Gaur zuk hemen esan duzunari lotzen bagatzaizkio, uste dut hau ere aintzat hartzeko moduko datua dela. Eta ni ausartuko nintzateke esaten zure jarrera bera ere aldatua dela. Gu poztu egiten gara horregatik, baina kezkatu egiten gaitu zu zehatzago ez mintzatu izana eta nolabait epekako inbestidura aurkeztu izana hemen, eta geure arazorik larrienen konponbideak aurkezteko gai bakarreko osoko bilkurak iragarri izana.

Ibarretxe jauna, gogoratu behar dizut iragarri dizkiguzun eztabaida parlamentario horiek ez zaituztela aske uzten, eta are gutxiago inbestidura eztabaida batean, izan ere Lehendakari hautagaia zarenez, zuri proposamen horiek egitea baitagokizu, zure ardura da eta ezin duzu gerorako utzi.

Halere, gu pozten gara zuk, Ibarretxe jauna, norabidea aldatu eta Legebiltzarra politikaren gunea bilakatzeaz, zure taldeko batzuk lehenago horri uko egiten baitzioten, eta Legebiltzar honen gehiengoaren erabakiei uko egiteraino iritsi baitziren.

Gu pozten gara Estatutuaren aldeko apustua egiteaz, eta hura baliabide beharrezko eta baliotsutzat jo izanaz, zeren lehenago batzuk hildakotzat ematen baitzuten edo “carta otorgada”tzat jotzen baitzuten.

Pozten gara entzun dugulako azkenik Legebiltzar honetan ETA jazarri egin behar dela, eta ez integratu egin behar dela, lehenago entzun izan dugun moduan.

Gu pozten gara zure gobernuaren lehentasuntzat izendatu izana pluraltasunaren defentsa, herritarren eskubideak eta askatasunak. Baina guk atsegin izango genukeen zuri entzun bagenizu demokraten batasunaren buruzagi izan nahi duzula, batasunaren aldeko apustua egiten duzula Euskal Herrian behin betiko askatasuna eta bakea finkatu eta terrorismoari irabazteko politika konpartitu eta eraginkorrak sustatu. Eta bidenabar esanda, batasun hori gaur goizean izan dugu Legebiltzarreko atarian egin dugun kontzentrazioan, eta batasun hori eskatu dugu alderdi politiko guztion onetsi den adierazpenean.

Zuk, Ibarretxe jauna, gaur goizean esan duzu euskal gizartearen legitimitate demokratikoa jaso duten Legebiltzarreko alderdi politikoen arteko elkarrizketari lehentasuna emango dion etapa berri bati eman nahi diozula hasiera. Ibarretxe jauna, horrek esan nahi al du zuk EHren edo Batasuna edo HBren partaidetza izango duzula elkarrizketa horretan?

Gaur, hildakoaren senideekiko elkartasuna eta ETAren gaitzespena adierazteko minutu bateko isiltasunean altxa garenean, hemen talde bat falta zen. Eta atera garenean talde hori falta zen, EH. Berriro diotsut: Horrek zer esan nahi du, Ibarretxe jauna, zuk EHren partaidetza izango duzula uste duzu proposatzen duzun elkarrizketa horretan?

Ibarretxe jauna, zuk hauteskundeak irabazi dituzu eta, gutxiengoz bada ere, Lehendakaria izango zara eta Gobernua osatuko duzu. Horregatik, benetan, ez dugu nahi berriro ere okerra egiterik.

Los socialistas, que no olvidamos el pasado pero estamos, como usted, dispuestos a superarlo, tenemos claro que la prioridad absoluta de su gobierno debe ser derrotar a ETA, para defender las libertades y, con ellas, la paz en el País Vasco. Tenemos claro que las instituciones y los grupos democráticos vascos nada tienen que negociar con un grupo terrorista y totalitario. Pero mis dudas sobre si ustedes lo tienen tan claro no las puedo despejar tan fácilmente, simplemente escuchando su discurso.

Porque en el acuerdo de gobierno, del que ha hecho presentación el señor representante de Eusko Alkartasuna, y en algunas declaraciones anteriores a este debate, a nuestro juicio han seguido relacionando, mezclando sus reivindicaciones legítimas con el objetivo de todos, que es la búsqueda de la paz.

Porque a mi juicio en esas declaraciones, en ese acuerdo, siguen creyendo que a cambio de la autodeterminación ETA va a dejar de asesinar, vandalizar las calles, exiliar, amordazar a los oponentes. Y ésa es una visión equivocada y angelical que nace de una confusión entre objetivos tácticos y estratégicos. Porque la estrategia de ETA es el poder, el ejercicio absoluto del poder, el dominio totalitario, la imposición. La autodeterminación, la construcción nacional, la independencia, son simplemente, como para cualquier organización fascista, un objetivo táctico.

ETA no va a dejar de matar porque se acerquen o nos acerquemos a sus reivindicaciones. La experiencia de estos años así lo ha demostrado, por desgracia. Iniciamos una transición en este país, y ETA siguió matando; aprobamos una constitución en este país, y ETA siguió matando; aprobamos un estatuto de autonomía, y ETA siguió matando. Todo demuestra que estos objetivos que son de la mayoría del país, de la mayoría democrática, para ellos son simplemente objetivos tácticos para buscar la dominación y el poder. Por eso le pedimos claridad: ¿qué es lo que vale?, ¿lo que se ha dicho fuera, o lo que se ha dicho aquí hoy?

Yo quiero creerle a usted, pero usted, señor Ibarretxe, tiene que decidir si va a gobernar para todos o sólo para aquellos que le han votado; si quiere formar gobierno para fortalecer las libertades y las reglas de juego democrático, o para debilitar las instituciones.

Los socialistas estaremos en la oposición, pero, como le dije tras la primera entrevista que mantuve con usted después de las elecciones, no vamos a hacer una política de frontón que se limite a decir “no” a todo. Vamos a hacer una oposición firme, responsable, provechosa para el país y los ciudadanos; una oposición que inevitablemente será crítica y controlará al Gobierno, pero también ofrecerá alternativas y zonas de consenso.

A nosotros siempre nos encontrará en el diálogo y en la búsqueda de consenso para construir un país de todos y para todos. Pero que nadie se equivoque: no vamos

Sozialistok ez dugu iragana ahantziko, baina zu bezala, hura gainditzeko prest gaude, argi ikusten dugu zure gobernuaren lehentasun nagusiak ETAri irabaztea izan behar duela, askatasunak defenditzeko eta, haiekin batera, Euskal Herriko bakea ere bai. Garbi ikusten dugu erakundeek eta euskal talde demokratikoek ez dutela ezer negoziatzekorik talde terrorista eta totalitario batekin. Baina zuek hori horren garbi ote duzuen ditudan zalantzak ezin ditut erraztasunez baztertu zure hitzaldia entzun hutsaz.

Izan ere, gobernu hitzarmenean, Eusko Alkartasunaren ordezkari denak aurkeztu duen gobernu hitzarmenean, eta eztabaida honen aurretiko zenbait adierazpenetan, gure iritziz erlazionatzen eta nahasten jarraitu baituzue zuen aldarrikapen legitimoak eta beste guztion helburua den bakearen bilaketa.

Zeren, nire iritziz, hitzarmen horretan, zuek sinesten duzue oraindik autodeterminazioaren ordainetan ETAk hiltzeari utziko diola, kale borroka egiteari utziko diola, eta euren aurkakoak atzerriratu eta isilarazteari utziko diola. Eta hori jaunok ikuspegi okerra eta aingerutarra da, helburu taktiko eta estrategikoak nahastetik heldu dena. ETAren estrategia boterea da, boterea modu absolutuan eskuratzea, modu totalitarioan agintzea, berea inposatzea. Autodeterminazioa, eraikuntza nazionala, independentzia beste gabe edozein erakunde faxistarentzat helburu taktikoa besterik ez dira.

ETAk ez dio hiltzeari utziko zuek edo gu haien errebindikazioetara hurbilduagatik. Urte horietako eskarmentuak horixe erakutsi digu, tamalez. Herri honetan trantsizio bati hasiera eman zitzaion eta ETAk hiltzen jarraitu zuen; herri honetan konstituzio bat onetsi genuen, eta ETAk hiltzen jarraitu zuen; autonomia estatutua onetsi genuen, eta ETAk hiltzen jarraitu zuen. Frogatua geratu da herri honen gehiengoaren helburua diren asmo horiek, gehiengo demokratikoaren helburu diren horiek haientzat helburu taktikoak besterik ez direla, agintzea eta boterea eskuratzea lortzeko. Horregatik zuri argi mintzatzeko eskatzen dizugu: zer da balio duena?, kanpoan esandakoak ala gaur hemen esan denak?

Nik sinetsi egin nahi dizut zuri, baina zuk, Ibarretxe jauna, erabaki egin behar duzu denontzat gobernatuko duzun ala zuri botoa eman dizutenentzat bakarrik egingo duzun; gobernua osatu nahi duzun askatasunak eta joko demokratikoaren arauak sendotzeko, ala erakundeak ahultzeko.

Sozialistak oposizioan egongo gara, baina, zurekin hauteskunde ostean izan nuen lehen elkarrizketan esan nizun moduan, ez dugu frontoiko politika hutsa egingo denari ezezkoa eman besterik egingo ez duena. Oposizio sendoa, arduratsua, probetxugarria egingo dugu herriarentzat eta herritarrentzat; edonola ere kritikoa izango den oposizioa eta Gobernua kontrolatu egingo duena, baina era berean alternatibak aurkeztuko dituena eta kontsentsu unean bilatuko dituena.

Gu beti aurkituko gaituzu elkarrizketarako prest eta denontzako herria eraikitzeko kontsentsurako prest. Baina inor ez dadila engaina: ez dugu etsiko defenditu

a renunciar a defender lo que hemos defendido, a luchar contra el terrorismo, a reforzar las instituciones democráticas, a construir el país para todos sobre la base de la pluralidad, de los derechos de ciudadanía y del respeto y defensa de la legalidad democrática vigente.

Señor Ibarretxe, nuestro problema no es que no podamos decidir nuestro futuro, porque lo podemos hacer desde 1977. El problema con mayúsculas de este país sigue siendo el de la falta de libertad que padece una gran parte de la sociedad vasca. Lo era antes del 13 de mayo, y lo sigue siendo después.

ETA ha decidido seguir atentando sin contemplaciones contra los pilares fundamentales que sostienen cualquier sociedad que quiera seguir llamándose democrática: el principio de representación popular, la libertad de pensamiento y la libertad de expresión y prensa. El terrorismo impide que se den las condiciones de igualdad política y de normalidad que son fundamentales para que se produzca un auténtico debate democrático.

ETA es el enemigo del país, y el país tiene que reaccionar unido contra ETA para salvaguardar su futuro. No hace falta para ello que nadie abdique de sus posiciones democráticas, ni ustedes ni nosotros. Lo que se impone es que todos seamos patriotas, que todos reaccionemos con el único patriotismo que a mi juicio merece la pena: el patriotismo democrático.

Porque en Euskadi hay que seguir defendiendo la democracia, ésta y no otra, la democracia que garantiza derechos y libertades que son indivisibles, porque los derechos y libertades o son de todos o no son de nadie. Y si unos pueden moverse en libertad otros estarán en libertad vigilada, porque del totalitarismo nadie puede escapar.

Por eso, señor Ibarretxe, combatir a ETA con voluntad de vencerla debe ser la prioridad fundamental de su gobierno, el eje de una verdadera política de paz. Porque, por cierto, lo único que crea anormalidad política permanente en el país es el terrorismo. Todos los demás problemas son fruto de nuestra diversidad. En cierta medida eso es lo que he creído oír esta mañana. Por eso, para los socialistas, la única mesa que hay que constituir es la de los demócratas para defender las libertades amenazadas, nuestra democracia, nuestro Estado de Derecho.

Señor Ibarretxe, usted nos ofrece restablecer un clima de entendimiento. Yo, por mi parte, le aseguro que, si existe voluntad de avanzar en el combate policial a ETA y sus viveros, en la unidad democrática para hacer frente al terrorismo, en el respeto efectivo al pluralismo, en la defensa de los derechos y libertades de los ciudadanos, en el reforzamiento de las instituciones, y en el pleno y leal desarrollo del Estatuto de Autonomía, ese entendimiento será no solamente deseable, será posible.

Le digo más: desde la oposición le ofrezco solemnemente, en nombre del grupo de los Socialistas Vascos, una batería de zonas de acuerdo, de zonas de consenso que nos permitan dar respuesta a los graves problemas del país.

gabe beti defenditu izan duguna, terrorismoaren aurka borrokatu, erakunde demokratikoak sendotu, aniztasunean, herritarren eskubidean eta indarrean dagoen legalitate demokratikoaren errespetua eta defentsan oinarrituriko herria eraikitzea.

Ibarretxe jauna, gure arazoa ez da geure etorkizuna ezin dugula erabaki, 1977z geroztik egin baitezakegu. Herri honen benetako arazoa askatasun falta, euskal gizartearen zati handi batek jasaten duen askatasun falta. Maiatzaren 13aren aurretik hala zen eta gerora ere halaxe da.

ETAk inolako arrangurarik gabe jarraitzen du erasotzen demokratikoa deritzan edozein gizarteren funtsezko zutabeak direnak: herri ordezkaritzaren irizpidea, pentsamendu askatasuna eta adierazpen nahiz prentsa askatasuna. Terrorismoak eragotzi egiten du benetako eztabaida demokratikoa egin ahal izateko funtsezkoak diren berdintasun politikoa eta normaltasun egoera sortzea.

ETA da herrialdearen etsaia, eta herriak batasunez erantzun behar du ETAren aurka, bere etorkizuna babesteko. Horretarako ez da beharrezkoa inork bere jarrera demokratikoei uko egin beharra, ez zuek eta ez guk. Hemen beharrezkoa da denok abertzaleak izatea, denok ere nire iritziz benetan merezi duen abertzaletasun bakarraz erantzutea: abertzaletasun demokratikoa.

Euskadin demokrazia defenditzen jarraitu behar baitugu, horixe da eta ez besterik, banaezinak diren eskubideak eta askatasunak bermatuko dituen demokrazia, izan ere eskubideak eta askatasunak denonak izango dira ala inorenak ere ez. Eta batzuek askatasunez ibil badaitezke ere, beste batzuek zaintzapeko askatasunean egongo dira, inork ezin baitio totalitarismoari ihes egin.

Horregatik, Ibarretxe jauna, ETAren aurka irabazteko asmoz borrokatzeak izan behar du zure gobernuaren lehentasun nagusia, benetako bake politikaren ardatza. Izan ere, bide batez esanik, herri honetan benetan normaltasun politikoa hausten duen bakarra terrorismoa baita. Gainerako arazo guztiak gure dibertsitatearen emaitza dira. Nolabait ere gaur goizean horixe entzun dudan irudipena daukat. Horregatik, sozialistontzat, eraiki behar den mahai bakarra demokratok osaturikoa da mehatxupean dauden askatasunak, geure demokrazia eta gure Eskubide Estatua babesteko.

Ibarretxe jauna, zuk eskaini diguzu elkar aditzeko giroa berreskuratzea. Eta nik neure aldetik behintzat ziurtatzen dizut ETAren eta haren bihitegien aurkako borroka polizialean aurrera egiteko borondatea baldin badago, terrorismoaren aurkako batasun demokratikoan aurrera egiteko eta herritarren eskubide eta askatasunetan aurrera egiteko, erakundeak sendotzeko eta Autonomia Estatutua osoki eta leialki garatzeko borondatea baldin badago, elkar aditze hori izatea desiragarri ez ezik, egingarri ere izango dela.

Gehiago ere esango dizut: oposiziotik zintasun osoz egiten dizut Euskal Sozialistak Taldearen izenean, adostasun arlo sail baten eskaintza, herriaren arazo larriei erantzuna emateko ahalbidea emango diguten kontsentsu uneen eskaintza.

Le ofrezco un pacto por la seguridad, que estimule la operatividad de la Ertzaintza en la lucha contra el terrorismo. Un acuerdo que contribuya a despolitizar y a profesionalizar a la Policía autonómica para hacerla más eficaz. Un acuerdo que busque la máxima coordinación política y policial entre el Gobierno Vasco y el Gobierno central, porque sería bochornoso tener que seguir soportando la falta de diálogo y de comunicación entre dos Gobiernos que están obligados a entenderse. Un acuerdo, en fin, que potencie la investigación y prevención policial para atajar fenómenos como el del terrorismo callejero.

Una vez que usted y su Gobierno han acabado por admitir lo que otros veníamos sosteniendo, que la llamada "kale borroka" no es otra cosa que acción terrorista organizada por ETA, yo le pido que actúen en consecuencia, usted y su Gobierno próximo, porque hoy la "kale borroka" se está extendiendo incluso a familiares de políticos, de primer y segundo grado.

Porque, señor Ibarretxe, lo que este país necesita no es que usted ofrezca no dar ni un paso atrás, sino que, ejerciendo el liderazgo que solicita, dé no uno, sino muchos pasos adelante. La situación tiene que mejorar, tiene que mejorar radicalmente.

Y le diré otra cosa: tenemos que admitir, desde nuestro grupo parlamentario cuando menos, que la crítica a la Consejería de Interior no es una crítica que deslegitime o que vaya en la dirección de deslegitimar a la Policía Autónoma. Désenos ese derecho, créase que cuando hablamos de la actividad negativa de la Consejería de Interior no estamos debilitando o deslegitimando a la Policía Autónoma. Estamos hablando de los responsables de la Policía Autónoma. Nosotros estamos con usted, con todos ustedes, en el apoyo a la Policía Autónoma.

Comprenderá que desde nuestra posición en la oposición, antes, y espero que después menos, nos preocupe que nuestras críticas a la Consejería se mezclen con actitudes ante el colectivo, ante la Policía Autónoma, ante la Ertzaintza. Ése sería un principio muy importante para restablecer la confianza: cuando ustedes se equivoquen en la acción de gobierno y vean nuestras críticas no entiendan que nuestras críticas van dirigidas al colectivo o a la institución, sino a quien ha hecho esa labor o esa actividad criticable por nuestra parte. Si aceptáramos esto, estaríamos dando un paso substancial para civilizar y modernizar el debate político en este país, en Euskadi.

Mire, señor Ibarretxe, a usted le corresponde impulsar la unidad democrática. Para ello le propongo retomar la única propuesta concreta que se ha puesto encima de la mesa en la anterior legislatura. No me importa dónde, ni cómo. Me importan los principios. Me importa que esa unidad democrática se base en la aceptación inequívoca de las reglas de juego democrático, en la renuncia expresa a la violencia y el compromiso activo para su erradicación por parte de todos sus integrantes. No son limitaciones; son principios inexcusables para que poda-

Segurtasunerako hitzarmen bat eskaintzen dizut, Ertzaintzaren eraginkortasuna sustatzeko terrorismoaren aurkako borrokan. Ertzaintza despolitizatu eta eraginkorrago egiteko profesionalizatu egingo duen hitzarmen bat. Euskal Gobernuaren eta Gobernu zentralaren artean ahalik eta lankidetza politikoa eta polizial handiena lortzeko hitzarmen bat, zeren lotsagarria litzateke elkar aditzeko premian dauden bi gobernuen arteko elkarrizketa eta komunikazio falta hori jasaten jarraitu beharra. Eta azkenik, kale borrokarena bezalako fenomenoak eragozteko ikerketa eta aurre-hartze poliziala sustatzeko hitzarmena.

Zuk eta zure gobernuak onartu duzuenez beste batzuk lehendik esaten genuena, alegia kale borroka ez dela ETSren ekintza antolatuaren emaitza baizik, nik eskatzen dizuet horren arabera joka dezazuela, zuk eta zure gobernuak, izan ere gaur egun kale borrokaren eragina politikoen lehen eta bigarren mailako senideengana heltzen ari baita.

Izan ere, Ibarretxe jauna, herri honek ez baitu behar zuk agintzerik ez duzula atzera pauso bakar bat ere emango, eskatzen zaizun buruzagitzari ekin behar diozu, eta urrats bat ez, asko eta asko eman behar dituzu aurrerantz. Egoerak hoberantz egin behar du, asko ere asko hobetu behar du.

Eta beste gauza bat esango dizut: gure legebiltzar taldeak behintzat onartu egin behar du Herrizaingo Sailari egiten diogun kritika ez dela Ertzaintzari legitimazioa kentzeko edo asmo horrezaz egina izaten. Emaguzue horretarako eskubidea, Herrizaingo Sailaren eragin kaltegarriaz hitz egiten dugunean sinets iezaguzue gure asmoa ez dela Ertzaintza ahultzea edo legitimazio kentzeko. Ertzaintzaren arduradunez dihardugu soil-soilik. Gu zuekin bat gatoz, zuekin bat gatoz Ertzaintza apoiatzeko helburuan.

Ulertuko duzue gu oposizioan gauden tokitik, lehenago, eta gero eta gutxiago izatea espero dut, kezkatu egiten gaituela Sailari egiten dizkiogun kritikak Polizia autonomoaren, Ertzaintzaren eta kolektibo horren aurkako kritikatzat hartzea. Elkarren arteko konfiantza berreskuratzeko oso printzipio nagusia litzateke hori: gobernuaren akzioan okerra egiten duzuenean eta gure kritikak entzuten dituzuenean ez duzue ulertu behar gure kritikak kolektiboaren edo erakundearen beraren aurkakoak direnik, lan hori edo jarduera hori burutu duten arduradunen aurkako kritika izango da gurea. Hori onartzen badugu, herri honetako, Euskadiko eztabaida politikoa zibilizatu eta modernizatzeko funtsezko urratsa ematen ariko ginateke.

Hara, Ibarretxe jauna, zuri dagokizu batasun demokratikoa sustatzea. Eta horretarako proposatzen dizut nik lehenagoko legegintzaldian mahairatu zen proposamen konkretu bakarra berreskuratzea. Ez zait axola non ez nola. Niri printzipioak axola zaizkit. Niri axola zait batasun demokratikoa joko demokratikoaren arauen onarpen zalantzagabekoan oinarritzea, indarkeriari uko egiten zaiola adieraztea eta hura deserrotzeko konpromiso aktiboa hartzea haren partaide guztiek. Eta ez dira hauek mugak; alde batera utzi ezin diren printzipioak di-

mos trabajar la mayoría de esta sociedad en la dirección de conseguir la paz y la libertad en el País Vasco.

Estamos dispuestos a contemplar cualquier posibilidad, créame, créame, aquí o fuera. Lo que queremos dejar claro es que tiene que haber unos principios que sean la referencia del comportamiento de los que hagamos la unidad democrática. Vuelvo a decirlos para que nadie confunda principios con limitaciones: aceptación inequívoca de las reglas de juego democrático, renuncia expresa a la violencia y compromiso activo para su erradicación por parte de todos los integrantes en esa unidad democrática.

Ha sido inspirándose en aquella resolución como mi partido ha planteado estos días pasados una propuesta de cohesión democrática en el ámbito municipal. No tiene sentido excluir a EH, por su carácter antidemocrático, de la política de pactos en las instituciones comunes y mantener alianzas de gobierno con EH en otro ámbito institucional tan sensible como lo es el de los Ayuntamientos, porque es en el ámbito municipal donde la violencia terrorista se deja sentir con mayor intensidad e impunidad. Es allí donde los cargos públicos se ven más amenazados. Allí donde el principio de representatividad y, por tanto, la misma democracia se encuentran más cuestionados, o, para decirlo más crudamente, en algunos sitios en situación agónica.

Porque, cuando un concejal del PSE o del PP opta por no ser un héroe y dimitir, el problema de la dimisión no es sólo del PP o del PSE: es el síntoma de una grave enfermedad del Estado de Derecho y de la democracia. Y a usted, a su Gobierno, al futuro Gobierno, le corresponde tomar decisiones que impidan estos síntomas.

Por eso le emplazo, señor Ibarretxe, a que asuma como objetivo preferente de su Gobierno adoptar, en coordinación si fuera preciso con el Gobierno central, las medidas legislativas, judiciales y administrativas que sean necesarias para garantizar que todas las fuerzas políticas podamos presentar, en igualdad de condiciones, candidaturas en las próximas elecciones municipales. Me parece que son una buena referencia política y temporal, para ver cómo vamos avanzando, justamente esas elecciones municipales.

Yo le he oído hoy compromisos, o voluntad de compromiso, mejor dicho, en esa dirección. No quiero exagerar, y, como comprenderá usted, estoy en contra de quienes han hablado anteriormente, de alguno que ha hablado anteriormente, hablando de la utilización de las víctimas. Pero sí quiero dejar claro aquí, en este debate, que si lográramos tener todos las mismas oportunidades de presentar listas en todos los municipios de esta Comunidad habríamos dado un paso extraordinario en la normalidad que decimos algunos, en la normalización que dicen otros.

ra gizartearen gehiengoak lan egin ahal izan dezagun Euskal Herrian bakea eta askatasuna eskuratzera bideraturiko norabidean.

Sinets iezadazu edozein aukera aintzakotzat hartzeko prest gaudela, sinets iezadazu, nahiz hemen barruan nahiz kanpoan. Argi adierazi nahi dugu zenbait printzipio beharrezko direla batasun demokratikoaren jokamoldearen erreferentzia izateko. Berriro esango ditut inork nahastu ez ditzan printzipio horiek mugak direlakoan: joko demokratikoaren arauak zalantzarik gabe onartzea, indarkeria erabiltzeari uko egiten zaiola adieraztea eta batasun demokratikoaren partaide guztiek indarkeria deserrotzeko konpromiso aktiboan jarduteko konpromisoa hartzea.

Ebazpen hartan oinarrituz planteatu du nire alderdiak aurreko egun horietan udal mailan kohesio demokratikorako proposamen bat. Ez du inolako zentzurik EH demokraziaren aurkakoa delako alde batera uztea erakunde komunetako hitzarmen politikatik at uztea eta bestalde udal maila den bezain erakunde maila sentiberan gobernu hitzarmenak izatea EHrekin, izan ere udal maila baita indarkeria terrorista indarrik gehienaz eta inpunitate gehienaz sumatzen den erakunde maila. Kargu publikoak dituztenek hantxe bizi dute mehatxurik gehiena. Hantxe erasotzen da gehien ordezkagarritasunaren printzipioa eta, ondorioz, demokrazia bera ere hantxe dago arrisku handienean, edo modu gordinagoan adierazteko, zenbait lekutan hilzorian ere hantxe dago.

Izan ere PSEko edo PPko zinegotzi batek heroi bat ez izatea erabaki eta kargua utzi egiten duenean, kargu-uzte horren arazoa ez da PP edo PSErentzat bakarrik izango: Eskubide Estatuaren eta demokraziaren gaixotasunaren sintoma baita. Eta zuri, zure Gobernuari, etorkizuneko Gobernuari sintoma horiek eragotziko dituzten erabakiak hartzea dagokizue.

Horregatik, Ibarretxe jauna, gomita egiten dizut zure Gobernuaren lehentasunezko helburutzat har ditzazula, eta beharrezkoa balitz, Gobernu zentralarekin lankidetzan ari zaitezela, beharrezkoak diren erabaki legislatibo, judizial eta administratiboak hartzeko bermatzeko indar politiko guztiok baldintza berdinetan aurkeztu ahal izan ditzagun hurrengo udal hauteskundeetan geure hautagaiak. Iruditzen zait erreferentzia politiko eta tenporal egokia izango direla neurtu ahal izateko nola egiten dugun aurrerantz hain justu ere udal hauteskunde horiexei erreparatuz.

Nik gaur konpromisoak entzun dizkizut, edo era horretako konpromisoak hartzeko borondatea duzula, behintzat. Ez dut den baino gehiago esan nahi, eta, ulertuko duzunez, lehenago mintzatu direnen iritziaren aurka nago ni, zehazki, lehenago hitz egin duen baten aurka, biktimen erabileraz hitz egin duenaren aurka hain zuzen ere. Baina argi adierazi nahi dut hemen, eztabaida honetan, Erkidego honetako udal guztietan hautagai zerrendak aurkezteko aukera berdinak izatea lortzen badugu, ikaragarrizko urratsa eman izango dugula batzuek eskatzen dugun normaltasunerantz, eta besteek normalizazio deritzoten horretarantz.

Le propongo igualmente un plan de choque, una ofensiva ideológica y cultural contra los presupuestos del totalitarismo que alimentan la violencia terrorista. Una ofensiva que tenga como objetivo impulsar una política de recuperación cultural y educativa, de movilización social, de regeneración ética y de extensión por el conjunto de la sociedad, particularmente entre los más jóvenes, de los valores de la democracia.

Hay que privar a ETA y su mundo de cualquier tipo de legitimación ideológica. Hay que privar a los partidarios de ETA de micrófonos y espacios en los medios públicos de comunicación, para que no sean utilizados para hacer propaganda del terrorismo. Hay que arrebatar a ETA varios miles de adolescentes y jóvenes que consideran que es lícito matar por razones ideológicas y que se socializan en el odio al diferente desde la edad escolar. A esos jóvenes no podemos dejarlos en la cuneta. Tenemos que recuperarlos para la democracia.

No voy a extenderme sobre este particular. Después de pasada la pasión y la tensión de la campaña electoral, se lo dije también en la reunión que tuvimos. Nosotros propusimos 16 medidas en ese sentido, que le sugiero para el acuerdo y el consenso. Estoy convencido de que algunas de ellas pueden ser utilizadas por todos para conseguir justamente esto en relación, tal vez, con lo que más nos importa, que es la juventud.

Nos alegra su sensibilidad actual con respecto a las víctimas del terrorismo, más porque se pueden aclarar en el futuro muchas circunstancias de la relación institucional entre el Gobierno y esas víctimas del terrorismo, cuya voz no hay que desactivar, como ha sugerido un destacado representante de su partido, tal vez llevado de una cierta euforia electoral. Muy al contrario, los socialistas pensamos que tanto el colectivo de víctimas del terrorismo como todos aquellos grupos que han luchado en primera línea en defensa de las libertades y de los derechos cívicos se han ganado sobradamente el derecho a la palabra.

Y además tienen que dejarse oír, porque sus reivindicaciones son justas, y porque prestan un servicio inestimable a la causa de la libertad de expresión en este país que algunos desean, y sí desean de verdad, de pensamiento único.

En una sociedad en la que una parte de los intelectuales, una parte (gran parte) de los empresarios, una parte (buena parte) de los periodistas se sienten prisioneros o con miedo, o necesitan llevar escolta, algo grave está pasando, algo no funciona bien. Y enfrentarnos a esto que no funciona bien, a esto que está pasando y es grave, es responsabilidad de todos y muy especialmente de su futuro Gobierno, del futuro Gobierno que usted presida.

Hoy, como ayer, seguimos entendiendo que las víctimas del terrorismo deben jugar un papel fundamental en la construcción democrática del país. Deben ser, como le dije en la anterior legislatura en alguna ocasión, la conciencia crítica de lo que hagamos. Por eso yo de

Txoke plan bat proposatzen dizut era berean, ofentsiba ideologiko eta kultural bat, indarkeria terrorista sustatzen duten totalitarismoaren presupostuen aurka. Berreskuratze kulturala eta edukatiboa burutzeko politika sustatzea helburutzat duen ofentsiba bat, gizarte mobilizazio bat, gizarte osora hedatzen den berrindartze etikoa, bereziki gazteenen artera hedatuko litzatekeena, demokraziaren baloreak berreskuratzea.

Kendu egin behar zaie ETAri eta haren munduari legitimazio ideologiko mota oro. ETAren aldekoei eragotzi egin behar zaie komunikabide publikoetako mikrofonoetara eta espazioetara heltzeko aukera, ez ditzaten erabili ahal izan terrorismoaren propaganda egiteko. Atera egin behar dira ETAren eraginpetik arrazoi ideologikoengatik hiltzea zilegi dela pentsatzen duten zenbait mila nerabe eta gazte, eskola garaitik hasita ezberdina denari gorrotoa izaten ikasten duten horiek. Ezin ditugu gazte horiek erretenean botata utzi. Demokraziarako berreskuratu behar ditugu.

Ez naiz gehiago luzatuko honi dagokionez. Hauteskunde kanpainaren pasioa eta tentsioa joan eta gero, izan genuen lehen elkarrizketan ere hauxe esan nizun. Helburu horri begira guk 16 neurri proposatu genituen, eta horiek iradokitzen dizkizut orain ere akordioa eta kontsentsua lortzeko asmoz. Ziur nago horietako batzuk erabil daitezkeela hain justu ere gehien axola digun horretarako, hots, gazteen helburuari begira.

Pozten gaitu orain duzun sentiberatasunak terrorismoaren biktimekiko, bereziki etorkizunean argitu daitezkeelako gobernuaren eta terrorismoaren biktimen arteko erakunde harremanen inguruko hainbat gorabehera, ez baita haien ahotsa isilarazi behar lehenago zure alderdiko ordezkariren batek esan duen moduan, agian hauteskundeen emaitzen sukarraldiak eragindа. Aitzitik, sozialistok pentsatzen dugu terrorismoaren biktimen kolektiboek, askatasunen nahiz eskubide zibikoen defentsan lehen lerroan jardun duten taldeek bezalaxe, hitz egiteko eskubidea irabazia dutela inolako zalantzarik gabe.

Eta gainera euren ahotsa entzunarazi behar dute, haien aldarrikapenak bidezkoak direlako, eta herri honetako adierazpen askatasunaren aldeko zerbitzu pagaezina egiten dutelako, izan ere hemen pentsamendu bakarra ezartzeaz arituz gero, horiek bai benetan halaxe nahi dutela.

Gizarte batean intelektualetako batzuk, enpresarietako asko, kazetarietako asko preso edo izuturik sentitzen direnean, edo bizkartzainak eraman behar dituztenean, zerbait okerra gertatzen ari da hor, zerbait ez dabil ondo. Eta denon ardura da gaizki dabilen horri ekitea, gertatzen ari den eta larria den horri aurre egitea, denon ardura da hori eta bereziki zure Gobernuarena, zu lehendakari izango zaituen etorkizuneko gobernu horrena.

Gaur, atzo bezalaxe, pentsatzen dugu terrorismoaren biktimek funtsezko zeregina dutela herri honen eraikuntza demokratikoan. Lehengo legegintzaldian noiz edo noiz esan nuen moduan, egiten dugunaren kontzientzia kritikoa izan behar dute. Horregatik nik aurretik ere

antemano acepto las propuestas que ha hecho esta mañana. Pero la aceptación de esas propuestas que ha hecho esta mañana no debería impedir que este Parlamento tuviera una voz clara, contundente, diáfana, en relación con las víctimas del terrorismo.

Proponemos la creación en este Parlamento, no para retirar nada de lo que usted ha dicho, para complementar, de una comisión específica de víctimas del terrorismo, que fue aprobada pero no creada a finales de la pasada legislatura, por iniciativa de mi grupo. Se trata de coberturas económicas, pero sobre todo se trata de dar calor, cobijo, solidaridad, cariño y amparo a quienes han sufrido ese terrible lance.

Y en esto me gustaría, por encima de todo lo que podamos tener de disputa política, me gustaría que estuviéramos juntos. Esa gente necesita, quiere que estemos juntos, y estaría preocupada, como lo estuvo durante la pasada legislatura, por la división de las formaciones políticas en este país en relación con ellos.

Vuelvo a repetir, Lehendakari, apoyando lo que usted ha dicho en relación con las víctimas, me gustaría volver a incidir sobre esa parte de la sociedad vasca que tiene la percepción, percepción real, de falta de libertad y seguridad. Esa parte es fundamental para construir un país plural y de todos, y a esa parte hay que atenderle, y tiene que atenderle usted especialmente.

Cuando un dirigente de su partido hablaba de desmovilización, como recordaba antes, también se refirió a determinados movimientos. La sociedad civil la tenemos que impulsar, critiquen o apoyen al Gobierno, sean nacionalistas o no lo sean. Tenemos parte de lo mejor de este país en ese mundo, y parte de lo mejor de este país en el mundo de la inteligencia siente menoscabada, limitada su libertad.

Usted tiene la responsabilidad de enfrentarse a ese problema también, y me gustaría que lo pudiéramos hacer juntos desde la base de que no puede ser una referencia que ataquen o no al Gobierno, que sean o no nacionalistas.

Le propongo también, señor Ibarretxe, un pacto educativo que refuerce el protagonismo de la escuela en la lucha por la regeneración democrática del país, consolide y refuerce nuestro sistema de enseñanza. Un pacto educativo que consagre el papel central de la escuela pública en el desarrollo de una enseñanza de calidad, que a su vez sea instrumento de adquisición de conocimientos y de integración, vehículo de igualdad social y de formación en valores.

Creemos también necesario un pacto cultural y lingüístico para afianzar el pluralismo de la sociedad vasca, despolitizar y profesionalizar los medios públicos de comunicación, para desarraigar las semillas de intolerancia siempre latentes, por desgracia, en el seno de la sociedad vasca.

onartzen ditut zuk goizean eginiko proposamenak. Baina gaur goizean egin dituzun proposamen horiek onartzeak ez luke eragotzi behar Legebiltzar honek ahots garbiz, zindoz eta gardenaz mintzatzea terrorismoaren biktimei buruz.

Zuk esandako ezer erretiratu gabe, baizik eta hura osatzeko asmoz, proposatzen dizugu terrorismoaren biktimen batzorde berezitua sortzeko, izan ere, nire taldearen eskariz aurreko legegintzaldian onetsi baikenuen, gero sortu ez bazen ere. Babes ekonomikoak ematea da helburua, baina batez ere berotasuna, aterpea, elkartasuna, kariñoa eta babesa ematea eraso ikaragarri hori jasan dutenei.

Eta honetan nik atsegin izango nuke, gure artean izan genitzakeen eztabaida guztiak alde batera utzita, nik atsegin izango nuke elkarrekin egon ahal izatea. Jende horrek hori behar du, gu elkarrekin egotea nahi du, eta kezkatua legoke, aurreko legegintzaldi guztian egon zen bezalaxe, haiei dagokien gaian herri honetako indar politikoak banaturik daudelako.

Berriro diot, lehendakari jauna, biktimekiko harremanean zuk esan duzun hori apoiatuz, nik atsegin izango nuke berriro azpimarratzea euskal gizartearen atal batek askatasunik eta segurtasunik ez dueneko pertzepzioa, erreala den pertzepzioa duela. Herrialde anitza eta denontzako izango dena eraikitzeko funtsezkoa del herri atala da, eta arreta eskaini behar zaio herri atal horri, eta zuk bereziki eskaini behar diezu arreta.

Lehenago gogorarazi dizudanez, zure alderdiaren buruzagietako batek desmobilizazioaz hitz egiten duenean, zenbait mugimenduri buruz aritu da. Gizarte zibila sustatu egin behar dugu, ordea, gobernua kritikatzen dutenak izan ala ez izan, abertzaleak izan ala ez izan. Herri honetako zatirik hoberenaren atal bat mundu horretan daukagu, eta herri honetako zatirik hoberenaren atal honetako intelektualetako batzuk mugatuta sentitzen dira eta askatasunik gabe.

Zuk ere arazo horri aurre egiteko ardura daukazu, eta nik atsegin izango nuke elkarrekin egin ahal izatea eta ez bereizkuntzarik egitea Gobernuari kritika egiten dioten taldeak izan ala ez izan, edo abertzaleak izan ala ez izan.

Ibarretxe jauna, era berean proposatzen dizut hezkuntza hitzarmen bat ere egin dezagula herriaren indarberritze demokratikorako borrokan eskolak duen protagonismoa sendotzeko, gure hezkuntza sistema sendotu eta bermatzeko helburuz. Kalitatezko hezkuntzaren garapenean eskola publikoak duen funtsezko zeregina sagaratuko duen hezkuntza hitzarmena proposatzen dizut, ezagupenez jabetzeko eta integraziorako baliabidea izan dadin, gizarte berdintasun eta balore formaziorako baliabide izan dadin.

Kulturaren eta hizkuntzaren ituna ere beharrezkoa iruditzen zaigu euskal gizartearen pluraltasuna sendotzeko, komunikabide publikoak despolitizatzeko eta profesionalizatzeko, eta euskal gizartean, zoritxarrez, beti azpian dauden intolerantziaren haziak erauzteko.

Queremos que los medios públicos de comunicación sean capaces de recoger y reflejar el rico debate de ideas y de posiciones políticas y sociales que hoy existe en el seno de la sociedad vasca. Queremos avanzar en un modelo de radio y televisión públicos al servicio de la máxima objetividad y de la mayor transparencia informativa, y no del adoctrinamiento ideológico.

Consideramos además de todo punto necesario devolver al Parlamento el control de la política lingüística, ahora, me da la impresión, en manos de grupos que no se representan más que a sí mismos. Y nos parece esencial alcanzar un clima de entendimiento que nos permita avanzar por la vía de un bilingüismo integrador y de un encuentro lingüístico que estimule al máximo la cooperación entre los dos ámbitos idiomáticos de este país, el euskera y el castellano.

En su intervención, señor Ibarretxe, ha hablado de desarrollo estatutario. Nosotros, señor Ibarretxe, nos alegramos de que usted vuelva al discurso estatutario, como decía antes, y se olvide de las filosofías del Estatuto muerto o de la carta otorgada, que alguno de sus compañeros mencionó en la anterior legislatura.

Los socialistas lo decimos desde esta tribuna: apostamos con rotundidad por el cumplimiento íntegro del Estatuto y por explorar todas las potencialidades que contiene para su desarrollo, dejando siempre claro que cualquier desarrollo o modificación del Estatuto tendrá que hacerse desde la lealtad constitucional, respetando las reglas del juego democrático y la legalidad vigente.

Cuente con nosotros para esa tarea, pero no cuenten con nosotros para ninguna aventura al margen de la Constitución. No cuenten con nosotros para romper nuestro marco institucional, representado en el Estatuto. Nosotros vamos a defender el Estatuto, como norma básica de convivencia y vertebración democrática de esta Comunidad. Garante de él es la Constitución y nuestra legalidad democrática.

Los vascos pueden decidir libremente. Tal vez el único condicionamiento desde el principio de la transición es el miedo de ETA. Y los vascos podrán decidir lo que quieran libremente en el futuro, ateniéndonos siempre a eso que nosotros denominamos reglas del juego democrático, a eso que otros denominan principio de legalidad, esto que está recogido en la Constitución.

Ustedes, señor Ibarretxe, siguen manteniendo que hay un contencioso pendiente entre el País Vasco y el Estado. Los socialistas pensamos que, si existe algún contencioso, ése será fundamentalmente entre los propios vascos, que es una consecuencia del pluralismo, de las diferencias de nuestra sociedad, de la sociedad vasca. Por eso, señor Ibarretxe, tiene que saber usted que cualquier propuesta que se haga sobre esta materia, a nuestro entender, debe contar con un consenso aún mayor del que supuso el consenso estatutario, ajustándose siempre

Komunikabide publikoak euskal gizartearen baitan gaur egun dagoen ideia eta jarrera politiko eta sozialen eztabaida aberatsa jasotzeko eta islatzeko gai izatea nahi dugu. Ahalik eta objektibotasun handienaren eta informazio-gardentasun handienaren zerbitzura egongo den irrati eta telebista publikoen ereduan aurrera egin nahi dugu, eta ez doktrinamendu ideologikoaren zerbitzura dagoen batean.

Guztiz beharrezkoa iruditzen zaigu, gainera, hizkuntza politikaren kontrola Legebiltzarrari itzultzea, orain, nire ustez, beren buruak baizik ordezten ez dituzten taldeen esku baitaude. Eta funtsezkoa iruditzen zaigu elkar ulertzeko giro bat iristea, elebitasun integratzailearen bidetik aurrera egiteko eta herri honetan bi hizkuntz esparruen, euskararen eta gaztelaniaren arteko lankidetza ahalik eta gehien suspertuko duen hizkuntz topaketaren bidetik aurrera egiteko.

Zure esku-hartzean, Ibarretxe jauna, Estatutuaren garapenaz hitz egin duzu. Gu, Ibarretxe jauna, eta lehen ere esan dudan bezala, oso pozik gaude berriz ere Estatutua mintzagai duzulako eta Estatutu hilaren edota zure lagunetako batek aurreko legegintzaldian aipatu zuen “emandako eskubidea”ren filosofiak alde bat utzi dituzulako.

Sozialistok tribuna honetatik zera diogu: Estatutua erabat betetzearen eta Estatutuak bere garapenerako dituen ahalbide guztiak aztertzearen aldeko apustua egiten dugu argi eta garbi, betiere garbi utziz Estatutua garatzeko edo aldatzeko Konstituzioari zor zaion leialtasuna errespetatuz eta gaur egun indarrean dauden joko demokratikoaren arauak eta legeak errespetatuz egin beharko dela.

Eginkizun horretarako gure laguntza izango duzue, baina ez guri deitu Konstituzioa baztertzen duten abenturetarako. Ez guri deitu Estatutuak mamitzen duen esparru instituzionala hausteko. Guk Estatutua defendituko dugu, Erkidego honetako elkarbizitza eta egituratze demokratikoaren funtsezko arau gisa. Eta bere bermatzaile dira Konstituzioa eta gure lege demokratikoak.

Euskaldunek askatasun osoz egin dezakete aukera. Agian, eta trantsizioaren hasieratik, ETArekiko beldurra izan da baldintzapen bakarra. Eta euskaldunek askatasun osoz aukeratu ahal izango dute nahi dutena etorkizunean, guk joko demokratikoaren arauak esaten diegun horiei eutsiz betiere, beste batzuek legezkotasun printzipioa esaten dioten horri, Konstituzioak jasotzen duen horri.

Zuek, Ibarretxe jauna, Euskal Herrian eta Estatuan oraindik ere gatazka bat konpondu beharra dagoela esanez jarraitzen duzue. Sozialistok uste dugu gatazkaren bat baldin bada, euskaldunen beren artean dagoena dela funtsean, eta hori gure gizartearen, euskal gizartearen pluraltasunaren eta iritzi- desberdintasunen ondorioa da. Horregatik, Ibarretxe jauna, jakin behar duzu gai honi buruz egingo den edozein proposamenek, gure ustez, Estatutuak izan zuen baino adostasun handiagoa izan beharko duela, eta betiere indarrean dauden joko demokra-

a las reglas del juego democrático vigentes. No olvide que el Estatuto, a nuestro juicio, es hoy por hoy el mejor punto de encuentro entre los vascos, habida cuenta del especial pluralismo de esta sociedad.

Insisto en el respeto a la legalidad vigente, porque nos preocupa la situación que se está creando cuando surgen voces alrededor de sus partidos políticos, los de la coalición, que pretenden, proponen o en ocasiones hasta amenazan con organizar referéndums por su cuenta y riesgo a través de métodos propios de la desobediencia civil o de la "caja de zapatos", no sé bien.

Nosotros no nos cuestionamos nunca lo que los vascos y las vascas puedan decidir en cada momento. La voluntad de la ciudadanía vasca la hemos aceptado y la hemos asumido siempre. La voluntad de los vascos debe expresarse a través de la legalidad democrática vigente, también o especialmente para modificar nuestro marco jurídico de convivencia. Y nosotros acataremos esa voluntad. La acatamos como lo hicimos cuando se aprobó en referéndum la Constitución. La aceptaremos como lo hicimos cuando se aprobó el Estatuto. Siempre hemos aceptado la voluntad de los vascos expresada en las urnas, nos haya ido bien o nos haya ido mal.

Nosotros, que defendemos el Estatuto, este Estatuto, exigimos que trate de culminar en esta legislatura el pleno desarrollo de nuestra autonomía por la asunción definitiva de las transferencias pendientes, desde el acuerdo y la lealtad con el Gobierno constitucional. Ni que decir tiene que contará con nuestra leal colaboración para llevar a buen puerto este objetivo, y también para culminar con éxito las negociaciones con el Gobierno central sobre la renovación del actual Concierto Económico. Pero les recuerdo de todas formas que el Concierto forma parte indisociable del marco legal constitucional y estatutario. Y que, en consecuencia, apostar por el Concierto es apostar por el Estatuto, y no por otras vías que deslegitimen, debiliten o relativicen el hecho autonómico.

Los socialistas, que apostamos por la España plural, trabajaremos para que el Senado pueda convertirse en una verdadera cámara de representación territorial en la que la cooperación entre Autonomías y poder central se establezca sobre bases más actualizadas y más ajustadas al actual reparto de poder político en España.

Y en el camino de reforzar nuestra autonomía y nuestro autogobierno pensamos igualmente que es necesario, desde la lealtad constitucional, encontrar fórmulas que permitan la participación y defensa de nuestros intereses en la Unión Europea, en una Europa unida, una Europa en la que la idea de la ciudadanía se imponga sobre cualquier otra consideración.

Mi grupo propone por ello crear una comisión parlamentaria a favor de las políticas de y con la Unión Europea y otra que tenga entre sus objetivos específicos, además de los debates que tengamos en el Parlamento, en pleno parlamentario, abordar todo lo que afecta al desarrollo estatutario, para que estas y otras cuestiones, y

tikoaren arauei eutsiz. Ez ahaztu, gure ustez, eta gizarte honen pluraltasun berezia kontuan izanik, Estatutua dela gaur egun euskaldunen arteko elkargunerik onena.

Berriro aipatu nahi dut indarrean dagoen legeriari zor zaion errespetua, izan ere, kezkatuta gaude zuen alderdi politikoaren inguruan, koalizioaren inguruan, desobeditze zibilaren edota "zapata kaxaren" metodoa erabiliz, ez dakit, beren kontura erreferendumak antolatu nahi dituzten, antolatzea proposatzen duten edota are erreferendumak egitearekin mehatxatzen duten ahotsak altxatzen direnean sortzen den egoerarekin.

Guk ez diogu uko egiten euskaldunek edozein momentutan erabaki dezaketenari. Euskal herritarren borondatea, beti onartu eta errespetatu dugu guk. Euskaldunen borondatea indarrean dauden lege demokratikoen bidez adierazi behar da, eta baita gure elkarbizitzarako esparru juridikoa aldatzeko ere, eta horretarako bereziki. Eta guk borondate hori onartu egingo dugu. Konstituzioa erreferendumaren bidez onetsi zenean egin genuen bezala onartuko dugu. Estatutua onetsi zenean egin genuen bezala onartuko dugu. Beti onartu dugu euskaldunek hautestontzietan adierazi izan duten borondatea, gure aldekoa nahiz aurkakoa izan.

Estatutuaren alde, Estatutu honen alde gaudelarik, Gobernu konstituzionalarekin ados jarriz eta hari leialtasuna gordez, legegintzaldi honetan gure autonomia erabat garatzea eskatzen dugu falta diren transferentziak behin betiko ekarriz. Esan beharrik ez dago, gure laguntza leiala izango duzula helburu hori iristeko, eta baita egungo Kontzertu Ekonomikoa berritzeko Gobernu zentralarekiko negoziaketak arrakastaz amaitzeko ere. Baina, nolanahi dela ere, gogorarazi nahi dizuet Konstituzioak eta Estatutuak osatzen duten esparru legalaren zati bereiztezina dela Kontzertua. Eta beraz, Kontzertuaren aldeko apustua egitea Estatutuaren aldeko apustua egitea dela, eta errealitate autonomikoari legezkotasuna kendu, indarra kendu edota erlatibizatuko ez duten bideetatik.

Espainia anitzaren aldeko apustua egin genuen Sozialistok, Senatua benetako lurralde-ordezkaritzarako ganbera bihur dadin lan egingo dugu, bertan autonomien eta botere zentralaren arteko elkarlana oinarri gaurkotuago batzuen eta Espainian egun botere politikoa banatzen den moduari hobeki egokitzen zaizkion oinarrien gainean finka dadin.

Eta gure autonomia eta gure autogobernua indartzeko bidean uste dugu beharrezkoa dela, era berean, eta leialtasun konstituzionalari eutsiz, Europako Batasunean, Europa bateratu batean, herritartasunaren ideia beste edozer gauzaren gainetik egongo den Europa batean parte hartzeko eta gure interesak defenditzeko formulak aurkitzea.

Horregatik nire taldeak Europako Batasunarekiko politiken aldeko legebiltzar-batzorde bat sortzea proposatzen du, eta bere helburu zehatzen artean Legebiltzar honetan eta Osoko Bilkuretan izango ditugun eztabaidez gainera, Estatutuaren garapenari dagokion guztiaz aritzea izango duen beste bat ere bai, kuestio horiek eta beste

en eso coincidimos con la intervención de esta mañana, dejen de ser tratadas en foros ajenos a esta Cámara, que es, no nos olvidemos, la institución representativa de la sociedad vasca.

En coherencia con nuestra defensa del Estatuto, queremos defender, reforzar y prestigiar las instituciones que la ciudadanía vasca ha vuelto a revalidar en las urnas, porque, aunque sea una obviedad, conviene recordarla: lo que los ciudadanos han votado ha sido la renovación de este Parlamento, que es la institución, como decía anteriormente, representativa y central de la política vasca.

Ante las reflexiones que se hacían al principio de la tarde sobre el Parlamento y la actividad que se había desarrollado en el Parlamento en la anterior legislatura, hay que constatar y podemos constatar la altísima participación de los ciudadanos para que estemos justamente aquí en esta Cámara, en el Parlamento Vasco. Los ciudadanos nos han dado su voto para que sea aquí donde hablemos y decidamos sobre los problemas que afectan al conjunto de la sociedad. Usted tiene, pues, la obligación de gobernar con el Parlamento (así se ha comprometido esta mañana), y no frente al Parlamento; de exponer aquí, y no en otro foros, sus proyectos de Gobierno, y así se ha comprometido esta mañana a hacerlo.

Nosotros creemos que es prioritario para ello reformar el Reglamento de la Cámara para reforzar los mecanismos de transparencia y control de los actos de gobierno, y agilizar la tarea legislativa, convirtiendo así esta Cámara en el centro, como decía antes, de la política vasca. Si usted quiere y pretende ese objetivo, el de esta mañana, que parece pensamos conjuntamente, es imprescindible esa reforma del Reglamento de la Cámara.

Queremos también acabar con la opacidad y falta de control parlamentario de las cuentas públicas, que especialmente se ha dado en los últimos años en virtud de las prórrogas presupuestarias, sumadas a los excedentes recaudatorios. En este sentido, le emplazo para que, a través de las modificaciones legislativas pertinentes, este Parlamento pueda tener todos los mecanismos e información que garanticen el control efectivo del Presupuesto.

Y, en aras de la revitalización y dignificación de las instituciones, pretendemos que organismos paralelos surgidos de Lizarra, como Udalbiltza, desaparezcan. Si queremos que esta Cámara sea la referencia central de la política vasca, debemos coincidir en que todo lo que se creó de una forma alegal debería desaparecer. Usted, señor Ibarretxe, puede, si quiere, hacer desaparecer ese organismo. Me pregunto si lo quiere hacer en el futuro.

Tras casi veintidós años de andadura autonómica, los entes locales siguen siendo aún el hermano pobre de nuestro entramado institucional. Ha llegado el momento de que se apliquen políticas de subsidiariedad, dotando a los Ayuntamientos de recursos y competencias que les permitan prestar con suficiencia y eficacia los servicios que los ciudadanos les demandan.

batzuek –eta horretan bat gatoz gaur goizeko eskuhartzearekin–, Ganbera honetatik at erabil ez daitezen, hau baita, eta hori ez dugu ahaztu behar, euskal gizartea ordezten duen erakundea.

Estatutuaz egiten dugun defentsarekin koherente izanez, euskal herritarrek hautestontzien bidez berriro ere berretsi dituzten erakundeak defenditu, sendotu eta ohoratu nahi ditugu, gauza jakina izan arren, gogora ekartzea komeni baita: herritarrek Legebiltzar hau berritzearen alde bozkatu dute, eta lehen ere esan dudan bezala, Legebiltzarra da euskal politikan ordezkaritza duen erakundea eta erakunde garrantzitsuena.

Arratsaldearen hasieran Legebiltzarraz eta aurreko legegintzaldian Legebiltzarrean garatu den jardueraz egin diren gogoeten haritik egiaztatu behar da eta halaxe egiazta daiteke herritarrek parte hartze handia izan dutela, hain zuzen ere, Ganbera honetan, Eusko Legebiltzarrean egon gaitezen. Herritarrek hemen hitz egin dezagun eta gizarteak dituen arazoak hemen konpon ditzagun eman digute beren botoa. Zuk, beraz, Legebiltzarrarekin gobernatzeko betebeharra duzu (hala hitz eman duzu gaur goizean), eta ez Legebiltzarraren aurka; hemen aurkeztu behar dituzu, eta ez beste foro batzuetan, zure Gobernu proiektuak, eta hori egingo duzulako hitza eman duzu gaur goizean.

Guk uste dugu, beraz, lehentasuna duela Ganberaren Araudia aldatzeak Gobernuaren ekintzak kontrolatzeko eta beren gardentasuna ziurtatzeko mekanismoak sendotzeko, eta legegintzaren eginkizuna arintzeko, horrela, lehen esan dudan bezala, Ganbera hau euskal politikaren erakunde garrantzitsuena bihurtuz. Zuk helburu hori, gaur goizekoa, iritsi nahi baldin baduzu, eta badirudi iritzi bera dugula, nahitaezkoa da Ganberaren Araudia aldatzea.

Kontu publikoen iluntasunari eta Legebiltzarraren aldetiko kontrolik ezari ere azkena eman nahi diogu, azken urte hauetan areagotu egin baita, aurrekontuen luzapenak direla, alde batetik, eta zerga-bilketen soberakinak direla, bestetik. Zentzu horretan, Legebiltzar honek Aurrekontuak modu eraginkorrean kontrolatzeko mekanismo guztiak eta informazio osoa izan ditzan, legeari dagozkion aldaketak egiteko eskatuko nizuke.

Eta erakundeak berpizteko eta duintasuna emateko, Lizarratik sortutako erakunde paraleloak, Udalbiltza esate baterako, desagertzea nahi dugu. Ganbera hau euskal politikaren erreferentzia nagusia izatea nahi baldin badugu, bat etorri beharko genuke legez kanpo sortu zen guztia desagerraraztearekin. Zuk, Ibarretxe jauna, erakunde hori desagerraraz dezakezu nahi baldin baduzu. Etorkizunean hori egin nahi izango ote duzun galdetzen diot nire buruari.

Ia hogeita bi urtez autonomia izan ondoren, tokierakundeek gure sare instituzionalaren anaia pobreak izaten jarraitzen dute. Subsidiariotasun politikak ezartzeko unea iritsi da, herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak modu egokian eta eraginkorrean eskaini ahal izateko udalei behar dituzten baliabideak eta aginpideak emanez.

Señor Ibarretxe, ustedes han firmado un acuerdo, que el acuerdo más parece un manifiesto, un acuerdo de gobierno donde se concretan objetivos y propuestas. Por eso me alegro de la importancia que ha dado usted en su discurso a la construcción social del país. Me alegro de que al fin emerja ese debate que los socialistas veníamos reclamando desde hace tiempo. Un debate que, desgraciadamente, ha sido continuamente postergado por el terrorismo y por la prioridad obsesiva del debate identitario.

Nosotros, como partido de izquierdas, queremos que se hable del empleo, la vivienda, la revitalización de áreas territoriales en declive, la potenciación de infraestructuras básicas para vertebrar el país, las políticas de solidaridad social, la educación, la sanidad, la cultura… Queremos profundizar en debates estratégicos donde se juega el futuro de la igualdad y de la libertad social en nuestro país: el del acceso a las nuevas tecnologías, o el de la inmigración, o el del envejecimiento de nuestra población, o el de la nueva pobreza, o el del medio ambiente y el desarrollo sostenible.

Éste es un debate, señor Ibarretxe, que no podemos despachar con triunfalismos. Somos conscientes de nuestro grado de desarrollo y de nuestro elevado nivel de vida y bienestar, una situación que, en todo caso, en los últimos años se debe mucho más al acierto y al esfuerzo de nuestros agentes económicos y sociales que a la labor del Gobierno.

Sé además, señor Ibarretxe, que Euskadi no va tan bien. Hay síntomas que nos hablan de avances muy peligrosos de la dualización social, seguimos teniendo un grave problema estructural de paro y unos índices de temporalidad veinte puntos por encima de la Unión Europea, y Confebask nos acaba de anunciar que no se van a crear 5.000 empleos que estaban previstos.

Tenemos unos índices de siniestralidad laboral preocupantes, que se han disparado en los últimos tiempos como consecuencia precisamente del aumento de la precariedad en el empleo.

Sigue habiendo una evidente desigualdad de las mujeres en el acceso al mercado laboral: el 60 por ciento de los parados en nuestra Comunidad son mujeres.

Se mantienen las desigualdades sociales y de empleo entre las zonas deprimidas del país y el resto de la Comunidad Autónoma: más de la mitad del paro, o alrededor de la mitad del paro está centrado en el área del Gran Bilbao, donde también se está produciendo el mayor descenso de población y el mayor índice de envejecimiento.

Padecemos unas tasas de paro juvenil altas, que impiden que la juventud mejor preparada de los últimos tiempos pueda emanciparse y crear su propia familia.

En un periodo de tres años, señor Ibarretxe, el precio de la vivienda se ha incrementado notablemente, por muy encima del de los salarios, que ha sido sólo el 4

Ibarretxe jauna, zuek hitzarmen bat izenpetu duzue, eta hitzarmen horrek beste ezer baino gehiago manifestu bat dirudi, helburuak eta proposamenak zehazten diren gobernu-akordio bat. Horregatik pozten naiz zure hitzaldian herri honen eraikuntza sozialari eman diozun garrantziaz. Asko pozten naiz sozialistok aspalditik eskatu izan dugun eztabaida hori azkenik azaleratu izanaz. Terrorismoari eta identitateari buruzko debateek etengabe izan duten lehentasuna dela-eta atzeratu baita, zoritxarrez, eztabaida hori behin eta berriz.

Guk, ezkerreko alderdia garen aldetik, enpleguaz, etxebizitzez, lurralde-eremu kaltetuak berpizteaz, gure lurraldea egituratzeko oinarrizko azpiegiturak bultzatzeaz, gizarte solidaritatezko politikaz, hezkuntzaz, osasungintzaz, kulturaz… hitz egitea nahi dugu. Eztabaida estrategikoetan sakondu nahi dugu, gure herriaren etorkizuna baitago jokoan, gizarte berdintasunari eta askatasunari dagokionez: teknologia berriak guztien esku egotea, inmigrazioa, gure biztanleriaren zahartzea, pobrezia berria, ingurugiroa eta garapen iraunkorra.

Hori, Ibarretxe jauna, gainditua bagenu bezala alde bat utzi ezin dugun eztabaida da. Gure garapen mailaz, eta bizi-maila eta ongizate-maila jasoaz jabetzen gara, baina egoera hori, izatekotan ere, azken urte hauetan gure eragile ekonomiko eta sozialek egin duten ahaleginari eta lan egokiari zor zaio gehiago Gobernuaren ekintzari baino.

Badakit gainera, Ibarretxe jauna, Euskadi ez dagoela hain ongi. Gizartearen bikoiztasuna oso era arriskutsuan sakonduz doalako seinaleak dauzkagu, langabeziak arazo estruktural larria izaten jarraitzen du eta behin behinekotasun indizea Europako Batasunekoa baino hogei puntuz goragokoa da, eta Confebaskek iragarri berri du ez direla aurreikusten ziren 5.000 lanpostuak sortuko.

Laneko istripuen indizea kezkagarria da, eta azken aldian gora egin du nabarmen, lanaren ezegonkortasuna areagotu delako, hain zuzen ere.

Lan-merkatuan sartzeko gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna nabaria da oraindik ere: gure erkidegoan langabetuen ehuneko 60 emakumeak dira.

Desberdintasun handiak daude oraindik ere, gizarte egoerari eta enpleguari dagokienez, zona kaltetuen eta Autonomia Erkidegoko gainerako tokien artean: langabetuen erdia baino gehiago, edota ia langabetuen erdia Bilbo Handian biltzen da, eta hor ari da, era berean, biztanleria gehien behera egiten eta zahartze indizea gehien gora egiten.

Gazteen langabezia tasa oso handia da, eta hori dela eta, inoiz izan diren gazte prestatuenek ezin dute gurasoen etxetik alde egin eta beren familia osatu.

Hiru urteren epean, Ibarretxe jauna, etxebizitzen prezioa asko igo da, ehuneko 4 baizik igo ez diren soldatak baino askoz gehiago. Gaur egun, etxebizitza libre ba-

por ciento. Hoy el precio medio de una vivienda libre es de 31 millones de pesetas.

¿No le parece a usted, señor Ibarretxe, que, siendo las políticas de empleo y vivienda las de mayor incidencia en el despegue de los jóvenes y en la mejora de las condiciones familiares, deberían haber sido éstos precisamente los ejes básicos de su plan institucional de apoyo a las familias?

Y en la educación, ¿cuándo, por fin, abordaremos la evaluación del sistema educativo, para valorar y corregir, entre otras cosas, ésas de las que nos habla el último informe del Ararteko: la sobreconcentración de necesidades educativas especiales en el modelo A? ¿Y cómo podemos hablar luego de diferencias de resultados educativos entre unos y otros modelos sin tener en cuenta estas circunstancias, como las que el informe del Ararteko nos propone?

De éstas y de otras cosas, señor Ibarretxe, queremos hablar. Y también de la necesidad de consolidar un modelo de diálogo social que en Euskadi está prácticamente por estrenar, entre otras razones porque el diálogo social nunca ha sido una prioridad política de quienes han gobernado.

Nosotros le emplazamos a que, en todo caso, sea usted el Lehendakari que defienda y ampare la pluralidad de la sociedad vasca, el Lehendakari que defienda y culmine el Estatuto, el Lehendakari que derrote a ETA, el Lehendakari que defienda la igualdad política y social de los vascos, el Lehendakari que apueste por ampliar los espacios de consenso y no por fragmentar al país, el Lehendakari que quiera construir la Euskadi de los ciudadanos.

En ese camino, señor Ibarretxe, esté usted seguro de que podrá encontrarse con nosotros. Si quiere ir por otra vía –se lo digo con serenidad, pero también con firmeza–, nos encontrará enfrente.

Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Redondo jauna.

Jarraian, aurrera joateko, Euskal Talde Popularreko ordezkaria Mayor jaunak dau hitza.

El Sr. **MAYOR OREJA**: Señor Presidente, señor Lehendakari en funciones, señor candidato, señoras y señores parlamentarios.

En primer lugar, como otros grupos parlamentarios, yo no puedo empezar de otra forma que no sea recordando a la familia de Luis Ortiz de la Rosa, y enviarle desde el País Vasco mi solidaridad, mi afecto, mi proximidad y el cariño que en estos momentos nos suscita esta terrible tragedia que están padeciendo. Ellos sí que han padecido la vulneración de un derecho humano esencial, el principal de todos, el más importante de todos, cual es el derecho a la vida.

tek 31 milioi pezeta balio ditu batez beste.

Ez duzu uste, Ibarretxe jauna, enpleguaren eta etxebizitzen politikak hain garrantzitsuak izanik gazteek aurrera egin ahal izateko eta familien bizi baldintzak hobetzeko, horiek izan beharko zutela, hain zuzen ere, familiak apoiatzeko zure erakunde planaren ardatz nagusiak?

Eta hezkuntzari dagokionez, noiz ekingo diogu behingoz hezkuntza-sistema ebaluatzeari, besteak beste, Arartekoaren azken txostenak aipatzen dituen horiek balioetsi eta zuzentzeko, hau da, A ereduan behar berezi gehiegi biltzen direla heziketa kontuetan? Eta nola hitz egin dezakegu gero eredu batzuen eta besteen arteko emaitza desberdinez, Arartekoaren txostenak aipatzen dituen egoera horiek kontuan izan gabe?

Horietaz eta beste gauza batzuetaz hitz egin nahi dugu, Ibarretxe jauna. Eta baita gizarte-elkarrizketaren eredu bat finkatzeko beharrari buruz ere, Euskadin ez baita ia ezagutu ere egiten, besteak beste, gizarte-elkarrizketa inoiz ez delako gobernatu dutenen lehentasun politikoetako bat izan.

Guk, nolanahi dela ere, euskal gizartearen pluraltasuna defendituko eta babestuko duen lehendakaria izan zaitezen nahi dugu, Estatutua defendituko eta burutuko duen lehendakaria, ETA garaituko duen lehendakaria, euskaldunen berdintasun politikoa eta soziala defendituko duen lehendakaria, adostasun espazioak zabaltzeko apustua egingo duen lehendakaria, eta ez herria zatitzekoa, herritarren Euskadi eraiki nahiko duen lehendakaria.

Bide horretan, Ibarretxe jauna, gurekin egingo duzu, ziur egon. Beste bide batetik joan nahi baldin baduzu –patxadaz diot, baina baita tinkotasunez ere– aurrez aurre aurkituko gaituzu.

Mila esker.

**LEHENDAKARI** jaunak: Gracias, señor Redondo.

A continuación, prosiguiendo con la sesión, tiene la palabra el representante del Grupo Popular Vasco, señor Mayor.

**MAYOR OREJA** jaunak: Presidente jauna, funtziotako lehendakari jauna, hautagai jauna, legebiltzarkide jaun-andreok.

Lehenik eta behin, beste legebiltzar-talde batzuek bezala, nik ere Luis Ortiz de la Rosaren familiaz oroituz hasi nahi dut, eta Euskal Herritik nire elkartasuna, nire maitasuna, nire laguntasuna eta une honetan jasaten ari diren zoritxarrak gugan sortzen duen onginahia bidaliz. Haiek bai jasan dutela oinarrizko giza eskubide baten, guztietan nagusienaren, guztietan garrantzitsuenaren urraketa, bizitzeko eskubidearena.

El grupo parlamentario, el partido político que represento en este debate sitúa, señor candidato, la lucha contra el miedo, contra el terror que todavía protagoniza la organización terrorista ETA, como la primera, la principal tarea que tiene pendiente nuestra sociedad. Y para nosotros ése es el problema del País Vasco, y es al que tenemos que saber hacer frente desde el primer momento.

Quiero decirle que no habrá sorpresa en la posición de nuestro grupo. No la ha habido nunca. Y quiero decir que tomamos posición en este debate de designación del Lehendakari, y tomaremos posición a lo largo de estos cuatro años de legislatura, en función de su capacidad, señor candidato, de hacer frente al miedo que genera ETA en nuestra sociedad vasca. Nosotros valoraremos y evaluaremos la actuación de su Gobierno en función de su capacidad de devolución de libertad a miles de vascos que hoy ven cómo ese valor, el valor de los valores, para ellos no puede ser un valor en pleno disfrute.

Y decimos que la lucha contra el miedo, que eso es el terrorismo, para nosotros ésa es la acción principal que tiene encomendada el Gobierno Vasco en esta nueva encrucijada de su historia. Porque ETA, sin duda, es una estructura y una organización que mide sus éxitos en función del miedo que genera en cada momento.

No son ni los votos ni los discursos de Euskal Herritarrok, ni mucho menos los votos de los demás partidos, el termómetro que utiliza ETA para medir el éxito o el fracaso de su presencia. Su termómetro y su indicador principal es el miedo, el que consigue introducir en el País Vasco y el que consigue introducir fuera del País Vasco. Y, para ETA, a más miedo, más éxito. Ésa es esencialmente la historia de ETA: la historia de un intento de ruptura desde el miedo y desde la coacción.

Si ésa es la historia de ETA, la historia de la democracia es fundamentalmente una lucha contra el miedo, y también contra la ruptura, porque ETA es tanto miedo como ruptura en sus planteamientos políticos. Y por eso mismo, porque esto no ha sido una guerra ni es una guerra, ni aceptamos jamás el término de guerra, porque lo estamos resolviendo como nunca lo había hecho esta sociedad vasca, desde la democracia, está siendo por ello un largo recorrido, en el que en cada etapa y en cada tramo, institución a institución, avanza trecho a trecho. Y no todas las instituciones avanzan de la misma forma en la lucha contra el miedo.

Algunos afirman que la lucha antiterrorista, la lucha contra el miedo, ha sido siempre igual en la democracia española y se ha enfocado y se ha desarrollado siempre de la misma forma, de manera que lo que hoy caracteriza nuestra lucha es exactamente lo mismo que caracterizaba la lucha antiterrorista en los años 77, 78 y 79, y eso es una equivocación, eso está absolutamente alejado de la realidad. Ha habido un cambio sustancial a lo largo de estos años, trecho a trecho, institución a institución, en un esfuerzo ya mucho más multidisciplinar para avanzar en la lucha contra el miedo. Por eso la acción de la democracia española y de la democracia vasca

Eztabaida honetan ordezten dudan legebiltzartaldearentzat, alderdi politikoarentzat, hautagai jauna, beldurraren aurkako borroka, ETA talde terroristak oraindik ere eragiten duen beldurraren aurkako borroka da gure gizarteak duen eginkizun nagusia, lehena. Eta guretzat, hori da Euskal Herriaren arazoa, eta horri aurre egiten jakin behar dugu hasiera hasieratik.

Zera esan nahi dizut, ez da sorpresarik izango gure taldearen jarrerari dagokionez. Inoiz ez da sorpresarik izan. Eta zera esan nahi dut, Lehendakaria izendatzeko eztabaida honetan hartu dugun jarrera, eta legegintzaldi honetako lau urteetan hartuko dugun jarrera, hautagai jauna, ETAk gure gizartean eragiten duen beldurrari aurre egiteko izango duzun gaitasunaren araberakoa izango dela. Guk, milaka euskaldunei askatasuna itzultzeko izango duen gaitasunaren arabera balioetsiko eta ebaluatuko dugu zure Gobernuaren lana, gaur egun balio hori, balioetan baliozkoena, beraiek erabat gozatu ezin duten balioa dela ikusten baitute.

Eta guk diogu beldurraren –eta hori da terrorismoa–, beldurraren aurkako borroka dela guretzat Eusko Jaurlaritzak bere historiaren bidegurutze berri honetan duen egiteko nagusia. ETA, dudarik gabe, bere arrakastak une bakoitzean eragiten duen beldurraren arabera neurtzen dituen egitura eta taldea baita.

Ez dira ez botoak, ez Euskal Herritarrok-en mintzaldiak, ez gainerako alderdien botoak, ezta gutxiagorik ere, ETAk bere presentziaren arrakasta edota porrota neurtzeko erabiltzen duen termometroa. Bere termometroa eta bere adierazle nagusia beldurra da, Euskal Herrian sortzen duena eta Euskal Herritik kanpo sortzen duena. Eta ETArentzat, zenbat eta beldur handiagoa, orduan eta arrakasta handiagoa. Hori da, funtsean, ETAren historia: beldurra eta koakzioa erabiliz eten bat sortzeko ahaleginaren historia.

Hori baldin bada ETAren historia, demokraziaren historia beldurraren aurkako borroka da funtsean, eta baita etenaren aurkakoa ere, ETA eta bere planteamendu politikoa, etena baita beldurra adina. Eta horrexegatik, hau gerra bat izan ez delako, eta gerra ez delako, eta gerra hitza inoiz onartuko ez dugulako, euskal gizarte honek inoiz aurre egin ez dion bezala aurre egiten ari garelako, demokraziatik abiatuta, horregatik gertatzen da hain ibilbide luzea, etapa eta pauso bakoitzean, erakundez erakunde, pixkanaka aurrera doana. Eta erakunde guztiak ez dira berdin aurrera egiten ari beldurraren aurkako borroka horretan.

Batzuek diote terrorismoaren aurkako borroka, beldurraren aurkako borroka, beti berdina izan dela Espainiako demokrazian, eta beti berdin erabili eta garatu dela, eta beraz, gaur egiten ari garen borroka 77, 78 eta 79. urteetan egiten zen terrorismoaren aurkako borroka bezalakoa dela, eta hori gezurra da, horrek ez du errealitatearekin zerikusirik. Funtsezko aldaketa bat gertatu da urte hauetan zehar, pausoz pauso, erakundez erakunde, izan ere, beldurraren aurkako borrokan aurrera egiteko ahaleginean askotariko diziplinak erabili dira. Horregatik Espainiako demokraziaren eta euskal demokraziaren lana ez da estatikoa izan, dinamikoa eta aldakorra baizik, eta

no ha sido estática, sino dinámica y cambiante, y en cada institución el ritmo de cambio ha sido diferente.

Este diagnóstico no es una anécdota ni es baladí, ni es poco relevante, porque algunos siempre insisten y siempre plantean un fracaso colectivo frente al terrorismo en estos 25 años de democracia, y entonces el balance es desesperanzador y entonces los instrumentos del Estado de Derecho no han sido capaces de resolver la lucha contra el terror.

Y nos tenemos que preguntar cuándo comienza la cooperación internacional contra el terrorismo que protagonizan los Gobiernos de España y de Francia frente a ETA, frente a la ETA del exterior. Pues comienza en la mitad de la década de los ochenta, y no antes, y a través de unos gobiernos socialistas.

¿Y cuándo comienza la iniciativa propia de la justicia española contra la ETA del interior? Pues a partir del año 97, con aquella decisión del Tribunal Supremo encarcelando a la mesa nacional de Herri Batasuna y que posteriormente ha tenido continuación y ampliación en numerosos autos de la Audiencia Nacional.

¿Y cuándo se produce una movilización social permanente y constante, generalizada en la sociedad vasca y en la sociedad española? Pues a partir de lo que denominamos el "espíritu de Ermua", a partir del año 97.

¿Y cuándo se llega al convencimiento en los países de la Unión Europea y en las instituciones europeas, como se ha puesto de manifiesto esta misma mañana, de que hay que ir definiendo un instrumento de la Unión para combatir el miedo, el terror, el terrorismo? Pues desde hace muy pocos años, hace meses, ya en el final de la década de los noventa, sin que todavía sea una realidad.

Señor Ibarretxe, señor Lehendakari en funciones, yo he escuchado esta mañana con atención e interés todas las apreciaciones que en este terreno ha hecho. He de decirle que me han parecido correctas, y he percibido un tono más claro y más inequívoco.

Lo ha dicho el señor Redondo: "No es suficiente no dar un paso atrás, sino que hace falta que demos muchos pasos adelante". Pero quiero decirle que tampoco he visto reflejada en su intervención, y permítame que se lo diga, esa contundencia que usted anunció nada más ser asesinado el director financiero de *El Diario Vasco*, don Santiago Oleaga. Ni tampoco he visto que haya delimitado con claridad los trechos democráticos, los avances democráticos que desde el Gobierno Vasco se pueden dar en los próximos meses y en los próximos años, y que se hacen desde el esfuerzo.

Los trechos democráticos no son una enumeración de cosas que se van a hacer. Los trechos democráticos significan un esfuerzo de una institución singular para avanzar de verdad en la lucha contra el terrorismo. Lo primero que le quiero decir es que existen esos trechos, en mi opinión, esos avances desde el normal funcionamiento de nuestras instituciones, en el ámbito político sobre todo, y también en el ámbito ejecutivo, y la pre-

erakunde bakoitzak bere erritmoa izan du aldaketa hori egiteko.

Diagnostiko hau ez da pasadizo bat, ez da huskeria, ez da garrantzirik gabea, batzuek behin eta berriz baitiote demokraziaren 25 urte hauetan porrot kolektibo bat izan dugula terrorismoaren aurka, eta beraz, balantzea etsigarria da eta beraz, Zuzenbide Estatuaren tresnak ez dira gai izan terrorearen aurkako borroka ongi bideratzeko.

Eta gure buruari galdetu behar diogu noiz hasi zen Espainiako eta Frantziako gobernuek ETAren aurka, kanpoko ETAren aurka daramaten nazioarteko terrorismoaren aurkako elkarlana. Bada, 1980ko hamarkadaren erdi aldera hasi zen, ez lehenago, eta sozialisten gobernuen bidez.

Eta noiz hasi zen Espainiako justiziaren berezko ekimena barruko ETAren aurka? 97tik aurrera, Herri Batasunaren mahai nazionala espetxeratzeko Epaitegi Gorenak hartu zuen erabaki harekin, eta ondoren jarraipena eta hedapena izan du horrek Auzitegi Nazionalaren epai ugariren bidez.

Eta noiz hasi zen euskal gizartean eta Espainiako gizartean gizarte mugimendu iraunkor, etengabe eta orokorra? "Ermuko espiritua" esaten diogun horretatik abiatuta, 97. urtetik aurrera.

Eta noiz hartu dute Europako Batasuneko herrialdeek eta Europako erakundeek etsia, gaur goizean bertan nabarmendu den bezala, beldurra, terrorea eta terrorismoa borrokatzeko Batasunak bere tresnak zehaztuz joan behar duela? Duela oso urte gutxi, orain hilabete batzuk, 1990eko hamarkadaren bukaera aldera, eta oraindik ez da guztiz mamitu.

Ibarretxe jauna, funtziotako lehendakari jauna, gaur goizean arreta eta interes handiz entzun ditut gai horri buruz egin dituzun iruzkin guztiak. Eta zuzenak iruditu zaizkidala esan nahi dizut, eta zure tonua argia eta zalantzarik gabea iruditu zait.

Redondo jaunak hala esan du: "Ez da nahikoa atzerapausorik ez egitea, beharrezkoa da aurrerapauso asko egitea". Baina ez dut zure esku-hartzean, eta zilegi bekit hori esatea, *Diario Vasco*ko finantza zuzendaria, Santiago Oleaga jauna hil zutenean iragarri zenuen sendotasun hura islaturik ikusi. Eta ez zait iruditu datozen hilabeteetan eta datozen urteetan Eusko Jaurlaritzatik egin daitezkeen eta ahalegin handia eskatzen duten pauso demokratikoak eta aurrerapen demokratikoak argi eta garbi zehaztu dituzunik ere.

Pauso demokratikoak ez dira egin nahi diren gauzen zerrenda bat. Terrorismoaren aurka benetan aurrera egiteko erakunde berezi batek egin behar dituen ahaleginak dira pauso demokratikoak. Lehendabizi esan nahi dizudana da, pauso horiek, aurrerapen horiek badirela, nire ustez, gure erakundeen funtzionamendu normalean, esparru politikoan batez ere, baina baita esparru exekutiboan ere, eta beraz, honako galdera hau egin behar diogu

gunta que entonces nos debemos hacer: qué trechos democráticos faltan por recorrer desde el País Vasco y desde las instituciones vascas en los próximos años y sobre los que deberemos, sin duda, avanzar.

Quiero decirle que con la ETA del exterior, que sin duda, sin duda, hace que ese carácter transnacional de esta organización se haya conformado como la principal razón de subsistencia de esta estructura y es la razón principal de la dificultad para combatirla, quiero decirle que en estos momentos el Parlamento Europeo ya está tomando una posición clara e inequívoca respecto a unos instrumentos más importantes. La orden de busca y captura europea es una decisión política, en virtud de la cual se crea un espacio policial y judicial europeo, y en virtud de la cual un terrorista debe ser puesto a disposición inmediata de la justicia del país donde ha cometido el delito más grave.

Quiero decirle que ése será el principal instrumento de la Unión para combatir el fenómeno del terror, y quiero decir que esa posición hoy ha sido refrendada en el Parlamento Europeo, y lo ha sido hace unas semanas a través del Comisario europeo en la misma Comisión. Pues, bien, ¿va a tomar posición el Gobierno Vasco en la orden de búsqueda y captura europea?

Qué importante sería que este Parlamento, como lo han hecho el Parlamento Europeo o el Congreso de los Diputados, dijese por iniciativa suya que desde el País Vasco, desde la voz vasca más profunda y más genuina, queremos que exista un espacio judicial y policial europeo para combatir el fenómeno del miedo y del terror. Y yo le pregunto si está usted dispuesto a ir al Parlamento Europeo o a la Comisión Europea, o hacerlo aquí mismo, en el Parlamento Vasco, para defender con claridad esta posición.

Frente a esa ETA del exterior, en esa cooperación ya bilateral con países como Francia o como México, ¿acaso cree que no hay un trecho democrático por recorrer por parte del Gobierno Vasco y de las instituciones vascas para reforzar la cooperación en este ámbito?

En vez de estar poniendo siempre pegas y dificultades a través de los portavoces de su partido, en vez de decir que el Presidente del Gobierno de España es un mendigo en búsqueda de la cooperación internacional, como hace exactamente 48 horas decía el presidente de su partido, ¡qué importante sería un viaje suyo, señor Lehendakari, a México o a París, para decir que hay que apoyar la cooperación internacional frente al terrorismo desde esos países y desde esos Gobiernos! ¿Está usted dispuesto a realizar esos viajes? ¿Está usted dispuesto para decir que queremos reforzar, desde las instituciones vascas, esta tarea con mayor intensidad que nunca?

El tercer trecho, señorías, se refiere a lo que es la ETA ya del interior. Durante años la organización terrorista ha ido tejiendo una malla, un tejido, unas estructuras políticas y sociales, el mal llamado entorno del terrorismo, que durante años ha sido inmune a la acción de la justicia. Esto ha cambiado en los últimos años, y en este techo también hay que avanzar desde el Gobierno Vasco.

gure buruari: zein pauso demokratiko falta zaizkie oraindik emateko Euskal Herriari eta euskal erakundeei datozen urteetan, eta horietan egin beharko dugu, dudarik gabe, aurrera.

Nik zera esan nahi dizut, kanpoko ETArekin, eta dudarik gabe, dudarik gabe, erakunde horren nazioartekotasuna da egitura horren biziraupenaren eta borrokatzeko zailtasunaren arrazoi nagusia, zera esan nahi dizut, une honetan Europako Parlamentua jarrera garbi eta finkoa hartzen ari dela tresna garrantzitsuago batzuei dagokienez. Europako bilaketa eta atxilotze agindua erabaki politikoa da, eta horren bidez Europa osoa hartzen duen esparru poliziala eta juridikoa sortzen da, eta horren bidez terrorista bat berehala utzi behar da deliturik larriena egin duen herrialdeko epaileen esku.

Eta nik esan nahi dizut hori izango dela terrorearen fenomenoa borrokatzeko Batasunak izango duen tresna nagusia, eta esan nahi dut gaur Europako Parlamentuak berretsi egin duela jarrera hori, eta orain zenbait aste Batzordean bertan ere berretsia izan dela Europako Komisarioaren bidez. Ongi, bada, jarrerarik hartuko du Eusko Jaurlaritzak Europako bilaketa eta atxilotze aginduari dagokionez?

Zein garrantzitsua izango litzatekeen Legebiltzar honek, Europako Parlamentuak edota Diputatuen Kongresuak egin duten bezala, bere baitarik esango balu Euskal Herrian, euskal ahots sakon eta jatorrenean, beldurraren eta terrorearen fenomenoa borrokatzeko Europa osoko esparru polizial eta juridiko bat egotea nahi dugula. Eta nik galdetzen dizut prest egongo ote zinatekeen jarrera hori argi eta garbi defenditzeko Europako Parlamentura edota Europako Batzordera joateko, edota hemen bertan, Eusko Legebiltzarrean egiteko.

Kanpoko ETA horren aurrean, Frantzia edota Mexiko bezalako herrialdeekin jada alde bikoa den elkarlan horretan, uste duzu Eusko Jaurlaritzak eta euskal erakundeek ez dutela esparru horretan elkarlana sendotzeko pauso demokratikoak eman beharrik?

Zure alderdiaren bozeramaileen bidez aitzakiak eta eragozpenak jartzen ibili ordez, Espainiako Gobernuko Presidentea nazioarteko laguntzaren bila dabilen eskale bat dela esan beharrean, orain 48 ordu zure alderdiaren lehendakariak esan zuen bezala, zein garrantzitsua izango litzatekeen, lehendakari jauna, zu Mexikora edota Parisera joatea, herrialde horietatik eta gobernu horietatik terrorismoari aurre egiteko nazioarteko elkarlana apoiatu behar dela esatera! Bidaia horiek egiteko prest zaude? Euskal erakundeetatik eginkizun hori inoiz baino indar handiagoz sendotu nahi dugula esateko prest zaude?

Hirugarren pausoa, legebiltzarkide jaun-andreok, barruko ETAri dagokiona da. Urteetan zehar talde terrorista sare bat ehoz, egitura sozial eta politiko batzuk ehoz joan da, oker bidez terrorismoaren ingurua esaten zaiona, eta urteetan justiziaren ekintzak ez du beragan eraginik izan. Azken urte hauetan hori aldatu egin da, eta bide horretan ere Eusko Jaurlaritzak aurrera egin behar du.

La afirmación expresa desde el Gobierno Vasco de un respaldo inequívoco a la actuación judicial en este terreno es una necesidad. Y le digo lo mismo que antes: en lugar de desacreditar a través de los portavoces de su partido y de su Gobierno cada acción de la justicia en este ámbito, ¡qué importante sería un apoyo expreso del Lehendakari, de su Gobierno, a este principio de actuación judicial puesto en marcha desde hace unos años para desenmascarar la farsa que ETA ha ido tejiendo en el interior!

Siempre tendrán (¡cómo no van a tener!) el margen de criticar una actuación judicial o también una actuación de cooperación internacional con un país o con otro, pero no hagan ustedes exactamente lo contrario: no partan ustedes del *priori* político de que la acción de la justicia contra ETA es inadmisible; abandonen su práctica cotidiana, que en cada decisión de la justicia –y revisen la hemeroteca– siempre está acompañada por una descalificación de su Gobierno o de los partidos políticos que apoyan a su Gobierno. Y le pregunto: ¿está usted dispuesto a hacer una declaración expresa en ese sentido y en ese terreno?

Un cuarto trecho se refiere también, señor candidato, a otro soporte de ETA en el interior: la legitimidad que obtienen partidos políticos que están recostados en la organización terrorista y con los que ustedes comparten gobierno en los respectivos Ayuntamientos. No sabe usted, se lo ha dicho el señor Redondo, lo importante que sería, para esos concejales de los partidos que sufren el acoso de la violencia callejera, que viesen que en esos Ayuntamientos precisamente hay una acción unitaria de todos los partidos democráticos que desplazan del gobierno a quienes no se merecen estar en el gobierno municipal ni en ningún otro gobierno, porque no son capaces de enfrentarse a la agresión permanente de los terroristas. Y se trata simplemente de llevar los planteamientos que usted ha defendido en este Parlamento, y también en la campaña electoral, respecto a la negativa de pactos con grupos que, no condenando la violencia, están en diferentes gobiernos municipales.

Sin duda que yo también me hago la pregunta después de escucharle esta mañana, cuando decía usted que abría una nueva etapa en la que primará el diálogo con todos los partidos democráticos, mejor dicho, con todos los partidos políticos que han recibido la legitimidad democrática de la sociedad vasca. Yo, señor Lehendakari, señor candidato, no veía en ese caso tampoco una alusión en este tema, pero, ¡qué importante sería una declaración por su parte en este terreno!

El quinto trecho por recorrer, señor candidato, se refiere a lo que ya es el germen de ETA, la semilla de ETA, el embrión de ETA, que no es ni la ETA del interior ni la ETA del exterior. Hay un germen inmediato, que es la violencia callejera, y hay otro menos próximo, que se circunscribe al ámbito de la educación y la cultura, pero me referiré al problema.

El activismo de la violencia callejera es la antesala de la pertenencia a un comando terrorista, y la Policía

Behar-beharrezkoa da justiziak arlo horretan burututako ekintzei Eusko Jaurlaritzak argi eta garbi babesa ematea. Eta lehen esan dizudana bera errepikatuko dizut: zure alderdiaren eta Gobernuaren bozeramaileen bidez justiziak arlo horretan burututako ekintza guztiak itsustu beharrean, zein garrantzitsua izango litzatekeen lehendakariak, zure Gobernuak, ETA barruan ehoz joan den gezur hori agerian uzteko duela zenbait urtetik hona abian dagoen justiziaren lan-hastapen horri espresuki apoioa ematea!

Beti izango duzue (nola ez duzue bada izango!) justiziaren lana kritikatzeko aukera edota baita herrialde batekin edo beste batekin elkarlanean egindakoa ere, baina ez ezazue guztiz kontrakoa egin: ez zaitezte abia justizia ETAren aurka aritzea onartezina delako *a priori* politikotik; bazter ezazue zuen eguneroko ohitura, epaileen erabaki bakoitzeko –eta berrikus ezazue hemeroteka– hor etortzen baitira zure Gobernuaren edota zure Gobernua apoiatzen duten alderdi politikoen deskalifikazioak. Eta hona nire galdera, prest zaude zentzu horretan eta arlo horretan adierazpen zehatz bat egiteko?

Laugarren pauso bat, hautagai jauna, ETAren barruko beste euskarri bati dagokio: talde terroristaren itzalean dauden eta zenbait udaletan zuekin batera gobernatzen duten alderdi politikoek jasotzen duten legezkotasunari. Zuk ez dakizu, eta Redondo jaunak ere esan dizu, zein garrantzitsua izango litzatekeen kale borrokaren erasoa jasaten duten alderdietako zinegotzi horientzat, udal horietan hain zuzen ere, terroristen etengabeko erasoari aurre egiteko gai ez direlako ez udal gobernuan eta ez beste ezein gobernutan egotea merezi ez dutenak gobernutik baztertzeko alderdi demokratiko guztien arteko ekintza bateratua dagoela ikustea. Eta zuk Legebiltzar honetan eta hauteskunde kanpainan defenditu dituzun planteamenduak gauzatzea izango litzateke, besterik gabe, indarkeria gaitzetsi gabe zenbait udal-gobernutan dauden taldeekin itunik ez eginez.

Nik ere, dudarik gabe, gaur goizean entzun dizkizudanak entzun eta gero egiten diot galdera nire buruari, zuk esan baituzu alderdi demokratiko guztiekiko elkarrizketak izango duela lehentasuna etapa berri honetan, hobeto esanda, euskal gizarteak legezkotasun demokratikoa eman dien alderdi politiko guztiekin. Nik, lehendakari jauna, hautagai jauna, honetan ere ez dut gai horri buruzko zeharkako aipamenik ikusi, baina, zein garrantzitsua izango litzatekeen arlo horretan ere zure adierazpen bat!

Eman beharko litzatekeen bosgarren pausoa, hautagai jauna, ETAren ernamuina, ETAren hazia, ETAren umekia denari dagokio, eta hori ez da jada ez barruko ETA eta ez kanpoko ETA. Begien bistako ernamuina, kale borroka litzateke, baina bada beste ezkutuago bat, heziketarekin eta kulturarekin zerikusia duena, baina zehaztu egingo dut arazoa.

Kale borrokaren aktibismoa komando terrorista baten kide izatearen aurreko pausoa da, eta gure babes

Autónoma vasca, que tiene todo nuestro respaldo, todo nuestro apoyo, porque, sin duda, tiene grandes profesionales dentro de esa Policía autonómica, tiene que especializarse, como hacen las demás Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, de forma singular para combatir esta modalidad de terrorismo.

Sin duda que la Policía Autónoma es una policía integral, pero tiene en el valor de la proximidad tal capacidad y tal fortaleza que, sin duda, debe recoger lo mejor de la autonomía, que es la proximidad, y combatir la violencia más próxima de las gentes, que es el fenómeno de la violencia callejera. Es, sin duda, la Policía más desplegada en el País Vasco, por razones obvias, y es la Policía competente en materia de seguridad ciudadana.

Por eso, señor candidato, yo le he puesto simplemente cinco ejemplos, cinco trechos. Sé que los cinco tienen un costo político, porque por eso no lo han hecho (no lo han hecho porque les cuesta), pero eso sería, sin duda, un elemento de autenticidad que haría que en cada uno de ellos, y al ritmo que usted quiera, el Grupo Popular aplaudiera y apoyara sin dilación y sin ninguna duda.

Pero fundamentalmente, señor candidato, le quiero decir que es que yo parto de un principio y de una convicción, que desde luego no los altera un resultado electoral, ni de victoria ni de derrota: se puede y se tiene que desarticular una organización terrorista desde el Estado de Derecho. Y hay que decirlo así, hay que trasladar la convicción de que se puede desarticular una organización terrorista desde el Estado de Derecho. Y si somos capaces de sumar los instrumentos propios del Estado de Derecho en el ámbito municipal, en el ámbito vasco, en el ámbito español y en el ámbito europeo, sin duda serán instrumentos suficientes para desarticular una organización que hace del miedo, del chantaje y del terror, de la violencia callejera, su razón de ser y de existir.

Mire, si no hay convicción siempre está el discurso del empate infinito; si no hay convicción, siempre habrá un precio político por la paz. Y esa convicción es el fundamento y el origen de una política, y esa convicción es previa a la determinación para desarticular una organización terrorista. Si no hay convicción no hay determinación. Si no hay convicción de que se puede acabar con ETA, no hay determinación para acabar con ETA. Es una necesidad democrática de primer orden trasladar la convicción en todas y cada una de las instituciones vascas, y no dude de que la suma de un principio, de una convicción y una determinación es una actitud, y es lo más importante para combatir el terrorismo, que es puro miedo. Y ésa es la lucha contra el terrorismo.

A usted le corresponde, evidentemente, la iniciativa. El orden de las cuestiones que he planteado es algo que, evidentemente, depende de usted, la decisión de apoyar unas y no apoyar otras, ordenarlas… Pero, evidentemente, sepa que yo he tratado, al margen de intereses partidarios, simplemente de delimitar esos trechos democráticos que, sin duda, afectan sustancialmente a la libertad de buena parte de los vascos. Y espero que usted sea capaz de explicar por qué habló de contundencia

guztia, gure apoio guztia duen euskal Polizia Autonomoak, eta dudarik gabe, Polizia autonomiko horren barruan oso profesional onak daude, espezializatu egin behar du gainerako Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek egiten duten bezala, terrorismo modu horri aurre egiteko bereziki.

Ertzaintza polizia integrala da, dudarik gabe, baina hurbiltasunak halako gaitasuna eta halako indarra ematen dio, dudarik gabe, autonomiak duen onena, hau da, hurbiltasuna jaso eta jendeak hurbilen duen indarkeria borrokatu behar baitu, kale borroka borrokatu behar baitu. Eta begien bistako arrazoiak direla eta, Euskal Herrian gehien zabalduta dagoen polizia da, eta herritarren segurtasunaren ardura duen polizia da.

Horregatik, hautagai jauna, nik bost adibide, bost pauso besterik ez dizkizut eman. Badakit bostek kostu politikoa dutela, eta horregatik ez duzuela egin (ez duzue egin kostatu egiten zaizuelako), baina hori, dudarik gabe, egiazkotasun elementu bat izango litzateke, eta horietako bakoitzean, eta zuk nahi duzun abiaduran, Talde Popularraren txaloak eta apoioa izango zenituzkete, berehala eta zalantzarik gabe.

Baina, hautagai jauna, funtsean esan nahi dizudana da ni printzipio batetik eta uste batetik abiatzen naizela, eta hori, ez duela aldatzen hauteskundeetako emaitza garaipenezkoa edota porrota izateak: talde terrorista bat Zuzenbide Estatutik desegin daiteke eta desegin behar da. Eta horrela esan behar da, eta Zuzenbide Estatutik talde terrorista bat desegin daitekeelako ustea zabaldu behar da. Eta udal mailan, Euskadi mailan, Espainia mailan eta Europa mailan Zuzenbide Estatuak berezkoak dituen tresnak batzeko gai baldin bagara, tresna horiek nahikoa izango dira, dudarik gabe, beldurra, txantajea, terrorea eta kale borroka bere izatearen arrazoi bihurtu duen talde bat desegiteko.

Begira, sineste sendorik ez baldin badago, hor izango da beti berdinketa amaigabearen diskurtsoa; sineste sendorik ez baldin badago, beti egongo da bakeagatik ordaindu beharreko prezio politiko bat. Eta sineste sendo hori politika baten funtsa eta jatorria da, eta sineste sendo hori talde terrorista bat desegiteko asmoa baino lehenagokoa da. Sineste sendorik ez baldin badago, ez dago erabakitasunik. ETA desegin daitekeelako sineste sendorik ez baldin badago, ez dago ETA desegiteko erabaki sendorik. Lehen mailako behar demokratikoa da sineste sendo hori euskal erakunde guztietara eramatea, eta dudarik ez egin printzipio baten, sineste sendo baten eta erabaki sendo baten batura jarrera bat dela, eta hori da terrorismoa borrokatzeko garrantzitsuena, beldur hutsa baita. Eta hori da terrorismoaren aurka borroka egitea.

Zuri dagokizu ekitea, jakina. Nik planteatu dizkizudan kuestioen hurrenkera zure baitan dago, jakina, batzuk apoiatu eta beste batzuk ez apoiatzeko erabakia, ordenatzekoa… Baina jakin ezazu euskaldun gehienen askatasunaren gain eragina duten pauso demokratiko horiek zehazten saiatu naizela ni soilik. Eta espero dut gai izango zarela maiatzaren 13ko hauteskundeak izan eta handik egun batzuetara irmotasunaz zergatik hitz egin zenuen azaltzeko, eta orain minutu batzuk aipatu dudan

unos días después de las elecciones del 13 de mayo, y en qué se manifiesta esa contundencia a la que me he referido hace pocos minutos.

Señoras y señores parlamentarios, la única certeza que sin duda sufrimos y padecemos en este país es que ETA mata, y que trata de generar miedo y terror. Yo quiero decir que ante esa certeza, lamentablemente, en mi opinión, entre la declaración que usted ha hecho hoy y la declaración que hicieron días pasados los partidos que apoyan a su Gobierno, yo al final he de decir que he visto que se refugian y extreman la ambigüedad, porque lo relativizan todo.

Este País Vasco, en unos años, ¿qué va a ser? Usted ha hablado hoy de un país libre asociado, o de la superación del marco político y jurídico actual, o un país en el que se ha desarrollado definitivamente la autonomía. Usted ha dicho que la Constitución, el Estatuto, la autodeterminación o la independencia no son términos absolutos, inmutables, cerrados, inflexibles, sin matices. ¿Está usted seguro de que esta incertidumbre combate el miedo? ¿Está usted seguro de que una certeza que tiene este país, que es la falta de libertad y el miedo que sufren muchos vascos, se combate con una radical ambigüedad? Pues yo tengo mis dudas.

Antes de lo que quiero hacer como un análisis electoral me van a permitir que haga unas reflexiones sobre el diálogo, sobre la autonomía y sobre lo que usted ha llamado en estos días la involución o regresión autonómica (no sé qué término ha utilizado a lo largo de estos días).

He de decir que su intervención contrasta, en mi opinión, con la declaración y la recogida de la declaración de los partidos políticos firmantes del acuerdo de gobierno. Ellos parecía que marcaban sus objetivos: superar el marco político y jurídico actual, fijar la autodeterminación como el objetivo a lo largo de estos años. Y usted, quizás como en un reparto de papeles, ha marcado el trabajo que hay que hacer en las instituciones, con plazos y en meses, probablemente también para que nadie pueda decir que no se renuncia a nada en poco tiempo.

Hace unos días ustedes firmaban un pacto político, que más que un pacto de gobierno era la puesta en escena de un programa estratégico del nacionalismo y sólo para el nacionalismo. Era el pacto de ustedes con ustedes mismos para superar el marco político y jurídico actual.

Mire, pactar con uno mismo la superación de un marco político de esta envergadura no deja de ser la escenificación de una incapacidad para pactar. Y es verdad que, aunque su intervención ha sido diferente, matizadamente diferente en el día de hoy, su intervención es claramente tributaria de ese déficit político, aunque, evidentemente, hoy lo ha hecho cuidando más las formas.

Lo malo es que la historia vuelva a repetirse. Lo preocupantes es que el particular significado que para ustedes tuvo el concepto del diálogo se repita en esta legislatura. Ustedes pactaron una estrategia del conjunto

irmotasun hori zertan gauzatzen den azaltzeko.

Legebiltzarkide jaun-andreok, herri honetan dudarik gabe jasaten dugun eta pairatzen dugun ziurtasun bakarra ETAk hiltzen duelakoa eta beldurra eta terrorea sortzen saiatzen delakoa da. Nik esan nahi dut ziurtasun horren aurrean, nire ustez zoritxarrez, zuk gaur egin duzun adierazpena eta orain egun batzuk zure Gobernua apoiatzen duten alderdiek egin zuten adierazpena entzunda, nik azkenean esan behar dut nire ustez anbiguotasunean babesten zaretela eta anbiguotasuna areagotzen duzuela, guztia erlatibizatzen baituzue.

Urte batzuk barru, zer izango da Euskal Herria? Zuk herri aske elkartu batez hitz egin duzu gaur, eta gaur egungo esparru politiko eta juridikoa gainditzeaz, eta autonomia erabat garatu den herri batez. Zuk esan duzu Konstituzioa, Estatutua, autodeterminazioa edota independentzia ez direla hitz absolutu, aldaezin, itxi, zurrun, ñabardurarik gabeak. Ziur zaude zalantza horrek beldurra gainditzen laguntzen duela? Ziur zaude herri honek duen ziurtasun bat, zeina baita euskaldun askok jasaten duten askatasun falta eta beldurra erabateko anbiguotasunarekin borrokatu daitekeela? Nik zalantza handiak ditut.

Hauteskundeen analisia egin nahi dut, baina horren aurretik utz iezadazue elkarrizketaz, autonomiaz eta zuk egun hauetan autonomiaren inboluzioa edota atzerapausoa (ez dakit egun hauetan zehar zein hitz erabili duzun) esan diozunaz gogoeta batzuk egiten.

Esan beharra daukat zure esku-hartzea ez datorrela bat, nire ustez, gobernu-akordioa izenpetu duten alderdi politikoen adierazpenarekin eta adierazpenak jasotzen duenarekin. Bazirudien beraiek beren helburuak finkatzen zituztela: egungo esparru politikoa eta juridikoa gainditzea, urte hauetako helburu gisa autodeterminazioa finkatzea. Eta zuk, agian paper banaketa batean bezala, erakundeetan egin behar den lana finkatu duzu, epeak eta hilabeteak aipatuz, seguru asko inork esan ahal izan ez dezan epe laburrean ez zaiola ezeri uko egiten.

Duela zenbait egun hitzarmen politiko bat izenpetu duzue zuek, baina gobernu-hitzarmen bat baino gehiago abertzaletasunaren, eta abertzaleentzat baizik ez zen programa estrategiko bat antzeztea izan zen. Egungo esparru politikoa eta juridikoa gainditzeko helburua zuen zeuen eta zeuekiko hitzarmena izan zen.

Begira, tamaina honetako esparru politiko bat gainditzeko norbere buruarekin hitzartzea, hitzartzeko ezintasun bat antzeztea da, besterik gabe. Eta egia da, gaur zure esku-hartzea desberdina, ñabardurak kontuan hartuta desberdina izan baldin bada ere, zure esku-hartzea defizit politiko horren mende dagoela, gaur, argi eta garbi, itxurak gordez egin baldin baduzu ere.

Okerrena da historia behin eta berriz errepikatzen dela. Kezkagarriena da zuentzat elkarrizketa kontzeptuak izan zuen esanahi bitxia legegintzaldi honetan ere errepikatu egin daitekeela. Zuek abertzale guztien estrategia

del nacionalismo, y aprovechando la tregua-trampa dijeron: “Vamos a dialogar ahora todos sobre lo que ya está acordado por unos cuantos”. Y el que no dialogaba sobre los contenidos de lo previamente acordado, y cerrado en parte por ustedes, era un intransigente que despreciaba el diálogo.

Ése es un diálogo muy particular. Es un diálogo excluyente y recurrente. Excluyente porque excluye a buena parte de los vascos, y recurrente porque al final consigue que en la mesa de negociación sólo se dialogue y se negocie sobre sus aspiraciones y sobre sus planteamientos. Y ese concepto inédito del diálogo, evidentemente, es decepcionante y preocupante.

Mire, la historia de la democracia española en estos años es la historia de dos orillas, en que la orilla nacionalista sólo es capaz de exigir concesiones permanentemente, sin ofrecer contrapartida alguna. Su estrategia es que las dos orillas siempre permanezcan a la misma distancia, de manera que cuando se produce un determinado avance en el grado de autonomía y de autogobierno ese avance siempre, recurrentemente, invariablemente, como única contrapartida y respuesta, siempre encuentra una radicalización de sus posiciones nacionalistas y de sus demandas.

Fíjese, el 29 de septiembre, me parece que fue, del año 97 el presidente de su partido decía: “Se ha avanzado en ocho meses lo que no se ha avanzado en veinte años”. Bueno, dos años después, menos de dos años después, se pactaba el soberanismo desde Estella.

Y evidentemente, señor Lehendakari, eso no es un diálogo; eso es más bien una imposición de sus tesis nacionalistas. Es un “trágala”. Al final es un contrato de adhesión leonino que en ese terreno ustedes quieren imponer al conjunto de la sociedad vasca.

En segundo lugar, la involución o regresión autonómica, se ha hecho eco usted a lo largo de estos días. Habrá que preguntarse, antes de hablar de la regresión autonómica, cuáles son los valores de la autonomía vasca y qué valores han sido agredidos, dónde está la regresión. Y cabría preguntarse también cuál es el valor por excelencia de la autonomía vasca.

El resultado, no el valor, ya lo sabemos. Hace veinticinco años existían dos provincias traidoras (Gipuzkoa y Bizkaia), ninguna institución común de autogobierno, no había existido nunca un País Vasco con identidad propia o con instituciones comunes. Hoy la autonomía ha permitido que hayamos hecho país por primera vez en nuestra historia; existen instituciones, veinte años después, más legitimadas que nunca, como se ha expresado en el 80 por ciento de participación en este Parlamento Vasco, y la singularidad de este territorio, de este país, se sigue expresando a través de los dos pilares fundamentales (los Conciertos Económicos, a punto de renegociación, y la Policía Autónoma).

Y por eso, si ése es el resultado, ¿cuál es el valor? El valor es el valor del acuerdo, del pacto. Hemos actualizado unos pactos históricos de los territorios forales vascos, un Estatuto de Autonomía que ha permitido ha-

bat hitzartu zenuten, eta su-eten-tranpaz baliatuz zera esan zenuten: “Orain, bakar batzuen artean jada hitzartuta dagoenari buruz egingo dugu elkarrizketa”. Eta aurretik jada hitzartutakoaren eta, neurri batean, zuek jada itxitakoaren edukiei buruz hitz egin nahi ez zuena elkarrizketa gutxiesten zuen burugogorra zen.

Hori oso elkarrizketa bitxia da. Elkarrizketa baztertzaile eta errepikaria. Baztertzailea, euskaldunen zati handi bat baztertzen duelako, eta errepikaria, azkenean negoziazio-mahaian zuen asmoez eta zuen planteamenduez soilik eztabaidatzea eta negoziatzea lortzen duelako. Eta, jakina, elkarrizketaren kontzeptu bitxi horrek etsipena eta kezka eragiten ditu.

Begira, urte hauetan Espainiako demokraziaren historia bi ibaiertzen historia da, non abertzaleen ibaiertza eske eta eske baitago etengabe, ordainez ezer eskaini gabe. Zuen estrategia bi ibaiertzen artean beti tarte bera egotea da, autonomia eta autogobernu mailari dagokionez aurrerapauso bat egiten denean, aurrerapauso horren ordaina eta erantzuna, beti, behin eta berriz, aldaketarik gabe, zuen jarrera abertzaleak eta eskariak gogortzea izaten baita.

Begira, uste dut 97ko irailaren 29an izan zela, hala esan zuen zure alderdiaren lehendakariak: “Hogei urtean aurreratu ez dena aurreratu da zortzi hilabetean”. Bueno, handik bi urtera, bi urte eskasera, subiranotasunaren hitzarmena egin zen Lizarran.

Eta jakina, lehendakari jauna, hori ez da elkarrizketa; aitzitik, hori zuen tesi abertzaleen inposaketa bat da. Bortxaz ezartze bat da. Azkenean arlo horretan euskal gizarte osoari inposatu nahi diozuen atxikimendu-kontratu desorekatua da.

Bigarren, egun hauetan autonomiaren inboluzioa edota atzerakada aipatu duzu. Autonomiaren atzerakadaz hitz egin aurretik galdetu beharko da zeintzuk diren euskal autonomiaren balioak eta zein balioei eraso zaien, non dagoen atzerakada. Eta era berean galdetu ahal izango litzateke zein den euskal autonomiaren balio nagusia.

Emaitza, ez balioa, ezagutzen dugu. Orain hogeita bost urte bi probintzia traidore ziren (Gipuzkoa eta Bizkaia), ez zegoen autogobernurako erakunde komunik, inoiz ez zen izan berezko nortasundun Euskal Herririk, edota erakunde komunik. Gaur autonomiari esker herria egin dugu gure historian lehen aldiz; hogei urte geroago, inoiz baino legezkotasun handiagoa duten erakundeak daude, Eusko Legebiltzar honetan parte hartu duen ehuneko 80ak adierazi duen bezala, eta lurralde honen, herri honen berezitasuna bi zutabe nagusiren bidez adierazten da (negoziatzeko zorian dauden Kontzertu Ekonomikoen bidez eta Ertzaintzaren bidez).

Eta beraz, emaitza hori baldin bada, zein da balioa? Balioa, adostasunaren balioa da, hitzarmenarena. Euskal foru lurraldeen hitzarmen historiko batzuk gaurkotu ditugu, Autonomia Estatutu bat, lurralde honetan

cer lo que no ha hecho nunca ningún instrumento en esta tierra, hacer país, y que permite que nacionalistas o no nacionalistas compitan, como lo han hecho en estas elecciones, por el gobierno de esta Comunidad.

Por ello, la mayor regresión, la mayor involución de la autonomía es la sacralización o el enaltecimiento de lo unilateral, que es la antítesis de la autonomía, es decir, la autodeterminación como un derecho unilateral de secesión.

Sacralizar lo unilateral es sustituir la autonomía vasca por el ámbito vasco de decisión, o sustituir la autonomía por el principio de la autodeterminación. Eso no es desarrollar el valor de la autonomía. Eso es introducir un valor opuesto, la antítesis del acuerdo, del pacto, que significa la esencia de la autonomía en el País Vasco. Y ustedes tratan, en ese sentido, poco a poco, primero en Estella, y después de Estella a través del pacto de los partidos que configuran el Gobierno, de imponer una decisión con otros ritmos y de otra manera con carácter unilateral.

Por eso un candidato a Lehendakari no puede presentarse en un mismo discurso como un gran paladín y defensor de la autonomía y al mismo tiempo ser el portavoz de una política en la que se fija la autodeterminación como un objetivo básico de su gobierno.

Constituye la misma contradicción cuando usted dice: “Tenemos que recuperar el diálogo y la confianza política entre nosotros, en el terreno personal”, y yo le digo que sí, pero no se puede decir que al mismo tiempo, de antemano, los partidos que configuran el Gobierno tienen el objetivo de la autodeterminación, porque eso no se puede producir, de hecho, para recuperar la confianza política entre nosotros. No puede nadie. Eso no es posible, que sea el instrumento de recuperación de confianza entre nosotros, si ésta es la estrategia en la que ustedes se empeñan.

Si la involución autonómica que usted dice se piensa que es por una disposición legislativa, por una ley o por varias leyes, pues, mire, no deben maximizarse las discrepancias. Y no se puede hablar de involución política por ello, porque hay que tener también perspectiva política histórica, y si estuviésemos hablando de involución autonómica vasca, mire, tendríamos que estar hablando de involución europea, porque la Unión Europea en estos veinte años ha avanzado mucho menos que el desarrollo de la autonomía vasca. Y nadie habla de involución europea, porque los que participamos en las instituciones europeas sabemos lo lentamente que se avanza, lo frustrante que es el avance de la Unión Europea, y nadie habla de regresión europea.

Y cuando en la Constitución española también hay dificultades y faltas de acuerdo, tampoco nadie habla de lo que es hoy por hoy una regresión de España, ni porque España pierda competencias a favor de la Unión Europea se habla de una regresión de España, o no se debe hablar de una regresión de España.

beste ezein tresnak ez bezala herrigintzarako aukera eman duena, eta Erkidego honetako gobernua eskuratzeko abertzale eta ez abertzaleak, hauteskunde hauetan egin duten bezala, lehian aritzeko aukera ematen duena

Horregatik, atzerapausorik handiena, autonomiaren atzerakada handiena unilateralitatea donestea edota goratzea da, hori autonomiaren antitesia baita, hau da, autodeterminazioa, alde bakarreko sezesio-eskubide gisa ikustea.

Alde bakarrekoa donestea, euskal autonomiaren ordez erabakietarako euskal esparrua ezartzea da, edota autonomiaren ordez autodeterminazio printzipioa ezartzea. Hori ez da autonomiaren balioa garatzea. Hori kontrako balioa sartzea da, Euskal Herrian autonomiaren muina den adostasunaren eta hitzarmenaren antitesia sartzea. Eta zuek, zentzu horretan, Lizarran lehenik, eta Lizarra ondoren Gobernua osatzen duten alderdien arteko hitzarmenaren bidez, pixkanaka, beste erritmo batzuk dituen eta beste era batekoa den erabaki bat inposatzen saiatzen zarete alde bakarretik.

Horregatik, lehendakarigai batek ezin du diskurtso berean autonomiaren txapeldun eta defendatzaile handi baten gisa bere burua aurkeztu, eta aldi berean bere gobernuaren helburu nagusien artean autodeterminazioa duen politikaren bozeramaile izan.

Kontraesan bera dago zuk zera diozunean: “Gure arteko elkarrizketa eta konfiantza politikoa berreskuratu behar ditugu, maila pertsonalean”, eta nik, baietz erantzuten dizut, baina ezin da aldi berean esan, beste ezeren aurretik, autodeterminazioa dela Gobernua osatzen duten alderdien helburua, gure arteko konfiantza politikoa berreskuratzeko hori ezin baita, berez, gertatu. Inork ezin du. Ezinezkoa da, hori gure arteko konfiantza berreskuratzeko tresna izatea, hori baldin bada zuek tematsu erabili nahi duzuen estrategia.

Zuk aipatu duzun autonomiaren atzerapausoa legearen xedapen batek eragina dela uste da, edota lege batek edota lege multzo batek, bada, begira, desadostasunak ez dira maximizatu behar. Eta horregatik, ezin da hori dela-eta atzerapauso politikoaz hitz egin, perspektiba politiko historikoa ere beharrezkoa baita, eta euskal autonomiaren atzerapausoaz hitz egiten arituko bagina, begira, Europaren atzerapausoaz hitz egin beharko genuke, Europako Batasuna hogei urte hauetan euskal autonomia garatu dena baino askoz gutxiago aurreratu baita. Eta inork ez du Europaren atzerapausoaz hitz egiten, Europako erakundeetan parte hartzen dugunok badakigulako zein astiro egiten den aurrera, zein modu etsigarrian egiten duen aurrera Europako Batasunak, eta inork ez du Europaren atzerapausorik aipatzen.

Eta Espainiako Konstituzioan ere zailtasunak eta adostasun-ezak daudenean, inork ez du hitz egiten egungo egunean Espainiarentzat atzerapausoa denaz ere, eta Espainiak Europako Batasunaren alde aginpideak galtzen dituelako ere ez da Espainiaren atzerapausoaz hitz egiten, edota ez litzateke Espainiaren atzerapausoaz hitz egin beharko.

Una vez acordado el marco, señor Ibarretxe, la democracia fundamentalmente es disenso y discrepancia democrática, y hay que saber administrar los disensos sin que evidentemente con ello se diga que haya una regresión del marco en el que se produce ese disenso. La democracia cotidiana es más disenso que consenso, a excepción de las grandes cuestiones que afectan a la vida y a la libertad de las personas.

¿Ha habido alguna Comunidad en España y en la Unión Europea que en estos veinte años haya tenido un desarrollo institucional tan rápido en tantos temas o en tantas cuestiones como la vasca? ¡Porque hay que medirlo en términos relativos! ¿Hay alguna en estos veinte años? Ni siquiera la propia Unión, que avanza mucho más lentamente, en términos históricos, que lo que ha avanzado esta Comunidad, y, he de decir, me alegro profundamente de ello.

Yo comprendo, señor candidato, que es difícil administrar una mayoría resultante de la concentración de votos nacionalistas (80.000 han procedido de Euskal Herritarrok, y ha habido muchos que han procedido de Eusko Alkartasuna). Pero la afirmación que usted hace, de principio, de raíz, de la involución autonómica, desde hace dos semanas, es la constatación de la dificultad en la administración de la concentración del voto nacionalista alrededor de sus siglas, y para eso ustedes necesitan recrear un enemigo que no existe, un enemigo de la autonomía. Necesitan ustedes una historieta más para justificar su posición política de presente y de futuro.

Y paso, señoras y señores parlamentarios, a analizar el resultado del 13 de mayo como uno de los elementos finales de mi intervención. La institución democrática más prestigiada el 13 de mayo ha sido el Parlamento Vasco. He de decir que la precampaña electoral yo no sé si fue sucia, pero fue trágica para el Partido Popular, que en dos años y medio ha sufrido 12 asesinatos. No sé lo que es suciedad o limpieza, pero le aseguro que la suciedad que ha padecido este partido, como la ha padecido también el Partido Socialista, es muy alta.

Pues, bien, se ha producido en estas elecciones una participación del 80 por ciento. Tanta discusión sobre si era útil o inútil la autonomía, el Parlamento, el Estatuto, y 80 de cada cien vascos, en un momento muy importante, han votado y han participado. Es una cifra récord de todas las elecciones autonómicas, no sólo vascas, sino de todas las Comunidades Autónomas españolas.

El resultado de estas elecciones, y hemos perdido nosotros, podría ser extraordinariamente útil y eficaz. Frente a la posición que algunos defendían de que iban a ser unas elecciones inútiles, que no iban a cambiar nada la realidad política, electoral y social del País Vasco, nos demuestra una vez más que las urnas son siempre útiles. Pero he utilizado el término “podría ser” porque, en función de la lectura y la aplicación de unas políticas de gobierno, los vascos y los representantes del País Vasco adoptaremos una actitud que hará útil o inútil la legislatura en función de las respectivas actitudes.

Eta behin esparrua erabaki eta gero, Ibarretxe jauna, demokrazia desadostasun eta bat ez-etortze demokratikoa da funtsean, eta desadostasunak administratzen jakin behar da, eta ez dago zertan esanik desadostasun hori gertatzen den esparruan atzerapausoa dagoenik. Eguneroko demokrazian desadostasun gehiago dago adostasuna baino, pertsonen biziari eta askatasunari dagozkien kuestio garrantzitsuetan izan ezik.

Hogei urte hauetan izan da Espainian eta Europako Batasunean hainbeste gaitan edota hainbeste kuestiotan Euskal Autonomia Erkidegoak izan duen garapen instituzional azkarra izan duen erkidegorik? Erkaketaren bidez neurtu behar baita hori! Hogei urte hauetan izan da bakarren bat? Ezta Batasuna bera ere, historikoki, Erkidego honek aurreratu duena baino askoz astiroago baitoa, eta zera esan behar dut, asko pozten naiz hori horrela delako.

Nik ulertzen dut, hautagai jauna, boto abertzaleak bilduta sortutako gehiengo bat administratzea zaila izatea (80.000 Euskal Herritarrok-engandik etorri dira, eta beste asko Eusko Alkartasunetik). Baina zu, duela bi astetik hona printzipiozkoa, sustraizkoa balitz bezala, autonomiaren atzerapausoaz esaten ari zarena, zure siglen inguruan bildu den boto abertzalea administratzeko duzun zailtasunaren agiri garbia da, eta horretarako zuek ez dagoen etsai bat asmatu behar duzue, autonomiaren etsai bat. Beste ipuin bat behar duzue gaurko eta biharko zuen jarrera politikoa zuritzeko.

Eta ondoren, legebiltzarkide jaun-andreok, maiatzaren 13ko emaitza analizatzeari ekingo diot, eta hau izango da nire esku-hartzearen azkeneko elementuetako bat. Eusko Legebiltzarra izan zen maiatzaren 13an erakunde demokratiko goretsiena. Esan beharra daukat, hauteskundeen kanpainaurrea, ez dakit zikina izan zen, baina tragikoa behintzat izan zela Alderdi Popularrarentzat, bi urte eta erdian 12 hilketa jasan baititu. Nik ez dakit zer den zikinkeria eta zer den garbitasuna, baina benetan diotsut, alderdi honek eta Alderdi Sozialistak jasan duten zikinkeria handia izan dela.

Ongi, bada, hauteskunde hauetan ehuneko 80ko parte-hartzea izan da. Hainbeste eztabaida autonomia, Legebiltzarra eta Estatutua baliagarriak ziren edo ez ziren, eta ehun euskalduneko 80k eman dute botoa eta parte hartu dute oso une garrantzitsuan. Zenbaki horrek hauteskunde autonomiko guztien errekorra egiten du, eta ez euskal hauteskundeena bakarrik, Espainiako autonomia erkidego guztiena baizik.

Hauteskunde hauen emaitza, eta guk galdu dugu, oso baliagarria eta eraginkorra izan liteke. Batzuek zioten hauteskunde hauek ez zutela ezertarako balioko, ez zutela euskal Herriaren errealitate politikoa, hautagaiekikoa eta soziala aldatuko, baina berriro ere garbi gelditu da hautestontziak baliagarriak direla beti. Baina “liteke” hitza erabili dut, gobernu-politiken irakurketaren eta ezartzeko moduaren arabera, euskaldunok eta Euskal Herriaren ordezkariok, bakoitzaren jarreraren arabera, legegintzaldia baliagarria edo baliogabea egingo duten jarrera izango dugulako.

Nosotros creemos que deberemos superar una situación enquistada, y evidentemente creo que no deberíamos repetir todos la experiencia de la legislatura pasada y no deberíamos –eso que se dice– aplicar más de lo mismo.

Pero repasemos las razones por las que le estoy diciendo que las elecciones han sido eficaces y útiles a partir del 13 de mayo.

Usted ya no depende de los votos de Euskal Herritarrok, como en las elecciones del 98, usted tiene una clara mayoría, y si la administra con sentido común y en la lucha contra el miedo y el terror tendrá además la colaboración de los partidos de oposición.

El espacio político que apoyaba las tesis de ETA se ha reducido en un 40 por ciento, y en el 50 por ciento de escaños. Nunca en su historia había tenido un apoyo político y social tan reducido. Hoy son casi tres veces menos que el Partido Popular en número de escaños.

El Partido Popular y el Partido Socialista, aunque no les ha gustado, han firmado un acuerdo previo en defensa de las libertades contra el terrorismo, que no es contra el nacionalismo, que elimina cualquier esperanza que pudiera tener ETA en el logro de sus fines, y ustedes deberían no digo sumarse a él, sino deberían entender y comprender el profundo sentido de ese pacto.

Por primera vez en este país se ha hecho creíble una alternativa, y éste es un dato positivo para la democracia vasca. Y es verdad que ése ha sido el hecho diferencial de estas elecciones, y el resultado su capacidad de concentración del voto nacionalista (80.000 votos de Euskal Herritarrok en su formación política). Es verdad que ese hecho diferencial preelectoral fue la capacidad de concentración del nacionalismo escindido en defensa de su candidatura.

La concentración electoral que se ha producido en un país que es disperso y heterogéneo por naturaleza es más eficaz que ineficaz, y más útil que inútil, y se lo digo habiendo sido la clave de su triunfo político y electoral, y habiendo sido una de las razones por las que el Partido Popular y el Partido Socialista no han sumado votos suficientes para gobernar el País Vasco.

Por ello, usted ha ganado con claridad estas elecciones. Pero también es verdad que nunca en la autonomía vasca las opciones políticas que han hecho de los valores de la Constitución y del Estatuto sus referencias habían sido capaces de construir juntas una alternativa creíble para el Gobierno Vasco, y su suma nunca había obtenido un 41 por ciento de apoyo en la sociedad vasca. Por cierto, casi quince puntos más que en el año 86.

Ustedes, por eso, no pueden afirmar con un mínimo de rigor que sobre la base de estos resultados electorales tienen más legitimidad política que nunca para la

Guk uste dugu gogorturik dagoen egoera bat gainditu behar dugula, eta jakina, uste dut ez genukeela guztiok joan den legegintzaldiko esperientzia errepikatu beharko eta ez genuke –esan ohi den bezala– beti gauza berean tematu beharko.

Baina berrikus ditzagun maiatzaren 13tik aurrera hauteskundeak baliagarriak eta eraginkorrak izan direla esateko ditudan arrazoiak.

Zuk orain ez dituzu Euskal Herritarrok-en botoak behar, 98ko hauteskundeetan gertatu zen bezala, zuk gehiengo garbia duzu, eta sen onez eta beldurra eta terrorea borrokatzeko erabiltzen baldin baduzu, oposizioko alderdi guztien laguntza izango duzu, gainera.

ETAren tesiak apoiatzen zituztenen eremu politikoa ehuneko 40an murriztu da, eta aulkiak, ehuneko 50ean. Beren historia osoan ez dute inoiz hain apoio politiko eta sozial urririk izan. Gaur, Alderdi Popularra baino hiru aldiz txikiagoak dira, aulkien kopuruari dagokionez.

Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak, oso gogoz ez baldin bada ere, terrorismoaren aurka askatasuna defenditzeko aldez aurreko hitzarmen bat izenpetu dute –eta ez da abertzaleen aurkakoa–, eta hitzarmen horrek ezabatu egiten du ETAk bere helburuak iristeko izan zezakeen itxaropen oro, eta zuek, ez dut esaten hitzarmen horretara bildu beharko zenuketenik, baina hitzarmen horren zentzu sakona ulertu eta barneratu beharko zenukete.

Herri honetan lehendabiziko aldiz aukera bat sinesgarria gertatu da, eta hori oso datu positiboa da euskal demokraziarentzat. Eta egia da hori izan dela hauteskunde hauen berezitasuna, eta emaitza, boto abertzaleak biltzeko gaitasuna (Euskal Herritarrok-en 80.000 boto zure talde politikoan). Egia da hauteskunde aurreko berezitasuna zure hautagaitza defenditzeko sakabanatutako abertzaleak biltzeko gaitasuna izan zela.

Berez sakabanatua eta heterogeneoa den herri batean gertatu den hauteskunde-kontzentrazioa, eraginkorragoa da, berez, ez-eraginkorra baino, baliagarriagoa, baliogabea baino, eta hori, zure hauteskundeetako garaipenaren eta garaipen politikoaren giltza izan delarik diotsut, eta Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak Euskal Herrian gobernatzeko nahiko boto bildu ez izanaren arrazoietako bat izan delarik.

Horregatik, zuk argi eta garbi irabazi dituzu hauteskunde hauek. Baina egia da, era berean, euskal autonomian beren erreferentziatzat Konstituzioaren eta Estatutuaren balioak hartu izan dituzten aukera politikoak inoiz ez direla orain arte elkarrekin Eusko Jaurlaritzarako aukera sinesgarri bat osatzeko gai izan, eta beren baturak inoiz ez duela orain arte euskal gizartearen apoioaren ehuneko 41 lortu. Bide batez, 86. urtean baino ia hamabost puntu gehiago.

Horregatik, zuek hauteskundeetako emaitza hauek ikusita ezin duzue egiari uko egin gabe esan inoiz baino legezkotasun politiko handiagoa duzuela gaur egungo

superación del marco político y jurídico actual. Tienen más legitimidad que nunca, eso sí, para gobernar el País Vasco, para tomar iniciativas políticas de gobierno, para gobernar desde esa capacidad de concentración que ustedes han demostrado en el conjunto del nacionalismo. Pero ustedes van a gobernar un país políticamente más equilibrado que nunca, en el que la diferencia entre nacionalistas y no nacionalistas es más exigua que nunca.

Y se lo repito una vez más: la concentración de voto nacionalista ha dado una mayoría para gobernar, pero el espacio constitucionalista aumenta elección tras elección ininterrumpidamente desde el año 86. Y por eso le digo, señor Lehendakari en funciones, que no desaproveche el resultado de las urnas, que no desaproveche el actual equilibrio político del país, que la pluralidad existente hoy está más ordenada y concentrada que nunca en el País Vasco en toda la historia de nuestra autonomía, especialmente tras la escisión del Partido Nacionalista Vasco en 1985.

La verdad es que, más allá de los programas y de los discursos, de verdad, señor candidato, no sé cuál va a ser la política real que va a desarrollar usted en los próximos meses. Si lo supiera, lo diría. Si lo supiera, le daría un margen de confianza. Yo no lo puedo dar, porque evidentemente el programa de gobierno que han configurado los partidos políticos nacionalistas, y evidentemente una cierta ambigüedad en su posición, hace que no le podamos dar esa confianza. Pero sí quiero decirle que usted va a gobernar el mejor mapa político que ha tenido el País Vasco en toda la década de los ochenta y en la década de los noventa.

Señor candidato, usted ha planteado una serie de pactos y de acuerdos a lo largo de su intervención, y yo quiero tomar posición sobre ellos y quiero además añadirle alguno más.

He de decir que nosotros tenemos una especial tenacidad, confianza y perseverancia en los valores de la autonomía y de la Constitución, y que siempre nos encontrará en ese terreno. Y nosotros no decimos una cosa y hacemos otra. Nosotros tenemos confianza en los valores de la autonomía y de la Constitución, y no vamos a desesperar en la defensa de esos valores.

Por eso primero, antes de cualquier cosa, yo le propongo, no sé en qué ámbito, en el que usted quiera (en el ámbito de la comisión, del Parlamento, del pleno), un debate y una reflexión sobre el valor del diálogo, sobre los límites del diálogo, sobre la historia del diálogo estos años en el País Vasco y en España. Ése es un debate previo. Luego habrá el debate que usted quiera de la autonomía, pero un debate sobre el valor del diálogo.

Cuando hablamos del diálogo, ¿de qué estamos hablando? ¿De qué estamos hablando cuando hablamos del diálogo? Porque parece que a veces ha sido un arma arrojadiza para que unos sean dialogantes y otros no dialogantes, unos dialogantes y otros intransigentes. La cuestión no está en decir sí o no al diálogo. La cuestión es saber de qué diálogo estamos hablando, cuáles son los

esparru politiko eta juridikoa gainditzeko. Hori bai, Euskal Herria gobernatzeko inoiz baino legezkotasun handiagoa duzue, gobernuari dagozkion erabaki politikoak hartzeko, abertzaleen artean erakutsi duzuen indarrak biltzeko gaitasun horretatik abiatuta gobernatzeko. Baina zuek politikoki inoiz baino orekatuagoa den herri bat gobernatuko duzue, abertzaleen eta ez-abertzaleen arteko aldea inoiz baino urriagoa den herri bat.

Eta berriro diotsut: abertzaleen botoak biltzeak gobernatzeko gehiengo bat eman du, baina konstituzionalisten eremua handituz doa etengabe hauteskundez hauteskunde 86. urtetik hona. Eta horregatik esaten dizut, funtziotako lehendakari jauna, ez ezazu hauteskontzien emaitza alferrik galdu, ez ezazu herri honen egungo oreka politikoa alferrik galdu, gaur egungo pluraltasuna inoiz baino ordenatuago eta kontzentratuago baitago Euskal Herrian gure autonomiaren historia osoan, 1985ean Euzko Alderdi Jeltzalearen zatiketa gertatu zenetik hona, batik bat.

Eta egia esanda, programez eta hitzaldiez at, benetan, hautagai jauna, ez dakit zein izango den zuk datozen hilabeteetan garatuko duzun benetako politika. Jakingo banu, esango nuke. Jakingo banu, konfiantza pixka bat emango nizuke. Ezin dizut eman, zeren eta argi eta garbi, alderdi politiko abertzaleek eratu duten gobernu-programa dela eta, eta argi eta garbi, zure jarreraren halako anbiguotasuna dela eta, ezin dizugu konfiantza hori eman. Baina gauza bat esan nahi dizut, laurogeietako hamarkada osoan eta laurogeita hamarreko hamarkadan Euskal Herriak izan duen mapa politiko onenean gobernatuko duzu zuk.

Hautagai jauna, zuk zenbait itun eta hitzarmen aipatu dituzu zure esku-hartzean, eta nik horiei buruzko nire jarrera zein den agertzeaz gainera, beste bat edo beste erantsi nahi dut.

Esan beharra daukat guk zailtasun, konfiantza eta iraunkortasun berezia ditugula autonomiaren eta Konstituzioaren balioei dagokienez, eta beti aurkituko gaituzula arlo horretan. Eta guk ez dugu inoiz gauza bat esan eta bestea egiten. Guk autonomiaren eta Konstituzioaren balioetan konfiantza dugu, eta ez dugu balio horien defentsan itxaropena galduko.

Horregatik lehendabizi, beste ezer baino lehenago, zera proposatzen dizut, ez dakit zein esparrutan, zuk nahi duzunean (batzordearen esparruan, Legebiltzarrean, Osoko Bilkuran), elkarrizketaren balioari, elkarrizketaren mugei, urte hauetan Euskal Herrian eta Espainian elkarrizketak izan duen historiari buruzko eztabaida bat eta gogoeta bat. Eta hori aldez aurretiko eztabaida da. Gero zuk nahi duzun eztabaida egin ahal izango dugu autonomiaz, baina elkarrizketaren balioari buruzko eztabaida bat.

Elkarrizketaz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara? Zertaz ari gara elkarrizketaz hitz egiten dugunean? Zeren eta bai baitirudi batzuetan jaurtigai bat izan dela batzuk elkarrizketaren aldeko eta besteak elkarrizketaren aurkako ager daitezen, batzuk elkarrizketarako irekiak eta besteak, berriz, amore ematen ez dutenak. Kuestioa ez da elkarrizketari bai ala ez esatea. Kuestioa zein elka-

límites del diálogo, el diálogo para qué, para reforzar unas instituciones o para superar unas instituciones.

Y antes de plantear un diálogo usted tiene que saber lo que piensa su interlocutor, antes de hablar de diálogo usted tiene que haber protagonizado una multiplicidad de contactos sucesivos y previos con su futuro interlocutor, y lo demás es fuego de artificio o estrategia o táctica para deformar la imagen del interlocutor que dice que no a ese diálogo en particular.

Segundo, yo le propongo también, y le digo que sí a lo que usted ha dicho, un debate sobre el estado actual de la autonomía vasca, como usted ha dicho, con carácter monográfico. Yo estoy deseando hacer ese debate en el País Vasco para hablar con claridad ya no sólo del diálogo, sino sobre lo que es la autonomía; no sólo sobre las transferencias y las competencias, sino sobre los valores de la autonomía, en qué se edifica una autonomía (pacto, lealtad, paciencia, reciprocidad, esfuerzo de unos y de otros).

En tercer lugar, yo le propongo también que mantengamos una posición común en la negociación del Concierto Económico desde el País Vasco, unos conciertos que en nuestra opinión, y tal y como trasladamos al Ministro de Hacienda ayer mismo, deben tener un marcado carácter continuista respecto al que hoy disponemos. Y quiero decir que en ese sentido sí que se producen las condiciones para dialogar, porque todos sabemos, más o menos, que hay aproximaciones sucesivas que permiten el diálogo en ese terreno.

Cuarto, le propongo también que seamos, más que nunca, fieles a los resultados electorales. Los vascos hemos revitalizado en las urnas el Parlamento Vasco, y yo le propongo que acordemos (usted lo ha hecho también, pero déjeme que yo le haga alguna iniciativa), que acordemos un programa, un calendario, con reforma o no del Reglamento del Parlamento Vasco, para fortalecer entre los grupos políticos esta institución. Y en esta cuestión también habrá posibilidad de diálogo, porque ahí no nos separan las posiciones, porque ahí se ha producido la experiencia suficiente entre nosotros y ustedes como para que eso sea un esfuerzo seguro.

Señoras y señores parlamentarios, termino. Siempre creí antes, durante y después del 13 de mayo que la obligación democrática de nuestro grupo era presentar y hacer creíble una alternativa política al nacionalismo vasco. El País Vasco no es ninguna excepción, todas las sociedades democráticas exigen una alternativa política permanente con una ambición democrática de gobierno.

Yo he subrayado que las últimas elecciones autonómicas pueden ser eficaces y útiles, y quiero decir también que la alternativa ha demostrado su utilidad para el conjunto del País Vasco, porque por primera vez ha sido creíble, porque ha tenido mucho que ver con el grado de participación, porque también ha tenido mucho que ver con la concentración de siglas y de votos dentro del nacionalismo, y ha tenido mucho que ver también con los 585.000 votos que hemos obtenido, por separado, el Partido Popular y el Partido Socialista. *(Murmullos.)*

rrizketa moduz ari garen jakitea da, zeintzuk diren elkarrizketaren mugak, elkarrizketa zertarako, erakunde batzuk indartzeko ala erakunde batzuk baztertzeko.

Eta elkarrizketa planteatu aurretik, zure solaskideak zer pentsatzen duen jakin behar duzu, elkarrizketaz hitz egin aurretik, behin eta berriz elkartu behar duzu zure solaskide izango denarekin, eta gainerako guztia su artifizialak dira edota elkarrizketa berezi horri ezezkoa ematen dion solaskidearen irudia desitxuratzeko estrategia edo taktika.

Bigarren, nik ere, eta baiezkoa ematen diot zuk esan duzunari, euskal autonomiaren egungo egoerari buruzko eztabaida bat proposatzen dizut, zuk esan duzun bezala, monografikoa. Euskal Herrian eztabaida hori egiteko irrikaz nago ni, ez elkarrizketaz soilik, baizik eta baita autonomiaren izaeraz ere argi eta garbi hitz egiteko ere; ez transferentziez eta aginpideez soilik, baita autonomiaren balioez ere, eta zeren gainean eraikitzen den autonomia bat (hitzarmena, leialtasuna, pazientzia, elkarrekikotasuna, batzuen eta besteen ahalegina).

Hirugarren, Kontzertu Ekonomikoa negoziatzerakoan Euskal Herritik jarrera komuna izatea proposatzen dizut, eta gure ustez, eta atzo bertan Hazienda Ministroari esan genion bezala, kontzertu horiek gaur egun ditugunen jarraipena izan behar dute. Eta ildo horretan esan nahi dut, elkarrizketarako baldintzak baditugula, guztiok baitakigu, gutxi gorabehera, elkarrizketa bideragarri egiten duten hurbilketak izan direla arlo horretan.

Laugarren, era berean proposatzen dizut, inoiz baino gehiago, hauteskundeetako emaitzekiko leial izan gaitezela. Euskaldunok Eusko Legebiltzarra berpiztu dugu hautestontzietan, eta nik proposatzen dizut (zuk ere egin duzu, baina utz iezadazu ere zuri ekimenen bat proposatzen), programa bat, egutegi bat hitzartu dezagula, Eusko Legebiltzarraren Araudia aldatuta nahiz aldatu gabe, talde politikoen artean erakunde hau sendotzeko. Eta kuestio horretan ere elkarrizketarako aukera izango da, hor ez baitaukagu bereizten gaituen jarrerarik, hor gure eta zuen arteko esperientzia nahikoa izan baita ahalegin hori alferrikakoa izan ez dadin.

Legebiltzarkide jaun-andreok, amaitzera noa. Nik lehen beti uste nuen, maiatzaren 13aren aurretik eta ondoren, gure taldearen betebehar demokratikoa euskal abertzaleei alternatiba politiko bat aurkeztu eta sinesgarri egitea zela. Euskal Herria ez da salbuespen bat, gizarte demokratiko guztietan behar da gobernu demokratiko bat helburu duen alternatiba politiko iraunkorra.

Eta nik nabarmendu dut azken hauteskunde autonomikoak eraginkorrak eta baliagarriak izan daitezkeela, eta era berean esan nahi dut alternatibak Euskal Herri osorako duen baliagarritasuna erakutsi duela, lehendabiziko aldiz sinesgarria gertatu delako, parte-hartze mailarekin zerikusi handia izan duelako, abertzaleen baitan siglak eta botoak biltzearekin ere zerikusi handia izan duelako, eta Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak bereizirik izan ditugun 585.000 botoekin ere zerikusi handia izan duelako. (*Marmarrak.*)

Una alternativa que ha sido eficaz y útil para todo ello… Miren, cuando se tienen principios y convicciones en unas elecciones no es cuestión sólo de gobernar, es de si esos principios y esas convicciones avanzan en la Comunidad en la que uno hace política. Y quiero decir que, en ese sentido, esta alternativa del País Vasco ha llevado al constitucionalismo en el País Vasco a un porcentaje que en ninguna elección autonómica había alcanzado. Lo digo para que se rían menos. *(Risas.)*

Y quiero decirles que ha sido insuficiente para gobernar, y por eso nuestra obligación es mejorar, modular, perfeccionar esta alternativa, y ése es el compromiso que asumo en nombre del Partido Popular del País Vasco y que va a caracterizar nuestra tarea desde el primer día de esta legislatura.

He de decir que después de leer el acuerdo entre ustedes esa voluntad y esa vocación se multiplica. Siempre es necesaria la alternativa, pero cuando ustedes pactan con ustedes mismos la superación del marco político y jurídico actual ese esfuerzo, para algunos, es más que nunca ineludible, y nos corresponde hacerlo sobre la Constitución y el Estatuto.

Esa alternativa, señor Lehendakari, será exigente, pero sepa que será colaboradora al mismo tiempo en el principal problema que tenemos todos: el miedo, el terror y la falta de libertad de muchos vascos. Ahí nos encontrará siempre, señor candidato, no habrá ninguna sorpresa, ni para usted ni para su Gobierno, ni para los 325.000 votos que ha obtenido el Partido Popular ni para los 585.000 votos que han hecho creíble esta alternativa.

Muchas gracias. *(Aplausos.)*

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Mayor jauna.

Jarraian, Euzko Abertzaleak Taldeko ordezkari dan Egibar jaunak dau hitza. *(Murmullos.)*

El Sr. **EGIBAR ARTOLA**: "Este Gobierno es incapaz de suscitar…"

El Sr. **PRESIDENTE**: Silencio, por favor, señorías.

El Sr. **EGIBAR ARTOLA**: "…la más mínima esperanza en la ciudadanía. El Gobierno carece de liderazgo para superar la crisis que él mismo ha creado. Asuma la realidad tal como es, señor Lehendakari. Usted se encuentra solo, sin país, porque el país le ha vuelto la espalda. Se encuentra solo y en minoría, porque ha fracasado.

"Su actitud es una actitud vergonzante, que es lamentable. Usted, que vino proclamando la buena nueva del tránsito a un nuevo marco político, se irá anunciando el tránsito de los nacionalistas a la oposición que tanto parecen temer.

Horretarako guztirako eraginkorra eta baliagarria izan den alternatiba bat… Begira, hauteskunde batzuetan printzipioak eta uste sendoak izanez gero, kontua ez da gobernatzea soilik, baita printzipio eta uste sendo horiek batek politika egiten duen erkidegoan aurrera egiten duten ikustea ere. Eta zentzu horretan esan nahi dut Euskal Herriko alternatiba honek aurreko ezein hauteskunde autonomikotan iritsi gabeko portzentaje batera eraman duela konstituzionaltasuna Euskal Herrian. Barre gutxiago egin dezazuen diot. (*Barreak.*)

Eta esan nahi dizuet gobernatzeko ez dela nahikoa izan, eta horregatik gure betebeharra alternatiba hau hobetzea, modulatzea, biribiltzea dela, eta hori da Alderdi Popularraren izenean onartzen dudan konpromisoa, eta legegintzaldi honen lehen egunetik gure eginkizunaren ezaugarri izango dena.

Esan beharra daukat zuen arteko hitzarmena irakurri ondoren, borondate hori eta nahi hori biderkatu egiten direla. Alternatiba beti da beharrezkoa, baina zuek zeuen buruarekin egungo esparru politikoa eta juridikoa gainditzea hitzartzen duzuenean, ahalegin hori batzuentzat inoiz baino saihestezinagoa da, eta Konstituzioaren eta Estatutuaren gainean egitea dagokigu.

Alternatiba hori, lehendakari jauna, zorrotza izango da bere eskarietan, baina jakin ezazu laguntzeko prest egongo dela, aldi berean, guztiok dugun arazo nagusian: euskaldun askoren beldurra, terrorea eta askatasun falta. Hor beti aurkituko gaituzu, hautagai jauna, ez da sorpresarik izango, ez zuretzat, ez zure Gobernuarentzat ez Alderdi Popularrak atera dituen 325.000 botoentzat eta ezta alternatiba hau sinesgarri egin duten 585.000 botoentzat ere.

Mila esker. (*Txaloak.*)

**LEHENDAKARI** jaunak: Gracias, señor Mayor.

A continuación tiene la palabra el representante del Grupo Nacionalistas Vascos, señor Egibar. (*Marmarrak.*)

**EGIBAR ARTOLA** jaunak: "Gobernu hau ez da gai…"

**LEHENDAKARI** jaunak: Isilik, mesedez, legebiltzarkide jaun-andreok.

**EGIBAR ARTOLA** jaunak: "…herritarrengan itxaropen txikiena ere sorrarazteko. Gobernuak ez du buruzagitzarik berak sortu duen krisia gainditzeko. Onar ezazu errealitatea den bezala, lehendakari jauna. Zu, bakarrik zaude, herririk gabe, herriak bizkarra eman dizu eta. Bakarrik zaude eta gutxiengoan, porrot egin duzu eta.

"Zure jarrera lotsagarria da, penagarria. Zu esparru politiko berri baterako iragaitearen berri ona aldarrikatuz etorri zinen hori, nazionalistek hainbeste beldur diozuen oposiziorako iragaitea aldarrikatuz joango zara.

”Ustedes, Lehendakari, han entrado en la fase de la equivocación diaria, que suele definir los periodos que anuncian el fin de una época. Se resiste a admitir que los ciudadanos consideran que su discurso político es un discurso caduco, incapaz de responder a sus exigencias y demandas actuales.

”Usted no ve lo que está ocurriendo porque está inmerso, sigue inmerso en su personal, profundo fracaso. Es evidente que no tiene votos suficientes para gobernar, pero, lo que es más grave, usted no tiene credibilidad para hacerlo. Usted representa el proyecto de la frustración, el victimismo, la división, el fracaso, la impotencia y la incapacidad de gobernar. Si yo llego a tener una gestión tan impresentable como Ibarretxe, no tengo el coraje de volver a presentarme”. El que dijo esto se presentó y está aquí. *(Risas.)*

Además de insultos que usted ha recibido en esta Cámara, insultos personales a los que no voy a hacer referencia, esto que he leído no es una representación, es una síntesis muy breve de una constante que se ha dado en esta Cámara en la pasada legislatura. No voy a nominalizar porque a nadie se le escapa que, nominalizado, esto tiene un efecto *boomerang* letal, letal políticamente hablando: incapaz, vergonzante, fracasado, equivocado, abandonado.

Hasta el 12 de mayo, PNV-EA 458.000 votos; el 13 de mayo, 150.000 apoyos más (604.222). Antes 27, ahora 33. ¿Es mucho pedir, partiendo del reconocimiento y el respeto que ambos partidos y este Gobierno profesan al resto de formaciones políticas, que se pueda caminar en el respeto y reconocimiento mutuos, que se respete y se reconozca, entre otras cosas, a la opción ganadora con diferencia y a la persona que ha liderado ese proyecto?

Jaun-andre legebiltzarkideak, arratsalde on. Hastera noa.

Ateak ez itxi, bideak zabaldu, esan duzu gaur goizean. Eginiko bidea aztertu duzu, egungo egoera, aukera berri bat aurreikusi duzu eta etorkizunerako konpromisoak aipatu dituzu. Garbi dagoena da bakarren batzuek diskurtsoa prestatuta zeukatela eta pausoa aldatuta harrapatu duzula hemen jendea.

Etika aldetik, giza eskubideak; politika aldetik, elkarrizketaren aldeko apustua, errespetua eta gizarte-eraikuntza, Gobernuaren lehentasunak. Hauteskundeak eta ondorioak, horretaz asko mintzatu da gaur hemen jendea. Nik uste dut, laburbilduta, gero erdaraz saiatuko naiz zerbait luzatzen baina, garbi dagoela euskal gizarteak, partaidetza nagusi horrekin, ehuneko 80ak parte hartu baitu, argi erakutsi duela bide garbi eta sendo bat egin nahi duela, eta argi eta garbi erakutsi duela bi muturren artean bide zabal eta ireki bat zabaldu eta egin nahi duela. Nahi eta erabaki eta demostratu egin du.

Ondorio bezala, zergatik garbi zegoen, aurreikusten zen bezala, bai ezker abertzaleak, baina ETAk nagu-

”Zuek, lehendakaria, egunean hutsegite baten fasean sartu zarete, eta hori garai baten amaiera iragartzen duten aldien ezaugarria izaten da. Ez duzu onartu nahi herritarren ustez zure diskurtso politikoa zaharkitua dagoela, beren gaur egungo behar eta eskariei erantzuteko gaitasunik ez duela.

”Zuk ez duzu gertatzen dena ikusten, zure porrot pertsonal sakonean sarturik zaudelako, hor jarraitzen duzulako. Begien bistakoa da ez duzula gobernatzeko nahikoa boto, baina, are larriagoa dena, ez duzu hori egiteko sinesgarritasunik. Zuk frustrazioaren, biktimismoaren, zatiketaren, porrotaren, ezintasunaren eta gobernatzeko gaitasun-ezaren proiektua mamitzen duzu. Nik Ibarretxek bezain gestio arlotea izan banu, ez nuke berriz aurkezteko adorerik izango”. Hau esan zuena aurkeztu zen, eta hemen dago. (*Barreak.*)

Zuk Ganbera honetan jaso dituzun irainez gainera, hemen aipatuko ez ditudan irain pertsonalez gainera, irakurri dudan hau ez da adierazgarria, joan den legegintzaldian Ganbera honetan etengabekoa izan zenaren sintesi laburra baizik ez da. Ez noa izenik ematera denok dakizuelako izena emanez gero honek *boomerang* efektu hilgarria duela, politikoki hilgarria: gauzaeza, lotsagarria, porrot egina, erratua, baztertua.

Maiatzaren 12a arte, EAJ-EA 458.000 boto; maiatzaren 13an, 150.000 boto gehiago (604.222). Lehen 27, orain 33. Asko eskatzea da, bi alderdiek eta Gobernu honek gainerako talde politikoekiko duten onarpena eta errespetua abiapuntutzat hartuta, elkarrekiko errespetuaren eta onarpenaren bidetik aurrera egitea, eta besteak beste, alde handiz irabazle atera den aukera eta proiektu horren buru izan den pertsona onartzea eta errespetatzea?

Buenas tardes, señorías. Voy a empezar.

Usted ha hablado esta mañana de no cerrar las puertas, de abrir los caminos. Ha analizado el camino recorrido, la situación actual; ha previsto una nueva alternativa, y ha mencionado compromisos de futuro. Lo que está claro es que algunos tenían el discurso preparado, y que ha encontrado usted a mucha gente con el paso cambiado.

Desde el punto de vista ético, los derechos humanos; desde el punto de vista político, la apuesta por el diálogo, el respeto y la construcción social; ésas son las prioridades del Gobierno. Las elecciones y los resultados, hoy la gente ha hablado mucho de ese tema. Yo creo que, resumiendo, aunque luego intentaré extenderme más en castellano, pero yo creo que es evidente que la sociedad vasca, con esa amplia participación, ya que ha participado el 80 por ciento, ha mostrado claramente que quiere recorrer un camino limpio y firme, y ha mostrado claramente que entre los dos extremos quiere abrir y recorrer un camino ancho y abierto. Así lo quiere, así lo ha decidido, y lo ha demostrado.

Como conclusión, porque estaba claro, como se veía de antemano, que la izquierda abertzale, pero ETA

siki, baldintzatu nahi zuela prozesu guztia. Berak erabaki batzuk hartzen ditu, politikoak baina militarrak. ETAk bere ekintzen eskutik politikoki Euzko Alderdi Jeltzalea eta Eusko Alkartasuna baldintzatu nahi ditu, zergatik garbi lerrokatzen duen Alderdi Sozialista PPrekin, hori zen helburua, eta lortu egin zuen ituna sinatzeraino.

Eta beste aldetik, PPk eta PSOEk helburu garbi bat zeukaten, bakarra, bakarra, abertzaletasuna instituzioetatik kanpo botatzea. Hori ziren bi muturrek zituzten helburuak, eta gizartearen gehiengoak beste zerbait erakutsi du, bide garbi bat jorratu nahi duela.

Baina emaitzen ondorioak politikoki ere neurtu daitezkeen ondorioak dira. Hau da, nik ulertzen dut lehen fase batean, lehen fase batean, gaur hemen gertatu den bezala, ezker abertzaleak diskurtsoan freskotasunik ez edukitzea, gizarteak txokora bota duelako, gizarteak txokora bota du, 14rekin joan parlamentu honetatik eta 7rekin bueltatu.

Baina hor erantzukizunak ere badaude. Eta PPk eta PSOEk, baino batik bat Alderdi Popularrak, ikusi da zer esan duen eta bere analisia zein izan den eta ondorioa zein den. Ez da apustua galdu, hauteskunde batzuk galdu dira, non dago gakoa etorkizunean irabazteko? Proiektua perfekzionatzea, hau da, Estatuak, munduko denbora guztia daukanez, abertzaletasuna gaindituko duen eguna iritsiko dela pentsatzen du, beraz, proiektua perfekzionatu egin behar da. Ez gehiago, ez gutxiago; baina bi muturrak bere mutur horietan blokeatuta gelditu dira, blokeatuta.

Eta Lehendakariak zioen, eta beste batzuek ere hala genioen, hauteskundeek ezer gutxi aldatuko zutela, baldin eta gu guztion jarrerak aldatzen ez baziren, zergatik herri honetan, gizarte honetan, politikagintzan behintzat, blokeorako gaitasuna guztiok daukagun, gauzak blokeatzen iaioak gara, gauzak eraikitzen zailagoa dela dirudi, baina blokeorako gaitasuna denok daukagu.

Ezker abertzalearen inguruan gogoeta pare bat. Nik ez dut xaxatuko ezker abertzaleak bere barruan daukan debatean, ez da nire ohitura eta ez dut uste, gainera, gure ariketa izan behar duenik. Gogoeta pare bat bai. Gure ustez, gure ustez, ezker abertzaleak politikari bide eman behar dio, politika egitea indar armatu batek erabakitzen baldin badu, politika albora geldituko da. Eta nik uste dut gizarteak horri esan diola ezetz, argi eta garbi.

Eta bigarrena, konponbidearen aldeko apustua egin nahi baldin bada, azaldu den bezala, ez dezagun gutako bakoitzak geure proiektu politikoa irtenbide bakar horrekin ezkondu. Gutxiengo batzuk beharko dituzte proiektu guztiek, baina ez ditzagun konfunditu irteera politiko bat norberak, gutako bakoitzak, ditugun proiektuekin.

Zer hauteskunde hauetan askotan esan baita prozesuaren, etorkizunaren giltza zuela ezker abertzaleak. Gogoratzen naiz Izquierda Unidako ordezkari batek debate batzuetan esaten zuela: “Si la izquierda abertzale dice que tiene la llave, nosotros somos la bisagra”. Y yo

sobre todo, quería condicionar todo el proceso. Ella toma ciertas decisiones, políticas, pero militares. ETA quiere condicionar al Partido Nacionalista Vasco y a Eusko Alkartasuna por medio de sus acciones, porque alinea claramente al Partido Socialista con el PP, ése era el objetivo, y lo logró, hasta el punto de conseguir la firma del acuerdo.

Y por otra parte el PP y el PSOE tenían un objetivo claro, único, único: expulsar al nacionalismo fuera de las instituciones. Ésos eran los objetivos de los dos extremos, y la mayoría de la sociedad ha demostrado otra cosa: que quiere abrir un camino limpio.

Pero las conclusiones de los resultados se pueden medir también políticamente. Es decir, yo entiendo que en una primera fase, en una primera fase, como hoy ha sucedido aquí, la izquierda abertzale no tenga frescura en su discurso, porque la sociedad la ha marginado, la sociedad la ha marginado: se fue de este Parlamento con 14 y ha vuelto con 7.

Pero ahí también hay responsabilidades. Y ya se ha visto lo que han dicho el PP y el PSOE, pero sobre todo el Partido Popular, y se ha visto cuál es su análisis y su conclusión. No se ha perdido la apuesta, se han perdido unas elecciones, ¿y dónde está la clave para ganar en el futuro? Perfeccionar el proyecto, es decir, como el Estado, tiene todo el tiempo del mundo, piensa que llegará el día en el que superará al nacionalismo, de manera que hay que perfeccionar el proyecto. Ni más, ni menos; pero ambos extremos en sus extremos se han quedado bloqueados, bloqueados.

Y el Lehendakari decía, y otros también así lo decíamos, que las elecciones cambiarían bien poco si las actitudes de todos nosotros no cambiaban, porque en este país, en esta sociedad, al menos en el quehacer político, todos tenemos capacidad de bloqueo, somos hábiles para bloquear cosas; parece que es más difícil construir, pero la capacidad de bloqueo la tenemos todos.

Un par de reflexiones en torno a la izquierda abertzale. Yo no voy a azuzar el debate interno que la izquierda abertzale tiene en su seno, no es mi costumbre ni creo, además, que sea nuestra tarea. Pero sí un par de reflexiones. A nuestro entender, a nuestro entender, la izquierda abertzale tiene que dejar paso a la política: si un grupo armado decide hacer política, la política quedará relegada a un lado. Y yo creo que es eso lo que la sociedad ha rechazado, claramente.

Y, segundo, si se quiere apostar por la solución, como se ha dicho, no casemos cada uno de nosotros nuestro proyecto político con esa solución única. Todos los proyectos necesitan de unas minorías, pero no confundamos una salida política con los proyectos particulares de cada uno de nosotros.

Porque en estas elecciones se ha dicho una y otra vez, que la llave del proceso, la llave del futuro, la tenía la izquierda abertzale. Recuerdo que un representante de Izquierda Unida dijo en unos debates: “Ezker abertzaleak giltza duela esaten baldin badu, gu gontzak gara”.

por deducción dije: “Pues nosotros seremos la puerta”. Porque, si unos tienen la llave y otros la bisagra, a nosotros no nos quedaba otra función. *(Risas.)*

Baina giltza edukitzetik…, eta giltza zertarako zen hainbat aldiz Legebiltzar honetan, eta Legebiltzar honetatik kanpo ere, hitz egin dugu. Giltza zertarako zen? Gure etorkizuna baldintzatzeko? Gu burumakur nahi ez dugun bide batetik sartzeko, Ajuria Eneako postuak edo Lakuako egoitza gustuko dugulako? Hor ez ginen izango ez Eusko Alkartasuna eta ez Euzko Alderdi Jeltzalea.

Beste batzuen helburua beste bat izan da. Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak ez dute birziklatzeko aukerarik edo biderik emango, baldin eta oposizio-eskainuetatik pasatzen ez badira. Horiek hala pentsatzen zuten eta hala jorratu dute beraien estrategia.

Baina proiektu nagusi batek gehiengoa lortu du, giza eskubideen aldarrikapen eta defentsan oinarritutako proiektu batek, elkarrizketaren aldeko apustua egin duen proiektu batek, euskal gizarteak erabakitzen duen hori errespetatzearen aldeko apustua egin duen proiektu batek eta azken finean, euskal gizarte justu eta orekatuago bat eraiki nahi duen proiektu batek.

Eta giza eskubideez hitz egin da hemen, eta askotan aipatu du Arnaldok giza eskubideen aldarrikapena. Eta lehen ere aipatu baldin bada, norbanako guztiek duten bizitzeko, aske bizitzeko eta segurtasunerako eskubidea ere hor dago. Eskubide horrek ere aipamen bat merezi zuen. Eta gizarteak entzuten duenean antzeko aipamenik, nik uste dut hor ere aurrerabide bat edo pausu batzuk emango ditugula.

Tamalez, tamalez esan beharra daukagu, guk ere hanka sartze batzuk izango genituen, prozesuan azaldu den bezala, baina denbora pasa, bi urte nahiko gogor, nik uste dut harreman politikoetan oso mikatzak izan direla, balantze bat egin beharko bagenu, geure buruari galdera egin behar bagenio, egin diogun bezala, zer erantzun ematen dugu bi garaiak ebaluatzen ditugunean? Zein garai izan da onuragarriagoa, ederragoa, aberatsagoa euskal gizartearentzat, ez nazionalistentzat, su etenaren garaia ala ondorengoa? Eta nik uste dut horrek erantzun bakarra duela, eta erantzun horri euskal gizarteak bide eman diola hauteskunde hauetan.

Hemen aipatu da Batasunaren eskutik, gaur, hiru desafio, hiru erronka daudela eta ilusio eta, ez dakit, esperantzarekin, eraikitzeko asmoarekin behintzat etorri dela ezker abertzalea. Eta aipatu da behin eta berriz euskal lurraldetasunaren partizioa, Estatutua, autonomia, konfliktorik badagoen ala ez dagoen.

Nik uste dut ihesaldia izan dela gaurko diskurtsoa. Ez zaio eutsi gakoari. Denborak erakutsiko du ea korner horretatik irteten zareten. Korner puntutik perspektiba galtzen da. Gehienez ere baloia erdiratu, baina jokoa dominatzeko izkina horretatik atera beharra dauka ezker abertzaleak, politika egin nahi baldin badu.

Eta nik ondorioz esan nuen: “Bada gu, orduan, atea gara”. Zeren eta batzuek giltza baldin badute eta besteek berriz gontza, guri ez zitzaigun beste betekizunik gelditzen. (*Barreak.*)

Pero de tener la llave…, y ya hemos hablado más de una vez en este Parlamento y fuera de este Parlamento también, para qué era la llave. ¿Para qué era la llave? ¿Para condicionar nuestro futuro? ¿Para meternos cabizbajos por un camino que no queremos, porque nos gustan los puestos de Ajuria Enea o la sede de Lakua? Ahí no nos encontrarían ni a Eusko Alkartasuna ni al Partido Nacionalista Vasco.

El objetivo de otros ha sido distinto: el Partido Nacionalista Vasco y Eusko Alkartasuna no tendrán ninguna posibilidad o ninguna oportunidad de reciclarse a no ser que pasen por los escaños de la oposición. Eso es lo que ellos pensaban, y así han construido su estrategia.

Pero ha obtenido la mayoría un proyecto superior; un proyecto basado en la difusión y la defensa de los derechos humanos, un proyecto que apuesta por el diálogo, un proyecto que apuesta por respetar aquello que la sociedad vasca decida, y, en último término, un proyecto que quiere construir una sociedad vasca más justa y equilibrada.

Y aquí se ha hablado de derechos humanos, y Arnaldo ha citado muchas veces la defensa de los derechos humanos. Y, aunque ya se ha dicho antes, ahí se incluye el derecho de todo individuo a vivir, a vivir libremente y en seguridad. Ese derecho merece también una mención. Y cuando la sociedad oiga mencionar este tipo de cosas yo creo que daremos algún paso o avanzaremos algo.

Por desgracia, por desgracia, hemos de decir que, aunque nosotros hayamos podido cometer algún error, como se ha explicado en el proceso, yo creo que hemos tenido dos años bastante duros, muy amargos en lo que se refiere al trato político, pero pasado este tiempo, si tuviéramos que hacer un balance, si tuviéramos que preguntarnos, como lo hemos hecho, ¿cuál sería la respuesta al evaluar las dos épocas? ¿Qué época ha sido más beneficiosa, más hermosa, más rica para la sociedad vasca, no para los nacionalistas, la época de la tregua, o la posterior? Y yo creo no hay más que una única respuesta a eso, y que en estas elecciones la sociedad vasca ha abierto la vía para dicha respuesta.

Aquí se ha dicho desde Batasuna que hoy existen tres desafíos, tres retos, y que la izquierda abertzale ha venido con ilusión, no sé, con esperanza, o al menos con la intención de construir. Y se ha he referencia una y otra vez a la partición del territorio vasco, el Estatuto, la autonomía, si hay o no hay conflicto.

Yo creo que el discurso de hoy ha sido una huida. No se ha llegado al meollo. El tiempo dirá si sois capaces de salir de ese córner. Desde el punto de córner se pierde perspectiva. Como mucho, se puede centrar el balón, pero para dominar el juego la izquierda abertzale tiene que salir de ese rincón, si es que quiere hacer política.

Eta behin eta berriz nola aipatzen den, ba, bi kultura ditugula, gu partizioaren aldeko garela, Gasteiztik irteten dena Gasteizera bueltatzen dela… Begiratu, guk garbi daukaguna da ez dugula herri hau jarriko inondik inorako bidean. Gasteiztik toki askotara joan daiteke, Gasteizera bueltatu ere bai. Baina euskal interesak defendatu ahal izateko Bruselan, Estrasburgon, edo berdin da Madrilen edo Zuberoan edo Nafarroan, defenditu behar diren tokian defenditu behar dira. Herri honek ez daukalako txanda-pasa egiterik inondik inorako bide baten zain.

Hala eta guztiz ere, trantsizio demokratiko batez ari baldin bagara, eta behin eta berriz aipatzen da hori, guk esaten duguna da gaur egungo markoak hortxe daude, gaur estatutuaren garapena eskatzen dugu, besteak beste, herri honen borondatea errespetatu ez delako. Garbi dago. Herri honen borondatea errespetatu izan balitz, estatutua duela makina bat urte betea beharko zukeen, baina ez dago beteta, ezta gutxiagorik ere.

Eta hemen "carta otorgada" eta gainontzekoez hitz egiten da, baina garbi dago bakarren batzuek autonomia hau ulertu dutela "nik –azkenengo interbertsioan hala aipatu du gainera, nahita edo nahi gabe esanez–, nik ematen dudan zerbait da, zuk presionatzen duzulako". Beraz, hori paktu baten ondorio baldin bada, bakarren batek esplikatu beharko du, hori paktua den ala ez den, behintzat ez guk paktua ulertzen dugun moduan.

Beraz, marko batetik bestera joan behar baldin dugu, guk esaten dugu: marko honek zerbait ona edukiko du, ba. Eta zuek esaten duzue baietz. Ba, mantendu beharrekoa mantendu egin beharko da, mantendu beharrekoa mantendu egin beharko da. Zer erreziklatu behar da? Zer berritu behar da? Esan zer erreziklatu, zer berritu behar den. Zer elementu berri sartu behar dira marko honetan? Esan ditzagun. Edo zer ordezkatu behar da? Baina hori ariketa demokratiko bat da eta hori da besteak beste Lehendakariak gaur bere proposamen horretan aipatu eta eman digun bidea. Eta gu hortan buru-belarri sartuko gara, ariketa politiko horretan.

Eta trantsizioa demokratikoa izango baldin bada, guk faltan botatzen dugu ezker abertzaleak, hain zuzen ere, indarkeriari buruz duen gogoeta. Askotan aipatu izan dugu indarkeria ez da meteorologia, herri honetan gertatzen da, ez da kanpoan, 8.000 kilometrora, gertatzen den zerbait. Ezker abertzaleak kalifikatu egin behar du, kalifikatu, horrek kaltea edo on egiten dion euskal gizarteari.

Euskal gizartearen aniztasuna denok errespetatu beharko dugu. Plurala eta anitza baldin bada geure gizartea, ideia eta proiektu ezberdinak daude, denak errespetagarriak. Eta gainera egiten den proposamenak biabilidade bat beharko du.

Beraz, trantsizio demokratiko batez ari baldin bagara, indarkeria iragana da. Trantsizio demokratikoaz ari baldin bagara, garbi dago gizartearen gehiengoak izan behar duela benetako motorra. Eta trantsizio demokratiko batez ari baldin bagara, aldatu beharreko guztiak aldatu beharko ditugu gaur egun indarrean dagoen marko ho-

Y como se reitera, pues, que tenemos dos culturas, que nosotros somos partidarios de la partición, que lo que sale de Vitoria vuelve a Vitoria… Miren, nosotros lo que tenemos claro es que no vamos a poner a este pueblo en ningún camino. De Vitoria se puede ir a muchos sitios, se puede incluso volver a Vitoria, pero para poder defender los intereses vascos, hay que defenderlos donde corresponda, da igual que sea en Bruselas, en Estrasburgo, en Madrid, en Zuberoa o en Navarra. Porque este pueblo no puede dejar pasar ninguna oportunidad por esperar un camino que lleve a no-sé-dónde.

A pesar de todo, si hablamos de una transición democrática, y es algo que se cita una y otra vez, lo que nosotros decimos es que los marcos actuales están ahí. Hoy pedimos el desarrollo del Estatuto, entre otras cosas, porque no se ha respetado la voluntad de este pueblo. Está claro. Si se hubiese respetado la voluntad de este pueblo, hace mucho tiempo que el Estatuto debería haberse desarrollado es su integridad, pero no lo ha sido, ni mucho menos.

Y aquí se habla de "carta otorgada", etcétera, pero está claro que algunos han entendido esta autonomía de esta manera: "es algo que yo –en la última intervención se ha dicho así además, no sé si consciente o inconscientemente–, es algo que yo doy, porque tú presionas". De manera que, si eso es consecuencia de un pacto, alguien tendrá que explicar si eso es o no es un pacto, o, al menos, no es ésa nuestra idea del pacto.

De manera que, si tenemos que pasar de un marco a otro, nosotros decimos: este marco ya tendrá algo bueno. Y ustedes dicen que sí. Pues, lo que haya que mantener habrá que mantenerlo, lo que haya que mantener habrá que mantenerlo. ¿Qué hay que reciclar? ¿Qué hay que renovar? Digan qué hay que reciclar, qué hay que renovar. ¿Qué nuevos elementos hay que introducir en este marco? Enumerémoslos. ¿O qué hay que sustituir? Pero eso es un ejercicio democrático, y ése es, entre otras cosas, el camino del que nos ha hablado y que nos ha señalado el Lehendakari en su propuesta. Y nosotros entraremos de lleno en ese ejercicio político.

Y si la transición va a ser democrática nosotros echamos de menos, precisamente, la reflexión de la izquierda abertzale sobre la violencia. Hemos dicho repetidas veces que la violencia no es la meteorología; sucede en este país, no es algo que suceda fuera, a 8.000 kilómetros de distancia. La izquierda abertzale tiene que calificarlo, tiene que calificar si eso beneficia o perjudica a la sociedad vasca.

Todos deberemos respetar la pluralidad de la sociedad vasca. Si nuestra sociedad es plural, existen distintas ideas y distintos proyectos, todos ellos respetables. Y, además, la propuesta que se realice deberá tener su viabilidad.

Por lo tanto, si estamos hablando de una transición democrática, la violencia es cosa del pasado. Si estamos hablando de transición democrática, es evidente que el verdadero motor ha de ser la mayoría de la sociedad. Y, si estamos hablando de una transición democrática, tendremos que modificar todo lo que sea necesario

rretatik abiatuta. Hori da gure planteamendua.

Nik ez dakit horrek partizioa bermatzen duen ala ez duen, baina garbi daukaguna da abertzale eta demokrata bezala, eta abertzale bezala tinko gainera esaten dugu, zazpi lurraldeen batasunetik gertuago dagoela hiru lurraldeen batasuna, ez dakigu ezer ezean edo hutsetik asmatutako proiektua baino. Zazpi lurraldeen batasunetik gertuago dago hiru lurraldeen batasuna edo hiru lurraldeen batasuna lau lurraldeen batasunetik.

Hori hala izanda, denbora badaukagu denok, ezker abertzaleak ere bai. Ezker abertzaleak politikan jarraitu nahi baldin badu eta udal hauteskundeei ganoraz aurre egin nahi baldin badie, politika egiteak beste zerbait eskatzen du gaurko diskurtsoaz aparte. Baina denbora behar dugunez, denok, ba, har dezagun denbora.

PP-PSOE. Yo he echado en falta que tanto Nicolás como hoy Mayor Oreja expresaran lo que han tejido, han desarrollado y han trabajado de día y de noche durante estos dos últimos años. Porque el propio Mayor Oreja ha hecho un apunte diciendo que él mismo personalmente ha sido una clave electoral, así le he entendido yo, pero hay tres preguntas que desde mi punto de vista responden a lo que ha sido una estrategia compartida, que se comparte, que se cierra con un acuerdo llamado "por las libertades y contra el terrorismo", que se dice hoy que no es contra el nacionalismo, y que obedece a respuestas que se dan a tres preguntas bien concretas.

¿Qué han buscado y perseguido PP y PSOE? La ciudadanía ha visto clarísimamente qué buscan: desalojar al nacionalismo de las instituciones, derribar al Lehendakari y a su Gobierno. Es un objetivo que se ha convertido además en obsesión. Es un objetivo legítimo. Les han faltado votos, bien.

¿Cómo? Como lo de los votos al parecer no daba o podía no salir, se ha utilizado una regla absolutamente perversa, decidida de común acuerdo, como es la de relacionar al nacionalismo directamente con ETA, con la violencia de ETA: PNV, EA, Lehendakari, cómplices de ETA; PNV dirige, ETA mata. Está repleta la hemeroteca de declaraciones de unos y otros queriendo involucrar al nacionalismo con la violencia de ETA.

Hoy todos están batiendo la cabeza diciendo que no, pero eso no lo ve ningún ciudadano. Al ciudadano se le ha transmitido esa al parecer gran verdad, que se ha convertido en gran mentira en la medida en que la propia sociedad española no da crédito a lo que se le ha vendido y ha sucedido, porque ninguno de los españoles se cree que, aparte de los cientos de militantes de ETA y del apoyo que pueda tener y de los ciento cuarenta y tantos mil votos de HB, hay (y yo me refiero a los nuestros) 604.222 cómplices de ETA. Es que los españoles no se lo creen, y es lo que les han vendido ustedes, que este señor dirigía un gobierno en complicidad con ETA. Y eso lo ha diseñado usted, usted, el Ministerio de Interior.

¿Y cómo lo han hecho? Con todos los resortes, con todos los resortes a su alcance, que son muchos: re-

modificar partiendo del actual marco vigente. Ése es nuestro planteamiento.

Yo no sé si ello garantiza o no la partición, pero como nacionalistas y como demócratas tenemos muy claro, y como nacionalistas lo decimos con firmeza, que la unidad de los tres territorios está más cerca de la unidad de los siete territorios que el proyecto inventado desde cero o desde la nada. La unidad de los tres territorios está más cerca de la unidad de los siete territorios, o la unidad de los tres territorios de la unidad de los cuatro territorios.

Siendo ello así, todos disponemos de tiempo, también la izquierda abertzale. Si la izquierda abertzale quiere continuar en la política y si se quiere enfrentar con ganas a las elecciones municipales, la actividad política exige algo más que el discurso actual. Pero como necesitamos tiempo, todos nosotros, pues, tomemos nuestro tiempo.

PP-PSOE. Nicolasek eta gaur bertan Mayor Orejak azken bi urte hauetan egunez eta gauez landu, garatu eta ehundu dutena adierazi ez izanaren falta sumatu dut. Mayor Oreja jaunak ohar gisa esan baitu bera hauteskundeen giltzetako bat izan dela, nik hala ulertu dizut, baina badira nire ikuspegitik estrategia partekatua izan denari, partekatu den eta "askatasunen alde eta terrorismoaren aurka" deituriko akordio batekin itxi zen estrategiari, gaur abertzaletasunaren aurkakoa ez dela esan den estrategiari erantzuten dioten hiru galdera, eta hiru galdera zehatzi ematen zaizkien erantzunen arrazoi dira.

Zer bilatu dute eta zer lortu nahi izan dute PPk eta PSOEk? Herritarrek oso argi ikusi dute zer bilatzen duten: abertzaletasuna erakundeetatik aldendu, lehendakaria eta bere Gobernua erorarazi. Eta helburu hori itsukeria ere bihurtu da. Legezko helburua da. Botoak falta izan zaizkizue, ederki.

Nola? Botoenak dirudienez ez zuenez ematen edo botoena dirudienez ezin zenez atera, arau makur bat erabili da, elkarrekin adostuta erabaki dena, hau da, abertzaletasuna zuzenean ETArekin lotu, ETAren indarkeriarekin lotu: EAJ, EA, lehendakaria, ETAren laguntzaileak; EAJk gidatzen du, ETAk hil. Hemeroteka beteta dago batzuek eta besteek abertzaletasuna ETAren indarkeriarekin lotu nahi izan duten adierazpenez.

Gaur denok ezetz diozue buruaz, baina hori ez du inork ikusten. Herritarrari dirudienez egia biribila den hori adierazi zaio, gero gezur biribil bihurtu dena Espainiako gizarteak berak saldu zaiona eta gertatu dena sinestu ez duen neurrian, herritar espainol bakar batek ere ez baitu sinesten, ETAko ehunka militanteez gainera eta izan dezakeen babesaz gainera eta HBren ehun eta berrogeita hainbat mila botoez gainera, ETAren 604.222 laguntzaile daudela (eta gure botoez ari naiz). Espainiako herritarrek ez dute sinesten, eta zuek horixe saldu diezue, gizon honek ETAren laguntzaz gidatzen zuela Gobernua. Eta hori zuk taxutu duzu, zuk zeuk, Barne Ministerioak.

Eta nola egin duzue? Zuen esku dituzuen baliabideak, baliabide guztiak erabiliz, eta asko dira: baliabide

sortes políticos, mediáticos y también judiciales. Y también judiciales, señor Mayor Oreja. Usted ha hablado aquí de determinadas secuencias con la Justicia y de qué bueno sería que el nacionalismo, el Lehendakari, tuviera determinados pronunciamientos.

"El nacionalismo ha fracasado en esta última legislatura en su intento de pacificación dándole la razón a ETA, pactando con ETA y HB, gobernando con EH". "Hay una alternativa, una alternativa a esta situación, una alternativa al nacionalismo, a veinte años de régimen nacionalista fracasado". "PNV dirige, ETA mata". "Hay que perder el miedo reverencial al PNV, el miedo a que el PNV esté en el Gobierno Vasco, el miedo a que ello pueda suponer una radicalización del nacionalismo, una radicalización de ETA".

De ahí esas famosas ecuaciones suyas. Cuando habla de "más ETA, más miedo", dice: "Cuanto menos ETA, más nacionalismo". Y, claro, dice: "Si cuanto menos ETA hay más nacionalismo, distensión puede provocar más nacionalismo. Conclusión, combatir el nacionalismo". Y es lo que ha hecho, lo que pasa que le ha salido mal.

Y he dicho y he citado medios judiciales porque en este país por lo menos muchos tenemos la convicción de que el Gobierno español, con la colaboración de una parte de la judicatura, esencialmente encuadrada en la Audiencia Nacional, está conculcando derechos fundamentales de aquella parte de la ciudadanía vasca que discrepa, por ejemplo, del marco constitucional español y propugna su modificación pacífica. Y es gente que no tiene ninguna relación ni con la violencia ni con ningún código impositivo.

Se están persiguiendo penalmente ideas legítimas, se están conculcando derechos fundamentales, y se están criminalizando prácticas políticas. Y eso también era parte del dibujo y la estrategia.

Y no es este Parlamento quien rectifica a Garzón. Y estoy hablando del asunto Zuloaga, AEK, Zumalabe o Zabaltzen. No me estoy inventando nada, esto también se ha percibido en esta sociedad en esta precampaña y campaña electoral.

Vamos adelante. Yo quiero hacerles una pregunta con toda solemnidad también: satanizar y condenar el nacionalismo vasco en su conjunto, pero por supuesto el democrático, que ésa era la estrategia, caracterizar la complicidad del nacionalismo con ETA hasta elevarlo a categoría política, como lo han hecho, ¿ustedes creen verdaderamente que ése es un camino de deslegitimación de ETA? ¿Lo han pensado bien? ¿Qué persiguen? ¿Con quién quieren acabar?, ¿con ETA? ¿Ése es el camino?

Lo ocurrido, los resultados electorales, puede saldar muchas cosas. Alguien puede decir: "Pues borrón y cuenta nueva, aquí no ha pasado nada. Le hemos censurado a usted, bueno, dos intentos de censura, pero, bueno, no pasa nada. Todos somos amigos. Bueno, reconozco que he sido censurante, pero la población me ha cen-

politikoak, mediatikoak eta baita judizialak ere. Baita judizialak ere, Mayor Oreja jauna. Zuk hemen Justiziarekin izandako gertakari zehatzez hitz egin diguzu eta esan duzu zein ona izango litzatekeen abertzaletasunak, lehendakariak, halako aldarrikapen jakin batzuk izatea.

"Abertzaletasunak porrot egin du azkeneko legealdi honetan bere bakegintza-ahaleginean ETAri arrazoia emanez, ETArekin eta HBrekin hitzarmenak eginez, EHrekin gobernatuz". "Beste aukera bat badago, egoera honen aurrean beste aukera bat badago, abertzaletasunaren aurrean, porrot egin duen abertzale-erregimenaren aurrean beste aukera bat badago". "EAJk gidatzen du, ETAk hil". "Begirunezko beldurra galdu behar zaio EAJri, EAJ Eusko Jaurlaritzan egoteari, horrek abertzaletasuna erradikalizatzea, ETA erradikalizatzea, ekarriko duela pentsatzeari".

Eta hortik atera ziren zuen ekuazio ezagunak. "ETA gehiago, beldur gehiago" esaten duzunean, "zenbat eta ETA gutxiago, abertzaletasun gehiago" esaten duzu. Eta, jakina, honako hau esaten duzu: "ETA gutxiago izateak abertzaletasuna gehitzea badakar, lasaikeriak abertzaletasuna areagotzea ekar dezake. Ondorioa, abertzaletasunari aurka egitea". Eta horixe da zuk egin duzuna, gertatzen da, bada, gaizki atera zaizula.

Eta baliabide judizialak aipatu eta adierazi ditut, bada, herri honetan askok uste dugulako Espainiako Gobernua, judikaturaren zati baten lankidetzaz, batez ere Entzutegi Nazionalean kokatzen dena, urratzen ari dela, esate baterako, Espainiako Konstituzio-esparruarekin ados ez datozen eta esparru hori modu baketsuan aldatzea proposatzen duten euskal herritarren oinarrizko eskubideak. Eta jende horrek ez du inolako zerikusirik indarkeriarekin edo bestelako kode inposatzaileekin.

Bide penaletik jazartzen dira ideia legitimoak, zapaldu egiten dira oinarrizko eskubideak eta kriminalizatu egiten dira jarduera politikoak. Eta hori ere irudiaren eta estrategiaren zati zen.

Eta ez da Legebiltzar hau Garzoni zuzenketak egiten dizkiona. Eta Zuloagari buruz ari naiz, AEKri buruz, Zumalaberi buruz edo Zabaltzeni buruz. Eta ez naiz ezer asmatzen ari, hori ere sumatu da gure gizartean hauteskunde aurreko kanpainan eta hauteskunde-kanpainan.

Goazen aurrera. Galdera bat egin nahi dizuet seriotasun osoz: euskal abertzaletasun osoa, eta demokratikoa ere bai, jakina, satanizatzea eta kondenatzea, horixe baitzen estrategia, abertzaletasunak ETArekin zuen konplizitatea agerian jartzea kategoria politiko bihurtu arte, zuek egin duzuen bezala, benetan uste duzue horixe dela ETAri legitimazioa kentzeko bidea? Ongi pentsatu al duzue? Zer lortu nahi duzue? Zeri nahi diozue amaiera eman?, ETAri? Hori al da bidea?

Gertatu denak, hauteskundeen emaitzek, gauza asko argi ditzakete. Norbaitek honako hau esan dezake: "Bada, has gaitezen berriro hutsetik, hemen ez da ezer gertatu. Zentsuratu egin zaitugu, beno, bi aldiz ahalegindu gara zu zentsuratzen, baina, beno, ez da ezer gertatzen. Denok adiskide. Aitortzen dut zentsuratzailea izan

surado a mí, no al Lehendakari". Si todo fuera eso, pues, yo creo que se pasa página y adelante. Pero lo que ha ocurrido es muchísimo más grave.

El planteamiento que ustedes han mantenido, la estrategia que han compartido contumazmente, y persistir en el error, entendemos que esto no solamente lleva a una erosión de pilares del Estado democrático o el Estado de Derecho. Se está situando a la sociedad vasca en un escenario que tiene, además de a ETA, con toda la vulneración de derechos que supone la práctica de la violencia por parte de ETA, repito, se está situando a la sociedad vasca en un escenario que, además de a ETA, se le presenta o se le incluye un sistema democrático de muy baja calidad, muy baja calidad. Si se admite un término de actualidad, con unos niveles intolerables de benzopireno. Niveles intolerables.

Ustedes con sus decisiones han situado a esta sociedad vasca en un escenario que no sé si deseaban, pero que ha resultado, y tiene unas consecuencias, tiene unas consecuencias. Primera consecuencia, están ustedes agotando a la sociedad española, están agotando a la sociedad española. Y créanlo, que ha habido muchos españoles que desde su condición de demócratas se han dirigido, han llamado, han venido y han felicitado al nacionalismo democrático, porque dicen, y alguno de ellos lo ha expresado muy directamente, que hemos salvado la democracia en España. Y no lo ha dicho un tuercebotas, no lo ha dicho un tuercebotas. Sabe de lo que habla.

Ustedes saben y tienen que ser conscientes exactamente de lo que han tejido, porque, como segunda consecuencia, si todo el mundo (todo el mundo menos ETA, menos ETA, que al parecer no se ha percatado) se ha percatado de que los periodos de distensión son los de auténtica incomodidad política para dos partidos como el Partido Popular y el Partido Socialista Obrero Español, a nosotros como nacionalistas la actual situación, el actual momento, nos obliga a abordar las cuestiones de fondo.

Pero en este momento sabemos positivamente, por la estrategia que tienen pactada, que la existencia de ETA impide hablar de esas cuestiones de fondo, hasta el punto de que se ha dicho que la mera mención del derecho de autodeterminación está legitimando a ETA y que ETA siga matando. Eso es una auténtica barbaridad.

Si no se puede abordar una discusión política en términos democráticos por formaciones políticas democráticas en torno a la Constitución, a su posibilidad de reforma, porque el título décimo de la Constitución también es constitucional, o al derecho de autodeterminación… Porque alguien podrá decir: "Pues, es inconstitucional". ¡No cabrá en este momento en la Constitución, pero el planteamiento no es inconstitucional! ¿Por qué va a ser inconstitucional? O podemos hablar del desarrollo potencial de la adicional, o podemos hablar del artículo 46 del Estatuto de Autonomía, de la posibilidad de reforma. ¡Hemos debatido en infinidad de ocasiones en esta Cámara!

Tenemos un problema de fondo, de colisión de fondo: que hay formaciones políticas y hay una inmensa

naizela, baina herriak ni zentsuratu nau, ez lehendakaria". Dena hori izango balitz, bada, nik uste dut orrialdea pasa zitekeela eta aurrera egin. Baina gertatu dena askoz ere larriagoa izan da.

Zuek mantendu duzuen planteamenduak, temati partekatu duzuen estrategiak, eta zeuon okerrean jarraitzeak, gure ustez horrek ez du Estatu demokratikoaren edo Zuzenbide Estatuaren zutabeak higatzea bakarrik eragiten. Euskal gizartea eszenatoki zail batean kokatzen da, eta eszenatoki horretan ETAz gainera, ETAren aldetik indarkeria erabiltzeak eskubideetan eragiten dituen zapalketa guztiekin, esan bezala, ETAz gainera kalitate eskaseko, oso kalitate eskaseko sistema demokratikoa aurkezten zaio, eskaintzen zaio. Egunerokotasun handia duen hitz bat erabiltzearren, benzopireno maila onartezinak dituena. Maila onartezinak.

Zuek zeuon erabakiekin euskal gizartea eszenatoki jakin batean kokatu duzue, eta ez dakit hori nahi zenuten baina halako ondorio batzuk ditu, halako ondorio batzuk ditu. Lehenengo ondorioa, agortzen ari zarete Espainiako gizartea, agortzen ari zarete Espainiako gizartea. Eta sinets ezazue, espainiar askok eta askok, euren demokrata kondiziotik, guregana jo dute, deitu egiten digute, etorri eta abertzaletasun demokratikoa zoriondu egin dute, esaten baitute, eta bakarren batzuek oso zuzenean adierazi dute, salbatu egin dugula Espainiako demokrazia. Eta hori ez du memelo batek esan, ez du memelo batek esan. Bazekien zer esaten zuen.

Zuek badakizue zehatz-mehatz zer egin duzuen, zehatz-mehatz jabetu behar duzue egin duzuenaz, bigarren ondorio gisa, jende guztia ohartu bada (jende guztia ETA izan ezik, ETA izan ezik, dirudienez ez baita ohartu) lasaialdiak politikoki deserosoak direla Alderdi Popularrarentzat eta PSOErentzat, guri, abertzale garen neurrian, egungo egoerak, une honek, oinarrian ditugun arazoei heltzera behartzen baikaitu.

Baina une honetan jakin badakigu, itunduta duzuen estrategia dela eta, ETA hor izateak eragotzi egiten duela oinarrizko gai horietaz hitz egitea, eta autodeterminazio-eskubidea aipatze hutsa ETA legitimatzen ari dela eta ETAk jendea hiltzen jarraitzea legitimatzen ari dela esatera ere iritsi zarete. Hori astakeria ikaragarria da.

Konstituzioari buruzko, Konstituzioa eraberritzeko aukerari buruzko, eztabaida politiko bati ezin bazaio bide demokratikoetatik eta alderdi politiko demokratikoen bidez ekin, Konstituzioaren hamargarren titulua ere konstituzionala izanik, edo autodeterminazio eskubideari buruzkoa... Norbaitek honako hau esan baitezake: "Konstituzioaren aurkakoa da". Une honetan ez du lekurik izango Konstituzioan, baina planteamendua ez da Konstituzioaren aurkakoa! Zergatik izango da Konstituzioaren aurkakoa? Edo gehigarriari eman dakiokeen garapenaz hitz egin dezakegu, edo Autonomia Estatutuko 46. artikuluaz, erreforma-aukeraz, hitz egin dezakegu. Askotan eztabaidatu izan dugu Ganbara honetan!

Oinarrizko arazo bat dugu, oinarrian desadostasun bat dugu: alderdi politiko batzuek eta gehiengo zabal

mayoría, una inmensa mayoría de este pueblo, de esta sociedad vasca, que cree que el pueblo vasco es un pueblo sujeto de derechos, y ustedes relativizan eso y dicen que la soberanía vasca no existe, que es una invención del nacionalismo, y que en todo caso está subsumida en otra soberanía superior que es la española. Pero ésa es la discusión de fondo.

Y no me saquen de nuevo el tema de ETA para que no lo abordemos. Porque el conflicto político existe, Arnaldo, se ha dicho que existe un conflicto político. Lo que ocurre es que la expresión política del denominado conflicto vasco no es ETA, es el nacionalismo. ¡Que no es ETA! Es el nacionalismo.

¿O es que se creen que si no existiera conflicto político iba a existir el Partido Nacionalista Vasco? ¡Si lo ha dicho hasta el propio Mayor Oreja! Dice que en periodo de distensión ha constatado, ha visto, porque es el que mejor detecta las trampas *(Risas.)*, ha visto que era la mayor ofensiva política desde los tiempos de Sabino Arana. Ni más, ni menos. Usted ya sabe que hay conflicto, lo que pasa es que ETA le tapa, ETA le da la razón. ¿Pero vamos a abordar, o no vamos a abordar?

Pero yo quisiera terminar esta parte con una alusión a lo que significan apuntes que denotan… iba a decir una gravedad extrema, para el sistema democrático español. Porque los sistemas, que tienen sus propios mecanismos de seguridad, sirven en la medida en que se gestionan bien y correctamente, pero cuando uno observa que se está mezclando… Aparte del calificativo de "trampa", porque todo lo que ve Mayor Oreja es trampa.

¿Elkarri propone un diálogo? Diálogo-trampa. ¿Tregua? Trampa. ¿Gesto por la Paz, antes Premio Príncipe de Asturias, habla de derechos de los presos? Al ostracismo, fuera. Se deciden muchas cosas. ¿Proponen un diálogo en el Parlamento? Diálogo-trampa. Todo es trampa.

Y detrás de quien apela tantas veces a la trampa, aparte de existir siempre un miedoso, con mucho poder pero un miedoso, si eso se mezcla con apelaciones como las que ha hecho el señor Aznar, afirmando, ni más ni menos, que el futuro de España se juega en las elecciones vascas (esto lo ha dicho el Jefe de Gobierno), calificando de inmadura a la sociedad vasca, y que con los resortes del Estado perfeccionará el proyecto que haga vencer a la famosa alternativa democrática (curiosamente, la misma denominación que ETA: alternativa democrática) en las próximas elecciones, yo les digo claramente: ése es un escenario muy, muy peligroso. Pero no solamente para los nacionalistas vascos o catalanes o gallegos, sino para los demócratas españoles. Muy, muy peligroso.

Por eso no me extraña nada que haya habido gente de España que haya llamado al Partido Nacionalista Vasco diciendo: "Gracias, porque ustedes han dado un paso decisivo para salvar la democracia en España". Y no es ninguna exageración. Es tal cual, transcripción. *(Murmullos.)*

batek, herri honetako, euskal gizarte honetako gehiengo zabal batek uste duela euskal herria eskubidedun herria dela, eta zuek hori erlatibizatu egiten duzue eta esaten duzue euskaldunon burujabetza ez dela existitzen, abertzaletasunak asmatutako zerbait dela, eta izatekotan ere beste subiranotasun nagusi baten menpe, subiranotasun espainolaren menpe, dagoela. Baina horixe da oinarrian dagoen eztabaida.

Eta ez iezadazue berriro ETAren kontua atera gero ez eztabaidatzekotan. Gatazka politikoa badago, Arnaldo, esan da gatazka politikoa badagoela. Gertatzen da euskal gatazka deitzen denaren adierazpen politikoa ez dela ETA, abertzaletasuna baizik. Ez da ETA! Abertzaletasuna da.

Edo uste duzue gatazka politikorik izango ez balitz Euzko Alderdi Jeltzalea izango litzatekeela? Mayor Oreja berak ere esan du baina! Esan du lasaialdian egiaztatu duela, ikusi duela, tranpak ongien antzematen dituena denez *(Barreak.)*, ikusi duela Sabino Aranaren garaitik izan den eraso politikorik handiena izan dela. Ez gehiago, ez gutxiago. Zuk badakizu gatazka bat dagoela, gertatzen da ETAk babestu egiten zaituela, ETAk arrazoia ematen dizula. Baina heldu behar diogu ala ez diogu heldu behar?

Zati hau amaitzeko Espainiako sistema demokratikoan... sekulako larritasuna agerian jartzen duten hainbat ohar aipatu nahi nituzke. Sistemek, euren segurtasun-mekanismoak izanik, ongi eta zuzen kudeatzen diren neurrian balio dute, baina ikusten denean nahasten ari direla... "Tranpa" hitzaz gainera, Mayor Oreja jaunak ikusten duen guztia tranpa baita.

Elkarrik elkarrizketa proposatzen du? Elkarrizketa-tranpa. Su-etena? Tranpa. Gesto por la Paz taldeak, lehen Príncipe de Asturias Saria zenak, presoen eskubideaz hitz egiten du? Ostrazismora, kanpora. Gauza asko erabakitzen dira. Elkarrizketa proposatzen da Legebiltzarrean? Elkarrizketa-tranpa. Dena da tranpa.

Eta tranpa hitza hainbeste handiz erabiltzen duenaren atzean, beti beldurti bat egoteaz gainera, botere handia duena baina beldurtia azken batean, hori Aznar jaunak egin dituen apelazioekin nahasten bada, baieztatu baitu, argi eta garbi, Espainiaren etorkizuna euskal hauteskundeetan jokatzen dela (hori Gobernu buruak esan du) euskal gizartea heldugabetzat joz, eta Estatuaren baliabideekin datozen hauteskundeetan alternatiba demokratiko famatua gailenaraziko duen proiektua onduko duela (bitxia bada ere, ETAren izen bera: alternatiba demokratikoa), nik argi eta garbi esango dizuet: eszenatoki hori oso, oso, arriskutsua da. Baina ez euskal abertzaleentzat, nazionalista katalanentzat edo galegoentzat, baizik eta Espainiako demokrata guztientzat. Oso, oso, arriskutsua.

Horregatik ez nau batere harritzen Espainian hainbat jendek Euzko Alderdi Jeltzaleari deitu izanak honako hau esanez: "Eskerrik asko, urrats erabakigarria eman baituzue Espainian demokrazia babesteko". Eta hori ez da gehiegikeria bat. Halaxe da, hitzez hitz. *(Marmarrak.)*

Sí, sí. Después, si quiere alguien, le cuento quién. *(Murmullos.)*

En fin, y se habla de las dos orillas. Bueno, el Lehendakari ha pillado aquí a la gente con el paso cambiado. Mayor Oreja ha venido con una historia de su época de Ministro de Interior. Los cinco trechos famosos los ha contado a los partidos cuando pasaban, circulaban por el Ministerio del Interior. Lo de la ETA transnacional, la ETA del interior, el asidero, el semillero, eso lo ha contado usted cinco veces al PNV. Entonces, va y nos cuenta aquí una historia del Ministerio de Interior reclamándole al Lehendakari no sé qué niveles de eficacia, pronunciamientos… ¡Pero si ha estado usted cinco años, o seis!

Y habla de la primera experiencia que quiere usted de relación con el Lehendakari. Le propone ni más ni menos que un debate sobre el valor del diálogo. ¡Hay que tener tupé! *(Risas.)*

O sea, da orden al partido allí y aquí para que nadie del Partido Popular se relacione no ya con el PNV, que nosotros somos unos apestados a los efectos, pero ni siquiera existe el mínimo respeto institucional con el Lehendakari, ¡y viene aquí y propone un debate sobre el valor del diálogo!

En fin, solamente a los efectos de que también vayamos tomando posición, en la réplica podremos hablar, pero el Lehendakari ha propuesto tiempos y ritmos y temas. A la salida al mediodía algunos periodistas decían: “Este ritmo, ¿quién lo va a aguantar?” Y hemos utilizado el símil del Tour: para ir al Tour hay que ir en condiciones. La primera semana es horrible, y el que va fuera de hematocritos ése ni corre, pero el que va con piñón fijo ése…, es que ése no termina una etapa.

O sea, que hay un plan, hay un temario, y hay una necesidad de identificación de posiciones políticas por parte de todos. Y aquí estamos hablando electos, desde nuestra consideración, electos de tres de los siete territorios vascos. Ésa es nuestra posición. Somos electos por la Comunidad Autónoma, de Gipuzkoa, Bizkaia y Álava, los que estamos aquí, pero vamos a hablar en esas comisiones y en esos debates, y vamos a decir lo que pensamos sobre paz, normalización, autogobierno, modificación de marco, superación o regresión. De lo que sea, pero vamos a hacer propuestas concretas, y esperemos que la gente acuda, asista, proponga, porque también vamos a hablar del Estatuto de Autonomía.

Esto del cumplimiento leal del Estatuto, etcétera, etcétera…, que nos diga el Partido Socialista qué fiabilidad, qué credibilidad tiene la palabra del Partido Socialista con respecto al cumplimiento del Estatuto. ¿Qué hicieron ustedes desde el 82 al 96 para cumplir el Estatuto?

Nosotros tenemos nuestro propio modelo, y estamos hablando clarísimamente de incorporar a la cúspide jurídica del ordenamiento que nos demos los vascos que se respete y se incorpore el derecho que los vascos tenemos a decidir nuestro futuro libre y democráticamente. Y

Bai, bai. Gero, norbaitek nahi badu, nork esan duen esango diot. *(Marmarrak.)*

Eta, beno, bi ertzei buruz hitz egin da. Lehendakariak hemen jendea pausoa aldatuta harrapatu du. Mayor Oreja jauna Barne Ministroa izan zeneko historia batekin etorri da. Bost tarte famatuak Barne Ministeriotik pasatzean, han ibili zirenean, aipatu dizkiezu alderdiei. Nazioz gaindiko ETArena, barneko ETArena, heldulekua, haztegia, hori bost aldiz kontatu izan diozu EAJri. Eta orain hemen Barne Ministerioaren kontu bat kontatu diguzu lehendakariari nik ez dakit zein eraginkortasun-maila, aldarrikapen... eskatuz. Zu bost urtetan egon zara baina, edo sei urtetan!

Guk beti uste izan dugu parekaketa termino globaletan egiteak batez ere motibaziorik eza eragingo duela lanaren merkatuan sartzeko eta guk hori ezin dugu onartu kontzeptu gisa, eta guk horregatik interpretatzen dugu gizarte-soldata lanaren munduan sartzeko politika aktibo gisa, eta esan behar da fardel zabalago batean sartzen duela kopuruari dagokionez lanbidearteko gutxieneko soldata bera gainditu. Zuk badakizu fardel berean ditugula oinarrizko errenta, Auzolan eta enplegua suspertzeko aginduak, eta kasu honetan, eta bizikidetza-unitate osoarentzat, pertsona baten soldata 95.000 pezetakoa ere izatera iristen da, bi pertsonarentzat 113.000 pezetakoa, hiru pertsonarentzat 119.000 pezetakoa, eta abar, eta abar.

Es decir, nosotros estamos dispuestos a realizar un debate en términos de cuál es la cantidad a la que se puede acceder a través del salario social, pero creemos que no es un debate en términos de buscar los índices correlativos, o no sólo buscar los índices correlativos en relación con el salario mínimo interprofesional.

Ha hecho una segunda referencia a la economía regional. Yo creo que en relación con la economía regional, que ha pasado seguramente desapercibida, porque hemos estado en otras batallas en los últimos tiempos, habría que reconocer el gran esfuerzo que se ha hecho desde el Gobierno, desde las Diputaciones y desde los Ayuntamientos. Tenemos en marcha por primera vez una política regional económica, desde el punto de vista económico, de equilibrio de las zonas, y esto nos ha colocado en la interpretación, desde lo que es un gobierno de una nacionalidad o de una región en Europa, realmente de manera puntera.

Tenemos primero la consideración específica del mapa de zonas desfavorecidas distribuido de manera sectorial, es decir, que en todas las iniciativas sectoriales se incorpora la consideración específica del mapa, y por lo tanto las ayudas con carácter específico también.

En segundo lugar, hemos sido la primera Comunidad que ha desarrollado una política regional, en clave de lo que es la política regional europea, propia, y eso nos ha permitido fundamentalmente, adaptado a nuestras dimensiones, tratar de poner en marcha lo que es el Urban vasco (Izartu), un programa extraordinariamente importante en el que vamos a invertir en los próximos cinco años 25.000 millones de pesetas, pero queremos realmente incidir en la definición de una nueva fase una vez que veamos los efectos que se han producido, que creemos que serán muy positivos en esta fase.

Tengan ustedes en cuenta que además en términos de porcentaje prácticamente damos, de este programa Urban de carácter europeo, el 30 por ciento, entre el 25 y el 30 por ciento de los fondos a la Margen Izquierda, y en torno al 16 o al 17 a Pasaialdea, el cual, por otra parte, viene a ser uno de nuestros grandes proyectos. Nosotros creemos que vamos a dar la vuelta como un calcetín en poco tiempo a Pasaialdea, y estamos absolutamente convencidos también de que a lo largo de esta legislatura, de esta legislatura que comenzaremos a partir del próximo martes, seremos capaces también de dar la vuelta completamente a Ezkerraldea.

Y lo único que estaremos haciendo es, por otra parte, devolver la gran participación que estas dos zonas vascas han tenido al desarrollado económico, la gran aportación que han hecho al desarrollo económico durante muchos, muchos años. Y, si de bien nacidos es ser agradecidos, creo que todos tenemos una deuda contraída con estas dos zonas, que yo creo que, de alguna manera, vamos a poder revitalizar y dar la vuelta a lo largo de esta legislatura.

Solamente dos datos: el 50 por ciento de los empleos apoyados por programas industriales del Gobierno, del Programa Gauzatu, se han creado en estas dos comarcas, el 50 por ciento, y en la Margen Izquierda, desde el

Hau da, gu prest gaude eztabaidatzeko zein kopurutara irits gaitezkeen gizarte-soldataren bidez, baina uste dut eztabaida ez dela indize korrelatiboak bilatzea, edo ez behintzat indize korrelatiboak bilatzea bakarrik lanbidearteko gutxieneko soldatari dagokionez.

Bigarren aipamen bat erregio-ekonomiari egin diozu. Nik uste dut erregio-ekonomiari dagokionez, ziurrenik oharkabean pasatu dena, azkenaldi honetan bestelako borroketan murgilduta egon baikara, aitortu egin beharko litzatekeela nolako ahalegina egin den Gobernuaren, diputazioen eta udalen aldetik. Lehenengo aldiz dugu abian erregio-politika ekonomikoa, ikuspegi ekonomikotik, zonaldeen arteko oreka bilatuz, eta horrek, Europako naziotasun edo erregio bateko gobernua denaren ikuspegitik, aurre-aurrean kokatu gaitu interpretazioan.

Lehenik eta behin, alorka banatuta dugun hondatutako zonaldeen maparen kontsiderazio zehatza dugu, hau da, alorkako ekimen guztietan maparen kontsiderazio zehatza sartzen da, eta, ondorioz, laguntza zehatzak ere bai.

Bigarrenez, Europako erregio-politika denaren ildotik erregio-politika garatu duen lehenengo Autonomia Erkidegoa da gurea, eta horrek, batez ere, gure neurrietara egokituz, euskal Urban delakoa (Izartu) abian jartzen ahalegintzeko aukera eman digu, eta kontuan hartu behar da oso programa garrantzitsua dela eta datozen bost urteetan 25.000 milioi pezeta sartuko ditugula bertan, eta eman dituen emaitzak ikusi ondoren beste fase bat zehazten hasi nahi dugu, horixe da benetan egin nahi duguna, uste baitugu fase honetako emaitzak oso positiboak izango direla.

Kontuan har ezazue gainera portzentaje-terminoetan Europako Urban programa honetako ia ehuneko 30, ehuneko 25 eta 30 artean ematen diogula Ezkerraldeari, eta ehuneko 16 edo 17 inguru Pasaialdeari, eta esan behar da gure proiektu handietako bat izango dela. Guk uste dugu denbora gutxi barru galtzerdiari bezala emango diogula bira Pasaialdeari, eta erabat ziur gaude legealdi honetan, datorren asteartean hasiko dugun legealdi honetan, Ezkerraldeari buelta emateko gai ere izango garela.

Eta egiten ari garen gauza bakarra, bestalde, bi euskal zonalde hauek ekonomiaren garapenean izan duten partaidetza, urte askotan, urte askotan, ekonomiaren garapenari egin dioten ekarpen zabala, itzultzea baino ez da. Eta gizon prestuek berezko badute eskerronekoak izatea, uste dut guztiok zor diegula zerbait bi zonalde hauei, eta uste dut, nolabait ere, legealdi honetan gai izango garela bi zonalde horiek berrindartzeko eta bi zonalde horiei buelta emateko.

Bi datu baino ez: Jaurlaritzaren industri programek, Gauzatu Programak, babestutako enpleguen ehuneko 50, bi eskualde hauetan sortu da, ehuneko 50, eta Ezkerraldean, 97. urtetik, bertako udalekin batera 1.280

año 97, nos habíamos propuesto con los Ayuntamientos de la zona crear 1.280 empleos y hemos llegado a 2.917, más del doble prácticamente de lo que inicialmente teníamos previsto. Estamos encantados, tanto los Alcaldes de la zona como Diputación y como Gobierno. Y ya sabe lo que ocurre con el éxito: que el éxito se va desplazando en la medida en que se van consiguiendo los objetivos, y lo que hace es ilusionar a más y más capas, hasta tal punto que en estos momentos tenemos una gran ilusión por desarrollar este tipo de proyectos.

Y también se ha referido usted al paro. Es verdad que tenemos que seguir trabajando, pero fíjese usted: desde enero del 97 a junio de 2000 (ahora es menor ya)… La Margen Izquierda tenía en enero del 97 un paro del 19 por ciento, y era el 13 por ciento, el 13,6, lo que tenía la Comunidad. En junio del año 2000 estábamos en el 11,8, frente al 8,2, y en estos momentos estamos buscando ya tratar de bajar por debajo de los dos dígitos, que sería nuestro gran objetivo en un corto, cortísimo plazo.

Una tercera referencia en relación con la política de vivienda. Porque es verdad que tenemos muchos problemas, pero, fíjese usted, hay que trasladar a la ciudadanía también ejemplos claros. Mire, según los datos europeos, en los que se recogen las actuaciones públicas en políticas de suelo y de vivienda, entre los años 96 y 99, actuaciones por cada mil habitantes, para darle un ejemplo a los efectos de lo que estamos viendo aquí, en Euskadi invertimos, por cada mil habitantes, 29,3 millones de pesetas de media en esos cuatro años, frente a 11 millones que invierte España. Y si vamos a los *ratios* en el año 99, últimos cerrados a estos efectos, en relación con la vivienda protegida calificada, el *ratio* de número de viviendas protegidas sobre el número de viviendas es del 299,9, el 300 por ciento en Euskadi, frente al 80 por ciento en España. Y el *ratio* de cuota de mercado vivienda protegida es del 19 por ciento en Euskadi, el 9 por ciento en España; el *ratio* de vivienda protegida por mil habitantes el 1,7 en Euskadi, frente al 1 en España.

Quiero decir, son datos que de alguna manera nos colocan a todos en relación con este tipo de debates que son, desde mi punto de vista, importantes.

Por último, una última mención. Usted ha mencionado el diálogo social, y ha mencionado algunas de las ideas que estamos tratando de desarrollar. Mire usted, quizás no llegamos a cubrir todos los objetivos, pero estamos marcándonos…, ya en los propios convenios que tenemos cerrados con las centrales sindicales a nivel de la Administración general de la Comunidad vasca, todo el sistema de conciliación de la vida laboral y de la familia que estamos incorporando para tratar de desarrollar en el ámbito privado está ya aprobado por convenio en el ámbito de la Administración; la reducción de jornada también es un elemento en el que estamos intentando, tanto en relación con la Administración como con la iniciativa privada, caminar, lo estamos haciendo de una manera efectiva en el ámbito de la propia empresa pública, y, por supuesto, la modernización es uno de los elementos clave sobre los que tenemos basada la propia confirmación del convenio para este año. Por cierto, convenio que, siendo absolutamente novedoso en relación con es-

enplegu sortzea erabaki genuen eta 2.917ra iritsi gara, hasiera batean aurreikusita genuena baino ia bi aldiz gehiago. Oso pozik gaude, bai bertako alkateak eta bai Foru Aldundia eta Jaurlaritza. Eta badakizu zer gertatzen den arrakastarekin: arrakasta hedatu egiten da helburuak lortzen diren neurrian, eta gero eta maila gehiago ilusionatzen ditu, eta une honetan ilusio handia dugu era horretako proiektuak garatzen jarraitzeko.

Eta langabezia ere aipatu duzu. Egia da lanean jarraitu behar dugula, baina ohartu zaitez: 97ko urtarriletik 2000ko ekainera (orain jadanik txikiagoa da)... Ezkerraldeak 97ko urtarrilean ehuneko 19ko langabezia zuen, eta urte horretan bertan langabezia ehuneko 13koa, 13,6koa zen Autonomia Erkidegoan. 2000ko ekainean ehuneko 11,8koa genuen eta Autonomia Erkidegokoa 8,2koa zen eta une honetan bi zenbakietatik jaisten ahalegintzen ari gara, eta horixe izango litzateke gure helburua epe laburrera, oso epe laburrera.

Hirugarren aipamena etxebizitza-politikari buruzkoa. Egia da arazo asko ditugula, hori egia da, baina, ohartu zaitez, herritarrei adibide argiak ere jarri behar zaizkie. Begira, Europako datuen arabera, lurzoru eta etxebizitza politiketan burutzen diren jarduera publikoei buruzkoak, 96tik 99ra, mila biztanleko jarduera, hemen bizi dugunari buruzko adibide bat ematearren, Euskadin mila biztanleko 29,3ko batez bestekoa inbertitu genuen lau urte horietan, eta Espainiak, berriz, 11 milioi. Eta 99ko *ratio*etara jotzen badugu, arlo honetan, babestutako etxebizitza kalifikatuaren arloan, azkena itxi direnak izanik, babestutako etxebizitzen kopuruaren *ratioa* etxebizitza guztiei dagokienez 299,9koa da, 300ekoa da Euskadin, eta ehuneko 80koa Espainian. Eta babestutako etxebizitzaren merkatu-kuotaren *ratioa* ehuneko 19koa da Euskadin eta ehuneko 9koa Espainian; babestutako etxebizitzaren *ratioa* ehuneko 1,7koa da Euskadin mila biztanleko, eta ehuneko 1ekoa Espainian.

Esan nahi dut datu horiek, nolabait ere, geure tokian kokatzen gaituztela guztiok nire ikuspegitik garrantzitsuak diren era horretako eztabaidetan.

Azkenik, azken aipamen bat. Elkarrizketa soziala aipatu duzu, eta garatzen ahalegintzen ari garen hainbat asmo aipatu dituzu. Begira, beharbada ez gara helburu guztiak estaltzera iristen, baina finkatzen ari gara... Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean sindikatuekin itxita ditugun hitzarmenetan, esparru pribatua garatzen ahalegintzeko familia eta lanaren mundua bateratzeko sartzen ari garen sistema osoa jadanik onetsita dago hitzarmen bidez Administrazioaren esparruan; lanaldia murrizteko bidean ere zerbait egiten ahalegintzen ari gara Administrazioan nahiz ekimen pribatuan, eragingarritasunez dihardugu enpresa publikoaren esparruan, eta, zalantzarik ez dago, modernizazioa da aurtengo hitzarmena berresteko elementu giltzarrietako bat. Eta esan behar da hitzarmena hiru gai hauei dagokienez guztiz berria izanik, errekurtsoa aurkeztu diola Espainiako Gobernuak, informazio gisa baino ez, e!

tas tres cuestiones, nos ha sido recurrido por parte del Gobierno español. A efectos de información, ¡eh!

En todo caso, usted habla de mejorar y yo estoy de acuerdo, usted hablar de ampliar el consenso y yo estoy de acuerdo, pero sobre una base: somos los primeros del pelotón a nivel de Estado. Pero esto no debe ser suficiente, porque para construir Euskadi también desde el punto de vista social, con todos los respetos para el Sur, lo tendremos que hacer mirando al Norte.

Euskadi se tiene que construir, también desde el punto de vista social, mirando al Norte, y tendremos que buscar las referencias en materia de política social en los países del Norte. Pero no perdamos la perspectiva, porque yo estoy dispuesto a trabajar para que así siga siendo y estoy dispuesto a desarrollar las conversaciones que sean necesarias en relación con ustedes para que así siga siendo, pero teniendo muy claro de dónde partimos: somos el primer grupo del pelotón, tenemos el primer puesto del pelotón en estos momentos a nivel de Estado. Y a partir de ahí sigamos trabajando no solamente para seguir siendo primeros del pelotón, sino sobre todo incorporarnos al pelotón de los privilegiados en el Tour europeo.

La tercera cuestión es la mención que usted ha hecho a las puertas abiertas, a la voluntad de acuerdo. Yo quiero ser, en relación con esta cuestión, absolutamente claro, porque soy sensible al planteamiento y a la reflexión que ha hecho Izquierda Unida, y que también hemos hecho el PNV y Eusko Alkartasuna. Coincidimos todos en el interés que tenía, porque era un activo fundamental, que Izquierda Unida se hubiera incorporado al Gobierno, y estoy dispuesto a trabajar con ustedes al máximo para tratar de concertar acuerdos en aquellas cuestiones en las que tenemos aproximaciones, también en las que no tenemos aproximaciones. Y en todo caso quiero decirles una cosa: saben ustedes que tienen todas las puertas abiertas, todas, incluso las del Gobierno, y que, por tanto, yo voy a actuar con ustedes con una absoluta apertura y desde una convicción personal, desde una convicción personal.

No es que estemos ante un drama si Izquierda Unida no está o no pasa a estar en el Gobierno, lo he dicho en muchas ocasiones, pero habría sido mejor que hubiera estado. Por lo tanto, desde ese punto de vista saben ustedes que mi opción es una opción de puertas abiertas.

Usted hacía una referencia, y con esto termino, la reflexión de ustedes en torno a Mo Mowlan, que me ha parecido muy interesante: dedicación, voluntad y ganas de acuerdo. Yo me acordaba de otra reflexión de Winston Churchill, que es muy importante a los efectos de lo que hoy analizamos, y decía: "El fallo de nuestra época consiste en que sus hombres no quieren ser útiles, sino importantes". Y yo creo que ése es uno de los grandes problemas que realmente tenemos también en esta Comunidad vasca: que queremos ser importantes, que no queremos ser útiles.

Euskal Herritarrok. Hace una primera reflexión: desde dónde hasta dónde. Le he contestado de alguna manera en la intervención general. Yo parto de dos prin-

Nolanahi ere, gauzak hobetu behar direla esan duzu, eta ni bat nator horrekin, adostasuna zabaldu behar dela esan duzu, eta horrekin ere bat nator, baina oinarri baten gainean: tropeleko lehenengoak gara Estatuan. Baina honek ez du nahikoa izan behar, Euskadi ikuspegi sozialetik ere eraikitzeko, Hegoaldeari begirune osoa adieraziz, Iparraldera begira egin beharko dugu.

Euskadi, ikuspegi sozialetik ere, Iparraldera begira eraiki behar da, eta gizarte-politikako erreferentziak Iparraldeko herrialdeetan bilatu beharko ditugu. Baina ez dezagun ikuspuntua gal, horrela izaten jarrai dezan lan egiteko prest bainago eta zuekin behar diren elkarrizketa guztiak burutzeko prest bainago hala izaten jarrai dezan lortzeko, baina oso argi izanda nondik abiatzen garen: tropeleko lehenengo taldea gara, une honetan Estatuan tropelaren lehenengo postuan gaude. Eta hortik aurrera lanean jarraituko dugu, eta ez bakarrik tropeleko lehenengoak izaten jarraitzeko, baizik eta batez ere Europako Tourrean pribilegiatuen tropelean sartzeko.

Hirugarren aipamena ateak irekita izateaz, akordiorako borondateaz esan duzunari buruzkoa da. Gai honi dagokionez oso argia izan nahi dut, sentikorra bainaiz Ezker Batuak egin duen planteamenduarekin eta gogoetarekin, eta esan behar da EAJk eta Eusko Alkartasunak ere egin dugula gogoeta hori. Denok bat gatoz Ezker Batua Jaurlaritzan sartzeko genuen interesean, oinarrizko aktiboa baita, eta prest nago zuekin ahal den guztian lan egiteko elkarrengandik hurbil gauden arazoetan, eta baita elkarrengandik aldenduta gaudenetan ere, akordioak lortzen ahalegintzeko. Eta, nolanahi ere, gauza bat esan nahi dizuet: badakizue ate guztiak irekita dituzuela, guztiak, baita Jaurlaritzarenak ere, eta, horrenbestez, zuekin jarrera irekiaz jardungo dudala eta uste sendo batekin, uste sendo batekin.

Ez da drama bat izango Ezker Batua Jaurlaritzan ez badago edo sartzen ez bada, behin baino gehiagotan esan dut, baina hobe izango litzateke sartuko balitz. Horrenbestez, alde horretatik badakizue nire jarrera erabat irekia dela.

Aipamen bat egin duzu, eta honekin amaituko dut, Mo Mowlani buruzko gogoeta, alegia, eta oso interesgarria iruditu zait: ardura, borondatea eta akordiorako gogoa. Niri Winston Churchilli buruzko beste gogoeta bat etorri zait gogora, oso garrantzitsua dena gaur aztertzen ari garenari dagokionez, eta honako hau zioen: "Gure garaiaren akatsa da garaiko gizonek ez dutela baliagarriak izan nahi, garrantzitsuak baizik". Eta nik uste dut horixe dela euskal Autonomia Erkidegoan ere dugun arazo nagusietako bat: garrantzitsuak izan nahi dugula, ez dugula baliagarriak izan nahi.

Euskal Herritarrok. Zure lehenengo gogoeta: nondik noraino. Erantzun dizut nolabait ere esku-hartze orokorrean. Nik bi irizpide ditut abiapuntu gisa: garena

cipios: respetar lo que somos, y respetar lo que queramos ser.

Ustedes dicen: "No, no, no; es imposible. No, no, nada. Aquí lo importante es lo que queramos ser. Esto, lo que somos, ¡de qué! Ésta es una cuestión absolutamente imposible. Partir de las instituciones, tomar en consideración las instituciones, que las reflexiones se hagan en las instituciones actuales, eso no es posible. El motor tiene que ser un motor de marco Euskal Herria". Mientras que desde otras posiciones se dice: "Sí, sí, respetar lo que somos pero sólo lo que somos, sólo lo que somos. No cabe ninguna posibilidad de plantear ninguna opción de cambio, ninguna opción de actualización, ninguna opción por la cual, fundamentalmente sobre las propias potencialidades de nuestro sistema, podamos desarrollar, en función de la voluntad de los ciudadanos, lo que queramos ser en el futuro". Y ahí es donde yo encuadro clarísimamente la política que el Partido Popular y el Partido Socialista han realizado en los últimos tiempos.

Miren ustedes, los únicos que en esta Cámara hemos dicho muy claramente sí a una cosa y sí a otra hemos sido PNV-EA e Izquierda Unida, y esto es así.

Segunda reflexión. Podemos discutir, podemos discutir del futuro, podemos discutir con Euskal Herritarrok todas las cuestiones políticas, todas: podemos discutir la globalización económica y cultural, podemos discutir sobre los efectos en relación con nuestra lengua, el euskera, podemos discutir acerca de un sujeto político sin derechos colectivos. Pero hay una cuestión previa que hay que saber: ¿EH cree que la violencia de ETA modifica o no la situación que teníamos?

Porque usted ha venido aquí a hablarnos de la situación del 98 como si del 98 a hoy no hubiera cambiado nada. ¿Usted cree que la violencia de ETA en estos momentos hace que la situación que teníamos en el 98 y la situación que hoy tenemos, a los efectos de hablar entre nosotros y poder acordar, es la misma? Porque si usted cree que es la misma estamos en las antípodas.

¿Usted cree que es necesario que desde el punto de vista de favorecer, de posibilitar la construcción, usted dice, de un sujeto político con derechos colectivos, ETA esté actuando, esté matando? ¿Es una cuestión que favorece, que posibilita?

Si EH hace el mismo diagnóstico que hacía en el año 98, yo me pregunto de qué les ha servido a ustedes el proceso Batasuna y miles de folios y reflexiones, de qué les ha servido a ustedes, o de qué les ha servido a ustedes la lección que todos recibimos, ustedes también, el pasado 13 de mayo. No lo puedo entender, no lo puedo entender.

Eta, gero aipamen txiki bat "portazoari" buruz. Planteatu duzu gure planteamendua "portazo", dezepzioa izan dela. Eta nik galdetzen dizut: nire eta gure planteamendua dezepzioa izan dela? Zuk uste duzu? Ba niretzat dezepzio hutsa izan zen, euskal gizartearentzat ez ezik zuentzat ere, Euskal Herritarrokentzat ere, ETAk suetena apurtu zuenean. Dezepzio hutsa izan zen zuek Le-

errespetatu, eta izan nahi duguna errespetatu.

Zuek honako hau esaten duzue: "Ez, ez, ez; ezinezkoa da. Ez, ez, ezer ere ez. Hemen izan nahi duguna da garrantzitsua. Hau da, garena, nola baina! Hori guztiz ezinezkoa da. Ezinezkoa da erakundeetatik abiatzea, erakundeak aintzat hartzea, gogoetak egungo erakundeetan egitea. Motoreak Euskal Herria esparru duen motorea izan behar du". Beste jarrera batzuetatik honako hau esaten den bitartean: "Bai, bai, garena errespetatu baina garena baino ez, garena baino ez. Ez dago aldaketarik planteatzeko aukerarik, eguneratzea planteatzeko aukerarik, herritarren borondatearen arabera etorkizunean izan nahi duguna garatu ahal izateko bideari dagokionez, batez ere gure sistemaren ahalmenei dagokienez". Eta nik hortxe kokatzen dut argi eta garbi Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak azkenaldian egin duten politika.

Begira, Ganbara honetan gauza bati baiezko borobila eta besteari ere baiezko borobila eman diegun bakarrak EAJ-EA eta Ezker Batua izan gara, eta hori horrela da.

Bigarren gogoeta. Eztabaida dezakegu, etorkizunaz eztabaida dezakegu, Euskal Herritarrok taldearekin arazo politiko guztiez eztabaida dezakegu, guztiez: ekonomiaren eta kulturaren globalizazioaz, gure hizkuntzari, euskarari buruzko eraginez eztabaida dezakegu, eskubide kolektiborik ez duen subjektu politikoaz eztabaida dezakegu. Baina bada aldez aurretik jakin behar den zerbait; EHren ustez ETAren indarkeriak aldatzen du ala ez du aldatzen lehen genuen egoera?

Zu gaur hona 98ko egoeraz hitz egitera etorri zatzaizkigu, 98tik gaur arte ezer aldatu izan ez balitz bezala. Zuk uste duzu ETAren indarkeriak une honetan 98an genuen egoera eta gaur dugun egoera, gure artean hitz egiteari eta gure artean akordioak lortu ahal izateari dagokionez, berbera izatea eragiten duela? Zuk egoera bera dela uste baduzu antipodetan gaude.

Zuk uste duzu, eskubide kolektibodun subjektu politiko bat eraikitzen laguntzeko, eraikitzeko aukera emateko, beharrezkoa dela ETA jarduten aritzea, hiltzen aritzea? Horrek laguntzen du, aukera ematen du?

EHk 98an egiten zuen diagnostiko bera egiten badu, neure buruari galdetzen diot zertarako balio izan dizueten Batasuna prozesuak eta milaka orri bete dituzten gogoetek, zertarako balio izan dizuen, zertarako balio izan dizuen denok, baita zuek ere, joan den maiatzaren 13an jaso genuen lezioak. Ezin dut ulertu, ezin dut ulertu.

Y, a continuación, una breve referencia al portazo. Usted ha planteado que nuestro planteamiento ha sido un portazo, que ha supuesto una decepción. Y yo le pregunto: ¿nuestro planteamiento ha supuesto una decepción? ¿Ustedes lo creen así? Pues, en mi opinión, la verdadera decepción, no sólo para la sociedad vasca, sino que también para ustedes, también para Euskal Herri-

gebiltzar hau utzi zenutenean, dezepzio hutsa da zuen jarrera politikoa ETAren indarkeriaren aurrean. Eta gero zuk, zuk esaten duzu euskal gizartearen borondatea errespetatzea dela gakoa. Beno, ondo, nik onartzen dut, nik onartzen dut baina, zuek uste duzue ETAk euskal gizartearen borondatea errespetatzen duela? Benetan uste duzue hori edo beraien egitasmoa inposatu nahi du eta kito?

Eta gero, gaur egungo marko juridikoa agortuta dagoela, zatitzailea dela, konflikto politikoa luzatzen duela, aldatu beharko genukeela, Euskal Herria dela markoa… Ondo, hau defenda daiteke, horretarako gaude hemen, zuk hitz egin duzu gaur gauza horiei buruz. Bai, zuk hitz egin duzu gaur gauza horiei buruz. Baina hil egin behar da hori defendatzeko? Hau da gakoa. Eta ezinezkoa da orain eta orain dela bi urte hausnarketa bera egitea. Honek ez dauka ez bururik ez hankarik, ez bururik ez hankarik.

Partido Socialista. Bien, en primer lugar creo que es de agradecer que podamos tener un primer debate más racional que el que hemos tenido en los últimos tiempos en este Parlamento. La verdad es que yo estaba deseando poder tenerlo, y me imagino que ustedes también, poder tener un debate más racional acerca de las cosas y de los problemas que nos ocupan.

Hacía un agradecimiento en términos globales, y al mismo tiempo un reproche, en el sentido de no presentar la solución a todos los problemas en el minuto 1. Hombre, yo le diría dos cosas. Primero, que el apetito viene comiendo. Es un viejo dicho, y es sabio además: el apetito viene comiendo. Pero es que, en segundo lugar, ¿alguien cree en los Reyes Magos a estas alturas? ¿Alguien cree que alguien tiene capacidad en este país de poder venir aquí y decir: “Éste es el proyecto para solucionar…”? Primero, no sería creíble, no sería creíble que así fuera.

Yo he propuesto una serie de caminos, he propuesto una serie de procedimientos, una serie de ideas, creo que he dado una serie de pautas de comportamiento que incluso han sido definidas como intensas, que nos van a incorporar en un trabajo intensivo desde este Parlamento en los próximos tiempos. Y eso a mí, en principio, me parece que es una cuestión en sí misma positiva.

En segundo lugar usted me hacía varios planteamientos acerca del debate, de dónde se va a celebrar, cómo se va a celebrar, con qué nivel de exclusión o de inclusión… Bueno, el centro de operaciones va a ser este Parlamento; por lo tanto, los parlamentos son incluyentes por naturaleza, no son excluyentes por naturaleza.

Con Euskal Herritarrok hay que hablar. ¡Hoy estamos hablando con Euskal Herritarrok! Estamos hablando, nos estamos contestando. Arnaldo Otegi ha puesto aquí sus posiciones, los demás estamos trasladando las nuestras con absoluta normalidad… Ahora bien, a partir de ahí yo he dicho clarísimamente, clarísimamente, que para avanzar en un trabajo común en el desarrollo de acuerdos, en un aspecto desde el cual el diálogo político institucional sea normalizado para aprobar leyes, no ya

tarrok, fue cuando ETA rompió la tregua. Fue una verdadera decepción que ustedes abandonasen este Parlamento, su actitud política ante la violencia de ETA es una verdadera decepción. Y después usted, usted habla de que la clave es respetar la voluntad de la sociedad. Bueno, bien, estoy de acuerdo, estoy de acuerdo, pero ¿creen ustedes que ETA respeta la voluntad de la sociedad? ¿Lo creen ustedes de verdad, o simplemente quiere imponer su proyecto?

Y después ha dicho que el marco jurídico actual está agotado, que es divisorio, que prolonga el conflicto político, que lo deberíamos modificar, que el marco es Euskal Herria... Bien, eso se puede defender, para eso estamos aquí, hoy usted ha hablado de esas cosas. Sí, hoy usted ha hablado de esas cosas. Pero, ¿hay que matar para defender esas ideas? Ésa es la clave. Y hoy es imposible hacer la misma reflexión que hace dos años. Esto no tiene ni pies ni cabeza, ni pies ni cabeza.

Alderdi Sozialista. Ederki, lehenik eta behin uste dut eskertzekoa dela Legebiltzar honetan azkenaldian izan ditugun eztabaidak baino eztabaida arrazionalagoa izatea. Egia esan honelako eztabaida bat izateko, guregan eragiten duten arazoei eta gauzei buruzko eztabaida arrazionalago bat izateko, irrikan nengoen, eta pentsatzen dut zuek ere irrikan izango zinetela.

Eskerra adierazi duzu orokorrean, eta, aldi berean, gaitzespena ere bai, lehenengo minutuan arazo guztien konponbidea ez dela aurkeztu eta. Begira, nik bi gauza esango nizkizuke. Lehenik eta behin, janak eragiten du jateko gogoa. Esaera zahar bat da, eta jakintsua gainera: janak eragiten du jateko gogoa. Baina, bigarrenez, norbaitek sinesten al du Errege Magoetan gaur egun? Norbaitek uste al du herri honetan hona etorri eta honako hau esan dezakeela; “Hauxe da proiektua gauzak konpontzeko...”? Hasteko, ez litzateke sinesgarria izango, ez litzateke sinesgarria izango hala izango balitz.

Nik bide batzuk proposatu ditut, hainbat prozedura proposatu ditut, hainbat ideia, uste dut hainbat jokabide eskaini ditudala, jokabide bizitzat jo direnak, datozkigun garaietan Legebiltzar honetatik lan bizia egiten lagunduko digutenak. Eta hori niretzat, hasiera batean, oso positiboa da berez.

Bigarrenez, eztabaidari buruzko hainbat planteamendu egin dizkidazu, non egingo den, nola egingo den, zein sartuko den eta zein geratuko den kanpoan... Beno, jardueren egoitza Legebiltzarra izango da; horrenbestez, legebiltzarkideak barruan izango dira izatez, ez dira kanpoan geratuko izatez.

Euskal Herritarrok taldearekin hitz egin behar da. Gaur hitz egiten ari gara, baina, Euskal Herritarrok Taldearekin! Hitz egiten ari gara, elkarri erantzuten ari gara. Arnaldo Otegik bere jarrerak mahairatu ditu hemen, gainerakoak gure iritziak naturaltasun osoz adierazten ari gara... Baina, hori bai, hortik aurrera nik argi eta garbi esan dut, oso argi esan dut, akordioak garatzeko, legeak onesteko, ez jadanik Jaurlaritza eratzeko, legeak onesteko erakundeetako elkarrizketa politikoa normalizatua

para formar parte del Gobierno, sino para aprobar leyes, para desarrrollar en definitiva acuerdos de naturaleza institucional, es absolutamente fundamental que los grupos con los que se avance tengamos muy claro que sólo hay una manera de poder defender nuestras ideas, y es exclusivamente a través de las vías políticas y democráticas. Y eso se configurará también no como una condición excluyente, sino simplemente como un elemento previo a cumplir por parte de todos los que queramos avanzar en la misma dirección.

Me hablaba usted de la paz y el proyecto político y la mezcla. Le he trasladado antes: yo no sé en qué parte del programa ven ustedes una afirmación de esa naturaleza. El programa fundamentalmente, ustedes lo habrán visto, está basado en el documento Kursaal, y a partir de ahí lo que hace es desarrollar los cuatro puntos que se presentaron en el documento Kursaal. No creo que haya, ni en el programa ni en la intervención que yo he hecho, una confusión de planos. He tratado precisamente de ser escrupuloso en relación con todas esas cuestiones, porque me parece un buen punto de partida.

Y usted ha dicho, en relación con esta misma cuestión, un tema con el que no estoy de acuerdo. Usted ha dicho que hay que distinguir las críticas a quienes dirigen la Ertzaintza, y no a la Ertzaintza como institución. Bueno, esto no deja de ser un recurso dialéctico, porque en la práctica no nos hemos comportado así en los últimos tiempos.

Hubo una época en la que se necesitó… No quiero volver excesivamente hacia ese tipo de planteamientos, pero es verdad que identificar nacionalismo con violencia es evidente que pasaba también por deslegitimar la Ertzaintza para decir que defendía una determinada política.

En segundo lugar, yo no creo que la calificación que se ha hecho una y otra vez en este Parlamento en los últimos tiempos de la Ertzaintza, como una policía de partido, sea otra cosa que una descalificación de arriba abajo, de arriba abajo. Creo que, adicionalmente, trasladar a los mandos profesionales de la Ertzaintza (en muchas ocasiones muchos de ellos –ustedes lo saben muy bien– amenazados por ETA, amenazados por ETA) que estaban dando o realizando un servicio de un partido político, me parece que no es la mejor aportación que se puede hacer desde la idea de no desprestigiar a la Ertzaintza en sentido global.

Que hayamos negociado determinadas cuestiones en privado, en las que incluso se ponía en tela de juicio que no se diera ese mismo nivel de servicio por parte del Ministerio del Interior, y que sin embargo luego eso se haya reproducido ante la opinión pública en términos contrarios, creo que tampoco han sido elementos que han favorecido en modo alguno la legitimación de la Ertzaintza como institución.

Pero, en todo caso, bueno es que también en esta materia marquemos un camino diferente al que hemos desarrollado en el inmediato pasado.

egiteko lan bateratuan oinarrizkoa da aurrera egiteko prest agertzen diren taldeekin oso argi izatea modu bakarra dagoela gure ideiak aldezteko, eta modu bakar hori bide politiko eta demokratikoa da. Eta hori ere ez da izango baldintza baztertzailea, baizik eta norabide berean aurrera egin nahi dugun guztiok aldez aurretik bete behar dugun alderdia.

Bakeaz eta proiektu politikoaz eta nahasketaz hitz egin didazu. Lehen ere esan dizut: nik ez dakit programaren zein zatitan ikusten duzuen era horretako baieztapen bat. Programa, batez ere, zuek ikusiko zenuten, Kursaal dokumentuan dago oinarrituta, eta hortik aurrera garatu egiten ditu Kursaal dokumentuan aurkeztu ziren lau puntuak. Ez dut uste planoak nahasten direnik ez programan, ez nik egin dudan saioan. Hain zuzen ere zorrotza izaten ahalegindu naiz gauza horiekin guztiekin, uste baitut abiapuntu egokia dela.

Eta zuk, gauza honi berari dagokionez, gauza bat adierazi duzu eta ni ez nator bat horrekin. Esan duzu bereizi egin behar direla Ertzaintza zuzentzen dutenei egiten zaizkien kritikak eta Ertzaintzari erakunde gisa egiten zaizkionak. Beno, hori errekurtso dialektiko bat baino ez da, praktikan halaxe jokatu izan baitugu azkenaldi honetan.

Garai batean beharrezkoa izan zen... Ez dut gehiegi jo nahi era horretako planteamenduetara, baina egia da abertzaletasuna eta indarkeria identifikatzean Ertzaintzari berari ere legitimazioa kentzen zitzaiola politika jakin bat aldezten zuela esateko.

Bigarrenez, nik uste dut Legebiltzar honetan azkenaldian Ertzaintzari buruz behin eta berriro egin diren kalifikazioak, alderdiaren polizia deituz, gaitzespen argia baino ez direla izan, gaitzespen argi eta garbia. Uste dut gainera Ertzaintzaren buruzagi profesionalei buruz (eta askotan buruzagi horietako asko –zuek ondotxo dakizue– ETAk mehatxatuta zeuden, ETAk mehatxatuta zeuden) alderdi politiko baten zerbitzura zeudela, alderdi politiko bati zerbitzu bat eskaintzen ziotela, adieraztea ez dela Ertzaintzaren izen ona ez galtzeko ekarpenik onena.

Bakarka hainbat gauza negoziatu izana, eta negoziazio horietan zalantzan jarri izan zen zerbitzu bera ez ote zuen eskaintzen Barne Ministerioak, eta, hala eta guztiz ere, iritzi publikoaren aurrean gauzak alderantziz gertatu izana, uste dut ez direla izan Ertzaintzaren erakundearen legitimazioari lagundu dioten elementuak.

Baina, nolanahi ere, ona da gai honetan ere iraganik hurbilenean garatu ez dugun beste bide bat finkatzea.

La cuarta cuestión que le quiero trasladar es la siguiente. Quiero agradecerle, decía, la sensibilidad… usted hablaba de "sensibilidades actuales". Yo también tengo que agradecerle –al menos permítame el mismo nivel de gracia que usted ha empleado en su reflexión–, agradecerle su sensibilidad actual hacia mis planteamientos éticos y democráticos de hoy, porque creo que no es justo que se produzca una referencia en términos de "sensibilidad actual". Primero porque los planteamientos éticos que he hecho hoy aquí fueron los que públicamente hice, con las mismas palabras, con las mismas comas, con los mismos conceptos, en Gernika el 20 de diciembre. Exactamente los mismos, los compromisos éticos desarrollados y concretados en una serie de actuaciones.

Me parece bien, en todo caso, lo que usted plantea, no sé si con esa forma u otra; en definitiva, que el Parlamento abra un apartado específico para las víctimas del terrorismo. Y también acepto que sobre temas de seguridad, de educación y pacto cultural y lingüístico tendremos que hablar, entre otras cosas porque creo que gran parte del despiste político que se ha producido en los últimos tiempos ha sido un gran abandono de lo que habían sido consensos que habíamos alcanzado en muchas de estas materias por parte del propio Partido Socialista en relación con el Gobierno, en algunas ocasiones con un alejamiento que difícilmente entendíamos, porque muchas de las políticas que se han desarrollado habían sido trabajadas, habían sido fundamentalmente trabajadas por ustedes, ustedes mismos.

Y especialmente me resulta también un tanto incomprensible que nos achaque un déficit en relación con el diálogo social en términos de no prioridad del Gobierno, porque, mire usted, viniendo de un secretario general de un partido político que ha estado con esa responsabilidad en el Gobierno entre el año 91 y el año 98, resulta cuando menos un tanto chocante. No creo que se pueda acusar en modo alguno al Gobierno, ni por supuesto a los dos partidos que hoy estamos, pero tampoco al Partido Socialista, que estuvo en el Gobierno, de no tener entre nuestras prioridades tratar de realizar y desarrollar un diálogo en relación con estas cuestiones.

A continuación usted ha hablado de un cuarto punto que me interesa resaltar: volver al Estatuto. Le tengo que decir exactamente lo mismo que le he dicho en relación con el compromiso ético: agradecer la sensibilidad actual que usted tiene hacia un planteamiento que yo realizo hoy. Porque, mire usted, el planteamiento que hoy he realizado es exactamente el mismo que realicé el 25 de octubre, cuando presenté ante la sociedad vasca el compromiso democrático en favor y en desarrollo del autogobierno, en respeto de lo que hoy tenemos y en respeto también de lo que vayamos a tener en el futuro, sea esto lo que sea, partiendo de la legitimidad democrática que tiene el consenso actual. Por lo tanto, tengo que agradecer una sensibilidad también especial, de verdad, sinceramente, en relación con este tipo de cuestiones.

Y a partir de ahí usted ha hecho una referencia que me parece interesante: los vascos podrán decidir libremente. Mire usted, si el Partido Socialista lleva adelante esa afirmación, la llevamos juntos, esté absolutamente convencido de que resolvemos el contencioso po-

Adierazi nahi dizudan laugarren gauza honako hau da. Eskertu egin nahi dizut, esan duzu, sentikortasuna... "egungo sentikortasunak" esan duzu. Nik ere eskertu egin behar dizut –zure gogoetan erabili duzun grazia-maila bera behintzat onar iezadazu–, eskertu egin behar dizut gaurko nire planteamendu etikoei eta demokratikoei buruz gaur adierazi duzun sentikortasuna, uste baitut ez dela bidezkoa "egungo sentikortasuna" terminoa erabiltzea. Lehenik eta behin, gaur hemen egin ditudan planteamendu etikoak publikoki, hitz berak erabiliz, koma berak erabiliz, kontzeptu berak erabiliz, Gernikan abenduaren 20an egin nituen berberak direlako. Berberak, hainbat jardueratan zehaztutako eta garatutako konpromiso etiko berberak.

Nolanahi ere, ongi iruditzen zait zuk planteatzen duzuna, ez dakit forma horrekin edo beste batekin; azken batean, Legebiltzarrak atal zehatz bat irekitzea terrorismoaren biktimentzat. Eta onartzen dut segurtasun, hezkuntza, kultura eta hizkuntza gaiei buruz hitz egin beharko dugula ere, beste gauza batzuen artean uste dudalako azkenaldi honetan politikoki noraezean ibili garela alde batera utzi direlako gai askotan Jaurlaritzari dagokionez Alderdi Sozialistarekin lortuta genituen adostasunak, eta zenbait kasutan nekez ulertu ditugu aldentze-jarrera horiek, garatu diren politika asko zuek zeuok, batez ere zuek landu baitzenituzten.

Eta bereziki neurri batean ulertezina iruditzen zait elkarrizketa sozialari dagokionez gabezia handia izan dela leporatzea ere ez delako Jaurlaritzaren lehentasunetako bat izan. Begira, Jaurlaritzan 91. urtetik 98ra erantzukizun hori izan duen alderdi bateko idazkari nagusiak esanda guztiz bitxia iruditzen zait. Ez dut uste Jaurlaritza, ez gaur Jaurlaritzan gauden bi alderdiak, eta ezta Alderdi Sozialista ere, Jaurlaritzan egon baitzen, gai hauen inguruan elkarrizketa egiten eta garatzen ahalegintzea bere lehentasunetako bat ez izateaz sala dezakezunik.

Gero azpimarratu nahi dudan laugarren puntu bat aipatu duzu: Estatutura itzuli. Zehatz-mehatz konpromiso etikoari buruz esan dizudan gauza bera esan behar dizut: eskertu egiten dizut gaur nik egin dudan planteamenduari dagokionez gaur adierazi duzun sentikortasuna. Begira, gaur egin dudan planteamendua urriaren 25ean, euskal gizartearen aurrean autogobernuaren garapenaren aldeko konpromiso demokratikoa aurkeztu nuenean, egin nuen berbera da, gaur duguna errespetatzeari eta etorkizunean izango duguna errespetatzeari dagokionez, edozer gauza dela ere, egungo adostasunak duen legezkotasun demokratikotik abiatuz. Horrenbestez, eskertu egin behar dut, benetan, benetan diotsut, era horretako gaietan gaur adierazi den aparteko sentikortasuna.

Eta hortik aurrera interesgarria iruditzen zaidan aipamen bat egin duzu: euskaldunek libreki erabaki ahal izango dute. Begira, Alderdi Sozialistak baieztapen hori aurrera eramaten badu, elkarrekin eramango dugu, ziur izan zaitez gatazka politikoa konponduko dugula. Ez da-

lítico. No sé el tema de la violencia, señor Redondo, eso es otra cuestión. Antes de existir violencia había un contencioso político, a pesar de que a los señores del Partido Popular no les parezca así. Y si algún día la violencia acaba y seguimos sin resolver las cosas entre nosotros seguirá habiendo un contencioso político.

Lo que pasa es que luego me habla usted de la lealtad institucional. Mire usted, si la lealtad institucional de la que usted habla es un "trágala", no llegaremos a ningún sitio. Si la lealtad institucional de la que usted habla es sobre la que fundamentalmente teorizaron durante algún tiempo ilustres socialistas, entre ellos Ernest Lluch, en torno al constitucionalismo útil, quizás podamos tener algún camino.

Si contemplamos las herramientas jurídicas como impedimentos para alcanzar acuerdos, no alcanzaremos acuerdos nunca. Si las contemplamos en término de instrumentos que con voluntad política pueden perfectamente desarrollar lo que usted dice, que los vascos puedan decidir libremente, estoy absolutamente convencido de que tenemos solucionado el contencioso político en este país, aunque aquellos señores y estos otros no estén de acuerdo.

Bien, una última reflexión para terminar los mensajes. Usted ha trasladado un mensaje de apertura, y yo también quiero trasladar un mensaje de apertura hacia el Partido Socialista. Tenemos que hablar, es absolutamente necesario. Y yo les he sido franco siempre: nosotros podemos hablar y podemos desarrollar acuerdos puntuales; creo que para ir más allá de los acuerdos puntuales y llegar a acuerdos estructurales primeramente tenemos que alcanzar acuerdos de fondo entre ustedes y nosotros sobre estas cuestiones que yo acabo de comentar.

Pero hoy por hoy, señor Redondo, hoy por hoy ustedes han elegido un compañero de viaje en esta Comunidad, y el compañero de viaje en esta Comunidad es el Partido Popular. Es el Partido Popular, sí, señor Redondo, que no le haga mucha gracia, porque a mí no me la hace. Ustedes han convertido a Gaspar Llamazares en líder de la oposición en el Parlamento español, y la gran duda es si ustedes van a seguir admitiendo que el señor Mayor Oreja represente los votos del Partido Popular y los votos del Partido Socialista en Euskadi. Y cuando tengamos todos claras estas cuestiones tendremos también mucho más claro qué capacidad tenemos de podernos encontrar y desarrollar acuerdos, en su caso, entre nosotros.

Partido Popular. La reflexión del Partido Popular y del señor Mayor Oreja se podría resumir en una frase que ha trasladado en relación con el diálogo. Creo que define su posición al completo: cabe el diálogo donde no nos separan las posiciones. Esto es exactamente lo que usted ha dicho. Y ha mencionado cuatro aspectos en los que cabe el diálogo porque no nos separan las posiciones. Éste es el concepto democrático del diálogo que hoy el señor Mayor Oreja ha aportado aquí en esta Cámara.

Usted ha dicho: "Cabe el diálogo donde no nos separan las posiciones". Y dice dos debates: diálogo y

kit indarkeriaren gaia konponduko dugun, Redondo jauna, hori beste zerbait baita. Indarkeria izan aurretik gatazka politiko bat zegoen, Alderdi Popularreko kideei hala iruditu ez arren. Eta egunen batean indarkeria amaitzen bada eta gure artean gauzak konpondu gabe jarraitzen badugu gatazka politikoak hor jarraituko du.

Gertatzen da, bada, gero erakunde-leialtasuna aipatu duzula. Begira, zuk aipatzen duzun erakunde-leialtasuna "irentsi" esatea bada, ez gara inora iritsiko. Zuk aipatzen duzun erakunde-leialtasuna garai batean sozialista txit goren batzuek, haien artean Ernest Lluchek, teorizatu zutena bada, konstituzionalismo baliagarriaren inguruan, beharbada bideren bat izango dugu.

Tresna juridikoak akordioak lortzeko trabatzat hartzen baditugu, inoiz ez ditugu akordioak lortuko. Baina tresna juridikoak, borondate politikoa lagun zuk diozuna, euskaldunek libreki erabaki ahal izatea, ongi asko gara dezaketen tresnatzat hartzen baditugu, erabat ziur nago konponduta izango dugula gatazka politikoa herri honetan, nahiz eta jaun hauek eta beste horiek ados egon ez.

Ederto, azken gogoeta bat mezuekin amaitzeko. Irekitasun-mezu bat igorri duzu, eta nik ere irekitasun bera adierazi nahi dut Alderdi Sozialistarekiko. Hitz egin behar dugu, ezinbestekoa da. Eta ni argia izan natzaizue beti: guk hitz egin dezakegu eta akordio puntualak lor ditzakegu; uste dut akordio puntualetan urrunago joateko eta egiturazko akordioetara iristeko, lehenik eta behin, oinarrizko akordioak lortu behar ditugula gure artean aipatu berri dizkizudan gai hauen inguruan.

Baina gaur-gaurkoz, Redondo jauna, gaur-gaurkoz zuek bidelagun bat aukeratu duzue gure Autonomia Erkidegoan, eta gure Autonomia Erkidegoan bidelaguna Alderdi Popularra da. Alderdi Popularra da, bai, Redondo jauna, ez diezazula barregurarik eman, niri ez baitit batere barregurarik ematen. Gaspar Llamazares oposizioaren buru bihurtu duzue Espainiako Parlamentuan, eta une honetan dugun zalantza da ea hemendik aurrera onartzen jarraituko duzuen Mayor Oreja jaunak ordezkatzea Euskadin Alderdi Popularraren botoak eta Alderdi Sozialistaren botoak. Eta gauza horiek guztiak argi izaten ditugunean askoz ere argiago izango dugu zenbaterainoko ahalmena dugun elkartzeko eta gure artean, hala badagokio, akordioak garatzeko.

Alderdi Popularra. Alderdi Popularraren eta Mayor Oreja jaunaren gogoeta elkarrizketari buruz adierazi duen esaldi batekin laburbildu daiteke. Uste dut erabat zehazten duela bere jarrera: elkarrizketa posible da jarrerek elkarrengandik aldentzen ez gaituzten esparruetan. Horixe da zehatz-mehatz zuk esan duzuna. Eta elkarrizketa zein lau alderditan den posible aipatu duzu, hor ez gaituztela eta jarrerek elkarrengandik aldentzen. Horixe da gaur Mayor Oreja jaunak Legebiltzar honetan elkarrizketari buruz adierazi digun kontzeptu demokratikoa.

Zuk honako hau esan duzu: "Elkarrizketa posible da jarrerek elkarrengandik aldentzen ez gaituzten espa-

autonomía. No me ha seguido el debate. Precisamente, uno de los elementos fundamentales sobre los que debe versar el debate que yo he propuesto para realizar en septiembre es sobre el diálogo. Y hablemos del diálogo en todas las versiones y en relación con todos los conceptos. Por lo tanto, claro, aceptado. ¡Es el propio planteamiento que yo he trasladado esta mañana!

Y en segundo lugar sobre la autonomía, sobre lo que quiera, sobre el autogobierno, sobre lo que quiera. ¡Si lo que yo estoy diciendo es que no hay límites y que este Parlamento no va a tener límites a la hora de establecer el debate filosófico sobre lo que es autonomía, autogobierno, Constitución o independencia, sobre todo! ¡Ningún problema! Por lo tanto, aspectos relacionados en dos temas que yo he planteado de manera directa.

Segundo, posición conjunta en relación con el Concierto. Tenemos una posición conjunta en relación con el Concierto. Tenemos, el Gobierno y las tres Diputaciones, una posición conjunta en relación con el Concierto, y yo espero además que institucionalmente desarrollemos el diálogo para llevar a cabo el Concierto.

Ahora bien, señor Mayor Oreja, dependiendo del programa que yo presentara hoy aquí, ¿verdad? Porque usted ha dicho públicamente que en función del programa que yo presentara aquí lo del Concierto estaría más fácil o más difícil. Quizás nos pueda aclarar en su siguiente "txanda", quizás nos pueda aclarar exactamente de qué estaba hablando. ¿Qué quería decir usted?, ¿que si hoy yo era bueno negociábamos el Concierto y, en cambio, si no me portaba tan bien el Partido Popular veía mucho más difícil el acuerdo en relación con el Concierto? ¿En función de la corbata que trae el Lehendakari hoy aquí?

Tienen ustedes una especialísima visión de lo que es el autogobierno en este país y las instituciones en este país. O sea, que, en función del programa que hemos firmado legítimamente entre el PNV y Eusko Alkartasuna para apoyar a un gobierno, ¿tendrán o no los alaveses, los vizcaínos y los guipuzcoanos Concierto Económico? Sí, ¿es así? ¿Eso es lo que quería decir? Es decir, el programa de gobierno entorpece la negociación del Concierto Económico. ¿Quiere usted explicarnos en esta Cámara qué es lo que quiere decir con esas cosas? "Si ganamos las elecciones, 800.000 millones de pesetas en inversiones"; si no ganan ustedes, ¿ni una peseta?

Es que son muchas cuestiones y son muchos días lloviendo, señor Mayor Oreja, aunque usted lo vea poco en este país. Son muchos días lloviendo, muchos días al año, muchísimos.

En tercer lugar, el fortalecimiento del Parlamento. Si le parece que el fortalecimiento del Parlamento que he traído yo esta mañana ha sido escaso, que venga Dios y lo vea. Es decir, si algo he hecho aquí ha sido la proclama oficial más importante que haya hecho nunca un lehendakari en relación con la habilitación de esta Cámara a todos los efectos para definir los más importantes objetivos que tenga la sociedad vasca a lo largo de toda su vida: erradicar la violencia, lograr un clima de convi-

rruetan". Eta bi eztabaida aipatu dituzu: elkarrizketa eta autonomia. Ez duzu nire eztabaida-zatia jarraitu. Irailean egiteko proposatu dudan eztabaidaren elementu nagusietako bat, hain zuzen ere, elkarrizketa da. Eta hitz egin dezagun elkarrizketaz bere alderdi guztietan eta kontzeptu guztien inguruan. Horrenbestez, jakina, onartuta. Gaur goizean nik adierazi dudan planteamendua bera da!

Eta, bigarrenez, autonomiaz, nahi duzunaz, autogobernuaz, nahi duzunaz. Ni esaten ari naiz, baina, ez dagoela mugarik eta Legebiltzar honek ez duela mugarik izango autonomia, autogobernua, Konstituzioa edo independentzia denari buruzko, gauza guztiei buruzko, eztabaida filosofiko bat egiteko! Ez dago inolako arazorik! Horrenbestez, nik zuzenean planteatu ditudan bi gaietan aipatutako alderdiak.

Bigarrenez, jarrera bateratua Ekonomia Hitzarmenari dagokionez. Jarrera bateratua dugu Ekonomia Hitzarmenari dagokionez. Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek jarrera bateratua dugu Ekonomia Hitzarmenari dagokionez, eta, horretaz gainera, espero dut erakundemailan elkarrizketa garatuko dugula Ekonomia Hitzarmena gauzatzeko.

Dena den, Mayor Oreja jauna, nik gaur hemen aurkeztuko nukeen programaren arabera, ezta? Publikoki esan baituzu nik gaur hemen aurkeztuko nuen programaren arabera Ekonomia Hitzarmenarena errazagoa edo zailagoa izango dela. Beharbada zure hurrengo txandan argitu ahal izango diguzu zehatz-mehatz zer esan nahi zenuen. Zer esan nahi zenuen?, ni gaur zintzoa izaten baldin banintzen Ekonomia Hitzarmena negoziatuko genuela, eta Alderdi Popularrarekin zintzoa izaten ez banintzen nekezago ikusten zenuela Ekonomia Hitzarmenaren inguruan akordio bat lortzea? Lehendakariak gaur hemen dakarren gorbataren arabera?

Oso ikuspegi berezia duzue herri honetako autogobernua denaz eta herri honetako erakundeak direnaz. Hau da, legitimoki EAJren eta Eusko Alkartasunaren artean Gobernua babesteko izenpetu dugun programaren arabera, arabarrek, bizkaitarrek eta gipuzkoarrek izango al dute Ekonomia Hitzarmena? Bai, hala al da? Hori esan nahi al zenuen? Hau da, gobernu-programak oztopoak jartzen dizkio Ekonomia Hitzarmenaren negoziazioari. Ganbara honetan azaldu nahi al diguzu zer esan nahi duzun horrekin? "Hauteskundeak irabazten baditugu, 800.000 milioi pezetako inbertsioak"; irabazten ez baduzue, pezeta bakar bat ere ez?

Gauza asko dira eta euri asko egin du tartean, Mayor Oreja jauna, nahiz eta zuk oso gutxi ikusi herri honetan. Euri asko egiten du, urtean asko, izugarri.

Hirugarrenez, Legebiltzarra indartu. Gaur goizean Legebiltzarra indartzeko ekarri dudan planteamendua eskasa iruditzen bazaizu, etor dadila Jainkoa eta ikus dezala. Hau da, nik gaur hemen egin dudana lehendakari batek inoiz egin duen proklama ofizialik garrantzitsuena da Ganbara hau euskal gizarteak bere bizitzan izango dituen helbururik garrantzitsuenak zehatz ditzan gaitzeko: indarkeria erauzi, bizikidetza-giroa sortu eta adostasuna lortu herri honen normalizazio politikoaren inguruan, eta

vencia y lograr un consenso en torno a la normalización política de este país, y buscar encaje a la relación política entre Euskadi y el Estado. Esto es exactamente lo que yo he tratado de traer esta mañana. Eso es lo que usted decía: que cabe el diálogo donde no nos separan las posiciones, en relación con todas estas cuestiones.

En segundo lugar, yo coincido con el portavoz… creo que ha sido el del Partido Nacionalista Vasco el que lo ha dicho: usted ha hecho aquí una auténtica intervención de Ministro del Interior. El 90 por ciento de su intervención ha sido una intervención de Ministro del Interior, el 90 por ciento.

Mire usted, usted dijo antes de presentarse, o antes de celebrarse el día 13 de mayo, que la sociedad vasca tendría que elegir o iba a tener que elegir entre víctimas y verdugos. Y yo pensaba, yo pensaba, dentro de mi ingenuidad, entre otras cosas porque si uno no fuera un poquito ingenuo no iría a trabajar todos los días en este país, señor Oreja, yo pensaba, dentro de mi ingenuidad, que usted se iba a dar cuenta de la barbaridad que había planteado, y que por lo tanto iba a dar marcha atrás. Pero no, usted nos ha venido aquí con el perfeccionamiento de la alternativa: la sociedad inmadura, la próxima ganaremos, la alternativa, la alternativa, la alternativa. Muy bien. Y plantea diferentes opciones dentro de lo que es el discurso que usted ha realizado.

La primera en relación con ETA y en relación con la actitud del Gobierno contra la violencia. Primera cuestión, si lo que usted quiere es que aquí quede en duda la actitud de este Gobierno en relación con combatir la violencia y en relación con combatir a ETA, está usted absolutamente equivocado.

He dedicado parte de mi intervención a dejar muy claro que vamos a combatir con todas nuestras fuerzas el delito, que vamos a combatir con todas nuestras fuerzas la muerte, y que vamos a combatir con todas nuestras fuerzas persiguiendo y deteniendo a quien cometa delitos en este país. Y que la exigencia fundamental de erradicar la violencia pasa por la desaparición de ETA. Eso lo he trasladado de manera clara esta mañana aquí.

Y usted nos viene después con la ETA transnacional y la ETA interior. Y decía: “Participación directa en las políticas”. ¿Qué es lo que he traído yo aquí, o quizás no me han oído? La aportación que yo he hecho en términos de incrementar la colaboración participando directamente en foros de esa naturaleza.

Mire usted, le voy a decir una cosa. Es usted, entre otros, uno de los responsables de que no haya existido una mayor implicación. Porque ha estado en el Ministerio del Interior, y muchas de las cuestiones que yo he planteado esta mañana aquí para implementar esa colaboración están pendientes, propuestas por la Administración vasca, en concreto por el Consejero del Interior del Gobierno Vasco, desde hace varios años. Y se nos ha negado permanentemente la posibilidad de incrementar y de potenciar nuestra capacidad y nuestra efectividad policial teniendo relación con otras Policías. Y se nos ha imposibilitado incluso mantener encuentros institucionales con la Presidencia del Parlamento Europeo, con la señora Fontaine.

ahokadura bilatu Euskadiren eta Estatuaren arteko harreman politikoari. Horixe da zehatz-mehatz gaur goizean adierazi nahi izan dudana. Horixe da zuk esan duzuna: elkarrizketa posible dela jarrerek elkarrengandik aldentzen ez gaituzten esparruetan, gauza hauei guztiei dagokienez.

Bigarrenez, bat nator... uste dut Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeramaileak esan duela: zuk hemen Barne ministro baten benetako saioa egin duzu. Zure saioaren ehuneko 90 Barne ministro baten saioa izan da, ehuneko 90.

Begira, hautagai gisa aurkeztu baino lehen, edo maiatzaren 13ko hauteskundeak egin baino lehen, esan zenuen euskal gizarteak biktimak edo borreroak hautatu beharko zituela. Eta nik pentsatzen nuen, nire xalotasunaren barruan pentsatzen nuen, beste hainbat gauzaren artean xalo samarra izango ez banintz ez nintzatekeelako egunero joango lanera herri honetan, Oreja jauna, pentsatzen nuen, nire xalotasunaren barruan, zu ohartuko zinela planteatu zenuen astakeriaz, eta, horrenbestez, atzera egingo zenuela. Baina ez, zu gaur hona aukera hori hobetuz etorri zara: gizarte heldugabea, hurrengoan irabaziko dugu, alternatiba, alternatiba, alternatiba. Oso ondo. Eta hainbat aukera planteatu dituzu zuk egin duzun diskurtsoan.

Lehenengoa ETAri dagokionez eta Gobernuak indarkeriaren aurrean duen jarrerari dagokionez. Lehenengo puntua, zuk nahi duzuna hemen Jaurlaritza honek indarkeria erauzteari dagokionez eta ETAri aurre egiteari dagokionez duen jarrera zalantzan geratzea bada, oso oker zaude.

Nire saioaren zati bat delituari gure indar guztiekin aurre egingo diogula, heriotzari gure indar guztiekin aurre egingo diogula eta herri honetan delituak burutzen dituztenak gure indar guztiekin jazarriko eta atxilotuko ditugula argi eta garbi azaltzen erabili dut. Eta indarkeria erauzteko exijentzia nagusia ETA desagertzea dela adierazi dut. Horixe da gaur goizean hemen argi eta garbi adierazi dudana.

Eta gero nazioz gaindiko ETAren eta barneko ETAren kontuarekin etorri zatzaizkigu. Eta honako hau esan duzu: “Partaidetza zuzena politiketan”. Zer ekarri dut nik hona, ala, beharbada, ez didazue entzun? Nik egin dudan ekarpena izan da lankidetza gehitu behar dela era horretako foroetan zuzenean parte hartuz.

Begira, gauza bat esan behar dizut. Zu zara, beste batzuekin batera, inplikazio handiagoa egon ez izanaren arduradunetako bat. Barne Ministerioan egon zara, eta gaur goizean hemen lankidetza hori inplementatzeko planteatu ditudan gauza asko egin gabe daude, aspaldiko urteetatik proposatuta daude euskal administrazioaren aldetik, eta zehatz-mehatz Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuaren aldetik. Eta behin eta berriro ukatu izan zaigu gure polizi eragingarritasuna eta ahalmena beste Polizia batzuekin harremanetan jarriz bultzatzeko eta gehitzeko aukera. Eta eragotzi egin zaigu erakunde-topaketak izatea Europako Parlamentuko Lehendakaritzarekin, Fontaine andrearekin.

Es una vergüenza. Una y otra vez se ha intentado por parte no solamente del Lehendakari, sino del Presidente de esta Cámara, hablar de los trechos democráticos, como les ha llamado usted, para explicarles exactamente por dónde queremos caminar. Y les reconozco que han tenido ustedes una cierta capacidad de convencimiento en relación con la señora Fontaine para que no se reúna siquiera con nosotros a los efectos de contemplar… (sí, sí, están oyendo ustedes muy bien), a los efectos de que les pudiéramos trasladar este tipo de cuestiones.

Quizás por lo que decía el señor Villar, Delegado del Gobierno español en Euskadi, cuando decía que "no podemos trasladar información a quienes colaboran con los asesinos", no trasladando información que era fundamental para poder hacer seguimientos y por lo tanto preservar los derechos fundamentales y la vida de las personas en esta Comunidad. ¿No se ha preguntado usted nunca que quizás un gobierno que niega la información a la Ertzaintza está muy poco legitimado a continuación para decir que tiene escasa implicación? ¡Hay que tener un poco más de vergüenza para plantear este tipo de cuestiones!

Y la ETA del interior, la que dice el Tribunal Supremo y la Audiencia Nacional. ¿Saben ustedes cuántos autos del señor Garzón han sido anulados por parte de la Audiencia Nacional? Diecisiete. ¡Si es la propia Audiencia Nacional, es el propio Tribunal Supremo el que está trasladando la doctrina de la no existencia de esa ETA interior!

Y a continuación le digo: no vamos a aceptar ni un solo lunar, ni uno solo, en relación con la actitud de este Gobierno contra la violencia. Ni un solo lunar.

Lo que ustedes están enmascarando es una actitud inmovilista, absolutamente inmovilista, la que ustedes han tenido a lo largo de todo el proceso de tregua y desde la ruptura de la tregua, la que usted tuvo como Ministro de Interior, iniciando desde el primer momento el propio proceso de la tregua. ¿Usted cree que alguien que dice que la tregua es una tregua-trampa está generando algún tipo de ilusión, cree en algo de ese proyecto? ¿Usted cree que alguien que dice que estamos ante la mayor ofensiva del nacionalismo desde Sabino Arana…? Pero, ¿qué está diciendo usted? ¿Usted cree que es creíble? Pues no, pues no. Mire usted cómo la sociedad vasca no ha creído en usted.

¿Por qué la sociedad vasca no cree en ustedes? Ustedes, ¿qué se creen?, ¿que los ciudadanos y ciudadanas son tontos? ¿Usted cree que los ciudadanos son todos? *(Risas.)*

Ustedes siguen enmascarando una actitud absolutamente inmovilista: "no" a todo, y política del avestruz. No hay problema político, sólo violencia. No hay nada que hablar. Si no hay nada que hablar, ¿para qué necesitamos el diálogo? Luego receta de Ministro del Interior: sólo Policía, trasladando a los demás… Hoy aquí lo que nos ha venido a trasladar a esta Cámara, ¿sabe usted lo

Lotsagarria da. Behin eta berriro ahalegindu gara, ez lehendakari hau bakarrik, baizik eta baita Ganbara honetako lehendakaria ere, bide demokratikoez hitz egiten, "trecho democrático" esan duzu zuk, bidea nondik nora egin nahi dugun azaltzeko. Eta aitortzen dizuet izan duzuela konbentzitzeko ahalmena Fontaine andreari dagokionez gurekin elkartu ere egin ez dadin... (bai, bai, oso ongi entzuten ari zarete), guk era horretako gauzez berarekin hitz egin ahal izateko.

Beharbada Espainiako Gobernuak Euskadin duen ordezkariak, Villar jaunak, esaten zuenarengatik izango da, esan izan baitu "ezin diegu informaziorik eman hiltzaileen laguntzaile direnei", jazarpenak egin ahal izateko eta, horrenbestez, gure Autonomia Erkidegoan gizakien bizitza eta oinarrizko eskubideak babesteko funtsezkoa zen informazioa ez emanez. Inoiz ez al diozu zeure buruari galdetu Ertzaintzari informazioa ukatzen dion Gobernu batek gero oso legitimazio eskasa duela gutxi inplikatzen dela esateko? Lotsa gehixeago izan behar da era horretako gauzak planteatzeko!

Eta barneko ETA, Auzitegi Gorenak eta Entzutegi Nazionalak diotena. Ba al dakizue Garzón jaunaren zenbat auto utzi dituen bertan behera Entzutegi Nazionalak? Hamazazpi. Entzutegi Nazionala bera, Auzitegi Gorena bera ari da, baina, barneko ETArik ez dagoela adierazten duen doktrina helarazten!

Eta jarraian honako hau esango dizut: ez dugu orbain bakar bat ere onartuko, bakar bat ere ez, Gobernu honek indarkeriaren aurka duen jarrerari dagokionez. Orbain bakar bat ere ez.

Zuek jarrera inmobilista bat ari zarete mozorrotzen, jarrera guztiz inmobilista, su-etenak iraun zuen bitartean eta su-etena hautsi zenetik izan duzuen jarrera, Barne ministro izan zinenean izan zenuena, su-etena bera hasi zen lehenengo unetik. Zuk uste duzu su-etena tranpa bat baino ez dela dioenak ilusio izpiren bat sortzen duela, proiektu horretan sinesten duela? Zuk uste duzu Sabino Aranaren garaitik abertzaletasunaren erasorik handienaren aurrean gaudela dioen batek...? Baina, zer ari zara esaten? Zuk uste duzu hori sinesgarria dela? Bada, ez, ez. Ohartu zaitez euskal gizarteak nola ez dizun sinetsi.

Euskal gizarteak zergatik ez du zuengan sinesten? Zuek, zer uste duzue?, euskal gizon-emakumeak leloak direla? Zuek uste duzue herritarrak leloak direla? *(Barreak.)*

Zuek jarrera guztiz inmobilista mozorrotzen jarraitzen duzue: "ez" gauza guztiei, eta ostrukaren politika. Ez dago arazo politikorik, indarkeria baino ez. Ez dago ezertaz hitz egin beharrik. Ez badago ezertaz hitz egin beharrik, zertarako behar dugu elkarrizketa? Gero Barne ministroaren errezeta: Polizia baino ez, gainerakoei... Gaur hemen Ganbara honetan helarazi nahi izan digu-

que nos ha trasladado aquí? Su fracaso como Ministro del Interior. Nos trasladó su fracaso como candidato a Lehendakari el 13 de mayo, y nos ha trasladado hoy aquí su fracaso como Ministro del Interior durante cinco años en España, o seis, seis años.

Mire usted, con ETA tenemos un problema de violencia, y desde un punto de vista ético y moral es absolutamente rechazable su violencia. Pero el problema político usted no lo tiene con ETA. El problema político lo tiene con nosotros, con nosotros, porque legítimamente pensamos diferente. Ése es el problema político que tenemos, señor Mayor Oreja. ¡Déjese del problema político con ETA! Con ETA tenemos un problema ético y moral. Problema político tenemos entre nosotros, entre los políticos, y los problemas políticos se arreglan hablando. No hay ningún camino que no sea hablar para resolver los problemas.

Tercera idea, el Estatuto, la regresión autonómica dice usted. ¿Le parece a usted poca perspectiva 22 años? Usted ha hablado de la Unión Europea. ¿Usted cree que es posible que la conferencia intergubernamental y el acuerdo de Maastricht hubieran estado en Europa 22 años sin cumplirse? ¡Ah! ¡Más! Pues, mire usted, no tenemos ese compromiso de los acuerdos que alcanzamos los vascos y las vascas, señor Mayor Oreja. Cuando nos comprometemos nos comprometemos, y ha habido paciencia franciscana en relación con todas estas cuestiones.

¿Usted cree que una ley se aprueba hace 22 años…? Las leyes se cumplen o no se cumplen. ¿Qué le parecería a usted, qué le parecería a usted que la ley del IRPF se cumpliera en todos sus aspectos menos en la escala? “No, yo la escala tributaria no la voy a cumplir; donde me corresponde el 30, ¿por qué no poner un 14, verdad?” ¿Qué le parecería a usted? Las leyes se cumplen o no se cumplen, pero ¿qué es esa frivolidad de decir “no, porque estos acuerdos, en fin, también en Europa, en otras partes, si se cumplen bien, si no se cumplen tampoco pasa nada…”? Eso es exactamente la regresión autonómica. Eso es exactamente la regresión autonómica.

Cuando hablamos de regresión autonómica hablamos de traición al pacto estatutario originario, señor Mayor Oreja. Hablamos (a usted seguramente le sonará esto) de Estatuto-trampa; de politización de la autonomía; de una transferencia en tres años, y cuando había mayoría absoluta por parte del Partido Popular (por cierto, de manera curiosa, diciendo por el camino “administración de aguas, 5.000”, así fue el pacto que se celebró en relación con esa materia); de no ver que, como se decía en Ajuria-Enea (no voy a mentar la bicha, señor Mayor Oreja), no desarrollar el Estatuto da bazas a quienes no creen en la vía estatutaria como modelo de convivencia entre los vascos; de no ver un estatuto con potencialidades, no como un “café para todos”. Eso es exactamente lo que ustedes están haciendo desde Madrid, regresión autonómica.

Porque ustedes hablan del Estatuto, del Estatuto. ¿Saben ustedes lo que dijeron del Estatuto? ¿De qué Es-

zu..., ba al dakizu gaur zer helarazi diguzun hemen? Barne ministro gisa porrot egin duzula. Maiatzaren 13an lehendakari izateko hautagai gisa porrot egin zenuela helarazi zenigun, eta gaur hemen Espainian bost urtez, edo sei urtez, sei urtez, Barne ministro gisa porrot egin duzula helarazi diguzu.

Begira, ETArekin indarkeri arazo bat dugu, eta ikuspegi etiko eta moraletik bere indarkeria guztiz gaitzesgarria da. Baina arazo politikoa zuk ez duzu ETArekin. Arazo politikoa gurekin duzu, gurekin, legitimoki ez baitugu berdin pentsatzen. Horixe da hemen dugun arazo politikoa, Mayor Oreja jauna. Ez etorri nigana ETArekin dagoen arazo politikoarekin! ETArekin arazo etiko eta morala dugu. Arazo politikoa gure artean dugu, politikarion artean, eta arazo politikoak hitz eginez konpontzen dira. Elkarrekin hitz egitea beste biderik ez dago arazoak konpontzeko.

Hirugarren ideia, Estatutua, autonomian atzerakada, esan duzu. Zuri gutxi iruditzen al zaizu 22 urteko ikuspegia? Europako Batasunaz hitz egin duzu. Zuk uste duzu posible dela gobernuarteko biltzarra eta Maastrichteko akordioa Europan 22 urtez bete gabe egotea? A! Gehiago! Bada, begira, ez dugu konpromiso hori euskaldunok lortu genituen akordioen inguruan, Mayor Oreja jauna. Hitz ematen dugunean hitz ematen dugu, eta pazientzia handiegia izan dugu gai hauekin guztiekin.

Zuk uste duzu lege bat orain 22 urte onetsita...? Legeak bete egiten dira edo ez dira betetzen. Zer irudituko litzaizuke zuri, zer irudituko litzaizuke PFEZ legea alderdi guztietan eskalarenean izan ezik beteko balitz? “Ez, nik zerga-eskala ez dut beteko; eta ehuneko 30 dagokidan tokian, zergatik ez 14 jarri, ezta?” Zer irudituko litzaizuke? Legeak bete egiten dira edo ez dira betetzen, baina, zer arinkeria da “ez, akordio hauek, bada, beno, Europan ere, beste toki batzuetan ere, betetzen badira ondo, eta betetzen ez badira ez da ezer gertatzen...” esate hori? Horixe da, hain zuzen ere, autonomian atzera egitea. Horixe da, hain zuzen ere, autonomian atzera egitea.

Autonomian atzera egiteaz mintzo garenean jatorrizko estatutu-itunari traizio egiteaz mintzo gara, Mayor Oreja jauna. Estatutu-tranpaz mintzo gara (ziurrenik ezaguna egingo zaizu); autonomia politizatzeaz; hiru urtetan transferentzia bakarra egiteaz, eta Alderdi Popularraren aldetik gehiengo osoa zegoenean (eta oso modu bitxian, bidean “uraren administrazioa, 5.000” esanez, halaxe egin zen gai honen inguruan egin zen ituna); Ajuria-Enean esaten zen bezala (ez diot inori nahigaberik eragingo, Mayor Oreja jauna), ez ikusteaz Estatutua ez garatzeak aukerak ematen dizkiela Estatutuaren bidea euskaldunen arteko bizikidetza-eredua dela sinesten ez dutenei; ahalmenak dituen Estatutua ez ikusteaz, ez baita “kafea denontzat”. Horixe da zuek Madriletik egiten ari zaretena, autonomian atzera.

Zuek Estatutuaz hitz egiten duzue, Estatutuaz. Ba al dakizue zer esan zenuten zuek Estatutuaz? Zein Esta-

tatuto están hablando ustedes? ¿Están hablando del Estatuto en su integridad, con el desarrollo potencial y la capacidad potencial que tiene? ¿Están hablando de este Estatuto que dice en el artículo 1: "El Pueblo Vasco o Euskal Herria, como expresión de su nacionalidad y para acceder a su autogobierno, se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado español bajo la denominación de Euskadi o País Vasco. Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, así como Navarra, tienen derecho a formar parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Cada uno de los Territorios Históricos que integran el País Vasco podrán en el seno del mismo conservar o, en su caso, establecer y actualizar su organización e instituciones privativas de autogobierno"?

¿Somos, o no somos una nación? ¿Estamos, o no estamos en un estado considerado plurinacional? Estamos ante instituciones que tienen capacidad de desarrollar y actualizar sus instituciones privativas de autogobierno, ¿sí o no?

¿El Estatuto de la disposición adicional, que dice: "La aceptación del régimen de autonomía que se establece en el presente Estatuto no implica renuncia del Pueblo Vasco a los derechos que como tal le hubieren podido corresponder en virtud de su historia, que podrán ser actualizados de acuerdo con lo que establezca el ordenamiento jurídico"?

¿Qué interpretación sigue teniendo el Partido Popular? ¿Ésta: "Para mí lo más grave es el principio que ha inspirado el Estatuto y que, tal que como se sintetiza en el artículo 1 y en la disposición adicional, dibuja un régimen provisional susceptible de patrocinar en el futuro más radicales exigencias. Conjugados el artículo primero del Estatuto con la disposición adicional, queda configurado el ente autonómico como una nacionalidad que a través de la autonomía accede de momento a su autogobierno, hasta que al País Vasco le convenga actualizar sus derechos históricos en la medida en que lo crea oportuno. Es decir, realidad de autogobierno hoy como camino a una posible independencia mañana"?

¿O la que interpreta de esta manera la disposición adicional: "Votamos en contra porque el Estatuto no habla en ningún momento de España. Segundo, la interpretación del mismo que dan personas, unas presentes y otras no en esta Cámara, que no son todas, dicen siempre lo mismo aquí y allá, es que se trata claramente de un paso hacia la autodeterminación y la independencia, que en modo alguno estamos dispuestos a tolerar"? ¿Sabe de quién estoy hablando? Estoy hablando de José María Gil Robles y estoy hablando de Manuel Fraga, portavoz de Alianza Popular en ese momento y hoy presidente de su partido.

¿Qué interpretación tienen ustedes del Estatuto? ¿Ésta, o que estamos ante una capacidad potencial realmente de poder desarrollar con voluntad política lo que realmente somos, una nación? ¿Cuál es el planteamiento que ustedes tienen en relación con este tipo de cuestiones?

tutuz mintzo zarete orain? Estatutuaz bere osotasunean, izan dezakeen garapena eta duen ahalmena kontuan hartuta? 1. artikuluan honako hau dioen Estatutuaz: "Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazgarri, eta bere burujabetasuna iristeko, espainol Estatuaren barruan Autonomia Erkidego gisa eratzen da. Bere izena Euskadi zein Euskal Herria izango da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak eta era berean Nafarroak ere, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren partaide izateko eskubidea dute. Euskal Herria osatzen duen lurralde historikoetako bakoitzak, beti ere berorren baitan, autogobernuko bere antolaketa eta erakunde propioak gorde ditzake edota, bestela, berrezar eta egunera"?

Nazio bat gara, ala ez gara nazio bat? Nazio asko biltzen dituela esan ohi den estatu batean gaude ala ez? Autogobernu-erakunde propioak garatzeko eta eguneratzeko ahalmena duten erakundeen aurrean gaude, bai ala ez?

Xedapen gehigarriaren Estatutua, honako hau dioena: "Estatutu honetan finkatu den erregimen autonomikoaren onarpenak ez du esan nahi, Euskal Herriari herri gisa historian barrena dagozkiokeen eskubideei uko egiten zaienik, antolamendu juridikoak erabakitzen duenaren arabera gaurkotu daitezkeelarik"?

Zein da Alderdi Popularrak izaten jarraitzen duen interpretazioa? Hauxe: "Niretzat gauzarik larriena Estatutuaren sorburu den printzipioa da eta, 1. artikuluan eta xedapen gehigarrian laburbiltzen den bezala, etorkizunean exijentzia erradikalagoak babes ditzakeen behinbehineko erregimena taxutzen du. Estatutuaren lehenengo artikulua eta xedapen gehigarria bateratuta, autonomi esparrua naziotasun gisa antolatzen da, eta autonomiaren bidez oraingoz autogobernurako sarbidea du, Euskal Herriari bere eskubide historikoak egoki jotzen duen neurrian eguneratzea komeni zaion arte. Hau da, gaurko autogobernu-errealitatea etorkizunean independentzia lortzeko bidea"?

Ala xedapen gehigarria honela interpretatzen duena: "Aurkako botoa emango dugu Estatutuak inon ez duelako Espainia aipatzen. Bigarrenez, Estatutuaz batzuek eta besteek egiten duten interpretazioan, eta horietako batzuk Ganbara honetan daude eta beste batzuk ez, eta ez dira denak, beti gauza bera esaten dutelako han eta hemen, argi eta garbi autodeterminaziora eta independentziara ematen den urratsa dela, eta gu inola ere ez gaude hori onartzeko prest"? Ba al dakizu zeini buruz ari naizen? José María Gil Roblesi buruz ari naiz, Manuel Fragari buruz ari naiz, une hartan Aliantza Popularraren bozeramaile zenaz eta gaur zuen alderdiko presidente denaz.

Zein da zuek Estatutuaz egiten duzuen interpretazioa? Hau, ala benetan garena, nazio bat, borondate politikoz garatu ahal izateko egiazko ahalmen potentzialaren aurrean gaudela? Zein da zuek era horretako gauzen aurrean duzuen planteamendua?

Miren ustedes, su proyecto, el proyecto que ustedes tienen aquí en Euskadi, es el mismo que tienen en Madrid. Es la unidad de España. Eso no es ningún pecado, no es ningún pecado. Ustedes tienen el proyecto de la unidad de España y están aplicando la regresión autonómica, no solamente para Euskadi. Están aplicando la regresión autonómica, y así se lo están trasladando, en todos los ámbitos de las Comunidades Autónomas a nivel de Estado español. Están aplicando ustedes un régimen de regresión autonómica, y ustedes tienen el proyecto de la unidad de España. No se avergüencen, díganlo. *(Murmullos.)*

Por tanto, ustedes tienen el proyecto de la unidad de España. Pues muy bien. Ustedes tienen el proyecto de la unidad de España, y yo defiendo aquí la capacidad de decisión de los ciudadanos vascos y vascas para decidir su futuro. Pero entonces no nieguen ni una sola vez más, por favor, que existe contencioso político. Porque, mire usted, ¿sabe usted cuál es el contencioso político (no miren ustedes para allá arriba)? El que estamos definiendo entre ustedes y nosotros. Que ustedes están definiendo la unidad de España y yo estoy diciendo que aquí es posible decidir nuestro propio futuro por parte de los vascos y de las vascas. *(Murmullos.)*

Por lo tanto, dejen ustedes de decir ni una sola vez más que no existe un contencioso político. Existe un profundo contencioso político que tenemos que resolver entre nosotros. Entre nosotros. Éste es el conflicto político.

La última cuestión que le quiero trasladar. Usted ha hecho un discurso, señor Mayor Oreja, para Madrid, se lo digo sinceramente. Sí, sí, ha hecho usted un discurso para Madrid. Para Madrid y desde Madrid. *(Risas.)*

No, no se rían ustedes, porque la verdad es que venir a dar ejemplos, ¿verdad?, con lo que tienen ustedes por ahí, venir a dar ejemplos aquí ustedes, que se están caracterizando, primero, por resolver el tema de las vacas locas con recetas de cocina; segundo, por plantear el tema del submarino nuclear en términos de recuerdo a la canción del "submarino amarillo"; el conflicto del aceite de orujo, comparándolo con los secretos del desayuno y las clases de dietética, olvidando que han sido ustedes descalificados, y su Ministra, en primera instancia, descalificados por la propia Unión Europea…

Un proyecto que se caracteriza por tener ministros censurados por corrupciones económicas y democráticas; un proyecto que se caracteriza, gracias a su ley, señor Mayor Oreja, por tratar a los inmigrantes como ganado y devolvernos al siglo XIV; un proyecto que está utilizando la Justicia y las instituciones como les viene a ustedes en gana para proceder a indultos de agentes del Cesid que llegaron a espiar incluso al Rey, para indultar a guardias civiles acusados de tortura… Y ahora seguramente están preparando el indulto de Galindo, que veremos cualquier día también en la agenda de negociación.

Ustedes no creen en la separación de poderes, y ése es el proyecto que usted nos ha traído aquí, de la independencia del Poder Judicial y de la independencia del Fiscal General del Estado, que ha quedado recientemente probado con el caso Piqué.

Begira, zuen proiektua, zuek hemen, Euskadin, duzuen proiektua Madrilen duzuen bera da. Espainiaren batasuna da. Hori ez da bekatu bat, ez da bekatu bat. Zuek Espainiaren batasunaren proiektua duzue eta autonomian atzerakada ezartzen ari zarete, eta ez Euskadirentzat bakarrik. Autonomian atzera egiten ari zarete, eta halaxe adierazten ari zarete, autonomia erkidegoen esparru guztietan Espainiako Estatuan. Zuek autonomian atzera egiten duen erregimena ezartzen ari zarete, eta zuen proiektua Espainiaren batasunarena da. Ez zaitezte lotsa, esan ezazue. *(Marmarrak.)*

Horrenbestez, zuen proiektua Espainiaren batasuna aldarrikatzen duena da. Bada, oso ondo. Zuek Espainiaren batasuna aldarrikatzen duen proiektua duzue, eta nik hemen euskal herritarrek euren etorkizuna erabakitzeko gai izan behar dutela aldezten dut. Eta, horrenbestez, berriro ere inoiz ez ezazue uka, mesedez, gatazka politiko bat dagoela. Begira, zuk ba al dakizu zein den gatazka politikoa (ez ezazu hara, gora, begira)? Zuen eta gure artean zehazten ari garena. Zuek Espainiaren batasuna zehazten ari zarete eta ni hemen esaten ari naiz gure etorkizuna euskal gizon-emakumeok erabaki dezakegula. *(Marmarrak.)*

Horrenbestez, ez ezazue inoiz gehiago esan ez dagoela gatazka politikorik. Gatazka politiko sakona dago eta gure artean konpondu behar dugu. Gure artean. Horixe da gatazka politikoa.

Azken gauzatxo bat helarazi nahi dizut. Zure saioa, Mayor Oreja jauna, Madrila begira egin duzu, benetan diotsut. Bai, bai, saioa Madrila begira egin duzu. Madrila begira eta Madriletik. *(Barreak.)*

Ez, ez ezazue barre egin, hona adibideak ematera etortzea, ezta?, zuek hor zehar duzuen guztiarekin, hona zuek adibideak jartzera etortzea, kontuan hartuta, lehenik eta behin, behi eroen arazoa sukaldaritza-errezetak emanez konpondu nahi izan duzuela; bigarrenez, itsaspeko nuklearraren arazoa "itsaspeko horia" kantua gogoratzeko terminoetan planteatu duzuela; orujo olioaren arazoari gosariaren sekretuekin eta dietetikako lezioekin alderatuz heldu diozuela, Europako Batasunak berak gaitzetsi egin zaituztetela, eta, lehenik eta behin, zuen ministro andrea...

Zuen proiektuaren ezaugarria da ustelkeria ekonomiko eta demokratikoek zentsuratutako ministroak dituela; zuen proiektuaren ezaugarria da, zure legeari esker, Mayor Oreja jauna, inmigranteak abereak bailiran hartzen direla eta XIV. mendera itzuli gaituela; Justizia eta erakundeak gogoak ematen dizuen bezala erabiltzen dituela Erregea bera espiatzera iritsi ziren Cesideko agenteei indultuak emateko, tortura-salaketak dituzten guardia zibilei indultuak emateko... Eta orain ziurrenik Galindoren indultua prestatzen ari zarete, edozein egunetan ikusiko dugu hori ere negoziazioaren agendan.

Zuek ez duzue botere-banaketan sinesten, eta horixe da zuk hona ekarri diguzun proiektua, Botere Judizialaren independentziarena eta Estatuko Fiskal Nagusiaren independentziarena, oraintsu frogatuta geratu dena Piqué kasuarekin.

Están liderando ustedes desde allí, se lo repito, una regresión democrática. Reparten consejos a diestro y siniestro, llevando adelante aquel viejo lema de "consejos vendo y para mí no tengo". Ustedes tienen consejo para solucionar todos los conflictos del mundo a través del diálogo, excepto, claro, en el caso de Euskadi, que somos diferentes.

Se meten ustedes con el euskera, con el catalán, con la Iglesia, con los jueces…, se meten ustedes con todos los que no piensan como ustedes, defendiendo, eso sí, con vehemencia el pensamiento único en nuestra sociedad.

Y ustedes nos vienen hablando aquí de gestionar un país. Ustedes nos vienen aquí a dar lecciones. Ustedes, que nos quieren devolver al siglo XIX, a hacer política a través del marchandeo fenicio por debajo. Ustedes, que representan todo eso, nos vienen aquí a dar ahora lecciones.

Pero, mire usted, usted ha hecho un discurso desde Madrid, señor Mayor Oreja, y su futuro, en principio, a no ser que las cosas cambien, está aquí, en este Parlamento. ¿O no está aquí, en este Parlamento? Va a tener tiempo usted, por lo tanto, de perfeccionar la alternativa. Pero, mire, no siga equivocándose. Usted hizo la campaña desde Madrid, desde Madrid, con criterios planteados, producidos y desarrollados desde Madrid, y usted ha hecho hoy aquí un discurso para Madrid. Usted está realizando política en Euskadi mediante videoconferencia. Ése es el nuevo esquema de la política del señor Mayor Oreja, dirigiendo al Partido Popular aquí.

Y, mire, yo le voy a dar unos consejos, que también me ocurre como a usted, ¿verdad?, que en algunos casos para mí no tengo: trabaje desde aquí. Si usted quiere hablar y desarrollar y perfeccionar esa alternativa que ha dicho, trabaje desde aquí, señor Oreja. Trabaje desde aquí, haga su discurso desde aquí, viva aquí, piense aquí, quédese aquí, Mayor Oreja. Quédese aquí para perfeccionar la alternativa ésa de la que nos ha hablado a lo largo de toda esta tarde, porque, mire usted, la distancia, como decía la canción, la distancia es el olvido.

Y termino diciéndole lo que le he comentado al principio, que define su posición íntegramente: que cabe el diálogo (ésa es la gran manifestación del día de hoy del señor Mayor Oreja), cabe el diálogo donde no nos separan las posiciones. Pues yo no creo en ese concepto de diálogo. Tendremos ocasión de hablar en el próximo Pleno.

Termino. Hay que abrir una nueva etapa; segundo, hay que aceptar el resultado electoral aunque no nos guste, señor Mayor Oreja (perfeccione después lo que usted quiera, pero acepte el resultado electoral); tercero, hay que aceptar las ideas, todas, cuando son defendidas mediante la política y la democracia (la idea de la unidad de España y la idea de la independencia de Euskadi, todas); cuarto, hay que aceptar que la violencia no tiene sitio en nuestra sociedad, que hay que luchar contra ella,

Handik atzerakada demokratikoa zuzentzen ari zarete, berriro diotsut. Aholkuak banatzen ari zarete ezker-eskuin, "aholkuak saltzen ditut eta niretzat ez dut" lelo zaharra aurrera eramanez. Zuek elkarrizketa aholkatzen duzue munduko gatazka guztiak konpontzeko, jakina, Euskadiren kasuan izan ezik, hemen desberdinak gara eta.

Euskararekin sartzen zarete, katalanarekin, elizarekin, epaileekin..., zuek bezala pentsatzen ez duten guztiekin sartzen zarete, hori bai, sutsuki aldeztuz gure gizartean pentsamendu bakarra.

Eta zuek hona herri bat kudeatzeaz hitz eginez zatozte. Zuek lezioak ematera zatozte hona. Zuek, XIX. mendera itzuli nahi gaituzuen horiek, azpitik merkatari feniziarren moduko jarrerarekin egiten duzue politika. Zuek, hori guztia ordezkatzen duzuenok, hona guri lezioak ematera etorri zarete.

Baina, begira, zuk Madriletik egin duzu saioa, Mayor Oreja jauna, eta zure etorkizuna, hasiera batean, gauzak aldatzen ez badira, hemen dago, Legebiltzar honetan. Ala ez dago hemen, Legebiltzar honetan? Izango duzu, beraz, zure alternatiba ontzeko aukera. Baina, begira, ez ezazu bide okerretik jarrai. Kanpaina Madriletik egin zenuen, Madriletik, Madriletik planteatutako, sortutako eta garatutako irizpideekin, eta zuk gaur hemen Madrila begira egin duzu zure saioa. Euskadin bideo bidezko hitzaldiaren bidez egiten duzu politika. Horixe da Mayor Oreja jaunaren politikaren eskema berria, Alderdi Popularra hemen zuzenduz.

Eta, begira, aholku batzuk eman behar dizkizut, niri ere zuri bezala gertatzen baitzait, ezta?, zenbaitetan niretzat ez dudala: lan egin ezazu hemendik. Hemen aurkeztu duzuen alternatiba horretaz hitz egin nahi baduzu eta alternatiba hori garatu eta ondu nahi baduzu, lan egin ezazu hemendik, Oreja jauna. Lan egin ezazu hemendik, zure hitzaldia egin ezazu hemendik, bizi zaitez hemen, pentsa ezazu hemen, gera zaitez hemen, Mayor Oreja jauna. Gera zaitez hemen gaur arratsalde osoan hemen aurkeztu diguzun alternatiba hori ontzeko, distantzia, kantu zahar hark zioen bezala, distantzia ahanztura baita.

Eta amaitzeko hasieran esan dizudana esango dizut, zure jarrera erabat zehazten baitu: elkarrizketak badu bere lekua (horixe da gaur Mayor Oreja jaunak egin duen adierazpen nagusia), elkarrizketak badu bere lekua jarrerek elkarrengandik aldentzen ez gaituzten esparruetan. Bada, nik ez dut elkarrizketaren kontzeptu horretan sinesten. Izango dugu gai horri buruz hurrengo osoko bilkuran hitz egiteko aukera.

Eta hementxe amaituko dut. Aldi berri bati ekin behar diogu; bigarrenez, hauteskundeetako emaitza onartu egin behar da nahiz eta gogoko izan ez, Mayor Oreja jauna (gero ondu ezazu nahi duzuna, baina onar ezazu hauteskundeetako emaitza); hirugarrenez, ideiak onartu egin behar dira, ideia guztiak, politikaren eta demokraziaren bidez aldezten direnean (Espainiaren batasunaren ideia eta Euskadiren independentziaren ideia, guztiak); laugarrenez, onartu behar da indarkeriak ez duela tokirik

que ETA tiene que desaparecer; en quinto lugar, hay que aceptar que, más allá de existir en Euskadi un terrible problema de violencia que debe desaparecer, existe un problema político como la copa de un pino, si ustedes me lo permiten, para ser sencillo; en sexto lugar, que hay que aceptar que los problemas políticos se arreglan hablando o no se arreglan; en séptimo lugar, que hay que aceptar que, si vamos a terminar hablando, porque el otro camino es rompernos la cara a tortas, es mejor que lo hagamos cuanto antes, y en octavo y último lugar mi gran pregunta es saber si estamos maduros para realizar este camino.

Yo pienso que en función de lo que hoy he oído aquí hay mimbres para iniciar un camino que pueda trasladar a la sociedad una imagen y una ilusión diferente a la que hemos tenido en el pasado. Y si no es así la sociedad, que está harta de todo esto y de todos nosotros, precisamente será la que nos lo demande.

Eskerrik asko, presidente. *(Aplausos.)*

El Sr. **PRESIDENTE**: Mila esker. Eskerrik asko, bai, zeuri, hautagaia zaren Ibarretxe jauna.

Jarraian, legebiltzarkide jaun-andreok, taldeen erreplika-txandara joango gara zuzenean, eta erreplika-txanda horretan Mistoa-Ezker Batua/Berdeak taldeko ordezkari dan Madrazo jaunak dau hitza.

Señorías, dada la hora en la que ya nos encontramos, rogaría fuéramos un tanto rigurosos en la utilización de los tiempos establecidos o acordados en la Junta de Portavoces. Es decir, cada grupo tendrá 15 minutos de réplica.

El Sr. **MADRAZO LAVÍN**: Bien, me centraré en la réplica básicamente en la cuestión social, en la medida en que en el ámbito de la pacificación y de normalización hemos constatado en este debate de hoy una gran coincidencia, una amplia coincidencia, de la cual me felicito y a través de la cual espero que podamos establecer marcos de colaboración e iniciativas conjuntas en un terreno fundamental para la sociedad vasca como es el terreno de la pacificación.

Bien, yo siempre que he salido a esta tribuna en nombre de Ezker Batua, y mis compañeros, evidentemente que siempre hemos reconocido el trabajo que se está haciendo no sólo desde el Gobierno Vasco, sino desde el conjunto de instituciones vascas, en favor de una política social. Y creo que es justo reconocer que la política social en Euskadi es una política, digamos, avanzada en el conjunto del Estado.

Yo creo que de eso nos tenemos que felicitar todos. Yo creo que es justo reconocerlo. A esto hemos contribuido todos, unos desde el Gobierno, otros desde la oposición; en unos casos ha habido unos partidos gobernando, en otros casos ha habido otros.

Lo que es cierto es que efectivamente esto es así, esto es así, aunque también es cierto que no podemos caer en el conformismo y en la autocomplacencia. Cree-

gure gizartean, indarkeriaren aurka borroka egin behar dela, ETA desagertu egin behar dela; bosgarrenez, onartu behar da, Euskadin desagerrarazi behar den indarkeri arazo latza izateaz gainera, arazo politiko izugarria dugula, argi eta garbi; seigarrenez, onartu behar da arazo politikoak hitz eginez konpontzen direla edo ez direla konpontzen; zazpigarren, onartu behar da, azkenean hitz egitera iritsi behar badugu, beste bidea kolpeka elkarri aurpegia txikitzea baita, hobe dela lehenbailehen hitz egitea, eta, zortzigarrenez, eta azkenik, nire galdera da jakin behar dugula ea helduta gauden bide hori egiteko.

Nik pentsatzen dut gaur hemen entzun dudanaren arabera badirela zumeak gizarteari iraganean eskaini ez bezalako ilusio bat eta irudi bat helarazteko. Eta horrela ez bada gizarteak berak eskatuko digu hala egiteko, nazkatuta baitago honekin guztiarekin eta gu guztiokin.

Muchas gracias, señor Presidente. *(Txaloak.)*

**LEHENDAKARI** jaunak: Muchas gracias. Gracias a usted, señor Ibarretxe, candidato a Lehendakari.

A continuación, señorías, vamos a proceder directamente al turno de réplicas, y en este turno de réplicas y en representación del Grupo Mixto-Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak tiene la palabra el señor Madrazo.

Legebiltzarkide jaun-andreok, zein ordu den ikusita, Bozeramaileen Batzordean ezarritako edo adostutako denboraren erabileran zorrotzak izateko eskatu nahi dizuet. Hau da, talde bakoitzak 15 minutu izango ditu erreplikarako.

**MADRAZO LAVÍN** jaunak: Ederki, erreplikan batez ere gizarte-alorrari helduko diot, bakegintzaren eta normalizazioaren esparruan adostasun zabala, bat etortze handia egiaztatu dugun neurrian gaurko eztabaidan, eta horrek poztu egiten nau eta espero dut adostasun horren bidez lankidetza-esparruak eta ekimen bateratuak ezarri ahal izango ditugula euskal gizartearentzat funtsezkoa den alor batean, bakegintzaren alorrean, alegia.

Ederki, ni tribuna honetara beti Ezker Batuaren eta nire alderdikideen izenean atera naiz, zalantzarik ez dago beti aitortu izan dugula Eusko Jaurlaritza ez ezik gainerako euskal erakunde guztiak ere gizarte-politikaren alde egiten ari diren lana. Eta nik uste dut bidezkoa dela aitortzea Euskadin gizarte-politika, nolabait esatearren, politika aurreratua dela Estatu osokoarekin alderatuz.

Nik uste dut horrekin pozik egon beharko genukeela guztiok. Uste dut bidezkoa dela hori aitortzea. Denok lagundu dugu hori horrela izan dadin, batzuek Gobernutik, beste batzuek oposiziotik; kasu batzuetan alderdi batzuk aritu dira gobernatzen, beste kasu batzuetan beste batzuk.

Egia da hori hala dela, hala dela, nahiz eta egia den, era berean, ezin garela konformismoan eta autokonplazentzian jausi. Uste dut euskal autogobernuak ma-

mos que el autogobierno vasco da unas posibilidades de maniobra, un margen de maniobra que permite ir más allá en la política social.

En ese sentido yo quiero destacar sobre todo aquellos aspectos que nos preocupan más en relación a la política social, económica y laboral, y me quiero referir sobre todo a aquellos colectivos que están en peor situación.

Hoy concretamente la Sociedad para la Promoción y la Reconversión Industrial, la SPRI, ha reconocido que estamos viviendo ya un proceso de ralentización de la economía vasca. En definitiva, las previsiones de creación de empleo están revisándose a la baja, y el problema es que esto justamente plantea una dificultad añadida para aquellos sectores más castigados por la precariedad y la temporalidad.

Estos sectores son justamente los que más van a sufrir y los que más sufren las consecuencias de las recesiones económicas, y en este caso de los cambios de ciclo y los cambios de tendencia económica. Por ello, creo que en esta legislatura es necesario dar un salto adelante en la Carta de Derechos Sociales, porque lo cierto es que el salario mínimo interprofesional ha perdido un 16 por ciento de poder adquisitivo en las dos últimas décadas.

Es verdad que ha habido crecimiento económico en los últimos años, es verdad que en Euskadi el crecimiento ha sido por encima de las tasas de crecimiento del conjunto del Estado, pero es cierto que este crecimiento económico no ha redundado de igual manera en las rentas del capital que en las rentas del trabajo. En definitiva, no se ha traducido en un reparto equitativo de la riqueza. Éste es un punto en el que coinciden todas las centrales sindicales, y yo creo que esto debería hacernos reflexionar a todos.

Lo cierto es que el sector empresarial, la patronal, ha tenido enormes beneficios, igual que la banca y las grandes empresas, grandes beneficios en los últimos años, y entendemos que el reparto de la tarta no se ha hecho de la manera equitativa en que debería hacerse.

Lo cierto es que en Euskadi existen en la actualidad 46.000 hogares que integran a 111.000 personas en situación de pobreza. También es verdad que la siniestralidad laboral también se ha incrementado un 9,5 por ciento en los cinco primeros meses del año, y esta cifra aumenta de modo imparable. La inestabilidad en el empleo significa, como decía en mi primera intervención, mayores accidentes por un lado, y por otro condena a miles de personas, especialmente a mujeres y a jóvenes, a un futuro negro.

Y en este sentido yo quería poner de manifiesto, y lo hacía en mi primera intervención, que es necesario dar un impulso, un impulso a las políticas sociales. Yo creo que se puede dar un paso más, se puede dar un paso más en este sentido. Reconociendo lo que se está haciendo, reconociendo, como decía el señor Ibarretxe en su intervención, que es verdad que se están haciendo cosas en materia social, cosas que nos están situando en la vanguardia del conjunto del Estado, pero lo cierto es que

niobrarako aukera batzuk ematen dituela, gizarte-politikan harantzago joateko aukera ematen duen maniobra-marjina.

Alde horretatik, nik, batez ere, gizarte, ekonomi eta lan politikari dagokienez gehien kezkatzen gaituzten alderdiak azpimarratu nahi ditut, eta, batez ere, egoerarik okerrenean dauden kolektiboak ekarri nahi ditut gogora.

Gaur, zehatz-mehatz, Industri Sustapenerako eta Birmoldaketarako Sozietateak, SPRI delakoak, aitortu du euskal ekonomia geldotze-prozesu batean sartzen ari dela. Azken batean, enplegua sortzeari buruzko aurreikuspenak behera egiten ari dira, eta arazoa da honek beste zailtasun bat dakarrela behin-behinekotasunak eta iragankortasunak gehien zigortzen dituen alorrentzat.

Alor hauexek jasango dituzte eta jasaten dituzte gehien ekonomia geldotzearen ondorioak, eta kasu honetan ziklo aldaketaren eta ekonomi joeraren aldaketaren ondorioak. Horregatik, uste dut legealdi honetan beharrezkoa dela aurrerapauso bat ematea Gizarte Eskubideen Agirian, esan behar baita lanbidearteko gutxieneko soldatak eroste-ahalmenaren ehuneko 16 galdu duela azken hogei urteetan.

Egia da azken urte hauetan ekonomiak gora egin duela, egia da Euskadin hazkundea Estatuko gainerako tokietakoa baino handiagoa izan dela, baina, era berean, egia da ekonomiaren hazkunde horrek kapital-errentetan ez duela lan-errentetan izan duen isla bera izan. Azken batean, aberastasunaren banaketa ez da parekatua izan. Puntu horretan bat datoz sindikatu guztiak, eta nik uste dut horrek gogoeta egitera bultzatu behar gintuzkeela denok.

Enpresarien alorrak, patronalak, irabazi ikaragarriak izan ditu, banketxeek eta enpresa handiek bezala, irabazi ikaragarriak izan dituzte azken urte hauetan, eta gure ustez tartaren banaketa ez da behar lukeen bezain parekatua izan.

Euskadin une honetan 46.000 etxetan pobrezia egoeran dauden 111.000 lagun daude. Horretaz gainera, laneko istripuak ehuneko 9,5 gehitu dira urteko lehenengo bost hilabeteetan, eta zenbaki hori gora egiten ari da gelditu gabe. Enpleguaren ezegonkortasunak, nire lehenengo saioan esan dudan bezala, alde batetik, istripu gehiago esan nahi du eta, bestetik, milaka lagun, batez ere emakumeak eta gazteak, etorkizun beltza izatera kondenatzen ditu.

Eta, alde horretatik, agerian jarri nahi nuen, eta halaxe egin dut nire lehenengo saioan, beharrezkoa dela bultzada bat ematea, bultzada bat ematea gizarte-politikei. Nik uste dut beste urrats bat eman daitekeela, beste urrats bat eman daitekeela alde horretatik. Jadanik egiten dena aitortuz, Ibarretxe jaunak bere saioan esan duen bezala, gizarte-arloan gauzak egiten direla egia dela aitortuz, eta gauza horiek Estatuan abangoardian kokatzen gaituzte, era berean, egia da gure ikuspegitik ezin garela

desde nuestro punto de vista no podemos caer en el conformismo. Creemos que hay que aprovechar el margen de maniobra que nos da nuestro autogobierno para sacarle el máximo de posibilidades y para hacer un esfuerzo añadido en relación con las principales necesidades sociales.

Concretamente en vivienda entendemos que hay que dar un salto adelante. Un salto adelante porque los recursos destinados a este Departamento han crecido por debajo de la media del Presupuesto del Gobierno. Esto es un dato objetivable. El segmento denominado protegible ha quedado muy reducido. Hoy apenas hay viviendas libres de menos de 16 millones, y pocas de menos de 20 millones. En definitiva, ese sector denominado protegible, esas personas que no pueden pagar más de 12 millones por una vivienda, realmente hoy tiene serias dificultades para acceder a una vivienda. Estas personas necesitan también de un apoyo público, y la única solución, insisto, es impulsar políticas más activas, si cabe.

Hay una política que se ha venido siguiendo: desde las Diputaciones renunciamos cada vez a más dinero por desgravaciones de vivienda en IRPF, una forma, a nuestro juicio, ineficiente y poca redistributiva de apoyar el acceso a la vivienda. Y Ezker Batua en ese sentido plantea la necesidad de impulsar políticas de mayor dotación presupuestaria para atender, como digo, las necesidades de vivienda de mucha gente que en Euskadi hoy tiene dificultades serias de acceso a la vivienda, que es un bien indispensable. Sobre todo principalmente me refiero a los jóvenes.

Hace falta un mayor esfuerzo presupuestario para construir un parque público de vivienda de alquiler. El presupuesto en este sentido creemos que se debe incrementar, porque supone únicamente el 1,6 por ciento del gasto total del Gobierno.

Y además hay que tener en cuenta que se pueden hacer otro tipo de políticas. De hecho, en Extremadura se han adoptado políticas activas en relación a la vivienda vacía. Creemos que el número de viviendas vacías en Euskadi es muy elevado, y creemos que esto es un signo de insolidaridad social, que haya inmuebles ociosos cuando hay una necesidad y una demanda real de vivienda. Esto requiere de políticas activas también en relación a la vivienda vacía.

También hacía en mi intervención una referencia a las zonas desfavorecidas. Es verdad que se ha puesto en marcha un programa. Bueno, estamos expectantes ante el programa de revitalización integral de zonas desfavorecidas. Son muchas las zonas a atender, y nos tememos que los recursos sean insuficientes para atender los focos urbanos más deteriorados. En cualquier caso, esperamos que tenga más éxito que iniciativas anteriores, que lo cierto es que no han conseguido reducir esta brecha interna que tenemos dentro de nuestra Comunidad, porque las diferencias entre territorios históricos y entre comarcas siguen siendo muy grandes.

Concretamente con datos del 99, las diferencias en las tasas de actividad, paro y renta *per cápita* entre comarcas como Margen Izquierda y Bilbao, frente a zo-

konformismoan jausi. Uste dugu gure autogobernuak ematen digun maniobra-marjinaz baliatu behar dugula ahalik eta etekinik handiena ateratzeko eta ahalegin handia egiteko gizarte-behar nagusiei dagokienez.

Etxebizitzaren arloan, esate baterako, aurrerapauso bat eman behar dela uste dugu. Aurrerapauso bat Sail honetara bideratu diren baliabideak Gobernuaren Aurrekontuaren batez bestekoa baino gutxiago gehitu direlako. Datu hori objektiboa da. Gaur ia ez dago etxebizitza librerik 16 milioiez azpitik, eta oso gutxi 20 milioiez azpitik. Azken batean, babesgarria deitzen den alor horrek, etxebizitza baten truke 12 milioi baino gehiago ordaindu ezin duten pertsonek, gaur zailtasun handiak dituzte etxebizitza bat eskuratzeko. Pertsona horiek babes publikoa behar dute, eta irtenbide bakarra, berriro diot, politika aktiboagoak bultzatzea da, posible bada.

Orain arte politika bat jarraitu da: Diputazioetatik gero eta diru gehiagori egiten diogu uko PFEZeko etxebizitza-desgrabazioak direla eta, eta gure ustez bide hori ez da batere eraginkorra eta ez da batere birbanatzailea etxebizitza eskuratzea babesteko. Eta, alde horretatik, Ezker Batuak aurrekontu-partida handiagoak dituzten politikak bultzatu behar direla ikusten du, esan bezala, Euskadin gaur etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiak dituen jende askori etxebizitza eskuratzen laguntzeko, ezinbesteko ondasuna baita. Batez ere eta nagusiki gazteei buruz ari naiz.

Aurrekontuetan ahalegin handiagoa egin behar da alokatzeko etxebizitza-parke publiko bat eraikitzeko. Alde horretatik gure ustez aurrekontua gehitu egin behar da, Gobernuaren guztizko gastuaren ehuneko 1,6 baino ez baita.

Eta, horretaz gainera, kontuan izan behar da beste era bateko politikak ere egin daitezkeela. Berez, Extremaduran politika aktiboak gauzatu dira etxebizitza hutsen arloan. Gure ustez Euskadin etxebizitza asko dago hutsik, eta gure iritziz gizarte-elkartasunik ezaren adierazle da higiezin asko erabili gabe egotea benetako etxebizitza beharra eta eskaria dagoenean. Horrek politika aktiboak eskatzen ditu etxebizitza hutsei dagokienez ere.

Nire saioan hondatutako zonaldeak ere aipatu ditut. Egia da programa bat jarri dela abian. Beno, adi-adi gaude hondatutako zonaldeak erabat berrindartzeko programaren aurrean. Zonalde askori lagundu behar zaie, eta beldur gara baliabideak ez ote diren gutxi izango gehien hondatutako hiri-guneei laguntzeko. Nolanahi ere, espero dugu aurreko hainbat ekimenek baino arrakasta handiagoa izango duela, esan behar baita ez dutela lortu gure Autonomia Erkidegoaren barruan dugun zulo hori konpontzea, lurralde historikoen artean eta eskualdeen artean aldeak ikaragarriak baitira oraindik ere.

99ko datuak eskuan hartuta, esate baterako, jarduera, langabezi eta *per capita* errenten tasetan eskualdeen artean alde handiak daude, eta, esate baterako, Ez-

nas de Vitoria, por ejemplo, o comarcas guipuzcoanas de Tolosa, Goierri o Alto Deba, son comparables a las desigualdades que existen entre Andalucía y Extremadura respecto a Navarra, Cataluña o Baleares. O sea, que en ese sentido creemos que la crisis está todavía muy lejos aún de recuperarse en el Bajo Nervión.

Por eso yo creo que hay que reconocer que la problemática de estas comarcas es muy amplia, es fuerte, es intensa. Al paro, a la pobreza y a la escasa calidad de la vivienda se unen una deficiente planificación urbanística, ruinas industriales de las empresas abandonadas, suelos contaminados de origen industrial. Por eso creemos que es importante el esfuerzo presupuestario que se va a hacer en este programa de revitalización integral de zonas desfavorecidas. Para nosotros ésta es una cuestión muy importante.

Todos los esfuerzos que se hagan desde la Administración serán siempre insuficientes, puesto que será difícil alcanzar a compensar la falta de interés que la iniciativa privada ha demostrado hasta el momento, iniciativa privada que normalmente dirige sus inversiones a las zonas nuevas y más dinámicas, como por ejemplo zonas de la Llanada Alavesa o las zonas interiores de Gipuzkoa.

Bueno, lamento de verdad que en este debate de investidura la cuestión social haya sido una cuestión tangencial. Me alegro de que usted en su programa de investidura haya recogido esta cuestión en un capítulo que tiene su entidad y su relevancia. Lamento que en el debate en relación con los grupos parlamentarios ésta sea una cuestión que haya pasado sin pena ni gloria.

Creemos de verdad que esta legislatura, aparte de ser la legislatura de la paz, tiene que ser la legislatura de la justicia social. Creemos que en este sentido se debe hacer un esfuerzo importante para atajar de raíz esos problemas que tenemos (problemas de desempleo, de precariedad, de carestía de la vivienda o de deterioro del medio ambiente). Por eso nuestro grupo parlamentario compromete su actividad, su iniciativa, no sólo en el terreno de la paz, sino también en el terreno social. Y lamento de verdad que en este Parlamento el debate en torno al llamado conflicto político monopolice todo el debate y los conflictos sociales queden relegados, queden silenciados en un segundo orden.

Y también nos satisface su intención de encarar, como decía en su intervención, en su programa de gobierno, una ley de parejas de hecho. Esperamos poder aportar nuestra contribución a la misma, de modo que incorpore el derecho de las parejas homosexuales al matrimonio y a la adopción. Hay iniciativas legislativas como concretamente la de Navarra, que creemos que es una iniciativa interesante, una iniciativa que ya está ahí, que es concreta, que es tangible. Creemos que en ese terreno se deben dar pasos importantes, y también en estos terrenos tenemos que seguir siendo vanguardia y tenemos que jugar un papel de liderazgo en el conjunto de Comunidades Autónomas.

kerraldeak eta Bilbok Gasteizekin, edo Gipuzkoako hainbat eskualderekin, hala nola, Tolosa, Goierri edo Deba Garaiarekin, dituzten aldeak Andaluziak eta Extremadurak Nafarroarekin, Kataluniarekin edo Balearrekin dituzten adinakoak dira. Hau da, alde horretatik uste dugu Nerbioi Beherea oso urruti dagoela oraindik ere krisialditik ateratzetik.

Horregatik, nik uste dut aitortu behar dela eskualde hauen arazoa oso zabala dela, sendoa dela eta bizia dela. Langabeziarekin, pobreziarekin eta etxebizitzaren kalitate txikiarekin batera hirigintza-planifikazio mugatua dugu, bertan behera geratutako enpresen hondarrak, industriak erabilitako lurzoru kutsatuak. Horregatik uste dugu garrantzitsua dela hondatutako zonaldeak osorik berrindartzeko programa honetan egingo den aurrekontu-ahalegina. Guretzat oso garrantzitsua da.

Administraziotik egiten diren ahalegin guztiak inoiz ez dira nahikoa izango, zaila izango baita ekimen pribatuak orain arte erakutsi izan duen interesik ezari aurre egitea, ekimen pribatuak normalean bere inbertsioak zonalde berri eta dinamikoagoetara zuzentzen baititu, hala nola, Arabako Lautadako zonaldeetara edo Gipuzkoa barneko zonaldeetara.

Beno, benetan sentitzen dut inbestidurako eztabaida honetan gizarte-arazoa hain zeharrekoa izatea. Pozten nau zuk zure inbestidura-programan kapitulu honi bere garrantzia eta bere pisua eman izanak. Sentitzen dut legebiltzar-taldeei dagokien eztabaidan arazo hau ezusteko handirik gabe pasatu izana.

Benetan uste dugu legealdi honek, bakearen legealdia izateaz gainera, justizia sozialaren legealdia izan behar duela. Alde horretatik, uste dugu ahalegin handia egin behar dela ditugun arazoak (langabezi arazoa, behin-behinekotasun arazoa, etxebizitza garestiaren arazoa edo ingurumena hondatzearen arazoa) erro-errotik erauzteko. Horregatik, gure legebiltzar-taldeak bere jarduna, bere ekimena bakearen arloan ez ezik, gizartearen arloan ere agintzen du. Eta benetan sentitzen dut Legebiltzar honetan gatazka politikoa deitzen denaren inguruko eztabaidak eztabaida osoa monopolizatu izana eta gizarte-gatazkak bigarren maila batean utzi izana, bigarren maila batera alboratu izana.

Atseginez hartu dugu, zure lehenengo saioan esan duzun bezala, zure gobernu-programan izatezko bikoteen legeari heltzeko asmoa. Espero dugu gure ekarpena egin ahal izango diogula, bikote homosexualek ezkontzeko eta haurrak adoptatzeko duten eskubidea jaso dezan. Legegintza-ekimenen bat, zehatz-mehatz Nafarroari buruzkoa, gure ustez benetan interesgarria da, hor dago, zehatza da, hautemangarria da. Uste dugu alor horretan urrats garrantzitsuak eman behar direla, eta alor horietan ere abangoardia ikusten jarraitu behar dugu eta gainerako Autonomia Erkidegoen buru izaten jarraitu behar dugu.

Respecto a la ley de igualdad de la mujer, nos parece una iniciativa importante y necesaria, y creemos que desde nuestro grupo parlamentario por lo menos estamos dispuestos a poder ofrecer propuestas que hagan de esta iniciativa una iniciativa lo más progresista.

Lamento y expreso una frustración en relación por la intervención de Batasuna. Creo que reivindicar la Carta de Derechos Internacionales cuando no se rechaza la práctica de la violencia no deja de ser una incoherencia y una contradicción realmente profunda, que la sociedad vasca no entiende.

También tengo que referirme a los discursos del Partido Popular y del Partido Socialista. Me alegro de que hayan moderado el tono de sus intervenciones, pero, sin embargo, lamento que no hayan modificado las posiciones de fondo, las estrategias de fondo. Ninguno de los portavoces de estos dos partidos ha reconocido el derecho de los vascos y de las vascas a decidir su futuro como una opción democrática y legítima.

Realmente yo creo que hay que apelar al marco jurídico y político como una conquista democrática para explorar todas sus potencialidades, para desarrollar el autogobierno que recogen esos textos, y para explorar nuevos escenarios que nos permitan normalizar la política vasca. No acepto ese planteamiento que apela a este marco jurídico precisamente como la coartada y como el pretexto para no abordar la resolución de los problemas de convivencia profundos que tenemos en Euskadi.

Siempre hemos creído que las leyes están al servicio de las mujeres y de los hombres, y no al revés. Todas las opciones son igualmente legítimas y democráticas, todas, las que defendemos todos los aquí presentes, siempre que se defiendan por cauces pacíficos y democráticos.

Hoy realmente creo que se ha perdido una buena oportunidad para que tanto Batasuna por una parte, como Partido Popular y Partido Socialista por la otra, hayan mostrado una disposición sincera a respetar la voluntad de los vascos. Sociedad vasca que dice “no” a la violencia y sociedad vasca que también acepta y defiende con toda madurez su derecho a determinar cómo quiere organizarse, cómo quiere articularse internamente, y qué relaciones desea mantener con otros pueblos.

Y ya por último quiero decir al señor Ibarretxe que agradezco muy sinceramente la invitación a profundizar en el diálogo con nuestro grupo parlamentario, a seguir aproximando el acercamiento en aquellos terrenos en los que aún no ha sido posible acercar posiciones (he señalado algunas áreas). Creo que desde la voluntad política y desde la flexibilidad se podrá avanzar y acercar posiciones.

Por tanto, quiero decirle que nuestro voto, el voto en blanco, no va a ser un voto en contra de su candidatura. Quiero decirle que compartimos una misma estrategia en materia de pacificación y normalización política. En este terreno tenemos un trabajo en común que realizar. Nuestra voluntad en ese sentido es una voluntad sincera para el trabajo, para el diálogo, para el acercamiento.

Emakumearen berdintasunari buruzko legeari dagokionez, gure ustez ekimen garrantzitsua eta beharrezkoa da, eta uste dugu gure legebiltzar-taldetik ekimen hau ahalik eta aurrerakoiena bihurtuko duten proposamenak eskaini ahal izateko prest gaudela.

Deitoratu egiten dut eta frustrazioa adierazten dut Batasunaren saioaren aurrean. Uste dut Nazioarteko Eskubideen Agiria eskatzea, indarkeria gaitzesten ez denean, inkoherentzia hutsa eta kontraesan sakona dela, euskal gizarteak ulertzen ez duena.

Alderdi Popularraren eta Alderdi Sozialistaren saioei buruz ere zerbait esan nahi dut. Pozten nau euren saioen tonua leundu izana ikusteak, dena den, sentitzen dut oinarrizko jarrerak, oinarrizko estrategiak ez dituztela aldatu ikusi izana. Bi alderdi hauetako bozeramaileek ez dute aitortu euskaldunek aukera demokratiko eta legitimo gisa euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea.

Nik benetan uste dut esparru juridikora eta politikora bere ahalmen guztiak aztertzeko, testu horiek jasotzen duten autogobernua garatzeko eta euskal politika normalizatzen lagunduko diguten eszenatoki berriak aztertzeko garaipen demokratikoa bailitzan jo behar dela. Ez dut onartzen esparru juridiko horretara Euskadin bizikidetzan ditugun arazo larrien konponbideari ez ekiteko aitzakiatzat hartzen duen planteamendua.

Beti uste izan dut legeak gizon eta emakumeen zerbitzura daudela, eta ez alderantziz. Aukera guztiak dira legitimoak eta demokratikoak, hemen gauden guztiok aldezten ditugunak, beti ere bide baketsu eta demokratikoetatik aldezten badira.

Benetan uste dut gaur aukera ona galdu dela Batasunak, alde batetik, eta Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak, bestetik, euskaldunen borondatea errespetatzeko borondate zintzoa adierazteko. Euskal gizarteak “ez” esan dio indarkeriari eta euskal gizarteak heldutasun osoz aldeztu eta onartu du bere burua nola antolatu nahi duen, barnean nola egituratu nahi duen eta beste herri batzuekin nolako harremanak izan nahi dituen erabakitzeko eskubidea.

Eta, azkenik, Ibarretxe jaunari esan nahi diot benetan eskertzen diodala gure legebiltzar-taldearekin elkarrizketa sakontzeko, orain arte jarrerak hurbiltzea posible izan ez den alorretan jarrerak hurbiltzen jarraitzeko (alor batzuk aipatu ditut) egin duen gonbidapena. Uste dut borondate politikoa eta malgutasuna oinarritzat hartuta, aurrera egin ahal izango dugula eta jarrerak hurbildu ahal izango ditugula.

Horrenbestez, esan nahi dizut gure botoa, boto zuria, ez dela zure kandidaturaren aurkako botoa izango. Esan nahi dizut estrategia bera dugula bakegintzaren eta normalizazio politikoaren arloan. Esparru horretan lan bateratua egingo dugu. Alde horretatik, gure borondatea lan egiteko, elkarrekin hitz egiteko, jarrerak hurbiltzeko borondate zintzoa da.

Por tanto, quiero decirle que, bueno, vamos a seguir en esta línea que hemos demostrado en legislaturas anteriores…

El Sr. **PRESIDENTE**: Señor Madrazo, su tiempo ha concluido. Vaya terminando, por favor.

El Sr. **MADRAZO LAVÍN**: Sí. Decía que en relación a la política de pacificación hemos mantenido una política coherente en situaciones difíciles, en un clima de hostilidad y de acoso sin precedentes, no sólo, como decía el señor Egibar, contra el nacionalismo, también contra la izquierda, contra esta izquierda federalista que defiende la autodeterminación que representa Ezker Batua. También hemos sufrido una campaña muy dura de acoso y derribo, y esa política la vamos a seguir defendiendo en esta nueva legislatura.

Creemos que su oferta de diálogo es una oferta que recogemos muy sinceramente. Yo creo que vale la pena seguir intentando el acuerdo que no ha sido posible lograr en este último mes. Yo creo que no hay que poner límites al campo ni límites al acuerdo, y en ese sentido nosotros no los ponemos, y, si esto puede desembocar en el acuerdo de gobierno que no ha sido posible lograr en este último mes, por nuestra parte vamos a dedicar nuestros mejores esfuerzos, nuestras mayores ilusiones, para poder aproximar posiciones en ese terreno que he señalado.

Y por eso quería subrayar que no confunda nuestro voto en blanco con los votos en blanco que va a recibir de los otros tres grupos parlamentarios. El voto en blanco que vamos a depositar es un voto de confianza, de confianza en poder lograr ese acuerdo que no ha sido posible lograr hasta este momento, y espero que se pueda lograr en el futuro inmediato.

Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Madrazo jauna.

Aurrera joanez, Euskal Herritarrok taldeko ordezkaria Otegi jaunak dau berba.

El Sr. **OTEGI MONDRAGÓN**: Ciertamente uno a veces asiste no sé si desconsolado, pero perplejo, a las cosas que a veces se dicen aquí. Porque para hacer un chiste cabría decir que hoy hemos sabido que la gran estrategia de Mayor Oreja consistía en que él perdiera las elecciones para que las ganara Ibarretxe, y que además la estrategia del PNV, por lo menos de Joseba Egibar, consistía en salvar la democracia española. Con lo cual no sé si el Partido Popular el año que viene va a proceder a plantear el Príncipe de Asturias para el señor Joseba Egibar. *(Risas.)*

Pero se le veía realmente satisfecho de haber salvado la democracia española, cosa que me parece ciertamente un poco rara.

Bueno, en primer lugar aquí se ha hablado de que la izquierda abertzale ha sido poco menos que el aliado

Horrenbestez, esan nahi dizut, bada, aurreko legealdietan jarraitu izan dugun bidetik jarraituko dugula...

**LEHENDAKARI** jaunak: Madrazo jauna, amaitu da zure denbora. Amai ezazu zure saioa, mesedez.

**MADRAZO LAVÍN** jaunak: Bai. Esaten ari nintzen bakegintza-politikari dagokionez politika koherentea jarraitu dugula egoera zailetan, inoiz izan ez den bezalako liskar eta eraso giroan, eta ez bakarrik, Egibar jaunak esan duen bezala, abertzaletasunaren aurka, baizik eta baita ezkerraren aurka ere, Ezker Batuak ordezkatzen duen autodeterminazioa aldezten duen ezker federalistaren aurka ere bai. Guk ere eraso eta eraisketa kanpaina gogorra jasan dugu, eta politika bera aldezten jarraituko dugu legealdi berri honetan.

Uste dugu elkarrizketarako zure eskaintza gogo onez hartzen dugun eskaintza dela. Uste dut merezi duela azken hilabete honetan lortzerik izan ez den akordioa lortzeko ahalegina egiten jarraitzea. Nik uste dut ez zaiola mugarik jarri behar eremuari, ezta akordioari ere, eta, alde horretatik guk ez dugu mugarik jartzen, eta horrek azken hilabete honetan lortzerik izan ez den gobernu-akordioa ekar badezake, gure aldetik gure ahaleginik onenak egingo ditugu, gure ilusiorik handiena jarriko dugu, adierazi dudan alor horretan jarrerak hurbildu ahal izateko.

Eta horregatik azpimarratu nahi nuen ez nahasteko guk emango dugun boto zuria gainerako hiru legebiltzar-taldeetatik jasoko duzun boto zuriarekin. Guk emango dugun boto zuria konfiantza-botoa da, une honetara arte lortzerik izan ez den akordioa lortu ahal izateko konfiantza-botoa, eta espero dut etorkizun hurbilean lortu ahal izango dela.

Eskerrik asko.

**LEHENDAKARI** jaunak: Muchas gracias, señor Madrazo.

Continuando con el debate, y en representación del Grupo Euskal Herritarrok, tiene la palabra el señor Otegi.

**OTEGI MONDRAGÓN** jaunak: Atsekabez eta batez ere harrituta entzuten ditut batzuetan hemen esaten diren gauzak. Txiste bat egitearren esan genezake gaur jakin dugula Mayor Orejaren estrategia handia berak hauteskundeak galtzea zela Ibarretxek irabaz zitzan, eta, horretaz gainera, EAJren estrategia, Joseba Egibarrena behintzat bai, Espainiako demokrazia salbatzea zela. Eta, horrenbestez, ez dakit datorren urtean Alderdi Popularrak ez ote duen Joseba Egibar aurkeztuko Príncipe de Asturias Saria jasotzeko. *(Barreak.)*

Baina benetan nabari zitzaizun pozik zeundela Espainiako demokrazia salbatu izanagatik, eta benetan oso gauza bitxia iruditzen zait.

Beno, lehenik eta behin hemen esan da ezker abertzalea indar espainolisten aliatu objektiboa izan de-

objetivo de las fuerzas –creo que se ha mencionado– españolistas. Pero hay dos cosas que se han dicho hoy aquí que reflejan exactamente quién es aliado objetivo de las fuerzas españolistas y de la estrategia del Estado español, en boca de Nicolás Redondo y de Mayor Oreja.

Nicolás Redondo ha dicho exactamente que lo que cabe esperar del PNV y EA es la disolución de esa institución paralegal llamada Udalbiltza, que no cabe en el actual marco jurídico. Con lo cual hoy, que aquí ha habido bastantes tics freudianos, lo que nos está indicando es que el juego democrático y el marco de juego democrático es precisamente esta casa, porque esta casa, y ser una autonomía de tres provincias dentro del marco autonómico español, es la razón fundamental de la estrategia del Estado español. Ésa es la estrategia del Estado español para dividir el país y para que este país no acceda a la soberanía: esta casa, la división territorial, eso es exactamente.

Usted me podrá decir que no, pero, salvo nosotros, todos ustedes están de acuerdo y todos han manifestado que la estrategia en este país pasa por esta casa, y que es en este Parlamento donde hay que hablar, y no en "udalbiltzas" y cosas raras, no vaya a ser que el mapa de Euskal Herria se visualice. Luego, objetivamente hablando, la estrategia del Estado español pasa por esta casa.

Y eso es tan así que el Estatuto precisamente nace en este país como fruto de un pacto de un partido político con el Gobierno español para impedir precisamente la unidad territorial del sur y el acceso a la soberanía. Y eso es de abecé político. Eso se hizo exactamente para eso.

Y cabe recordar, ahora que se hacen muchos discursos de que hay que respetar lo que somos, porque los vascos nos hemos autoconstruido nosotros mismos, que durante la aprobación del Estatuto hubo gentes que no fueron de Euskal Herritarrok ni de Herri Batasuna, sino del Partido Nacionalista Vasco, que dijeron, por ejemplo: "Este Estatuto no nos gusta, pero es lo máximo que podíamos conseguir". Hubo quien dijo más, como el presidente del Partido Nacionalista Vasco, que dijo: "Hoy Navarra no forma parte de la Comunidad Autónoma vasca porque lo ha impedido el Ejército español". Eso no lo dijimos nosotros, eso lo dijo Xabier Arzalluz.

Luego eso de que los vascos nos hemos construido a nosotros mismos, ¡hombre!, habría que ponerlo por lo menos en comillas, porque evidentemente, si nos atenemos a un dato real de hoy, la población de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia en un 47, casi en un 48 por ciento, no votó ese Estatuto porque no tenía edad. Ésa es la realidad actual, y ése es el dato objetivo. Luego ¿los vascos nos hemos construido a nosotros mismos?

Yo leía el otro día en un libro un dato curioso, que creo que estará certificado históricamente, y es que el Gobierno español, en el Tratado de Basilea, ofreció al Gobierno francés que Gipuzkoa y Bizkaia pasaran a formar parte del Estado francés a cambio de Santo Domingo. Y si eso se hubiese dado así, que podía haberse dado perfectamente, porque todo el mundo conoce cómo se

la –hala aipatu dela uste dut–. Baina badira hemen esan diren eta indar espainolisten eta Espainiako Estatuaren estrategiaren aliatu objektiboa, Nicolás Redondoren eta Mayor Orejaren esanetan, zehatz-mehatz nor den islatzen duten bi gauza.

Nicolás Redondok zehatz-mehatz esan du EAJ-rengandik eta EArengandik Udalbiltza izeneko erakunde paralegala desegitea espero dela, ez duela eta tokirik egungo esparru juridikoan. Eta gaur, beraz, Freuden joerako tik ugari izan direnez, adierazi zaigu joko demokratikoa eta joko demokratikoaren esparrua, hain zuzen ere, etxe hau dela, etxe hau, eta Espainiako autonomi esparruaren barruan hiru probintziako autonomia izatea, Espainiako Estatuaren estrategiaren oinarrizko arrazoia dela-eta. Horixe da Espainiako Estatuaren estrategia herria zatitzeko eta herri honek burujabetasuna ez lortzeko: etxe hau, lurralde-zatiketa, horixe da zehatz-mehatz.

Zuk ezetz esan ahal izango didazu, baina gu izan ezik, zuek guztiok ados zaudete eta zuek guztiok adierazi duzue herri honetan estrategia etxe honetan dagoela, eta Legebiltzar honetan hitz egin behar dela, eta ez udalbiltzetan eta gauza bitxietan, ez dadin Euskal Herriaren mapa agerian gera. Objektiboki hitz eginez, beraz, Espainiako Estatuaren estrategia etxe honetan dago.

Eta hori horrela da, azken batean Estatutua, hain zuzen ere, herri honetan alderdi politiko baten eta Espainiako Gobernuaren artean hegoaldearen lurralde-batasuna eta burujabetasuna eragozteko egin zen itunaren emaitza baita. Eta hori abeze politikoa da. Hori horretarako egin zen, hain zuzen ere.

Eta gogora ekar daiteke, garena errespetatu egin behar dela esaten duten hitzaldi ugari egiten direnez orain, euskaldunok geure burua eraiki dugula eta, Estatutua onetsi zenean zenbait jendek, Euskal Herritarrok taldekoa edo Herri Batasunakoa ez zen zenbait jendek, honako hau esan zuela, esate baterako: "Estatutu hori ez dugu gogoko, baina horixe da gehienez ere lor genezakeena". Eta bakarren bat, Euzko Alderdi Jeltzaleko presidentea bera, urrunago ere iritsi zen, eta honako hau esan zuen: "Gaur Nafarroa ez dago Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako Armadak eragotzi duelako". Hori ez genuen guk esan, hori Xabier Arzalluzek esan zuen.

Euskaldunok geure burua eraiki dugula, bada, komatxoen artean jarri beharko litzateke, komatxoen artean behintzat jarri beharko litzateke, argi baitago, bada, gaurko datuetara begiratuta, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko gizon-emakumeen ehuneko 47k, ia ehuneko 48k, ez zutela Estatutua bozkatu une hartan botoa emateko adinik ez zutelako. Horixe da egungo errealitatea, eta horixe da datu objektiboa. Euskaldunok geure burua eraiki dugula?

Lehengo egun batean oso datu bitxia irakurri nuen liburu batean, eta uste dut historikoki ziurtatuta egongo dela, hau da, Espainiako Gobernuak, Basileako Hitzarmenean, Frantziako Gobernuari Gipuzkoa eta Bizkaia Frantziako Estatuko zati izateko eskaini zizkion Santo Domingoren truke. Eta hori horrela izan balitz, eta gertatu ahal izan zen zerbait da, jende guztiak baitaki ga-

hacían las cosas entonces, yo hoy sería francés, el señor Ibarretxe no sé lo que sería, siendo alavés, y los vizcaínos seríamos todos franceses.

Y entonces ¡eso es lo que los vascos nos hemos dado a nosotros mismos! O sea, digamos, con ese resorte histórico de la construcción que nos hemos dado a nosotros mismos los vascos. Bueno, a nosotros eso nos parece un chiste histórico. Es decir, los vascos hemos sido divididos y han decidido por nosotros, y ésa es la auténtica realidad.

Bueno, al señor Nicolás Redondo Terrenos le he visto en su tono habitual, en su tono habitual, manteniendo exactamente las mismas posiciones que ha mantenido durante la campaña electoral, cosa que es de agradecer, es de agradecer. Pero lo que ha hecho es complementar el Plan Colombia, eso es lo que él ha venido a decir: "Mire, nosotros estamos dispuestos a colaborar con ustedes si además de más Policía, más colaboración con el Estado, más Estatuto y más esta casa, y déjense ustedes de milongas de 'udalbiltzas'… Nosotros estamos dispuestos a colaborar". Pero por lo menos se le ha entendido con claridad.

Ésa es la propuesta del Partido Socialista. De resolución del conflicto, nada. Aquí el único problema es la existencia de ETA, cosa que, parece ser, comparten también todos los presentes en esta Cámara, menos nosotros.

Claro, le ha añadido usted una condición, y es: "Y a Euskal Herritarrok, fuera de los Ayuntamientos. Y a partir de ahí empezamos a hablar". Ésa es una condición que ya veremos si se cumple o no, ya veremos si se cumple o no, pero usted ha puesto hoy encima de la mesa esa condición.

Hombre, me dice que hay que respetar el juego democrático, y no sé ya… Es ciertamente cansino, porque ¡ya hemos discutido tantas veces estas cosas! El juego democrático, ¿qué es?, ¿el que está determinado por la Constitución y el Estatuto? ¿Ése es el juego democrático? El juego democrático en el Estado español consiste en que los medios de comunicación están absolutamente controlados por el Ejecutivo, en que el Poder Judicial está absolutamente controlado por el Ejecutivo. ¿Ésas son las reglas del juego democrático? ¿Eso es lo que define el estado actual de las reglas del juego democrático en nuestro país? Pues perdóneme que le diga, pero, si ésas son las reglas del juego democrático, nosotros no jugamos a eso.

Nosotros hemos propuesto otras reglas del juego democrático. Y no las que nosotros hemos elaborado ni las que ha elaborado el Partido Nacionalista Vasco, no. Las que están definidas en las reglas de la legislación internacional, que me imagino será aceptada por todos ustedes.

Y he dicho que nosotros proponemos como base de la resolución del conflicto el respeto a todos los derechos (no me he dejado ninguno), a todos los derechos para toda Euskal Herria y para todos los ciudadanos. Pe-

rai hartan gauzak nola egiten ziren, gaur ni frantziarra izango nintzatekeen, Ibarretxe jauna ez dakit zer izango litzatekeen, Arabarra izanda, eta bizkaitar guztiak ere frantziarrak izango ziratekeen.

Eta horixe da, beraz, euskaldunok geure buruari eman dioguna! Hau da, euskaldunok geure buruari eman diogun eraikuntzaren bitarteko historiko horrekin. Beno, guri hori txiste historiko bat iruditzen zaigu. Hau da, euskaldunok zatitu egin gaituzte eta gure izenean erabaki dute, eta horixe da benetako errealitatea.

Beno, Nicolás Redondo Terreros bere betiko jardunean ikusi dut, hauteskunde-kanpainan jarraitu duen jarrera berarekin, eta eskertzekoa da, eskertzekoa da. Baina Kolonbia Plana osatu du, honelako zerbait esan du: "Begira, gu prest gaude zuekin batera lan egiteko Polizia gehiago, Estatuarekin lankidetza gehiago, Estatutu gehiago eta etxe honen presentzia handiagoa izateaz gainera, eta utz ezazue udalbiltza alde batera... Gu prest gaude zuekin batera lan egiteko". Baina gauzak argi ulertu zaizkio behintzat.

Horixe da Alderdi Sozialistaren proposamena. Gatazka konpontzeaz ezer ere ez. Hemen dagoen arazo bakarra ETA da, eta, dirudienez, horretan ados daude Ganbara honetan dauden guztiak, gu izan ezik.

Eta, jakina, baldintza bat erantsi dizu, hauxe: "Eta Euskal Herritarrok udaletatik kanpora. Eta hortik aurrera hitz egiten hasiko gara". Ikusiko dugu baldintza hori betetzen den ala ez, ikusiko dugu betetzen den ala ez, baina gaur mahai gainean jarri duzu baldintza hori.

Esan didazu errespetatu egin behar dela joko demokratikoa, eta nik ez dakit... Benetan nekagarria da, hainbeste aldiz eztabaidatu izan ditugu gauza hauek! Joko demokratikoa, zer da?, Konstituzioak eta Estatutuak finkatzen dutena? Hori al da joko demokratikoa? Espainiako Estatuan joko demokratikoa da komunikabideak Exekutiboak kontrolatzen dituela erabat, Botere Judiziala Exekutiboak kontrolatzen duela erabat. Horiek al dira joko demokratikoaren arauak? Horrek zehazten al du gure herrian joko demokratikoaren arauen egungo egoera? Ba, barka iezadazu esatea, baina horiek baldin badira joko demokratikoaren arauak, guk ez du joko horretan parte hartuko.

Guk joko demokratikorako beste arau batzuk proposatu ditugu. Eta ez guk gauzatu ditugunak edo Euzko Alderdi Jeltzaleak gauzatu dituenak, ez. Nazioarteko legediaren arauetan zehaztuta daudenak, eta pentsatzen dut zuek guztiok onartuko duzuela legedi hori.

Eta esan dut gatazka konpontzeko oinarri gisa eskubide guztiak errespetatzea (ez dut bakar bat ere atzera utzi), Euskal Herria osoarentzat eta herritar guztientzat eskubide guztiak errespetatzea proposatzen dugula. Bai-

ro los derechos, por mucho que se quiera decir que en todo caso uno es más importante que otro, eso contraviene, entre otras cosas, la Conferencia Mundial sobre Derechos Humanos celebrada en Viena, que dice exactamente que los derechos no pueden ser clasificables, que son universales e iguales todos.

Y la oferta que hoy hemos hecho, que creía que había sido entendida, quizás no ha sido entendida así, es decir: ¿solución al conflicto?, fácil: que todos los agentes implicados en el conflicto en el conjunto de Euskal Herria se comprometan a respetar en su integridad el pacto de los derechos económicos y políticos, el pacto por los derechos humanos. Ésa es la oferta que ha hecho hoy la izquierda abertzale.

Y no hemos dicho que nosotros entendamos que eso hay que hacerlo de una determinada manera, no. Lo hemos dicho expresamente así, pero entendiendo que evidentemente en este país surge un conflicto porque se conculca el primer derecho. No sé si será más importante o menos importante, pero es el que aparece como primer derecho en toda la legislación internacional que afecta al caso, que es el derecho a la libre determinación de los pueblos.

Las Comunidades Autónomas no tienen derecho a la libre determinación. Son los pueblos los que tienen derecho a la libre determinación. Por eso, ésa es la propuesta que hemos hecho. Y hemos dicho que entendemos que ésa es una propuesta, una base de propuesta que concede el suficiente margen de maniobra al conjunto de formaciones políticas del conjunto del país.

A nuestro modesto entender, eso es así. Y ésa es la propuesta que hemos hecho, con ánimo constructivo. Y lo que hemos dicho: miren ustedes… Y Joseba creo que me ha entendido mal: nosotros hemos dicho hoy aquí que solución democrática y paz no tienen nada que ver con nuestro proyecto político; que nuestro proyecto político es construir un estado independiente y socialista en Europa, pero que ésa no es la base sobre la que la izquierda abertzale sustenta una estrategia de superación del conflicto armado y político, sino sobre el compromiso de todos los agentes a respetar todos los derechos en toda Euskal Herria para todos los ciudadanos vascos. Ésa es la base sobre la que Batasuna plantea hoy la superación del conflicto político.

Uno podrá pensar que eso es más o menos una profundización en los análisis que hemos hecho hasta ahora, que es una posición que siempre hemos mantenido… Nosotros creemos que aporta una base que puede permitir el margen de maniobra política absolutamente para todo el mundo.

El señor Ibarretxe me ha contestado ciertamente en un tono que no esperaba, un tono bastante agrio, bastante agrio. Y entonces… Claro, ustedes siempre dicen, cada vez que vienen aquí, que el PNV tiene aquí la rara virtud de que evidentemente siempre nos pilla con el paso cambiado, y nosotros, que por lo menos predicamos, no sé si con el ejemplo, un poco de humildad, hombre, pues, les pediríamos que también se aplicaran un poco el cuento, porque uno a veces tiene la impresión, no sé si

na eskubideak..., esan nahi bada ere edonola ere eskubide bat bestea baino askoz ere garrantzitsuagoa dela, horrek, beste gauza batzuen artean, Vienan egin zen Giza Eskubideei buruzko Mundu Biltzarra hausten du, zehatz-mehatz esaten baitu eskubideak ezin direla sailkatu, unibertsalak eta berdinak direla.

Eta gaur egin dugun eskaintza, eta uste nuen ulertu zela, beharbada ez da horrela ulertu, hau da: gatazkaren konponbidea?, erraza: Euskal Herria osoan gatazkan inplikatuta dauden eragile guztiek hitz eman dezatela erabat errespetatuko dutela eskubide ekonomikoen eta politikoen hitzarmena, giza eskubideen aldeko hitzarmena. Horixe da gaur hemen ezker abertzaleak egin duen eskaintza.

Eta ez dugu esan gure ustez hori modu jakin batean egin behar denik, ez. Berariaz horrela esan dugu, baina herri honetan gatazka lehenengo eskubidea urratzen delako sortu dela ulertuz. Ez dakit eskubiderik garrantzitsuena den ala garrantzirik gutxien duen eskubidea den, baina nazioarteko legedi osoan agertzen den lehenengo eskubidea da, hain zuzen ere herrien erabaki librerako eskubidea.

Autonomia erkidegoek ez dute erabaki librerako eskubiderik. Herriek dute erabaki librerako eskubidea. Horregatik, horixe da guk egin dugun proposamena. Eta esan dugu gure ustez hori proposamen bat dela, herri honetako indar politiko guztiei behar adinako maniobra marjina ematen dien proposamen-oinarria.

Gure ustez, hori horrela da. Eta horixe da guk egin dugun proposamena, gauzak egiteko asmoz. Eta guk honako hau esan dugu: begira... Eta uste dut Josebak gaizki ulertu duela: guk gaur hemen esan dugu irtenbide demokratikoak eta bakeak ez dutela zerikusirik gure proiektu politikoarekin; gure proiektu politikoa Europan estatu independente eta sozialista eraikitzea dela, baina ezker abertzaleak ez duela hori hartzen gatazka armatua eta politikoa gainditzeko estrategiaren oinarritzat, baizik eta eragile guztiek Euskal Herria osoan euskal herritar guztientzat eskubide guztiak errespetatzeko konpromisoa. Batasunak oinarri hori planteatzen du gaur gatazka politikoa gainditzeko.

Zenbaitek pentsa dezake hori orain arte egin ditugun azterketak gehixeago edo gutxixeago sakontzea dela, beti adierazi izan dugun jarrera dela... Guk uste dugu jende guztiarentzat maniobra politikorako marjina eskain dezakeen oinarria ezartzen duela.

Ez nuen espero Ibarretxe jaunak tonu horretan erantzutea, tonu garratza, garratz samarra erabili baitu. Eta, horrenbestez... Zuek beti, hona etortzen zareten bakoitzean, esaten duzue EAJk hemen bertute bitxi bat duela, hau da, beti pausoa aldatuta harrapatzen gaituela, eta guk, apaltasun apur bat behintzat predikatzen dugunok, ez dakit etsenpluaren bidez egiten dugun, bada, beno, eskatuko genizueke zeuon buruari ere begiratzeko, zenbaitetan iruditzen baitzaigu, ez dakit EAJn nolabai-

porque en el PNV ha existido una cierta cultura clerical, de que el PNV es de los que piensan que Dios primero formó la tierra y después el Partido Nacionalista Vasco. *(Risas.)*

Y entonces la humildad, la humildad, es algo que debería ser recomendable, ¿no? Pero me comenta, y me ha dolido: "¿Usted cree que las acciones armadas de ETA no tienen ningún tipo de…, digamos, no ponen una condición casi inasimilable para que usted y yo podamos hablar?" Pero ¡cómo hicimos posible…! Lo he entendido mal entonces. ¿Cómo hicimos posible el 98?

Lizarra-Garazi se firma en una época histórica en la que ETA no tiene decretada tregua ninguna. En esa circunstancia se dio. Y lo he repetido muchas veces. Y no lo pensaba mencionar, pero me ha parecido muy ácido el tono con el que se me ha contestado, y lo voy a utilizar.

Cuando nosotros estábamos hablando con el Partido Nacionalista Vasco la Ertzaintza desarrolló una operación policial en la que resultó muerta Ina Zeberio, cuando todavía no habíamos cerrado ningún acuerdo. Y yo quiero recordar que entonces el ínclito Anasagasti fue capaz de decir, y se acordó poco del derecho a la vida, que felicitaba y aplaudía a la Ertzaintza por haber demostrado su eficacia, con el cadáver de una joven vasca de apenas 26 años encima de la mesa. Y nosotros entonces tuvimos no sé si el valor, pero la responsabilidad política de no romper nada, de no salir a la calle y decir que ya era imposible cualquier acuerdo.

Y nosotros fuimos capaces entonces, delante de nuestra gente, llevando el féretro de esa joven patriota y compañera, señor Mayor Oreja, llamada Ina Zeberio, de decir a nuestra gente que, por encima de esa circunstancia, la responsabilidad política nos exigía seguir hablando y seguir edificando un escenario diferente para el país. Y después lo conseguimos.

Por eso creemos que, independientemente de las lecturas morales que se hacen aquí en torno a la actitud política de la izquierda abertzale, tenemos al menos la autoridad política para decir y para exigir desde la humildad a todo el mundo lo mismo, porque no vale plantear unas reglas de juego para algunas veces sí y para otras no.

Nosotros demostramos entonces que por responsabilidad no podíamos hacer un llamamiento ni al enfrentamiento ni a la guerra. Y dijimos: hay que seguir trabajando por la paz y por la soberanía de este país. Y eso es lo que hicimos. Por eso, por eso nosotros creemos que tenemos una cierta autoridad para demandar lo mismo ahora a todo el mundo.

Me ha hecho varias preguntas que deberían ser respondidas por ETA, y hay una cosa que he dicho públicamente y hoy voy a repetir. No vale decirle al señor Mayor Oreja y al señor Garzón: "Ustedes han planteado una estrategia judicial que es absolutamente una estrategia alocada sin sustento jurídico". Porque ustedes…, y ha tenido además –y se lo digo respetuosamente, o me-

teko apaiz-kultura izan delako den, bada, Jainkoak lehenik eta behin lurra sortu zuela eta gero EAJ sortu zuela pentsatzen duen horietakoa dela EAJ. *(Barreak.)*

Eta, horrenbestez, apaltasuna, apaltasuna, gomendagarria izan beharko litzatekeen zerbait da, ezta? Baina honako hau esan didazu, eta mina eman dit: "Zuk uste duzu ETAren ekintza armatuek ez dutela inolako..., nolabait esatearren, ez dutela ia onartezina den baldintza bat jartzen guk biok hitz egin ahal izan dezagun?" Baina, nola egin genuen posible...! Orduan gaizki ulertu dut. Nola egin genuen posible 98a?

Lizarra-Garazi garai historiko batean sinatu zen, ETAk su-etena erabaki gabe zuen garaian. Egoera horretan sortu zen. Eta askotan esan izan dut. Eta ez nuen aipatzea pentsatzen, baina oso garratza iruditu zait niri erantzuteko erabili duzun tonua, eta erabili egin behar dut.

Gu Euzko Alderdi Jeltzalearekin hitz egiten ari ginela Ertzaintzak polizi ekintza bat burutu zuen eta Ina Zeberio hil egin zen ekintza hartan, eta oraindik akordioa itxi gabe genuen. Eta gogoratu nahi dut une hartan Anasagasti jaun entzutetsua, eta bizitzeko eskubideaz apur bat gogoratu zen, Ertzaintza zoriondu eta txalotu egiten zuela esateko gai izan zela, eragingarria zela egiaztatu zuelako mahaiaren gainean 26 urteko neska euskaldun gazte baten hilotza zegoela. Eta une hartan guk ezer ez hausteko eta edozein akordio ezinezkoa zela esateko kalera ez irteteko erantzukizuna, ez dakit ausardia, izan genuen.

Eta une hartan gai izan ginen, gure jendearen aurrean, aberkide gazte haren, Mayor Oreja jauna, Ina Zeberioren zerraldoa hartuta, gure jendeari esateko, egoera horren gainetik, erantzukizun politikoak hitz egiten jarraitzea eta herriarentzat beste eszenatoki bat eraikitzen jarraitzea eskatzen zigula. Eta gero lortu egin genuen.

Horregatik uste dugu, hemen ezker abertzalearen jarrera politikoaren inguruan egiten diren irakurketa moralak alde batera utzita, aginte politikoa behintzat badugula apaltasunetik jende guztiari gauza bera esateko eta eskatzeko, ez baitu balio kasu batzuetarako jokorako arau batzuk planteatzeak eta beste kasu batzuetarako ez planteatzeak.

Guk une hartan egiaztatu genuen erantzukizun bat genuela eta ezin genuela enfrentamendurako eta gerrarako deirik egin. Eta honako hau esan genuen: herri honen burujabetzaren eta bakearen alde lan egiten jarraitu behar dugu. Eta horixe egin genuen. Horregatik, horregatik, uste dugu nolabaiteko agintea dugula orain jende guztiari gauza bera eskatzeko.

ETAk erantzun beharko lituzkeen hainbat galdera egin dizkidazu, eta bada publikoki esan izan dudan eta gaur berriro esango dudan gauza bat. Ez du balio Mayor Oreja jaunari eta Garzón jaunari honako hau esateak: "Zuek planteatu duzuen estrategia judiziala inolako oinarri juridikorik ez duen estrategia eroa da". Zuek..., eta lotsa apurrik gabe –eta adeitasun osoz diotsut, edo behar-

nos respetuosamente, entiéndalo como quiera– la desvergüenza de citar el caso de la mesa nacional. Lo que se ha olvidado de decir es que el Tribunal Constitucional puso la mesa nacional en la calle, y hoy Antton Morcillo está aquí, cuando pasó dos años en la cárcel.

Entonces, esto es lo que se le ha olvidado decir. Pero lo que no vale es decirle al PP: "No, miren ustedes, ustedes han puesto en marcha una estrategia judicial contra la izquierda independentista que no tiene sustento jurídico", pero inmediatamente después: "No, es que los de Batasuna no le decís a ETA no sé qué, y es que los de Batasuna no tenéis autonomía política", porque entonces están reforzando la tesis de ellos, porque en las dos no se puede estar. Y eso es lo que hacen ustedes exactamente cada vez que citan ejemplos de ese tipo, ¿no?

Con respecto a la autodeterminación, antes lo hemos dicho: o sea, el sujeto político para el desarrollo de la libre determinación es el pueblo vasco. Si alguien quiere manifestar aquí que el pueblo vasco son hoy los ciudadanos de Gipuzkoa, Bizkaia y Araba, dígalo. Lo que nosotros decimos es que los ciudadanos de Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa, Laburdi y Zuberoa son los sujetos del derecho a la libre determinación, cosa que en su día dijo el señor Carlos Iturgaiz en una entrevista en *Argia*.

Tampoco lo dijo ETA ni lo dijo Batasuna, no: el señor Carlos Iturgaiz dijo una vez en *Argia*, y estaré muy equivocado, pero creo que lo leí bien, porque lo leí tres veces, porque no me lo podía creer, usted dijo que evidentemente nadie podía negar que Navarra y Laburdi formaban parte de Euskal Herria. Y, claro, es evidente. Además no dijo usted ninguna tontería. Es que eso es así, eso es así. Y por eso nosotros citamos a Euskal Herria en su conjunto como sujeto del derecho a la libre determinación, ¿no?

Bueno, Joseba no sé, pero yo creo que hoy sí que ha venido un poco alto de hematocritos. Yo creo que se ha pasado dos años esperando la oportunidad de decirle a Mayor Oreja todas las cosas que le ha dicho. Estoy casi convencido. Pero nosotros no estamos en el *corner*, nosotros no estamos en el *corner*. Gasteiz está en el *corner* de Euskal Herria geográficamente, políticamente también. Nosotros no.

Lo que nosotros decimos es que evidentemente, si tiene que haber una confluencia, una alianza política entre el PNV y nosotros, no se puede hacer desde la cultura política de la izquierda abertzale, pero tampoco desde la cultura política al 100 por ciento del PNV. Y lo que hemos dicho es que la experiencia del 98…, por eso me ha sorprendido que me diga que "están ustedes en el 98, no han aprendido nada". ¡Coño! ¡Pero si en el 98 es cuando le votamos a usted para Lehendakari! *(Risas.)*

Claro, me estaba refiriendo exactamente a que estamos en las mismas posiciones con respecto a abrir un proceso democrático, y entonces ésa es la posición que mantenemos hoy, la misma posición.

Y decir que nosotros somos aquí electos por Araba, Gipuzkoa y Bizkaia, pues, es decir una verdad, pero

bada ez da hain adeitsua, nahi duzun bezala ulertu– mahai nazionalaren kasua aipatu duzu. Baina ahaztu egin zaizu esatea Auzitegi Konstituzionalak kanpora atera zuela mahai nazionala, eta gaur Antton Morcillo hemen dago, eta bi urte pasatu zituen espetxean.

Hori esatea ahaztu egin zaizu, beraz. Eta ez du balio PPri honako hau esateak: "Ez, begira, zuek ezker independentistaren aurka abian jarri duzuen estrategia judizialak ez du oinarri juridikorik", eta berehala beste hau esateak: "Ez, Batasunakook ez diozue ETAri nik ez dakit zer esaten, eta Batasunakook ez duzue autonomia politikorik", jokabide horrekin haien tesia indartzen ari zarete, ezin baitzarete bi tesietan egon. Eta horixe da zehatz-mehatz zuek egiten duzuena era horretako adibideak aipatzen dituzuen bakoitzean, ezta?

Autodeterminazioari dagokionez, lehen esan dugu: hau da, erabaki librea garatzeko subjektu politikoa euskal herria da. Norbaitek hemen adierazi nahi badu euskal herria gaur egun Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako herritarrak direla, esan ezazu. Guk esaten dugu Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko, Nafarroako, Lapurdiko eta Zuberoako herritarrak direla erabaki librerako eskubidearen subjektuak, eta horixe bera esan zuen behin Carlos Iturgaiz jaunak *Argiak* egindako elkarrizketa batean.

Ez zuen ETAk esan, ezta Batasunak ere, ez: Carlos Iturgaiz jaunak esan zuen behin *Argian*, eta beharbada oso oker nago, baina uste dut ongi irakurri nuela, hiru aldiz irakurri bainuen ezin nuelako sinetsi, eta esan zenuen inork ezin zuela ukatu, hain zuzen ere, Nafarroa eta Lapurdi Euskal Herriko zati direla. Eta, jakina, agerikoa da. Zuk ez zenuen lelokeria bat esan. Hori horrela da, horrela da. Eta horregatik guk Euskal Herria osoa aipatzen dugu erabaki librerako eskubidearen subjektu gisa, ezta?

Beno, Joseba ez dakit, baina uste dut gaur hematokritoak oso gora dituzula etorri zarela. Nik uste dut bi urtez egon zarela Mayor Oreja jaunari esan dizkiozun gauzak esateko aukeraren zain. Ia ziur nago. Baina gu ez gaude *kornerrean*, gu ez gaude *kornerrean.* Gasteiz dago Euskal Herriko *kornerrean* geografikoki, politikoki ere bai. Gu ez.

Eta guk esaten dugu, bada, EAJren eta gure artean itun politiko bat, bateratze bat izan behar bada, ezin daitekeela ezker abertzalearen kultura politikotik egin, baina ezta ehuneko 100ean EAJren kultura politikotik ere. Eta esan dugu 98ko esperientziak..., horregatik harritu nau guri "zuek 98an zaudete, ez duzue ezer ikasi" esateak. 98an eman genizun, baina, botoa lehendakari izan zintezen! *(Barreak.)*

Ez, esaten ari nintzen toki berean gaudela prozesu demokratiko bat irekitzeari dagokionez, eta horixe da, beraz, gaur adierazi dugun jarrera, lehengo bera.

Eta gu hemen Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hautetsiak garela esatea, bada, egia esatea da, baina guk

lo que nosotros queremos saber es, si alguien tiene intención, vocación de buscar un acuerdo político que permita superar el conflicto armado y que permita instalar definitivamente en este país la democracia aceptando el derecho a la libre determinación, si lo quiere hacer para Araba, Gipuzkoa y Bizkaia o lo quiere hacer para el conjunto de Euskal Herria.

Porque aquí, que se cita muchas veces el conflicto irlandés, cabe recordar que en las últimas décadas ha habido conflicto irlandés porque había partición territorial. La partición territorial da origen en la era moderna al conflicto irlandés…

El Sr. **PRESIDENTE**: Otegi jauna, denbora agortu izan da. Bukatzera joan zaitez mesedez.

El Sr. **OTEGI MONDRAGÓN**: Bai. Por eso, por eso nosotros consideramos que un ejercicio de responsabilidad política exige hacer por lo menos un esfuerzo por entender que hay emplazamientos que se han hecho aquí en términos de salida al conflicto político, en términos de construcción de un nuevo marco.

Y nosotros no hemos dicho que esta Cámara no tenga nada que hacer, no lo hemos dicho así, y lo probamos además durante dos años de acuerdo institucional. Nosotros seguimos considerando que esta Cámara puede hacer cosas, pero que necesariamente, si ese proceso tiene que ser integral y no excluyente, tiene que dar cabida desde el primer momento al conjunto de ciudadanos de Euskal Herria, y que para eso es necesario habilitar por lo menos, y desarrollar por lo menos, la primera institución nacional vasca que tiene este país, que es Udalbiltza, que es la que precisamente no le gusta al señor Redondo Terreros y a nosotros nos gusta, no por capricho, sino porque entendemos que puede encauzar efectivamente una dinámica real de construcción del país y una dinámica real para superar el conflicto político.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Otegi jauna.

Eusko Alkartasuna Taldeko ordezkaria Knörr jaunak dau hitza.

El Sr. **KNÖRR BORRÀS**: Lehendakari jauna.

Bueno, muy brevemente, en primer lugar para referirme a Izquierda Unida/Ezker Batua y para reiterarles lo que ya hemos dicho en la primera intervención: que nosotros evidentemente estamos abiertos a profundizar en el diálogo con Ezker Batua/Izquierda Unida y para ampliar todo el consenso posible en los temas que han sido objeto de discusión en el frustrado acuerdo, y, por lo tanto, reiterar lo que ha sido la posición de nuestro grupo antes, ahora también, y en el futuro.

Agradecemos el tono, evidentemente, que ha tenido con el Gobierno, a la vez que también hay que reconocer entre otras muchas cosas, y Javier lo ha dicho, que a Izquierda Unida/Ezker Batua muy injustamente, muy injustamente, se le ha dado hasta en el carnet de identidad (sea el ENA o el otro) por haber mantenido unas posturas aquí en Euskadi. Eso es así, hay que reconocér-

jakin nahi dugu ea norbaitek baduen akordio politiko bat bilatzeko asmorik, bokaziorik, gatazka armatua gainditzeko aukera eman dezan eta herri honetan demokrazia behin betiko kokatzeko aukera eman dezan erabaki librerako eskubidea onartuz, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiarentzat nahi duen ala Euskal Herria osoarentzat nahi duen.

Hemen askotan aipatzen da Irlandako gatazka, baina gogora ekarri behar da azken hamarkadetan Irlandan gatazka izan dela lurraldea zatituta zegoelako. Lurraldea zatitzeak eragin du aro modernoan Irlandako gatazka...

**LEHENDAKARI** jaunak: Señor Otegi, ya ha agotado su tiempo. Vaya terminando, por favor.

**OTEGI MODRAGÓN** jaunak: Sí. Horregatik, horregatik, gure ustez erantzukizun politikoa gauzatzea da ahalegin bat behintzat egitea eskatzea hemen gatazka politikoari irtenbidea emateko, esparru berri bat eraikitzeko dei bat luzatu dela ulertzeko.

Eta guk ez dugu esan Ganbara honek ez duela zer eginik, ez dugu horrela esan, eta egiaztatu ere egin genuen erakunde-akordioak iraun zuen bi urteetan. Guk oraindik ere uste dugu Ganbara honek gauzak egin ditzakeela, baina ezinbestez, prozesu honek integrala izan behar badu eta ez badu baztertzailea izan behar, hasieratik eman behar die bere tokia Euskal Herriko herritar guztiei, eta horretarako beharrezkoa da herri honek duen euskal erakunde nazional lehena, Udalbiltza, gaitzea behintzat, garatzea behintzat, eta erakunde horixe ez du gogoko Redondo Terreros jaunak eta guk, berriz, gogoko dugu, eta ez apetaz, baizik eta uste dugulako eragingarritasunez bidera dezakeela herria eraikitzeko egiazko dinamika eta gatazka politikoa gainditzeko egiazko dinamika.

**LEHENDAKARI** jaunak: Gracias, señor Otegi.

En representación del Grupo Eusko Alkartasuna, tiene la palabra el señor Knör.

**KNÖRR BORRÀS** jaunak: Señor Presidente.

Beno, oso labur, lehenik eta behin Ezker Batuarengana zuzentzeko eta lehenengo saioan esan dugun gauza bera esateko: guk ateak irekita ditugula Ezker Batuarekin elkarrizketa sakontzeko eta ahalik eta adostasunik zabalena lortzeko huts egin duen akordioan eztabaidagai izan diren alorretan, eta, horrenbestez, gure taldeak lehen izan duen, eta orain duen, eta etorkizunean ere izango duen jarrera azpimarratu baino ez.

Eskertzen dizugu, zalantzarik gabe, Gobernuarekin izan duzun tonua, eta, aldi berean, aitortu behar da beste hainbat gauzaren artean, eta Javierrek esan du, Ezker Batuari bidegabeki, oso bidegabeki, nortasun agiria ere eman zaiola (ENA edo bestea) hemen, Euskadin, jarrera zehatz bat izan duelako. Hori horrela da, eta hori aitortu egin behar zaio, eta nik behintzat Eusko Alkarta-

selo, y yo, desde luego, desde Eusko Alkartasuna quiero agradecer y reconocer esa posición valiente de Ezker Batua en todo ese proceso.

Pero evidentemente ni Ezker Batua ni nosotros conformamos una mayoría en este país, y yo creo que por responsabilidad de un partido progresista lo que tenemos que hacer cuando negociamos con otros, sean quienes sean, es intentar aportar nuestros puntos de vista y no pretender que vamos a lograr el 100 por ciento. Y, por lo tanto, con esa voluntad vamos a ir a hablar con ustedes.

Pero, claro, es que la realidad también tiene sus límites. Ustedes acaban de presentar, el grupo parlamentario federal de Izquierda Unida en la Comunidad de Madrid, y leo: "Artículo 3. El establecimiento de la renta mínima que garantice una existencia digna será equivalente al 75 por ciento del salario mínimo interprofesional". Por lo tanto, yo creo que lo que tenemos que hacer es trabajar, y, como ha dicho ya el Lehendakari, saben ustedes que en cuestiones de renta básica, y vía convenios que ya están en marcha en el Departamento de Trabajo, hay en este momento programas de formación y empleo que amplían esas coberturas en función de los integrantes de la unidad familiar. Por lo tanto, todo el trabajo del mundo y todo el horizonte del mundo para seguir avanzando en ese terreno. Y vuelvo a reiterar cuál es la posición de mi grupo político en cuanto al diálogo con ustedes.

En cuanto a EH, voy a empezar por el final, no sé si está el señor Otegi aquí… Bien, yo creo que comete un error de bulto cuando se refiere al tema de la autodeterminación. Nosotros evidentemente sí que decimos que el sujeto del derecho de autodeterminación, y lo hemos escrito por activa, pasiva y reflexiva, es el conjunto de Euskal Herria. Pero en el ejercicio, a la hora de poner en marcha el ejercicio de dicho derecho, como se ha hecho en Irlanda, respetando en aquel caso la voluntad de los seis condados del norte y la voluntad del sur.

Y, por lo tanto, nosotros creemos que, si somos fieles a ese modelo, lo que tenemos que hacer a la hora de plantear el ejercicio de ese derecho es partir precisamente del respeto de la Comunidad Autónoma vasca, de la Comunidad Foral navarra e Iparralde. Ése es el tema, ése es el tema. Ya lamento que no estuviera muy atento, señor Otegi, pero creo que es un tema cardinal.

Se ha preguntado usted, antes ha dicho los resultados en Iparralde. ¡Claro! Los incrementos en Iparralde son precisamente por seguir la estrategia justamente contraria a la que han adoptado ustedes. El incremento de los votos de Abertzaleen Batasuna, como ha demostrado la ruptura de Abertzaleen Batasuna con ustedes en el proceso Batasuna, es precisamente debido al alejamiento de la violencia, al alejamiento.

Y no me diga, como estos días nos ha repetido, que "no nos pidan a nosotros el alejamiento de la violencia, porque se alinean con las tesis de Garzón". De eso nada, monada. La misma tesis, la misma tesis que los compañeros de Aralar, Abertzaleen Batasuna, Zutik, Batzarre y las deserciones que está habiendo por ese mis-

sunaren izenean eskertu egin nahi diot eta aitortu egin nahi diot Ezker Batuak prozesu horretan guztian izan duen jokabide ausarta.

Baina, agerikoa denez, ez Ezker Batuak eta ez guk ez dugu gehiengoa osatzen herri honetan, eta nik uste dut alderdi progresista baten erantzukizunaz jabetuz beste batzuekin, edozeinekin, negoziatzen hasten garenean gure ikuspegiak azaltzen ahalegindu behar dugula eta ez dugula pentsatu behar ehuneko 100 lortuko dugula. Eta, horrenbestez, borondate horrekin joango gara zuekin hitz egitera.

Baina, jakina, errealitateak ere bere mugak ditu. Zuek oraintsu aurkeztu duzue, Madrilgo Autonomia Erkidegoan Ezker Batuak duen legebiltzar-talde federalak, eta irakurri egingo dut: "3. artikulua. Bizitza duina bermatuko duen gutxieneko errentaren ezarpena lanbidearteko gutxieneko soldataren ehuneko 75ekoa izango da". Horrenbestez, nik uste dut lan egin behar dugula, eta, lehendakariak esan duen bezala, zuek badakizue oinarrizko errentari buruzko gaietan, eta Lan Sailean dagoeneko abian dauden hitzarmenen bidez, une honetan prestakuntza eta enplegu programak daudela estaldura horiek familia unitatea osatzen duten kideen arabera zabaltzeko. Horrenbestez, munduko lan guztia eta munduko etorkizun guztia alor horretan aurrera egiten jarraitzeko. Eta berriro ere nire talde politikoak zuekin hitz egiteari buruz duen jarrera zein den azpimarratu nahi nuen.

EHri dagokionez, bukaeratik hasiko naiz, ez dakit Otegi jauna hemen den... Ederki, uste dut hanka-sartze itzela egiten duzula autodeterminazioaz hitz egitean. Guk, hain zuzen ere, esaten dugu autodeterminazio-eskubidearen subjektua, eta idatziz era guztietara esan izan dugu, Euskal Herria osoa dela. Baina gauzatzean, eskubide hori gauzatzea abian jartzean, Irlandan egin den bezala, kasu hartan iparraldeko sei konderrien borondatea eta hegoaldearen borondatea errespetatuz.

Eta, horrenbestez, guk uste dugu, eredu horrekin leialak izaten bagara, eskubide hori gauzatzea planteatzerakoan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparraldea errespetatzetik abiatu behar dugula. Horixe da kontua, horixe da kontua. Sentitzen dut zu oso adi egon ez izana, Otegi jauna, baina nik uste dut puntu garrantzitsua dela.

Galdetu duzu... lehen Iparraldean izandako emaitzak aipatu dituzu. Jakina! Iparraldean gora egin du, hain zuzen ere, zuek jarraitzen duzuen estrategiaren aurkakoa jarraitzen delako. Abertzaleen Batasunak botoak irabazi ditu, Abertzaleen Batasunak Batasuna prozesuan zuekiko loturak hausteak egiaztatu duen bezala, hain zuzen ere, indarkeriatik aldendu delako, aldendu egin delako.

Eta ez iezadazu esan, egun hauetan behin eta berriro esan diguzun bezala, "ez iezaguzue eska indarkeriatik aldentzeko, jarrera horrekin Garzónen tesien parean kokatzen baitzarete". Inola ere ez, eder hori. Aralarko, Abertzaleen Batasunako, Zutikeko, Batzarreko kideen eta gai honengatik izaten ari diren ihesteen tesi bera. Gai

mo tema. Por ese mismo tema. Por lo tanto, a mí no me confunda con Garzón, porque evidentemente no soy Garzón.

Y, desde luego, con todo el respeto. Yo, desde luego, tengo mayor respeto por todos, pero, claro, es que cada vez que vienen aquí nos hace el ejercicio democrático: "ariketa demokratikoa". Ariketa demokratikoa egin dezagun, baina egin dezagun oso osorik. Eta guk ez daukagu inolako gibel-asmorik, inolako prejuiziorik, ejerzizio, ariketa hori egiteko. Baina, lehen esan dudan bezala, giza eskubideak aipatzen direnean denak (eta, okerrak zuzenduz, bizitzari buruzko eskubidea jasota dago hirugarren artikuluan).

Y, desde luego, como Eusko Alkartasuna, usted se empeña en identificarnos con el autonomismo por el que todo pasa por esta Cámara, curiosamente, mientras los compañeros, a efectos de Cámara, del Partido Popular, etcétera, nos tratan de independentistas, que ya es el colmo. ¡Esto es la cuadratura del círculo! Porque, claro, esto es el resultado de las elecciones. Se han colocado en los extremos, y los extremos se tocan, claro. *(Murmullos.)*

Entonces, mire usted, somos abertzales, se lo he dicho antes y se lo vuelvo a repetir: a-b-e-r-t-z-a-l-e, abertzale. Esto es un partido abertzale no autonomista, y no confundamos. Evidentemente, la estrategia pasa por esta casa. No sólo por esta casa, por eso estamos planteando lo que estamos planteando, no sólo por esta casa.

Claro, ha dicho usted también: "El pacto sobre construcción nacional, si se da en las claves…" Claro, las que digo yo; si no, no. Pues, mire, no, porque lo que ha demostrado es que allí, claro, usted va por la quincuagésima propuesta de construcción nacional. Ya no sé cuántas llevamos. Cada vez que habla, nos hace una. Y, claro, cada vez que hacen una ya no es que sea más de lo mismo, es que son menos de lo mismo. Cada vez que hace una se le van cayendo, primero Abertzaleen Batasuna, que dice que esto es una OPA que no se puede aguantar, después los de Aralar… Bueno, yo creo que no es ése el camino. Yo creo que el camino será encontrarnos, no plantear la propuesta única, que es lo que usted está haciendo, perdone que se lo diga con toda franqueza.

Yo me voy a referir también al tono que ha empleado el Partido Socialista, y agradezco, en la parte que nos toca como partido que apoya a este Gobierno, el tono que ha mantenido. Pero, claro, así como al señor Mayor Oreja había que decirle que es de piñón fijo, de piñón de Interior… Desde luego al Tour, amigo Joseba, este señor no llega ni a la segunda; con el piñón fijo no llega, ¿eh? A la Vuelta a España no sé, pero al Tour desde luego no.

Y en el caso del señor Redondo lo que sí me preocupa es que sigue insistiendo en algunas cosas, ¿no? Tiene usted toda la libertad, claro, pero no sé… Así como ahí es el piñón fijo, ahí es el "mantenella y no enmendalla", siquiera sea por aquello de la reivindicación del centenario del Quijote de su jefe de filas. Fíjate que hay citas en el Quijote. Pues nos hemos ido a "mantenella y no enmendalla". Pues no.

honengatik. Horrenbestez, ez nazazu Garzónekin nahastu, argi baitago ez naizela Garzón.

Eta, zalantzarik gabe, begirune osoz. Nik begirune osoa diot jende guztiari, baina, jakina, hona etortzen zareten guztietan ariketa demokratikoa egiten diguzu: "ariketa demokratikoa". Hagamos el ejercicio democrático, pero hagámoslo entero, hagámoslo entero. Y nosotros no tenemos ninguna intención oculta, ningún prejuicio para realizar este ejercicio democrático. Pero, como he dicho antes, cuando se hable de derechos humanos hay que hablar de todos (y, corrigiendo errores, el derecho a la vida está recogido en el artículo tercero).

Eta, zalantzarik gabe, Eusko Alkartasuna autonomismoarekin identifikatu nahi duzu, dena Ganbara honetatik pasatzen dela eta, eta, bitxia bada ere, bien bitartean, Ganbarari begira, Alderdi Popularreko kideek eta beste batzuek independentistatzat hartzen gaituzte, eta hori gehiegizkoa da. Hau zirkuluaren kuadratura da! Hau, jakina, hauteskundeen emaitza baita. Muturretan kokatu zarete, eta muturrek elkar ukitzen dute, jakina. *(Marmarrak.)*

Begira, gu abertzaleak gara, lehen esan dizut eta berriro esango dizut: a-b-e-r-t-z-a-l-e, abertzale. Gurea alderdi abertzalea da, ez autonomista, eta ez ditzagun nahastu. Argi dago estrategia etxe honetan dagoela. Ez etxe honetan bakarrik, horregatik ari gara planteatzen ari garena planteatzen, ez etxe honetan bakarrik.

Jakina, honako hau ere esan duzu: "Nazio eraikuntzari buruzko hitzarmena, oinarri jakin batzuetan..." Jakina, nik esaten ditudanak; bestela, ez. Bada, begira, ez, egiaztatu baita han zu nazio eraikuntzaren berrogeita hamargarren proposamenean zabiltzala. Nik jadanik ez dakit zenbat daramatzagun. Hitz egiten duzun bakoitzean, bat egiten diguzu. Eta, jakina, bat egiten duzun bakoitzean ez da behin eta berriro gauza bera izaten, baizik eta gero eta gutxiago. Proposamen bat egiten duzun bakoitzean erori egiten zaizkizue, lehenengo Abertzaleen Batasuna, esaten baitu hau OPA bat dela eta ezin dela jasan, gero Aralarkoak... Beno, nik uste dut bidea ez dela hori. Nik uste dut bidea elkarrekin topo egitea dela, ez proposamen bakarra planteatzea, horixe ari baitzara egiten, barka iezadazu hain argi esatea.

Alderdi Sozialistak erabili duen tonua ere aipatu nahi dut, eta eskertzen dizut, Gobernu hau babesten duen alderdia garen neurrian egokitzen zaigun zatiari dagokionez, eskertzen dizut erabili duzun tonua. Baina, Mayor Oreja jaunari bezala esan beharko litzaizuke pinoi finkokoa zarela, barne pinoikoa... Tourrera, Joseba adiskidea, gizon hau ez litzateke bigarrenean ere iritsiko; pinoi finkoan ez da iritsiko, e? Espainiako Bueltara ez dakit, baina Tourrera, zalantzarik gabe, ez.

Eta Redondo jaunaren kasuan kezkatu egiten nau hainbat gaitan lehengoan jarraitzeak, ezta? Askatasun osoa duzu, jakina, baina ez dakit... Hor pinoi finkoa den bezala, beste honetan "mantenella y no enmendalla" da, besterik ez bada ere zuen talde-buruak Quijoteren mendeurrena eskatzeagatik. Eta ohartu zaitez zenbait zita dauden Quijoten. Bada, "mantenella y no enmendalla" zitara jo dugu. Bada, ez.

Críticas sobre la Ertzaintza, que no… Como si aquí no hubiera pasado nada. Por ejemplo, podían haber dicho algo cuando el comisario este, el amigo Gil Robles, viene por aquí, dice lo que dice, y ustedes callan. No solo callan: otorgan y van a defender esas tesis a través de ciertos compañeros en el Parlamento Europeo. Por cierto, hablando del Parlamento Europeo, después le diremos algunas cosas al señor Oreja.

Ha hablado usted de los colectivos de víctimas, por los cuales yo siempre he tenido un respeto. Es posible que en algún momento, como todos, hayamos tenido algún exabrupto, no sé. Yo, desde luego, no, no creo haberlo tenido, salvo en la entrega del Premio Sajarov, que califiqué como un sarcasmo, y si quiere se lo explicaré, pero no vamos a tener tiempo ahora.

Pero yo sí estoy convencido del papel de todos ahí, yo estoy convencido. No va a encontrar jamás una palabra de descalificación ni siquiera al Foro de Ermua, que no la he tenido cuando a mí me han llamado inductor intelectual del crimen. Inductor intelectual del crimen. Eso es así, pero, bueno, como el país ha estado como ha estado… Vamos a ver si lo encarrilamos por la senda del diálogo, y en eso, desde luego, le digo con toda franqueza, quisiéramos contar con ustedes también.

Dice: “Estatuto, no a las aventuras… El problema no es solamente… Bueno, es que ustedes pretenden más…” Bueno, oiga usted, pero ¿dónde han estado ustedes haciéndonos el Estatuto a la baja continuamente? Como ha dicho bien el representante del Partido Nacionalista Vasco, es que ustedes han estado con años y años de responsabilidades. Ustedes no han respetado, y ni siquiera parece que quieren hablar de la modificación.

Ustedes hablan, por ejemplo, de Udalbiltza. Pues, mire usted, yo creo que debería preguntarle a ver si eso de suprimir Udalbiltza entra también en la oferta de pluralismo, porque yo, desde luego, estoy a favor de esa y otras instituciones de libre adhesión. La asociación es libre, y además ya les hemos dicho a los que les teníamos que decir que determinados postulados son incompatibles con que otros caballeros no respeten los derechos fundamentales de los electos de este país. Pero, desde luego, no piense usted que yo voy a tomar, como secretario general de mi partido, la decisión de salirme de ahí.

Udalbiltza, según mi criterio y con la dirección que tiene, es un instrumento válido para trabajar, como otros muchos, como otros muchos instrumentos, y tiene usted en todo los países del mundo, en todos los países del mundo… Los neerlandeses y los belgas tienen la Taalunie, y nadie plantea allí que quieran anexionar nada.

Dice usted: “Euskadi no va tan bien, tasas de paro, tal…” Bien, ha hecho ya el color… ¡Si ustedes han estado con nosotros en el Gobierno! ¡Han estado! Cuando dimos…, sí, sí, bueno, me señala a los que han estado. Bueno, vamos a ver, pero en campaña electoral, cuando hablábamos de los resultados de estos veinte años, recuerde usted que les incluíamos a ustedes cuando

Ertzaintzari buruzko kritikak, eta ez... Hemen ezer gertatu izan ez balitz bezala. Esate baterako, zerbait esan zenezaketen beste komisario hau, Gil Robles adiskidea, hona etorri eta esaten duena esaten duenean, eta zuek isildu egiten zarete. Eta isiltzeaz gainera erregu egiten duzue eta tesi horiek zuen alderdikideen bidez aldezten dituzue Europako Parlamentuan. Eta, Europako Parlamentuaz mintzo garenez, gero esango dizkiogu hainbat gauza Oreja jaunari.

Biktimen kolektiboez hitz egin duzu, eta nik begirune handia izan diet beti. Litekeena da une batean, jende guztiak bezala, purrustadaren bat botatzea, ez dakit. Nik, behintzat, ez dut uste batere bota dudanik, Sajarov Saria ematean izan ezik, sarkasmotzat jo bainuen, eta nahi baduzu azalduko dizut, baina orain ez dugu astirik izango.

Baina ni ziur nago hor denok jokatzen dugun zereginaz, ziur nago. Inoiz ez duzu gaitzespen hitz bakar bat ere aurkituko, ezta Ermuako Foroari zuzenduta ere, ez baitiot inolako gaitzespenik egin, nahiz eta niri krimenaren eragile intelektuala deitu didaten. Krimenaren eragile intelektuala. Hori hala da, baina, beno, herria egon den bezala egon denez... Ikus dezagun ea elkarrizketaren bidetik bideratzen dugun, eta hor, zalantzarik gabe, zintzotasun osoz diotsut, zuekin ere izan nahi genuke.

Honako hau esan duzu: “Estatutua, ez abenturak... Arazoa ez da bakarrik... Beno, gertatzen da zuek gehiago nahi duzuela...” Beno, baina non egon zarete zuek Estatutua etengabe beherantz bete nahian? Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak esan duen bezala, zuek urte askoan izan dituzue erantzukizunak. Zuek ez duzue errespetatu, eta badirudi ez duzuela aldaketaz ere hitz egin nahi.

Zuek, esate baterako, Udalbiltzaz hitz egiten duzue. Bada, begira, nik uste dut galdetu beharko nizukeela ea Udalbiltza kentze hori ere aniztasunaren eskaintzan sartzen den, ni behintzat atxikipen libreko erakunde horren eta beste batzuen alde bainago. Elkartzea librea da, eta, horretaz gainera, esan beharrekooi esan dizuegu hainbat postulatu ez direla bateragarriak beste jaun-andre batzuek herri honetako hautetsien oinarrizko eskubideak ez errespetatzearekin. Baina, zalantzarik gabe, ez ezazu pentsa nik, nire alderdiko idazkari nagusi gisa, hortik ateratzeko erabakia hartu behar dudanik.

Udalbiltza, nire iritziz eta orain duen zuzendaritzarekin, balioko tresna da lan egiteko, beste asko bezala, beste tresna asko bezala, eta zuk munduko herrialde guztietan dituzu, munduko herrialde guztietan dituzu... Nederlandarrek eta belgikarrek Taalunie deitzen dutena dute, eta han inork ez du planteatzen ezer anexionatu nahi dutenik.

Honako hau esan duzu: “Euskadi ez dabil hain ongi, langabezi tasak, halakoa...” Ederki, jadanik egin duzu... Zuek gurekin egon zarete, baina, Gobernuan! Egon zarete! Guk..., bai, bai, beno, egon direnak seinalatzen dizkidazu. Beno, ikus dezagun, baina hauteskunde-kanpainan, hogei urte hauetako emaitzez hitz egiten genuenean, gogora ezazu zuek ere sartzen zintuztegula

hablábamos, decíamos "con otras fuerzas políticas", lo dijimos todas las veces, y, claro, mientras ustedes se desdecían de todo en todo lo demás (la política de educación es un desastre, la cultura no sé qué, no sé cuántos), resulta que cuando salimos un poco triunfalistas con los datos económicos salen: "Oiga, ¡que nosotros también estábamos!" Estaban ahí, en Educación, en Cultura, en Turismo, en Comercio… ¿o hay que recordarlo? ¡Claro!

Lo que pasa es que lo que no se puede hacer es como hicieron ustedes: a los dos días de irse del Gobierno, y no voy a decir por qué se fueron, a los dos días se reúne el Consejo Asesor del Euskera y dicen que todo lo del euskera es un desastre. Todo lo del euskera, un desastre. Dos días antes, en el Gobierno; dos días después, todo un desastre. ¡No puede ser! *(Murmullos.)*

Por eso yo quiero decir… Las hemerotecas, señora Celaá, las hemerotecas están… La siguiente semana, yo acababa de entrar en Lakua. La siguiente semana nos encontramos con eso en la prensa. Por lo tanto, vamos a ver si somos un poco más responsables de lo que hacemos en conjunto también. *(Murmullos.)*

El Sr. **PRESIDENTE**: Señora Celaá, guarde silencio, por favor.

El Sr. **KNÖRR BORRÀS**: Pero, en fin, parece que la campaña electoral tiene ese efecto de memoria selectiva absolutamente sorprendente, ¿no?

Y en todo caso le vuelvo a decir que va a encontrar en nuestro partido toda la disposición para entablar ese diálogo constructivo del que hemos hablado aquí a primera hora de la tarde. Pero también tengo que decir que si siguen empeñados, como en la primera parte de la intervención, en volver a decir que mezclamos paz con autodeterminación y zarandajas por el estilo, vuelva a leerse, por favor, lo que le ha dicho el Lehendakari, vuelva a leerlo. Igual es que también, como el señor Otegi necesita leer tres veces, que yo lo leí una, lo que dijo el señor Iturgaiz en *Argia* (Euskal Herria y las siete provincias), igual es que necesita más. Vuelva a leerlo, que no es así. *(Murmullos.)*

Vamos a terminar con el señor Mayor Oreja. El señor Mayor Oreja tiene, desde luego, una virtud, y es que es el previsible. Es previsible, es previsible, y desde luego ha dicho unas cuantas cosas que no quisiera dejar de subrayar.

Ha tenido algunos *lapsus*, cuando dice por ejemplo: "ETA es miedo y ruptura en sus planteamientos políticos". ¿No habíamos quedado en que no tenía planteamientos políticos? "No es la misma la lucha antiterrorista ahora que en el 77, 78, 79". ¡Pero si estaba usted, si estaba usted! Lo que pasa es que usted, claro, ahora resulta que, como nos ha resultado el adalid del Concierto, ayer se nos va a Madrid con Montoro… Por cierto, lamento que siga sin estar el señor Rabanera, para decirle: "¡Aprovecharía usted para decirle algo de las vacaciones fiscales!"

Bueno, no sé, porque, desde luego, si tiene que hablar usted de Concierto, con los conocimientos que

"beste indar politiko batzuekin" esaten genuenean, beti esan genuen, eta, jakina, zuek gainerako guztian hitza jaten zenuten bitartean (hezkuntza-politika hondamendia da, kultura ez dakit zer, bestea ere bai), ekonomi datuekin triunfalista samar atera ginenean zuek honako hau esan zenuten: "Aizu, gu ere han geunden!" Han zeundeten, Hezkuntzan, Kulturan, Turismoan, Merkataritzan... ala gogoratu egin behar da? Jakina!

Gertatzen da, bada, gauzak ezin direla zuek egin zenituzten bezala egin: Jaurlaritzatik joan eta bi egunetara, eta ez dut esango zergatik joan zineten, bi egunetara Euskararen Aholku Batzordea elkartu zen eta esan zuen euskarari buruzko guztia txarto zegoela. Euskarari buruzko guztia, txarto. Bi egun lehenago, Jaurlaritzan; bi egun geroago, dena txarto. Ezin liteke! *(Marmarrak.)*

Horregatik, nik esan nahi dut... Hemerotekak, Celaá andrea, hemerotekak... Hurrengo astean, ni Lakuan sartu berria nintzen... Hurrengo astean horixe aurkitu genuen prentsan. Horrenbestez, ea arduratsuagoak garen beste batzuekin batera egiten ditugun gauzetan ere. *(Marmarrak.)*

**LEHENDAKARI** jaunak: Celaá andrea, isilik egon zaitez, arren.

**KNÖRR BORRÀS** jaunak: Baina, beno, badirudi hauteskunde-kanpainak oroimen selektibo harrigarri hori duela, ezta?

Eta, nolanahi ere, berriro esango dizut gure alderdian prest aurkituko gaituzula hemen arratsaldeko lehenengo orduan aipatu dugun elkarrizketa konstruktiboari heltzeko. Baina, horretaz gainera, esan behar dut, saioaren lehenengo zatian bezala, temati bakea eta autodeterminazioa eta antzeko purtzileriak nahasten jarraitzen baduzue, mesedez lehendakariak esan duena berriro irakurtzeko, berriro irakur ezazu. Beharbada Otegi jaunak bezala hiru aldiz irakurri beharko duzu, eta nik behin irakurri nuen Iturgaiz jaunak *Argian* esan zuena (Euskal Herria eta zazpi probintziak), beharbada zuk behin baino gehiagotan irakurri beharko duzu. Irakur ezazu berriro, ez baita horrela. *(Marmarrak.)*

Mayor Oreja jaunarekin amaituko dugu. Mayor Oreja jaunak, zalantzarik gabe, bertute bat du, hau da, aurreikusi egin daiteke. Aurreikusi egin daiteke, aurreikusi egin daiteke, eta, zalantzarik gabe, ez nituzke azpimarratu gabe utzi nahi esan dituen hainbat gauza.

*Lapsus* batzuk izan dituzu, esate baterako honako hau esatean: "ETA beldurra eta etendura da bere planteamendu politikoetan". Ez al dugu esan ez duela planteamendu politikorik? "Gaur egun terrorismoaren aurkako borroka ez da 77, 78, 79koa". Zeu zeunden baina, zeu zeunden baina! Gertatzen da zu, bada, Kontzertuaren buruzagia izan zarenez, atzo Madrila joan zinela Montororekin... Eta, bide batez, sentitzen dut Rabanera jauna oraindik hemen ez izatea honako hau esateko: "Zergaoporrei buruz zerbait esateko aprobetxatuko zenuke!"

Beno, ez dakit, zuk Kontzertuaz hitz egin behar baduzu hauteskunde-kanpainan egiaztatu zenituen eza-

demostró en la campaña electoral, yo, desde luego, me echaría a temblar. Cuando dijo que teníamos que devolver a no sé qué Comunidades, entre otras cosas desconociendo el propio Estatuto de La Rioja, y… *(Risas.)*

¡Bueno, Ramón! *(Risas.)*

No, no, ninguna obsesión. Estaba aprovechando la presencia de Ramón, de Ramón Rabanera Rivacoba (fíjate, lo he hecho bien lo de la triple erre, ¿no?), pero podía aprovechar para decirle que cómo es posible, le repito, le repito, que se declaren ilegales nuestras ayudas y no las francesas, que son las mismas, que las copió la Diputación Foral de Álava. Y yo me he ido a Monti con ese tema y no hay forma. Y no hay forma porque su Ministro, que es el que nos representa a nosotros de una manera que no nos dejan hacer nada, no ha sido capaz de explicar que esto no son ayudas de Estado, y fíjese que es fácil.

Pero, claro, ya comprendo que para usted el tema del Concierto, pues, hombre, no ha sido su fuerte. De hecho, usted formó parte de la ponencia del Concierto, se ausentó el año 78, y no participó en la votación junto con sus compañeros de partido. Usted se ausentó, no votó el Concierto, con el señor Echevarría Gangoiti y con el señor Ybarra. No votó, se ausentó. No tenía ningún interés para usted. Eso fue así.

Desde luego, señor Mayor, desde luego hay una cosa… *(Murmullos.)*

El Sr. **PRESIDENTE**: Silencio, por favor, señorías.

El Sr. **KNÖRR BORRÀS**: Todos los pelos de la barba que tiene serán suyos, pero, desde luego, por favor, no se vista con plumas ajenas.

Ha hablado usted del Informe Watson, por ejemplo, que se ha votado esta mañana. En ese trabajo ha hecho su aportación mucha gente, mucha gente, y casualmente han sido el señor Galeote y la señora Rosa Díez quienes han votado en contra en la Comisión en los temas de diálogo político. Precisamente. Mire cómo son las cosas: precisamente el señor Galeote y la señora Díez. Fíjese cómo son las cosas.

Voy terminando para decirle…

El Sr. **PRESIDENTE**: Denbora agortua dozu, Knörr jauna, bukatzera joan zaitez.

El Sr. **KNÖRR BORRÀS**: Señor Mayor, dice usted, se puede desarticular la organización terrorista desde el Estado de Derecho. Bueno, aquí hay que contarle como el chiste de Franco, ¿no?, cuando fue en el año del jubileo y le recibió Quiroga Palacios, y el señor Quiroga Palacios, el arzobispo, le enseñó: “Vea, vamos a hacer aquí un aeropuerto para recibir un millón de peregrinos y tal”. Y, claro, Franco le debió de decir: “¿Y si no vienen?” Y el otro, que también era gallego, le dijo: “¿Y si vienen?” Pues lo mismo le digo: ¿se puede desarticular?, y, si no, ¿qué hacemos? Porque, si lo fía usted a

gutzekin, ni, zalantzarik gabe, dardarka hasiko naiz. Nik ez dakit zein erkidegori itzuli beharko geniola esan zenuenean, beste hainbat gauzaren artean jakin gabe Errioxako Estatutuak berak, eta... *(Barreak.)*

Beno, Ramón! *(Barreak.)*

Ez, ez, ez da itsukeria. Ramón jauna, Ramón Rabanera Rivacoba jauna (ohartu zaitez, ongi esan ditut hiru erreak, ezta?) hemen izateaz baliatzen ari nintzen, baina aukeraz balia nintekeen esateko, berriro esango dizut, berriro esango dizut, gure laguntzak zergatik jotzen diren legearen aurkakotzat eta ez diren legearen aurkakotzat jotzen frantziarrak, berberak baitira, Arabako Foru Aldundiak kopiatu egin baitzituen. Eta ni Montira joan naiz arazo horrekin eta ez dago modurik. Eta ez dago modurik zure ministroa, guri ezer egiten ez uzteko moduan ordezkatzen gaituena, ez delako gai izan azaltzeko hauek ez direla Estatuaren laguntzak, eta ohartu zaitez zein erraza den.

Baina, jakina, ulertzen dut Kontzertuaren kontuan zu aditua ez izatea. Berez, Kontzertuaren ponentziako partaide izan zinen, 78an irten egin zinen eta ez zenuen parte hartu botazioan zure alderdikideekin batera. Irten egin zinen, Kontzertua ez zenuen bozkatu Echevarría Gangoiti jaunarekin eta Ybarra jaunarekin batera. Ez zenuen bozkatu, irten egin zinen. Ez zuen inolako interesik zuretzat. Halaxe izan zen.

Begira, Mayor Oreja jauna, bada... *(Marmarrak.)*

**LEHENDAKARI** jaunak: Isilik egon zaitezte, arren, legebiltzarkideok.

**KNÖRR BORRÀS** jaunak: Bizarrean dituzun ile guztiak zureak izango dira, baina, mesedez, ez itzazu inoren lumak jantzi.

Watson Txostenaz hitz egin duzu, esate baterako, gaur goizean bozkatu dena. Lan horretan jende askok egin du bere ekarpena, jende askok, eta bitxia bada ere Galeote jaunak eta Rosa Díez andreak eman dute aurkako botoa Batzordean elkarrizketa politikoaren gaietan. Hain zuzen ere. Ohartu zaitez gauzak nola diren: Galeote jaunak eta Díez andreak. Ohartu zaitez gauzak nola diren.

Amaitzeko esango dizut...

**LEHENDAKARI** jaunak: Ya ha agotado su tiempo, señor Knör, vaya terminando.

**KNÖRR BORRÀS** jaunak: Mayor jauna, esan duzu talde terrorista desegin daitekeela Zuzenbide Estatutik. Beno, hemen Francori buruzko txistea kontatu behar da, ezta? Jubileuaren urtean joan eta Quiroga Palaciosek hartu zuenean, eta Quiroga Palaciosek, artzapezpikuak, hauxe esan zion: “Ikus ezazu, hemen aireportu bat egin behar dugu milioi bat erromes hartzeko”. Eta, jakina, Francok badirudi honako hau esan ziola: “Eta etortzen ez badira?” Eta besteak, bera ere galegoa zenez, honako hau erantzun zion: “Eta etortzen badira?” Bada, nik gauza bera esaten dizut: desegin daiteke?, eta, beste-

eso, ¿qué hacemos, no?

Por lo tanto, señor Mayor Oreja, yo comparto absolutamente lo que ha dicho el Lehendakari. Usted ha venido aquí como Ministro de Interior pero con una diferencia: esto no es la Academia de la Historia. Ha tenido usted todos los altavoces de los que hablaba el compañero Leguina, ha tenido todo hasta ahora. Ahora está usted aquí, y aquí se tiene que retratar, como ha dicho el Lehendakari esta mañana, en las comisiones y en todos los plenos y allí donde vamos a hablar todos. Esto no es la Academia de la Historia para seguir echando basura sobre el nacionalismo vasco.

Muchas gracias, señor Presidente.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, bai, zeuri, Knörr jauna.

Euskal Sozialistak Taldeko ordezkaria Redondo jaunak dau berba.

El Sr. **REDONDO TERREROS**: Presidente, señoras y señores parlamentarios, señor Ibarretxe.

Voy a intentar mantener el tono de la intervención que he hecho a primera hora de la tarde, porque creo que era el tono adecuado para un debate de investidura. Luego ha aparecido por aquí el portavoz de su partido y creo que ha trastocado la voluntad, desde luego, de mi grupo, de intentar entenderles, de hablar, como dicen ustedes, y de dialogar.

La verdad es que no sé con quién quedarme. ¿Me quedo con lo que usted ha dicho esta mañana, o me quedo con la retahíla de lugares comunes, aburridos y tópicos, que además no proponen ninguna ilusión ni nada, del señor Egibar? Yo preferiría quedarme con lo de la mañana, pero ¡lo dice tan contundentemente el señor Egibar! “Tienen que aceptar lo que la sociedad libremente decida”. También lo ha dicho usted, también, pero, fíjese, le quiero salvar. Bueno, es tan aburrido esto, ¿verdad? *(Murmullos.)*

Pero usted, usted, señor Egibar, ¿nos va a decir a nosotros si aceptamos o no aceptamos la voluntad de la sociedad vasca? ¡Sí, hombre! ¡Como siempre! Y nos ha costado muchos sacrificios, antes y ahora. Y aceptamos cuando ganamos y cuando perdemos. Y le digo: la libertad para expresarse la sociedad vasca tiene que estar relacionada con el principio de legalidad, con las reglas del juego, con la Constitución, ésa que dice usted que sólo aprobó el 38 por ciento. Suficiente. El 38 por ciento, suficiente. Hubo un sí.

Luego el señor Otegi dice: “Bueno, hay mucha gente que nació después y no la ha votado”. Claro, y la de Estados Unidos ninguno, ninguno, y no se han planteado las modificaciones, ¿verdad? *(Risas.)*

Pero, bueno, ¿le queda a usted claro, señor Egibar, de una vez por todas? A nosotros no nos venga a dar lecciones. Estamos dispuestos a aceptar lo que la sociedad vasca decida libremente. Y ahora me tiene que decir

la, zer egingo dugu? Zu horrekin fio bazara, zer egingo dugu, ezta?

Horrenbestez, Mayor Oreja jauna, ni guztiz bat nator lehendakariak esan duenarekin. Zu hona Barne ministro gisa etorri zara, baina desberdintasun batekin: hau ez da Historiaren Akademia. Leguinak aipatutako bozgorailu guztiak izan dituzu, dena izan duzu orain arte. Orain hemen zaude, eta hemen, gaur goizean lehendakariak esan duen bezala, batzordeetan eta osoko bilkura guztietan eta denok hitz egin behar dugun tokietan erretratu beharko duzu zeure burua. Hau ez da Historiaren Akademia euskal abertzaletasunaren gainean zaborra botatzen jarraitzeko.

Eskerrik asko, lehendakari jauna.

**LEHENDAKARI** jaunak: Gracias a usted, señor Knörr.

En representación del Grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra el señor Redondo.

**REDONDO TERREROS** jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, Ibarretxe jauna.

Arratsaldeko lehenengo orduko saioan izan dudan tonuari eusten ahaleginduko naiz, uste baitut tonu egokia dela inbestidura-eztabaidarako. Gero zure alderdiko bozeramailea atera da eta uste dut lardastu egin duela, zalantzarik gabe, nire taldeak zuek ulertzeko, zuekin hitz egiteko, zuek diozuen bezala, eta zuekin elkarrizketatzeko zuen borondatea.

Egia esateko ez dakit zerekin geratu. Zuk gaur goizean esan duzunarekin geratuko naiz, ala Egibar jaunaren betiko lelo eta topiko aspergarrien parrastadarekin geratuko naiz, ez ilusiorik, ez beste ezer proposatzen ez dutenak? Nik nahiago nuke gaur goizekoarekin geratu, baina Egibar jaunak hain irmo esaten du! “Onartu egin behar duzue gizarteak libreki erabakitzen duena”. Zuk ere esan duzu, baina, ohartu zaitez, salbatu egin nahi zaitut. Hau guztia hain da aspergarria, ezta? *(Marmarrak.)*

Baina zuk, Egibar jauna, zuk esan behar al diguzu guri euskal gizartearen borondatea onartzen dugun ala ez? Bai, gizona! Beti bezala! Eta sakrifizio ugari kostatu zaigu, lehen eta orain. Eta irabazten dugunean eta galtzen dugunean onartzen dugu. Eta zera esango dizut: euskal gizartearen adierazpen askatasunak legezkotasun printzipioarekin, jokorako arauekin, Konstituzioarekin, ehuneko 38k bakarrik onetsi zuela esan duzunarekin, lotuta egon behar du. Eta nahikoa da. Ehuneko 38, nahikoa. Baiezkoa eman zitzaion.

Gero honako hau esan du Otegi jaunak: “Beno, jende asko dago gero jaio zena eta botorik eman ez duena”. Jakina, eta Estatu Batuetan inor ere ez, inor ere ez, eta ez dute planteatu aldaketarik, ezta? *(Barreak.)*

Baina, beno, argi geratu al zaizu, Egibar jauna, behin betiko? Ez zatzaizkigu guri lezioak ematera etor. Prest gaude euskal gizarteak libreki erabakitzen duena onartzeko. Eta orain honako hau esan behar didazu: zuk

usted a mí: ¿usted acepta el principio de legalidad? ¿Usted acepta la Constitución que se aprobó aquí? ¿Usted acepta el Estatuto de Autonomía? ¿Usted va a ser coherente con eso? Punto y final.

Si me dice que sí, puede haber zonas de consenso. Si me dice que no, si me anda con subterfugios, con literaturas, con "uno dice una cosa y otro la contraria", no habrá acuerdos.

Tiene razón, señor Otegi, vengo a defender lo que defendía antes y lo que creo que ha defendido siempre mi partido, siempre, mi partido. ¿Ha defendido el diálogo? Sí, claro que sí, sobre esos tres principios que he dicho de los que no ha hablado nadie. ¿Es razonable pedir al que se sienta en la mesa contigo a dialogar y a plantear y planificar el futuro que rechace la violencia como instrumento para conseguir objetivos políticos? ¿Sí, o no? ¿Es razonable pedir al que se sienta contigo en la mesa para planificar el futuro, pedirle que acepte las reglas del juego democrático? ¿Sí, o no? ¿Es razonable pedir al que se siente contigo que haga todo lo posible por erradicar la violencia y el terrorismo de este país? Eso no son limitaciones, son principios.

Por cierto, no hemos hablado nada de la unidad democrática, es verdad, Lehendakari. Usted ha dicho que va a convertir el Parlamento Vasco en el centro, pero ¿no sería bueno que nos pusiéramos de acuerdo desde ese punto de vista moral, ético, creo que también político y democrático, en base a esos tres principios para construir el futuro? Y ahí puede estar quien quiera estar, quien esté dispuesto a aceptar esos principios. No limitaciones, principios.

Bueno, diálogo sí, en esas condiciones de aceptación del principio de legalidad de la Constitución y del Estatuto. Diálogo sí para que nos pongamos de acuerdo en combatir a ETA.

Fíjense, en las réplicas ha pasado absolutamente desapercibido lo que me parece a mí, como representante de la ciudadanía vasca, que es algo fundamental: el gran problema que tienen algunos partidos políticos de esta Cámara en los Ayuntamientos.

El pueblo vasco es sujeto, no es sujeto, la Comunidad Autónoma, los tres territorios…, todo lo que quieran, de todo han hablado. Pero ese problema que demuestra la fortaleza o debilidad del Estado de Derecho, de la democracia, desapercibido.

Vuelvo a decirle, Lehendakari, a mí me parece que eso es una referencia fundamental para todos nosotros, para todos. Usted va a tener una primera responsabilidad, porque mañana será Lehendakari, pero yo estoy dispuesto a ayudarles también en ese sentido. Cuando se va un concejal del PP o del Partido Socialista no es un problema nuestro.

Y ha dicho usted: "Hombre, no puedo decir todo aquí el primer día, el día de la investidura". Hombre, algunas cosas ha podido decir, pero, de todos modos, ¿usted cree que no puede decir nada aquí y en seis meses

onartzen al duzu legezkotasun-printzipioa? Zuk onartzen al duzu hemen onetsi zen Konstituzioa? Onartzen al duzu Autonomia Estatutua? Koherentea izango al zara horrekin? Eta kito.

Baiezkoa esaten badidazu, adostasun-esparruak izan ditzakegu. Ezezkoa esaten badidazu, ihesbideekin, literaturarekin etortzen bazara, "batek gauza bat esaten dut eta besteak aurkakoa" esaten baduzu, ez da akordiorik izango.

Arrazoi duzu, Otegi jauna, lehen aldezten nuena eta nire ustez nire alderdiak beti, beti, nire alderdiak beti aldeztu izan duena aldeztera etorri naiz. Elkarrizketa aldeztu duzula? Bai, jakina, inork aipatu ez dituen hiru printzipio horien inguruan, lehen esan dudan bezala. Arrazoizkoa al da norberarekin hitz egitera eta etorkizuna planifikatzera eta gauzak planteatzera esertzen denari helburu politikoak lortzeko tresna gisa indarkeria bazter dezala eskatzea? Bai ala ez? Arrazoizkoa al da norberarekin esertzen denari herri honetatik indarkeria eta terrorismoa erauzteko ahal duen guztia egin dezala eskatzea? Hori ez da ezer mugatzea, hori printzipioak ezartzea da.

Bide batez, ez dugu batere hitz egin batasun demokratikoaz, egia da, lehendakari jauna. Esan didazu Eusko Legebiltzarra bihurtuko duzula ardatz, baina, ez al litzateke ona izango ikuspegi moral, etiko, eta nire ustez baita politiko eta demokratiko batetik ere, denok ados jartzea hiru printzipio horien inguruan etorkizuna eraikitzeko? Eta hor nahi duena egon daiteke, printzipio horiek onartzeko prest dagoena egon daiteke. Mugarik ez, printzipioak.

Beno, elkarrizketa bai, Konstituzioaren eta Estatutuaren legezkotasun-printzipio hori onartzen den neurrian. Elkarrizketa bai ETAri aurre egiteko ados jar gaitezen.

Ohartu zaitezte, erreplikak oharkabean pasatu da nire ustez, euskal herritarren ordezkari naizenez, funtsezkoa den zerbait: Ganbara honetako alderdi politiko batzuek udaletan duten arazo larria.

Euskal Herria da subjektua, ez da subjektua, Autonomia Erkidegoa, hiru lurraldeak..., nahi duzuen guztia, gauza orori buruz hitz egin duzue. Baina Zuzenbide Estatuaren, demokraziaren indarra edo ahulezia egiaztatzen duen arazoa, oharkabean.

Berriro esango dizut, lehendakari jauna, nire ustez hori oinarrizko erreferentzia dela gu guztiontzat, guztiontzat. Zurea izango da erantzukizun nagusia, bihar lehendakari izango baitzara, baina ni prest nago alde horretatik ere zuei laguntzeko. PPko edo Alderdi Sozialistako zinegotzi batek bere kargua uzten duenean ez da gure arazoa.

Eta zuk honako hau esan duzu: "Beno, hemen ezin dut dena esan lehenengo egunean, inbestiduraren egunean". Beno, gauza batzuk esan ahal izan dituzu, baina, nolanahi ere, zuk uste duzu hemen ezin duzula ezer

o medio año, o un año, nos va a poder decir todo y nos vamos a poner de acuerdo todos?

A mi juicio, señor Lehendakari, usted ha puesto unos plazos para establecer una determinada estrategia en que, si es de buena voluntad para ponernos de acuerdo, llegaremos a acuerdos; si no es de buena voluntad tendremos, a mi juicio, grandes problemas en el futuro próximo.

Las propuestas políticas… No todas las ideas son legítimas, a mi juicio, pero, bueno, en cualquier caso las propuestas políticas, según cómo las hagan ustedes, algunas de ellas, a las que tienen perfecto derecho… Por cierto, yo autodeterminación y paz lo he mezclado; antes el señor Garaikoetxea y antes el señor Arzalluz, clarísimamente en todas las intervenciones. Pero, bueno, las propuestas políticas que ustedes quieren hacer pueden hacerlas. A mi juicio, esas propuestas que introducen ambigüedad e interrogantes en este país lo que hacen, lo que harán, y lo sabe usted bien, señor Lehendakari, es empobrecer al país, es dividir al país y es alejar más al país no sé si del resto de España, del resto de Europa también, de la Unión Europea.

Ésa es la aventura que ustedes proponen si no se hacen las cosas, como estamos diciendo, sonre la base del respeto estricto a lo que los vascos han venido aprobando hasta ahora. Para poder decir y para argumentar que los vascos tienen que decidir libremente se tiene que respetar lo que han venido decidiendo hasta ahora los vascos libremente, si no es sólo por el condicionamiento de la banda terrorista ETA.

Mire, señor Egibar, hemos avanzado bastante, porque usted se acuerda de que en algunos de los debates de la anterior legislatura usted siempre mencionaba nombres, ¿verdad? Ahora no, ahora simplemente nos ha dicho que le han dicho unos, que le han dicho otros… Por lo tanto, bien, dejémoslo como está. A mí también me han dicho algunos de su partido: “Hombre, hemos sacado estos votos… ¡A ver si nos quedamos como estamos y no nos vamos a otras aventuras!” Alguno no poco importante. De todo hay en la viña del Señor.

Ahora, yo le diría a usted, nuestro criterio y nuestra estrategia, la de los socialistas, el PSOE y el Partido Socialista de Euskadi, era firmar el pacto por las libertades, y lo sigue siendo. Lo dijo José Luis Rodríguez Zapatero, va a ser así: mientras exista ETA, quien gobierna hoy (espero que gobierne pronto mi partido) y quien puede gobernar en España tienen que tener un pacto de hierro contra el terrorismo y contra ETA.

Y complementario a eso nuestro partido tenía la propuesta, y lo saben ustedes bien, de la recuperación de la unidad democrática, que son escenarios distintos y complementarios, a nuestro juicio, y cada uno tiene que estar en un lugar determinado.

Dejemos esa retahíla de lugares comunes. Ustedes tienen todo el derecho a decir lo que consideran y nosotros tenemos todo el derecho a defender lo que conside-

ere esan eta sei hilabetetan edo urte erdian, edo urtebetean, dena esan ahal izango diguzula eta denok ados jarri ahal izango garela?

Gure ustez, lehendakari jauna, zuk epe batzuk jarri dituzu estrategia zehatz bat ezartzeko, elkarrekin ados jartzeko borondate ona baldin badago, akordioetara iritsiko gara, borondate onik ez badago, nire ustez, arazo larriak izango ditugu etorkizun hurbilean.

Proposamen politikoak... Ideia guztiak ez dira legitimoak, nire ustez, baina, beno, nolanahi ere proposamen politikoak, zuek nola egiten dituzuen kontu, batzuk, eta eskubide osoa duzue... Nik nahastu egin ditut autodeterminazioa eta bakea; lehenago Garaikoetxea jaunak eta lehenago Arzalluz jaunak, argi eta garbi saio guztietan. Baina, beno, zuek egin nahi dituzuen proposamen politikoak egin ditzakezue. Nire iritziz herri honetan anbiguotasuna eta zalantzak eragiten dituzten proposamen politikoek, eta zuk ongi dakizu, lehendakari jauna, gure herria pobretzen dute eta pobretuko dute, herria zatitzen dute eta zatituko dute eta herria gero eta gehiago aldentzen dute ez dakit Espainiako gainerako tokietatik, baina bai Europatik, Europako Batasunetik.

Horixe da zuek proposatzen duzuen abentura gauzak ez badira, esaten ari garen bezala, euskaldunek orain arte onetsi izan dutena zorrotz errespetatuz egiten. Euskaldunek libreki erabaki behar dutela esan ahal izateko eta argudiatzeko euskaldunek orain arte libreki erabaki izan dutena errespetatu behar da, orain arteko baldintza bakarra ETA talde terrorista izan da.

Begira, Egibar jauna, asko egin dugu aurrera, eta ohartzen zara aurreko legealdiko hainbat eztabaidatan zuk beti izenak aipatzen zenituela, ezta? Orain ez, orain soil-soilik esan diguzu batzuek esan dizutela, besteek esan dizutela... Horrenbestez, utz dezagun bere horretan. Niri ere honako hau esan didate zure alderdikide batzuek: “Beno, boto horiek atera ditugu... Ea gauden bezala geratzen garen eta ez dugun beste abentura batzuetara jotzen!” Aurrean dagoen batek. Denetik dago Jainkoaren mahastian.

Eta nik esango nizuke gure irizpidea eta gure estrategia, sozialistona, PSOErena eta Euskadiko Alderdi Sozialistarena, askatasunen aldeko ituna sinatzea zela, eta oraindik ere hala da. José Luis Rodríguez Zapaterok esan zuen, halaxe izango da: ETA hor dagoen bitartean, Espainian gaur gobernatzen ari denak (espero dut nire alderdiak laster gobernatuko duela) eta gobernatu dezakeenak burdinazko ituna izan behar duela terrorismoaren aurka eta ETAren aurka.

Eta horren osagarri gisa gure alderdiaren proposamena, eta zuek badakizue, batasun demokratikoa berreskuratzea zen, eszenatoki desberdinak eta osagarriak baitira, gure iritziz, eta bakoitzak toki jakin batean egon behar du.

Utz ditzagun topiko guztiak alde batera. Zuek eskubide osoa duzue egokia iruditzen zaizuena esateko eta guk eskubide osoa dugu egokia iruditzen zaiguna al-

ramos. Y creo que nunca, yo por lo menos, cuando he hablado de la Policía Autónoma… Fíjese usted, recordaba, nosotros no hicimos el voto de censura que propuso… Lo apoyamos, ¿verdad?, ¿recuerda usted? Y, sin embargo, hemos tenido que decir muchas cosas sobre la Policía Autónoma, muchas que luego han salido en la prensa por los propios componentes de la Policía Autónoma, pero siempre que lo hemos hecho lo hemos hecho para criticar al Consejero, que además supongo está asumiendo ese papel porque es el Consejero. Y nunca para desprestigiar o debilitar a la Policía Autónoma.

Es más, no me habrá oído nadie durante estos dos años durísimos, nadie, hablar de la seguridad de mis concejales en público. Nadie, porque yo creo que ustedes y el Gobierno de la nación nos dan lo que nos pueden dar, y estaría bueno que terminara pensando que no me iban a dar ustedes lo que me pueden dar o que no me iban a dar los señores del Gobierno del señor Aznar lo que me pueden dar para mis concejales y para los cargos públicos.

Yo nunca he hecho una referencia en términos negativos al esfuerzo, al trabajo que se ha hecho por ejemplo con nuestros concejales. Y lo digo para que, como decía antes en mi intervención, se vea con normalidad que a su futuro Consejero de Interior, o al de Educación, que tendremos oportunidad, seguro, de criticar, cuando les critiquemos, sepan ustedes que estamos criticando al Consejero, no a la institución.

Por cierto, hoy he hablado de la televisión pública vasca, he dicho que hay que hacer un esfuerzo por llegar a acuerdos. Bueno, la emisión de este programa me parece que ha terminado justo a las nueve, sin que se pueda retransmitir la réplica de los demás a usted y al señor Egibar. Bueno, pues de eso es de lo que se tiene que hablar y de lo que queremos hablar para remediar los socialistas vascos con ustedes, siempre desde esos principios que le he comentado a usted, señor Ibarretxe. Y sigo, por encima de lo que ha dicho el señor Egibar, proponiéndoles a ustedes, desde nuestro convencimiento, los acuerdos que he propuesto esta mañana.

Y efectivamente, señor Otegi, nosotros creemos que el Parlamento, este Parlamento, respaldado por el 80 por ciento en las últimas elecciones autonómicas, es el centro político de la vida política de este país, del País Vasco, de la Comunidad Autónoma vasca, de Euskadi, o como ustedes quieran denominarlo. Y que todo lo demás, todo lo demás, perjudica notablemente el entendimiento entre los partidos políticos democráticos. Y que todo lo demás va en contra del principio de legalidad. Y que todo lo demás lo que introduce en la sociedad vasca es confusión. Y que todo lo demás, por ejemplo Udalbiltza, lo que introduce es una especie de argumentario, queramos o no, a personas como usted, que viene aquí, dice lo que tiene que decir, y recuerda alguna de las personas que eran compañeros suyas y desaparecieron o les mataron en una confrontación con la Policía, en este caso con la Policía Autónoma, y no tuvo usted el valor de decir una palabra cuando al portavoz de mi grupo parlamentario, el señor Fernando Buesa, le asesinó ETA.

Y el señor Fernando Buesa, como yo, como esos señores, como esos compañeros míos, y creo que al final

dezteko. Eta uste dut inoiz, nik behintzat, Ertzaintzaz hitz egin dudanean... Ohartu zaitez, guk ez genuen egin zentsura-botoa... Babestu egin genuen, ezta?, gogoratzen duzu? Eta, hala eta guztiz ere, gauza ugari esan behar izan ditugu Ertzaintzaz, gero ertzainek prentsan atera dituzten gauza ugari, baina gauzak esan izan ditugun guztietan sailburua gaitzesteko egin dugu, eta pentsatzen dut paper hori asumitzen ariko dela sailburua delako. Eta inoiz ez dugu ezer esan Ertzaintzari bere izen ona galarazteko edo Ertzaintza ahultzeko.

Are gehiago, bi urte gogor hauetan inork ez zidan entzungo, inork ere ez, gure zinegotzien segurtasunaz jendaurren hitz egiten. Inork ere ez, uste baitut zuek eta nazioko Gobernuak eman diezagukezuena ematen diguzuela, eta gure zinegotzientzat eta kargu publikoentzat eman diezadakezuena ez didazuela ematen edo Aznar jaunaren Gobernuak eman diezadakeena ez didala ematen pentsatzea besterik ez nuen behar.

Nik inoiz ez diot erreferentzia negatiborik egin, esate baterako gure zinegotziekin egin den lanari, ahaleginari. Eta hau diot, lehen nire saioan esan dudan bezala, normaltasun osoz ikus dezazuen izendatuko duzuen Herrizaingo sailburuari, edo Hezkuntza sailburuari kritikak luzatzen dizkiegunean, eta seguru izan izango dugula kritikak luzatzeko aukera... jakin dezazuen, sailburua ari garela kritikatzen, eta ez erakundea.

Eta gaur euskal telebista publikoaz hitz egin dut, esan dut ahalegin bat egin behar dela akordioetara iristeko. Beno, programa honen emanaldia uste dut bederatzietan puntuan amaitu dela, eta ez dela aukerarik izan gainerakook zuri eta Egibar jaunari egindako erreplika eskaintzeko. Beno, bada, gauza horietaz hitz egin behar da eta sozialistok gauza horietaz hitz egin nahi dugu zuekin egoera horiek konpontzeko. Eta, Egibar jaunak esan duenaren gainetik, gure uste sendotik, gaur goizean proposatu ditudan akordioak proposatzen jarraitu nahi dut.

Eta, halaxe da, Otegi jauna, guk uste dugu Legebiltzarra, Legebiltzar hau, azkena izandako hauteskundeetan ehuneko 80ak babestu duena, herri honetako, Euskal Herriko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Euskadiko edo zuek nahi duzuen bezala deitu, bizitza politikoaren gune politikoa dela. Eta gainerako guztiak, gainerako guztiak, nabarmen egiten diola kalte alderdi politikoen arteko elkar ulertzeari. Eta gainerako guztia legezkotasun-printzipioaren aurka doala. Eta gainerako guztiak nahastu egiten duela euskal gizartea. Eta gainerako guztiak, Udalbiltzak esaterako, argumentario moduko bat eskaintzen diola, guk nahi ala ez, zu bezalako jendeari, hona etorri, esan behar duzuna esan eta zure alderdiko kide izan ziren eta desagertu egin ziren edo Poliziarekin, kasu honetan Ertzaintzarekin, izandako enfrentamendu batean hil ziren pertsonak gogoratzen baitituzu, eta ez zenuen hitz bakar bat ere esateko kemenik izan ETAk nire legebiltzar-taldeko bozeramailea, Fernando Buesa hil zuenean.

Eta Fernando Buesa jaunak, nik bezala, beste gizon-emakume hauek bezala, beste alderdikide horiek be-

como todos los demócratas, lo que hacía era hablar con ustedes, dirigirles desde aquí nuestros criterios, nuestras ideas, nuestros proyectos políticos, y, mientras usted no tiene que esperar de nosotros absolutamente nada, nosotros de usted, de a los que usted da cobertura, podemos esperar lo peor, como por desgracia le pasó no sólo a Fernando Buesa, sino a mucha gente en esta sociedad por el hecho de defender ideas.

No es compatible la falta de gallardía cuando se trata de defender el asesinato o estar en contra del asesinato de ETA de un compañero de esta Cámara, con esos chistes de baja estofa que usted se trae en esta Cámara.

Por encima de todo, lo que tenemos que aceptar es la diferencia. Por encima de todo, lo que tenemos que aceptar es que nosotros pensamos distinto a usted, y que por el hecho de pensar distinto a usted no tenemos por qué tener la sombra macabra de ETA detrás de nosotros y tener que asegurar nuestra libertad desde la escolta que nos pueda dar el Gobierno Vasco o el Gobierno de la nación.

Eso me parece que es lo importante. Y para eso, vuelvo a decir, señor Ibarretxe, usted sabe, debe saber que nos tiene dispuestos. Para todo lo contrario, estoy convencido de que con tranquilidad, con prudencia, sin que esto sea, como dice el señor Madrazo, un circo, con serenidad, le diremos que no a lo que tengamos que decir.

Muchas gracias. *(Aplausos.)*

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Redondo jauna.

Antes de conceder el turno al siguiente interviniente, señorías y señores de los medios de comunicación, recordarles a ustedes que está prohibido el uso de telefonía móvil con llamada sonora en este salón de sesiones. Sean respetuosos con los intervinientes y con la sesión en su conjunto, y les ruego apaguen o utilicen otros sistemas. De lo contrario, yo creo que en un futuro nos van a obligar a que instalemos unos sistemas que eviten la cobertura de esos sistemas de telefonía en el salón de sesiones. Gracias.

Aurrera joanez, Euskal Talde Popularreko ordezkaria Mayor jaunak dau hitza.

El Sr. **MAYOR OREJA**: Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios.

Yo quería no desenfocar mi réplica, y ciertamente no era nada fácil hacerlo así. Porque he de decir que, con todos los sinsabores que he podido tener a lo largo de estos meses, yo he tenido la sensación de que el candidato era yo en este debate de investidura. Y ustedes me han dado una inmensa alegría, porque ha habido algunos minutos, les aseguro, en que tenía la sensación de que había ganado yo las elecciones y que el Lehendakari era el dirigente principal de la oposición, que además entraba ardorosamente a la descalificación personal, y desde una rabia que yo no llego a comprender ni entender.

zala, eta uste dut azken batean demokrata guztiek bezala, zuekin hitz egiten zuen, hemendik gure iritzien berri ematen zizuen, gure asmoen, gure proiektu politikoen berri, eta zuk guregandik ezer espero beharrik ez duzun bitartean, guk zuregandik, zuk estaldura ematen diezunengandik, okerrena espero dezakegu, tamalez Fernando Buesari ez ezik gizarte honetan bere asmoak aldezteagatik beste jende askori ere gertatu izan zaion bezala.

Kemenik eza ez da bateragarria hilketa aldeztu behar denean edo ETAk Ganbara honetako kide bat hiltzearen aurka egon behar denean, zuk Ganbara honetara ekartzen dituzun txiste merke horiekin.

Gauza ororen gainetik desberdintasuna onartu behar dugu. Gauza ororen gainetik onartu behar dugu zuek eta guk ez dugula berdin pentsatzen, eta zuek bezala ez pentsatze hutsarengatik ez dugula zertan ETAren itzal makabroa izanik gure atzean eta ez dugula zertan gure askatasuna Eusko Jaurlaritzak edo nazioko Gobernuak eman diezagukeen eskoltarekin ziurtaturik.

Niretzat hori da garrantzitsua. Eta horretarako, berriro diot, Ibarretxe jauna, zuk badakizu, jakin behar duzu, prest gaituzula. Aurkakorako, ziur nago lasaitasunez, zuhurtziaz, hau, Madrazo jaunak esan duen bezala, zirko bihurtu gabe, lasaitasunez, ezezkoa emango diogu ezezkoa eman behar diogunari.

Eskerrik asko. *(Txaloak.)*

**LEHENDAKARI** jaunak: Gracias, señor Redondo.

Hurrena esku hartu behar duenari txanda eman baino lehen, komunikabideetako jaun-andreok, gogoratu nahi dizut debekatuta dagoela bilkura-areto honetan telefono mugikorrak soinudun deiarekin erabiltzea. Izan zaitezte abegitsuak legebiltzarkideekin eta bilkurarekin oro har, eta erregutzen dizuet itzaltzeko edo beste sistema batzuk erabiltzeko. Bestela, nik uste dut etorkizunean bilkura-aretoan telefono sistema horien estaldura eragotziko duten sistemak ezartzera behartuko gaituzuela.

Continuando con la sesión, y en representación del Grupo Popular Vasco, tiene la palabra el señor Mayor.

**MAYOR OREJA** jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok.

Nik nahi nuen nire erantzuna ez desbideratzea, eta ez zen batere erraza hala egitea. Esan behar baitut, hilabete hauetan izan ahal ditudan gazi-geza guztiekin, inbestidura-eztabaida honetan hautagaia neu nintzela iruditu zaidala. Eta zuek poz handia eman didazue, minutu batzuetan, ziurtatu egiten dizuet, iruditu baitzait neuk irabazi ditudala hauteskundeak eta lehendakaria oposizioaren buruzagi nagusia zela, zein gaitzespen pertsonalean sutsuki sartu den, nik ulertu ezin dudan amorruz beteta.

Usted con su intervención en la réplica, señor Ibarretxe, he de decir que personalmente me ha demostrado que lo que más le preocupa no es la falta de libertad en este país. Mire, si usted escucha otra vez su intervención, además de ver cómo se pierden los papeles, usted habrá visto que parecía que el problema no era ETA en este país, que eran el PP y su candidato, y que quien tenía que desaparecer en el País Vasco eran el PP y su candidato. ¿Ése es el desarme verbal de que usted hablaba? ¿Ésa es la centralidad política que usted decía representar?

Yo sé que algunos le dirán que qué bien ha estado usted esta tarde, porque usted se ha atrevido a decir muchas cosas al señor Mayor Oreja, y ya era hora. Pues, mire, le diré que no ha estado nada bien, que ha perdido los papeles, que ha perdido los nervios, y que evidentemente no ha sido el representante o el candidato a ser el representante de todos los vascos. *(Aplausos.)*

El Sr. **PRESIDENTE**: Silencio, por favor. Silencio, por favor…

El Sr. **MAYOR OREJA**: Señoras y señores parlamentarios, ¿no hemos quedado en que en este país había que desterrar esos conceptos de victoria y de derrota? En las intervenciones de sus grupos políticos y de usted únicamente les faltaba que hubiesen venido con unas camisetas al estilo de Euskal Herritarrok diciendo: “Mayor Oreja ha sido derrotado y ha sufrido un *shock*”. *(Risas.)*

Es que es lo que les faltaba, porque parecía que ése era su interés, decir cinco o seis veces en su intervención que se había derrotado.

¿No habíamos dicho que incluso el concepto de la derrota y de la victoria de ETA era un concepto que no era útil, que no era eficaz, que este país estaba harto de vencedores y vencidos, de derrotas y de victorias? ¿Y por qué entonces esa obsesión con el candidato del PP? ¿A usted le molesta más que haya una alternativa de gobierno, o que quiera ser una alternativa de gobierno, que otras cosas en este país? Es lo que parece perturbarle, o es lo que parece que a usted le saca de las casillas, esa posibilidad.

Mire, ¿cómo no va a ser, un partido político con mayoría de edad, un partido con vocación y con voluntad de alternativa? ¿Usted cree, al día siguiente de que perdiera las elecciones el Partido Socialista…? ¡Al día siguiente eran la alternativa! Y el partido conservador inglés, después de la victoria de los laboristas, al día siguiente está en el Parlamento para ser alternativa. Y están para perfeccionar la alternativa, en España, en Gran Bretaña y en todos los países.

Cuando ustedes dicen: “¡Es que nos querían echar del Gobierno…!” ¡Como todos los partidos de la oposición! *(Risas.)*

Desalojar del Gobierno al partido democráticamente, modificando los estados de opinión y salvaguar-

Erreplikan egin duzun saioarekin, Ibarretxe jauna, esan behar dut zuk zeuk egiaztatu didazula zu gehien kezkatzen zaituena ez dela herri honetako askatasunik eza. Begira, zure saioa berriro entzuten baduzu, zeure onetik nola atera zaren ikusteaz gainera, ikusiko duzu badirudiela herri honen arazoa ez dela ETA, PP eta bere hautagaia baizik, eta Euskal Herritik desagertu behar dutenak PP eta bere hautagaia direla. Hori al da zuk aipatu duzun hitzezko desarmea? Hori al da zuk ordezkatzen duzula diozun zentralitate politikoa?

Nik badakit zenbaitek esango dizula ongi aritu zarela gaur arratsaldean, Mayor Oreja jaunari gauza asko esaten ausartu baitzara, eta bazen ordua. Bada, begira, nik esango dizut ez zarela batere ongi aritu, zeure onetik atera zarela, zeure senetik atera zarela, eta, hain zuzen ere, ez zarela euskaldun guztien ordezkari izan behar duen ordezkaria edo hautagaia izan. *(Txaloak.)*

**LEHENDAKARI** jaunak: Isilik egon zaitezte, arren. Isilik egon zaitezte, arren...

**MAYOR OREJA** jaunak: Legebiltzarkide jaunandreok, ez al dugu erabaki herri honetan baztertu egin behar direla garaipen eta porrot kontzeptuak? Talde politikoen saioetan eta zure saioan Euskal Herritarrok Taldeak ekarri ohi dituen antzeko kamisetekin etortzea bakarrik falta izan zaizue, honako hau idatzita: “Mayor Oreja jauna garaitu egin dugu eta *shock* bat jasan du”. *(Barreak.)*

Horixe baino ez zaizue falta izan, bazirudien horixe zela zuen interesa, zuen saioan garaitu egin dela bospasei aldiz esatea.

Ez al genuen esan porrotaren kontzeptua eta ETAren garaipenaren kontzeptua ez zirela kontzeptu baliagarriak, ez zirela eragingarriak, herri hau nazkatuta zegoela garaileak eta garaituak izateaz, porrotak eta garaipenak izateaz? Eta, horrenbestez, zergatik izan da halako itsukeria PPko hautagaiarekin? Zu herri honetan beste gauza batzuk izateak baino gehiago gogaitzen al zaitu beste gobernu-alternatiba bat izateak, edo gobernu-alternatiba izan nahi duen aukera izateak? Badirudi horrexek asaldatzen zaituela, edo badirudi horrexek, aukera horrek, ateratzen zaituela zeure onetik.

Begira, nola ez da, bada, izango adinez nagusi den alderdi bat, alternatiba izateko gogoa edo borondatea duen alderdi bat? Zuk uste duzu, Alderdi Sozialistak hauteskundeak galdu zituen hurrengo egunean...? Hurrengo egunean alternatiba zen! Eta Ingalaterrako alderdi kontserbadorea, laboristek irabazi ondoren, hurrengo egunean alternatiba izateko zegoen Parlamentuan. Eta alternatiba ontzeko daude, Espainian, Britainia Handian, eta herrialde guztietan.

Zuek honako hau esaten duzuenean: “Jaurlaritzatik bota nahi gintuzuen...!” Oposizioko alderdi guztiek bezala! *(Barreak.)*

Alderdia Gobernutik demokratikoki joanaraztea, iritzi-egoerak aldatuz eta gizarteak izan ditzakeen arazo

dando los grandes temas que puede tener una sociedad, pero la vocación de un partido que está en la oposición es sustituir a quien está en el Gobierno democráticamente. Y eso es perfeccionar, al día siguiente del resultado electoral, una alternativa.

A mí me gustaría, hablando de victorias y de derrotas, que usted viniese un día a este Parlamento, después de ganar esas elecciones, y dijese: "Mire, el partido que ha perdido…, por otras muchas razones, pero una de ellas es que en la tierra en la que está haciendo política tiene limitada su libertad".

Yo ayer preguntaba exactamente la situación de nuestros Ayuntamientos, y me daban un dato que a usted le debe sobrecoger. Mire, tenemos 249 Ayuntamientos en el País Vasco; nosotros hemos presentado 188 candidaturas, pero candidaturas autónomas, autóctonas de verdad, 67. Mire, eso, en clave radical de comunidad nacionalista, un éxito; en clave democrática, un fracaso, y para un gobierno y para un lehendakari que lleva años gobernando este país debería ser un escándalo, un escándalo.

Y sería bonito que un día dijese: "Yo he ganado las elecciones, pero a unos partidos que no pueden hacer política en más del 60 por ciento de la geografía del País Vasco, porque allí, en esos Ayuntamientos, no les dejan hacer política". Y tienen votos, y hay fuerza política, pero ni siquiera se acercan a saludarles las personas que les han votado, porque tienen miedo. No sólo del PP, sino que puede haber también representantes del Partido Socialista, concejales, que no conocen ni siquiera a los votantes de este país.

Quiero decirle que no se trata de haber sido Ministro de Interior. Simplemente es ver, a la salida de este acto, de este debate, ver cómo están inundados de escoltas los bares próximos a este lugar. El espectáculo en cada acto público que tenemos quienes llevamos escoltados a todos los cargos electos. Eso no es haber sido Ministro de Interior; es tener simplemente un poco de sensibilidad humana y personal ante la situación que viven algunas personas y algunos políticos.

Yo quiero decirle la trampa, la tregua-trampa, el diálogo-trampa… Yo he escuchado al portavoz de Euskal Herritarrok, que lo ha confirmado de pe a pa. No sé si dice la verdad, usted dice que está mintiendo, pero el relato que ha hecho de lo que pasó en el año 98 es la Biblia. Yo no digo más.

Yo lo que le digo es que toda esa obsesión de que algunos tenemos la trampa como referente… Mire, hay relatos, hay verdades que evidentemente ponen de manifiesto lo que sucedió en aquellos años. No hay ningún invento, hay una certeza moral, y usted sabe muy bien que lo pensamos de esta forma y de esta manera porque he tenido la ocasión de decírselo personalmente.

Pero vamos a plantearnos ya las cuestiones de futuro que usted ha planteado hoy aquí, y que yo también

handiak zainduz, baina oposizioan dagoen alderdi baten bokazioa Gobernuan dagoena demokratikoki ordezkatzea da. Eta hori, hauteskunde-emaitzaren hurrengo egunean, alternatiba bat ontzea da.

Nik nahiko nuke, garaipenez eta porrotez mintzo garenez, zu egun batean Legebiltzarrera etorri, hauteskunde horiek irabazi ondoren, eta honako hau esatea : "Begira, hauteskundeak galdu dituen alderdia... beste arrazoi askorengatik, baina arrazoi horietako bat da politika egiten ari den lurraldean mugatuta duela askatasuna".

Nik atzo gure udalen egoera zehatz-mehatz zein den galdetu nuen, eta harritu egin beharko zintuzkeen datu bat igorri zidaten. Begira, 249 udal ditugu Euskal Herrian; guk 188 zerrenda aurkeztu ditugu, baina hautagai-zerrenda autonomoak, benetan bertakoak direnak, 67. Begira, hori, abertzale-erkidegoaren ikuspegi hertsitik, arrakasta bat da; ikuspegi demokratikotik, porrot bat, eta herri hau gobernatzen urteak daramatzan gobernu batentzat eta lehendakari batentzat eskandalua izan behar luke, eskandalua.

Eta polita litzateke egun batean zuk honako hau esatea: "Nik irabazi ditut hauteskundeak, baina Euskal Herriko geografiako ehuneko 60an politika egin ezin duten alderdiei irabazi dizkiet, han, udal horietan, ez baitiete politika egiten uzten". Eta botoak dituzte, eta indar politikoa dago, baina ez dira botoa eman dieten gizon-emakumeak agurtzera ere hurbiltzen, beldur baitira. Eta ez PPkoak bakarrik, egoera berean egon daitezke Alderdi Sozialistako ordezkariak ere, zinegotziak ere, eta kasu askotan ez dakite herri honetan botoa nork ematen dieten ere.

Esan nahi dizut kontua ez dela ni Barne ministroa izan naizela lehenago. Ikusi besterik ez dago ekitaldi honen irteeran, eztabaida honen irteeran, egoitza honen inguruko tabernak bizkartzainez beteta nola dauden. Ekitaldi publiko bakoitzean kargu hautetsi guztiak eskoltatuta daramatzagunon ikuskizuna da. Hori ez da lehen Barne ministro izatea; hori pertsona batzuek eta politikari batzuek bizi duten egoeraren aurrean giza sentikortasun apur bat eta sentikortasun pertsonal apur bat izatea baino ez da.

Esan nahi dizut tranpa, su-eten tranpa, elkarrizketa tranpa... Euskal Herritarrok Taldeko bozeramailea entzun dut eta hitzez hitz egiaztatu du. Ez dakit egia dioen ala ez, zuk esan duzu gezurretan ari dela, baina 98an gertatu zenari buruz egin duen kontaketa Biblia da. Nik ez dut besterik esango.

Nik esaten dudana da zenbaitek tranpa dugula erreferentea esateko itsukeria hori guztia... Begira, urte haietan gertatu zena agerian jartzen duten egiak daude, kontaketak daude. Ez da ezer asmatu, ziurtasun morala dago, eta zuk badakizu era honetara pentsatzen dugula eta horrela pentsatzen dugula, zeuri pertsonalki esateko aukera izan baitut.

Baina hel diezaiegun zuk gaur hemen planteatu dituzun etorkizuneko gaiei, eta nik ere planteatu ditut,

he planteado, porque he de decirle que su intervención ha sido desproporcionada respecto a mi intervención. Usted sí que venía con los papeles escritos. Usted venía simplemente con una estrategia prefigurada: en el país hay dos extremos, Euskal Herritarrok-Partido Popular, y yo tengo que estar un poco más razonable con el Partido Socialista, evidentemente para colocar en los extremos a quienes me interesa colocar en los extremos. Esa estrategia es la que estaba prefigurada y es la que usted ha venido a desarrollar aquí, y luego además lo ha hecho con un ardor como si realmente usted fuese el candidato y yo el Lehendakari.

Pero en cualquier caso le quiero decir lo siguiente. Respecto a los conciertos económicos, por cierto, hay una intervención de un portavoz que a mí me ha hecho diputado el año 78. En el año 78 yo no fui de ninguna ponencia de conciertos económicos.

Yo lo que le quiero decir es que, mire, cuando a mí me dicen "¿ustedes qué legitimidad tienen en la defensa del Estatuto?", algunos tenemos la legitimidad de que hemos hecho campaña electoral por el Estatuto y hemos pegado muchos carteles a favor del Estatuto de Autonomía en el año 79.

Y cuando pertenecíamos a UCD algunos únicamente tuvimos una limitación de hacer campaña electoral, pero no por deseo nuestro, sino porque el Presidente del Gobierno y presidente de la Unión de Centro Democrático nos pidió, nos instó y nos exigió, todo al mismo tiempo, que no hiciésemos demasiada campaña electoral, porque la campaña electoral tenía que ser protagonizada casi exclusivamente por el Partido Nacionalista Vasco.

Y, como puede comprender, con ese doble esfuerzo, que es apoyar el Estatuto, hacer campaña por el Estatuto, y sin embargo al mismo tiempo no poder hacer toda la campaña que uno quisiera, a mí lo que me cuenta el señor Ibarretxe de lo que ha dicho un señor u otro, en un momento u otro, del Estatuto, a mí personalmente no me afecta. Porque he de decirle que algunos tenemos una trayectoria en defensa de los conciertos económicos y en defensa del Estatuto que evidentemente puede soportar cualquier posición. Y probablemente a lo mejor hasta yo he podido hacer por los conciertos o por el Estatuto más que usted, pero simplemente por una cosa: porque soy mayor que usted y porque en aquel momento estaba más en la política activa que usted. Pero en ese terreno ninguna lección respecto a lo que ha significado una trayectoria en defensa del Estatuto y en defensa de la Constitución.

Quiero decirle que nosotros vamos a seguir respaldando esencialmente dos grandes principios: el valor de la autonomía y el valor de la alternativa política en el país. En la medida en que sea posible el reforzamiento de los valores de autonomía, sabe usted que contará con el Partido Popular del País Vasco. En la medida en que usted siga ejerciendo un diálogo institucional en los debates en este Parlamento, contará con el diálogo del Partido Popular, que cree por encima de todo en el diálogo institucional para reforzar las instituciones y en las instituciones. Y, evidentemente, si hace otra cosa, pues, no contará con el apoyo del Partido Popular.

eta esan behar dizut zure saioa neurrigabea izan dela nire saioarekin alderatuz. Zuk ekarri dituzu idatzita paperak. Zu aldez aurretik aitzinirudikatutako estrategia batekin etorri zara: herrian bi mutur daude, Euskal Herritarrok-Alderdi Popularra, eta nik arrazoitsuagoa izan behar dut Alderdi Sozialistarekin, hain zuzen ere muturretan nik muturretan kokatu nahi ditudanak kokatzeko. Horixe da aitzinirudikatuta zegoen estrategia eta zu gaur hemen garatzera etorri zaren estrategia, eta zu hautagaia eta ni lehendakaria izango bagina bezala egin duzu, gar horrekin.

Baina, nolanahi ere, honako hau esan nahi dizut. Ekonomi Hitzarmenei dagokienez bozeramaile batek bere saioan diputatu izendatu nau 78an. 78. urtean ni ez nintzen ekonomi hitzarmenaren ezelako ponentziako kide izan.

Nik esan nahi dut, bada, begira, honako hau esaten zaidanean, "zuek zein legitimitate duzue Estatua aldezteko?", bada, 79. urtean Autonomia Estatutuaren aldeko kartel ugari erantsi izanak eta Estatutuaren aldeko hauteskunde-kanpaina egin izanak emandako legitimitatea dugula.

Eta UCDko kideak ginenean batzuek muga bakarra izan genuen hauteskunde-kanpaina egiteko, baina ez guk hala nahi izan genuelako, baizik eta Gobernuko presidenteak eta Unión de Centro Democráticoko presidenteak eskatu, premiatu eta exijitu zigulako, dena aldi berean, hauteskunde-kanpaina gehiegi ez egiteko, hauteskunde-kanpaina ia Euzko Alderdi Jeltzaleak bakarrik egin behar zuela eta.

Eta, zuk uler dezakezun bezala, ahalegin bikoitz horrekin, hau da, Estatutua babestu, Estatutuaren aldeko kanpaina egin, eta, aldi berean, nahi genuen kanpaina egiterik ez izan, bada, Ibarretxe jaunak esan didanak, hau da, Estatutuaz, une batean edo bestean, norbaitek halako esan duela eta besteak bestea, bada, ez du niregan inolako eraginik. Esan behar baitizut zenbaitek ekonomi hitzarmenak aldezteko eta Estatutua aldezteko izan dugun ibilbideak, zalantzarik gabe, edozein iritzi jasan dezakeela. Eta ziurrenik nik neuk ere zuk baino gehiago egin ahal izan dut hitzarmenen alde eta Estatutuaren alde, baina arrazoi bakar batengatik: zu baino zaharragoa naizelako eta une hartan zu baino gehiago sartuta nengoelako politika aktiboan. Baina alor horretan inolako leziorik ez Estatutuaren alde eta Konstituzioaren alde egin den ibilbideak adierazi izan duenari buruz.

Esan nahi dizut guk batez ere bi printzipio nagusi babesten jarraituko dugula: autonomiaren balorea eta alternatiba politikoaren balorea herrian. Ahal den neurrian zuk badakizu autonomi baloreak sendotzeak Euskal Herriko Alderdi Popularraren laguntza izango duela. Legebiltzar honetako eztabaidetan erakunde-elkarrizketa gauzatzen duzun neurrian, Alderdi Popularraren elkarrizketa izango duzu, gauza guztien gainetik erakundeetan erakunde-elkarrizketan sinesten baitu erakundeak indartzeko. Eta, jakina, beste zerbait egiten baduzu, bada, ez duzu Alderdi Popularraren laguntzarik izango.

Y si usted en el terreno del terrorismo y en el terreno de la lucha por lo que significa una limitación de la libertad en esta tierra da un paso adelante, le aseguro que tendrá el respaldo pleno y total del Partido Popular del País Vasco. Ésa es la posición de nuestro grupo político. No habrá ninguna sorpresa en nuestro grupo político.

En el tema de los conciertos económicos le quiero decir que si algo he dicho en Madrid ayer al Ministro de Hacienda es que, aunque las declaraciones que estaban haciendo los partidos firmantes del Gobierno eran unas declaraciones que dificultaban un ambiente de negociación, creíamos tanto en los valores del Estatuto de Autonomía y de la autonomía que nosotros les decíamos que se negociase de acuerdo con los valores de la autonomía del País Vasco.

Fíjese hasta qué punto se puede distorsionar una declaración, aunque evidentemente, como puede usted comprender, todas las declaraciones para superar el marco político y jurídico no son positivas para crear el ambiente necesario. Pero, pese a eso, si nosotros hemos estado en Madrid es para decir que los conciertos económicos se negocien de acuerdo con nuestras convicciones en defensa del Concierto Económico y del Estatuto de Autonomía.

